

2023
(3)

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

Lan eta agiriak / Trabajos y actas / Travaux et actes / Works and Proceedings



EUSKALTZAINDIAREN BULETINA



EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44
Posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • Webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Buletin hau beste agerkariekin trukutzen da.
Este boletin admite el intercambio con otras publicaciones.
Ce bulletin s'échange avec d'autres publications.
This bulletin can be exchanged for others by agreement.

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 2952-3036



2023
(3)
BILBO
ISSN 2952-3036

EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA



IDAZKETA KONTSEILUA

ANDRES URRUTIA
Euskaltzainburua

Kideak

ADOLFO AREJITA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia

PATXI SALABERRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

ANA TOLEDO
Euskaltzaindia

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia

Idazkaritza-lanak:

Euskaltzaindiaren Argitalpenak zerbitzuko teknikaria
Euskaltzaindiaren Egitasmoen bateratzailea

Aholkulariak:

Euskaltzaindiaren idazkariordea
Euskaltzaindiaren kudeatzailea

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

Euskaltzaindiaren Buletina Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. 1920an *Euskera* agerkaria sortu zen eta 100 urtean Euskaltzaindiaren bizitza akademikoa eta bere lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak argitaratu ditu. 2021etik aurrera, Euskaltzaindiaren bizitza akademikoaren berri emateko asmoz, *Euskaltzaindiaren Buletina* sortu zen. Aldiz, *Euskera* Ikerketa Aldizkarian artikulu akademiko eta bestelako eduki zientifikoak argitaratzen jarraitu dira.

EUSKALTZAINDIAREN BULETINA

AURKIBIDEA

[10-199] 1. EKITALDIAK

SARRERA-HITZALDIAK

- [12-36] **MIREN AGUR MEABE PLAZA** Euskaltzaindian sartzea
Itsaso bete mezu
- [37-46] **Castillo Suárez** euskaltzainaren erantzuna
Galtzearen arteaz
- [47-65] **CASTILLO SUÁREZ GARCÍA** Euskaltzaindian sartzea
Maitasunaren botanika
- [66-81] **Miren Agur Meabe** euskaltzainaren erantzuna
Zazpi gutun eta erditxo «Maitasunaren botanika»ri
- [82-95] **ITXARO BORDA XARRITON** Euskaltzaindian sartzea
Mugari tirorik ez
- [96-100] **Sagrario Aleman** euskaltzainaren erantzuna
Idatzi gabe ezin bihurtu denari bi hitz
- [101-138] **ANDRES ALBERDI GOROSTIAGA** Euskaltzaindian sartzea
Arauen itsasoan barna. Araua al da dena?
- [139-154] **Mikel Zalbide** euskaltzainaren erantzuna
Arraunlari trebe, lemaizain maisu eta laguna

AHOSKERA JARDUNALDIAK

- [156-157] *Miren Lourdes Oñederra*. «Agurra».
- [158-174] *M.^a Jesús Gil Valdés*. «La enseñanza de la pronunciación: por qué, a quién, cómo».
- [175-184] *Xabier Euzkitze eta Aner Euzkitze*. «Hitzetik kortsera».

Mahai-ingurua

- [185-199] *Ahoskera Batzordeko kideak*. «Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua araua, atalez atal».

[200-241] 2. HILBERRI-TXOSTENAK

- [201-204] *In memoriam Joan Mari Irigoien Aranberri (1948-2023)*
JOXEMARI ITURRALDEREN hitzak
- [205-215] *In memoriam Joseba Intxausti Rekondo (1936-2023)*
PAULO AGIRREBALTZATEGIREN hitzak
- [216-219] *In memoriam Mixel Oronoz Tricot (1935-2023)*
PEIO JORAJURIAREN hitzak
- [220-230] *In memoriam Jose Maria Rementeria Ibarluzea (1940-2023)* LONTZO
ZUGAZAGAREN hitzak
- [231-241] *In memoriam Xabier Mendiguren Bereziartu (1945-2023)*
JOSU ZABALETAREN hitzak
- [242-257] 3. IRIZPENAK ETA TXOSTENAK
Luis Mari Zaldúa Etxabe
Joan Arin Dorronsororen Material toponímico bilduma-lanaren digitalizazioaz eta ortografia egokitzapenaz

[258-345] **4. BATZAR AGIRIAK**

AGERIKO BILKURAK

[260-263] I. Donostia, 2023/01/27

[264-267] II. Lekeitio, 2023/04/22

[268-271] III. Altsasu, 2023/07/01

[272-277] IV. Baiona, 2023/10/28

[278-284] V. Getaria, 2023/11/25

OSOKO BILKURAK

[286-291] I. Donostia, 2023/01/27

[292-298] II. Bilbo, 2023/02/24

[299-305] III. Gasteiz, 2023/03/31

[306-309] IV. Lekeitio, 2023/04/22

[310-315] V. Baiona, 2023/05/26

[316-319] VI. Altsasu, 2023/07/01

[320-326] VII. Bilbo, 2023/07/21

[327-337] VIII. Iruñea, 2023/09/29

[338-345] IX. Getaria, 2023/11/25

[346-369] **5. ADIERAZPENAK**

Euskaltzaindiaren adierazpenak

[370-371] **6. ARAUAK**

Euskaltzaindiaren arauak

[372-404] **7. BERRIAK ETA OMENALDIAK**

[373-401] 2023ko albisteen kronika

[402-404] 2023an omenduak izan diren kideak eta Akademiak berak omen-
duak

[405-410] **8. JARDUNALDIAK**

Jardunaldien kronika

1. Ekitaldiak

Sarrera-hitzaldiak

MIREN AGUR MEABE PLAZA

Euskaltzaindian sartzea

Lekeitio, 2023-IV-22

MEABE PLAZA, Miren Agur
Euskaltzain osoa

Itsaso bete mezu

Hasierako agurra

Egun on eta eskerrik asko bihotzez, gaurko egun hau jantzi eta antolatzeko ardura eta lana hartu dozuen guzti-guztiei.

Alkate jauna eta Udalbatza.

Agintariak eta alderdi politikoetako ordezkariak.

Euskaltzain jaun-andrak.

Kofradia. Parrokia.

Musika, kultura eta kirol taldeak. Gizarte-zerbitzuak.

Joanes semea. Karlos. Senideak.

Ama. Aita. Tio Joseba.

Falta diren etxeko, lagun eta herritarrak.

Txikitako lagunak. Bilboko lagunak. Han-hemengo lagun guztiak.

Herritar heldu nahiz umeak.

Zorionekoa ni, hainbeste bide-lagun eta bide-erakusle izateagaitik.

Orain dala 54 urte, hementxe bertan izan nintzan Lekeitioko beste ume pilo bategaz batera, Lehen Jaunartze egunean, 1969ko apirilaren 13an. Sei urte eta erdi neukazan eta ordukoa izan zan nire lehenengo irakurketa euskeraz. Nire lehen mikrofonoa be, hauxe. Beste asko etorri dira gero.

Horrexegatik aukeratu dot toki hau, bere balio artistikoaz aparte, balio afektibo kalkulazina daukalako.

Batetik, txikitan *aittitta* Pedromari sakristauak aldarez aldare erabiltzen ninduan santu-santen ezaugarriak ikasten. Bestetik, esango neuke nire lehen alfabetatze-saioak hementxe gauzatu zirala, frankismoaren hondarretan.

Domeketako irakurgai hareek itxi eusteen geruza bat, denporaren poderioz azaleratu zana, bertso-lerroen kadentzian nahiz iruditerian: salmoak eta otoitzak, kalizak eta arantzazko koroak ez dira falta nire poemetan. Badaukat lagun bat behin edo behin aholku hau emon izan deustana: «Ez eizu leidu monja tonuagaz, e!». Baina mundu guztiak daki ni ez nazela monja.

Aurrekoei omena

Alfabetatze-eskola sakonagoak geroago etorri ziran, **Labayru Ikastegiak** antolatutako udako ikastaroetan, baina ordurako baneroazan zorroan bai ortografiari, bai lexikoari, bai morfosintaxiari buruzko oinarri batzuk.

Garai beretsuan, Magisteritza ikasten hasi eta, bizkaieratik baturanzko bidean, **AEK**ko ikastaro batean izena emon, eta hantxe izan neban **Xabier Kintana** idazle eta ikerlariaren barri. *Nazioarteko ipuinak* irakurri genduzan (1980ko liburua). Sinistuko deustazue sasoi haretan neure buruari galdetzen neutsala ea kapaz izango ete nintzan euskarazko titulua aterateko? Miresgarria erexten neutsan batuaren erregistro soilari. Kintana, zeuri zor deustut, besteak beste, neure-neure egin dodan berba bat: *bisutsa*.

Ondoren, Bilboko **Kirikiño Ikastolan** lanean hasi, eta *Hiztegia* 2000 izan neban vademecuma, euskeraren normalizazioan lanean ebilen jende askok eta askok lez.

Testuliburugintzara aldatu nintzanean, **Giltza argitaletxera**, 90eko hamarkadan, behin Leioako Unibertsitatera deitu neutsun zalantza bat argitzeko minutu eta segundo hitzen inguruan. Oso arretatsua izan zinan. Nork pentsau zure ordeko aulkia hartuko nebanik gero eta gero?

Hona hemen zuk egindako itzulpen bat, ez poeta erromatar batena, Yehuda ha-Levi poeta judu nafarrarena baino, xii. mendekoa. Zalantzan egon naz zer pasarte aukeratu, eta azkenean, 15.a hartu dot, ardoa aitatzen daualako eta gaur ospakizun-eguna danez... Bihar, gainera, apirilaren 23a, Liburuaren Eguna... Eta zer kasualidade polita, semeak jakinarazo eustanez, Vinalia Priora jaia, antzinako erromatarrek ardo barria dastatzeko eguna, eta mahastiak nahiz ortuak zaintzeko eguraldi ona eskatzekoa:

Bizia emanen nuke, gau batean,
laute eta txirula egokituen soinupean jaiki zen oreinagatik,
ene eskuan kopa ikustean honela esan baitzuen:
«Edan ene ezpainen artetik mahatsen odola».
Ilargia yod baten antzekoa zen
egunsentiaren jantzietan urrezko urekin izkiriata.

(Zure oharraren arabera, «yod» horrek, hebrear alfabetoaren hamargarren letrak, koma itxurakoak, irargiak urrezko igitaiaren antza eukala adierazoten dau).

Eta zuk, Xabier, zeure aldetik, **Eusebio Erkiagaren** lekukoa hartu zenduan.

«Ezagutzen dozue Eusebio Erkiaga?», galdetu neutsen behin etxekoei, gaztetxotan. Eta hareek erantzun: «Ezagutuko ez dogu ba! Udan etorten da eta parkean egoten da leiduten. Zer ba?». Eta nik: «Idazlea dalako». Eta eurek: «Bai... *Lekitxori* buruz idazten dau, baina guri gatx egiten jaku».

Jaioterria sarritan izan zan Eusebioren sormenaren ardatza: *Lekitxori* kantaten eutsan ohitura-koadruen estiloko erretratuak eginaz. Kaiganeko irudiak eta arrantzu onaren poza antzinako sinesmenen hutsminagaz batera nagusitzen dira haren lanetan.

Halako egun baten, gure amak Eskolapean eukan dendan agertu zan Eusebio. «Zeuri be gustaten ei jatzu lumari eragitea», esan eustan. Lumeari eragin... Bai, orduantxe hasita nengoan testutxoak taiutzen, ***Sustraia*** herriko fotokopia-aldizkari xumea nahiz ***Idatz & Mintz*** dotorean. Talarantz egin genduan, kontu-kontari.

Begi onetik hartu ninduan. Halantxe, Mertxe emazteak Bilboko etxean prestatutako merienda jan bitartean egin eutsazan hainbat ohar nire lehen poema-liburua izango zan paper-mordoari. Poetak poeta gurakoari lagundu.

Neure txikitasunean, pozik bihurtzen naz zuon hurrengo katebegia: bata, euskera modernoaren arnasa; bestea, kresalaren goramina. Biak ala biak euskal komunitateari ekarpen handiak egindakoak. Zuon eta zuon moduko beste batzuen konpromisoari eta argitasunari esker dago gure hizkuntza dagoen tokian.

Eta orain bai, badator hitzaldia...

Itsaso bete mezu

Itsasoak baldin badu iradokitzen.
Baldin eta eguna begiaren enfasia.
Baldin eta gaua ezpainaren doinua.
Itsasoa bada gure obraren zatia.

«Bakardadearen orografia»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 106. or.

Gogoeta honek itsasoak nire poesiagintzan dituen agerpideen deskribapena izan nahi du. Lekeitiarra izanda, nahitaezkoa zitzaidan gai hau aukeratzea. Poema-zatiak tartekatuko ditut azalpena hornitzeko (horietako batzuk oroigarri gisa banatuko ditugun postaletan topatuko dituzue).

Hamalau eskalatan egingo dugu nire itsaso poetikoaren zeharkaldia.

1. eskala: Bizi-aroen portua

Umezaroan portua genuen jolastokietako bat. Oholtzarik gabe, kapaz ginen gure irudimenak sortutako istorioak antzetzeko. Orain nostalgiaz gogoratzen dugu hori.

Neguan jauregiak osatzen genituen arrain-kaxa hutsekin, marineruei segika tabernaz taberna ibiltzen ziren arratoi-txakur bustien penaz. Oraindik badira harrizko eskailerak moilan, baina ez abarketen zirri-zarra garratzik.

Oroimena zine-oihal xaretu batekin pareka daiteke.

Galdu zen azazkaletan petaloak listuz apaintzeko gure ohitura hura. Eta kantoietako katakumeekiko ama-sena. Eta astilleroko murmurak eta lehen sostena. Pentsamenduak punpaka sentitzea zauri zolituaren antzera.

«Urtaroen postala»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 17. or.

Zenbat ez zion lagunduko portu-bueltaren kontenplazioak ni izandako neskatilari bere nortasuna mamitzen! Halaxe, **gazaroko** barne-bakarrizketetan, adibidez, ametsak gauzatzeko konfiantza ageri da.

Izan zen aro bat zeinetan / kolonia bat eraiki nuen ametsaren erresuman / eta kontsultategia zabaldu nuen kai-muturrean, (...) baina geroa / beldurrarekin jolasten zen mamu panpoxa besterik ez zen.

«Izan zen aro bat»,
Oi, hondarrezko emakaitz!, 44. or.

Azkenik, **zahartzaroaren** atarian, iraganeko asmoen errautsak batu beharra datorrenean, emakume heldua bere isla ikusten ari da moilako putzu batean eta uretan dagoen gasolio-aztarnak txikitako paradisu galdura eramaten du. Han, memoria den urruneko toki horretan, arrainen ezkatat lantejuelak ziren, eta behegaineko pintura-zipriztinak, makillajea.

Iletargiak atoian dakartza eguzkitan sendatzen jarritako potinak, galipota, hondarrean utzi eta hondarrak jandako oinatzak, algen usaina ilean, kresalarena gonan.

«Potxingoa moilan»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 46. or.

Baina memorian arrantzan egin nahi denean, haria eten egiten da memoriak itzultzen diguna beti delako iruzurtia, zatikatua, osatugabea, egiantzekoa... baina faltsua.

Dzingoan arrantza eginda, zeure burua atera nahi zenuke putzutik.
Baina hariak palt egiten dizu. / Eta irudiak ihes.
Eta ur hustuak urruntzen uzten zaitu, portuan aurrera, errautsezko bidean.

«Potxingoa moilan»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 46. or.

2. eskala: Arranegi versus Goikokalea

Txomin Agirrek *Kresala* nobelan dio Arranondoko postariak lanak izaten zituela eskutitzak banatzeko, herritarrek abizenetik barik ezizenetik ezagutzen zutelako elkar. Eusebio Erkiagak ere hainbat deitura xeble eman zituen *Arranegin*, jaioterriari eskainitako nobela dokumentalean. Ez dago dudarik: **tokitasunak izaera ezartzen du**.

Hurrengo poemak *Ama pixelatua* dauka izena, lehentxoago iradoki dudan moduan, memoriatik «pixelak, teselak, zelulak» baizik ez ditugulako arrantzatzen, gure osotasun biografikoaren txatal ñimiñoak.

Ama Dendari kalekoa zen. Aita, arranegitarra (...).

Amari izugarri gustatzen zitzaizkion almendra gazituak nahiz azukreztatuak; aitari, tripakiak eta arrainen arrabak (...).

Egun batean esan nion amari ametsetan egin nuela aita hil egiten zela barkua hondoratu. «Hobeto zeu hiltzen zarela amets egin», erantzun zidan, muker-muker. Ez zuen lorik egiten aita itsasoan zela denboraleak koadratuz gero (...).

«Ama pixelatua»

Nola gorde errautsa kolkoan, 26. or.

Esaldi soil horiek **idiosinkrasia konplexu bi** jartzen dituzte kontrasteen: ama *txaputxeruen* auzokoa zen (lehorreko ofizioak zituztenena: arotz, jostun, pintore...), baserritik kalera etorritakoen alaba; aita, berriz, itsastarra jaiotzaz eta lanbidez. Mundu horietako bat, nire psikean, fineziari eta diplomaziari loturik dago; bestea, berriz, indarrari eta adoreari. Bion elkargunea, maitasuna.

3. eskala: Hondartza, prisma bat

Nire idazkera osoan dago presente **nitahunaren autoafirmazioa**, batzuetan autoerretratuaren bidez. Honako poema honen izenburua *Definizioa* da.

Emakume kaiarduna naiz, / badakizu nor: / hondartza gurmatsuan zure inizialak / idatzi nahi lituzkeena; / edo hobeto, telefono-zenbaki bat / zure autoaren kristalean.

/ Baina hau ez da film frantsesa, / ezta kolonia-iragarki bat ere (...).

«Definizioa»

Bitsa eskuetan, 11. or.

Zein da autoerretratuon sorburua, nartzisismoa? Ez, baizik eta norberaren burua analizatu nahia, norberaren irudia eguneratu nahia eta besteen aurrean nola agertu gura dugun jakinarazi nahia.

Hondartzan dabilen emakume hori —estatikaren eta dinamikaren arteko kinkan— nire lehen poema-bildumatik agertzen da Penelope insumiso baten moduan itsasoak diktatutako poemak idazten.

Beti hortxe dagoen hondartzak, prisma batek bezala, hainbat egoera islatzen ditu:

— **Hutsmina**, falta direnen ausentzia.

Ama, behar zaitut hondartzan ikusi lasterka, / magia egiten denborarekin.

Eta ni pijama hutsean errepidetik zuri so, / olatuen merengea begi-ninietan (...).

Hegazkin batek, ordea, urrun daramatza / evax, belcor eta margaret astor kargamentuak.

Ama, behar zaitut barreka ikusi hondartzan, / eskua eskuan, / eguerdi gordinean.

«Ama hondartzan»

Zer da, ba, maitasuna?, 40. or.

— **Trantsizioa**, larriminez nahiz baretasunez.

Maskor-kiskirriak, urtero lez, oldean heldu dira hondartzara (...).

Txakur bat olatuei zaunkaka.

Saski batetik laranja bat pirritan (...).

Posible dirudi gauzen ordena esku bakarrarekin atontzea.

«Locus amoenus»

Bitsa eskuetan, 16. or.

— **Deslitasuna**, bizitzaren marejadak ur-ertzean lohiak ere uzten dituelako.

Beste behin —marea bizien sasoian, olatuen kipur horixkak harrapatua baitzuen hondartzaren okotza, zornezko sufle baten antzera—, neska berberak eta haren lagunak biluztu egin ninduten familietan jolasteko, neu nintzela-eta denen panpina. Olatu batek ipurdia busti zidan. Ur lohi hura eta mutiko atzeratu baten begirada gomutan ditudalako gomutatzen dut deslaitasuna. Gomutan, halaber, hotza eta lotsa.

«La Jolie Filleren automitologia»
Bitsa eskuetan, 26. or.

— **Erronka**, igeri egitea eustea delako.

Ez du balio men egiterik. / Garaia da esateko (...).
Behatu nire begiei, / bata itsua, bestea hautsez josia (...).
Hemen da bularra, / argitan erdi bi eginik, eta hain ilun (...).
Ispiluak ditut azalean: / nire trakeak badu izan bere mintzoa (...).
Ez du balio fedea galtzerik.
Zehatz jo du, tai gabe, urrunago igeri egiteko orduak

«Urrunago igeri»
Bitsa eskuetan, 13. or.

— **Hedonismoa**, ezen amodio likidoen garaian —batez ere maite den gizona anfibioa bada—, ura da etxe bakarra.

Amodioaren jokoan jokatzeko: / ur ertzean etzatea, beso betean;
/ barre egitea begiak itxita. / Maitatzea, hitz hori ahoskatzeke.

«Ubera»
Bitsa eskuetan, 21. or.

— **Kontzientzia**, igeriketaz aparte, flotean ibiltzeak tragediak ere gogorarazten dizkigulako.

Flotean utzi dut gorputza, / giza irudia jito mantsoan (...).
Rio Bravotik mila eta seiehun kilometrorra,
negarrez Rosa Ramirez:
seme-ilobak ahuspez ibaiko basatzen (...).

Eta eguzkiak kalma zuria irmotu arren,
zeruaren pisua nabari dut sorbaldan, / gris, hits, sor, mehatxukor.

«Flotean»
Nola gorde errautsa kolkoan, 116. or.

4. eskala: Orografiari buruzko apunteak

Lekeitoren ezaugarri fisikoei buruz galdetuz gero, edonork aipatuko luke Aittitta Makurra... Kukuka ibiltzen den haitz hori, ez da oraindik iritsi nire pometera; bai, ordea, beste hiru hauek:

— **Lazunarri, edo irlako moila**, Garraitz uhartea eta Isuntza hondartza lotzen dituen malekoia, Lea ibaiak zekarren hondarrari hesia jartzeko egindakoa orain mende batzuk.

Irlako moilan jarri ohi dira, / lerrorik lerro kaioak;
/ agur esanez, kaixo esanez, / zubipeko ura badoa.
Begia erne baldin baduzu, / loratuko zaizu ahoa,
/ begia erne baldin baduzu, / loratuko zaizu ahoa.

Piztuta dator potin txikian / ilun-txintan kriseilua;
/ idazluma ere dirdirutzen da / arimaren ispiluan.
/ Urrezko aingura arrantzatu du / sareginen tresmailuak,
/ urrezko aingura arrantzatu du / sareginen tresmailuak.

«Txaluparen bertsoak»
Zazpi orduak, 118. or.

Aingura hori urpean argiak jotzen duelako ematen du urrezkoa. Gara paleokristauan, katakonbetako mosaikoetan, adibidez, arrankilak fedea eta piztuera adierazten zituen. Niretzat horixe da **poesiaren aingura: fede bat eta piztuera bat**.

— **Garraitz irla bera**. Poetaren subjektibitateak esanahiak esleitzen dizkie inguruko elementuei, bere komenientziara janzten ditu, era batera edo bestera lagun diezaioten. Halandaze, irla izan daiteke, batzuetan, **amodio galduaren ikurra**.

Nire irribarrea erraz dator / euriaren bits urdinak kosta gardentzen duen egunetan.
Terrala firi-firi dabil etxeko leihoetan.

Urrundu zinen nigandik, urrundu zinen
baina beste batzuen gorputzean neurea zara oraindik (...).

Nik zuri txera egitea ez da zaila / laino keantzak isla tristea blaitzen duen egunetan.
Hormabelar apala tantaka dago teilartean (...).

«Izurdeen dantza»
Azalaren kodea, 43. or.

Edo izan daiteke **egonarriaren ikurra**, bizitzako bertigoen kontrapisua.

Beldur bazara, begiratu zure uharteari: / ez du ezagutzen sarerik.
Harkaitzak aldarazten dituzte urek, / labirinto opakuak ere higitzen.

«Uhartea»
Bitsa eskuetan, 23. or.

Edo izan daiteke **askatasunaren ikurra**, topaldi erotikoaren testuinguru basatia.

Udazkenak emango dio udak eman ez diona: grapa pare bat malkoei eusteko.
Hauxe da egoera, irlaren arrakala batean: hankak tinko itsas likenez beteriko harri
batean, eskuak haitzaren kontra, bularrak dantza zurian bainujantzitik kanpora.
Gizonak isuri du. Egurdiko argiak ezpainak isiotu dizkie ginebrakzko *lip gloss* batek
bezala. Igeri itzuli dira ertzera. Gizonaren hats garratza kriseilu bat da arekak argitzen.

«Trompe l'oeil»
Kristalezko begi bat, 128. or.

Halaber, uhartea **barne-uhartea** ere izan daiteke, isolamendu intimoaren txokoa.

Irlako etxean daukat ostatua: / uxatu nituen betiko mamuak (...).
Sobera ordaintzeke, kontuak kitatu. / Plazer dudanean, norbait gonbidatu.
Uhartearena naiz, neu naiz uhartea. / Hemen ikasi dut bizitzeko artea.

«Irlako etxea»
Begiak zerumugan, 71. or.

— **Antzoriz lurmuturra**, Santa Katalina. Lurmuturraren okots iluna
farolaren irriak argizatzen duenean...

Itsasargia: bolaluma tantaka gauaren tintontzian.

«Itsasargia»
Begiak zerumugan, 57. or.

5. eskala: Itsas zoologiaren lagin batzuk

Umetan, a zer afana izaten genuen *Vida y color* albumean kromoak *pegamento*
*Imedior*ekin itsasteko! Zenbatzen hasiz gero, aterako nuke album bat betetzeko
adina fauna-espezie nire poemetatik. Nabarmenenak:

— **Marmoka**. Dotorea, isila, traidorea inkontzientzian. Haserrea marmokaz
janzen da.

Utziko nizuke, oroigarri,
nire marmoka-pentsamenduen zartada: / koloretako hotzikara eta hazkura luzea.

«Azalaren kodea»
Marmokak, 50. or.

— **Marraxoa**. Erresilientea eta seduktorea, ez dio inoiz uzten igeri egiteari.
Drama emozionalei iskin egin eta unea gozatzeak biziraupena segurtatzen
dio.

Ahotsarekin irentsi nau, galdua ni marraxoaren eztarrian. (...) Marraxoaren bazka
ipurmamiak. Egin dzast, dzast, eder hori, hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas.
Martiri bat bezala ireki naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeure
naiz osorik, aleluia. Neure zara osorik, aleluia, o Jesus!

«Patti Smith Rimbaudekin ametsetan»
Bitsa eskuetan, 25. or.

– **Izurdea.** Adimentsua, noblea, albiste honen ekarlea Antzinarotik, eta baita patuaren irakurlea ere.

Zure ninian endredatu zenean izurde hil hurran haren ninia, horrek iragarri zituen betiko zure zoriak: «Hatsarekin puztuko duzu bela. Purpurinaz jantziko arrankilak».

«Potxingoa moilan»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 46. or.

Eta zer da hatsarekin bela puztea? Norberaren kodea erabiltzea, kemena batzeko.

Eta arrankilak purpurinaz janztea? Sufrimendua eraldatzea, edertasuna sortzeko.

– **Balea.** Gure herriaren armarrian oinarritzkoa: lehenago, ehizatu egiten genituen; orain, zaborrekin ito. Erantzukizun ekologikoaren enblema bihurtu dira.

Balearen sabelean / haizea intzirika plastiko artean.

Saihets-hezurretan trabaturik daukan hori zeu zara.
Eta neu.

«Ecomanual devotioenezcoa»
Nola gorde errautsa kolkoan, 126. or.

– **Kurkuilua.** Zimurra baina soinu betea, ederra bere bakantasunean, bere mugekin.

Kurkuilua topatu dut itsaspean. / Kontuz jarri dut mesanotxean.

Barakuilua ez dago osorik: / zulo-zimurrek egiten dute eder.

Murmurka diost ez aztoratzeko / galtzada hartzen badut, nahi barik, oker.

«Kurkuiluaren murmurra»,
Begiak zerumugan, 87. or.

6. eskala: Oinarritzko gastronomia

Ezagutzen nautenek ondo dakite nire izozkailuan ezin dela langostinorik falta. Ai, langostinoen kontsolazio-efektua! Gaztetatik datorkit hori.

Ez naiz besaulkitik higitu ere egin / papera eta boligrafoa hartzeko izan ezik.
Gau osoa eman dut / munstroak marraztu eta marraztu.
Goizaldean, kamamila-egoskia prestatu, / dutxa hotza hartu eta
langostinoak erosi ditut supermerkatuan, / itzuliko zaren ala ez jakiteke.

«Akidurazko oharrak-4»,
Azalaren kodea, 25. or.

Bekatu handia dut gula. Horrenbestez, **despentsa poetikoa** ere hornituta eduki behar, edozein jatetxetan legez: zizka-mizkak, arrainak, haragiak..., eta postrerako...:

(...) algak eta lastoa jan zure bularretik.

«Zapitxo intimoak»,
Bitsa eskuetan, 88. or.

A! Eta **gatza**. Ez al da itsas produktua? Horixe bai franko. Aldizka, **suntsipena** adierazten du:

Eta Itun Zaharreko Lot zenaren andrea bezala / geratu naiz Sodomako muino abailduetan
(Orube batean, lata eta arratoien artean), / gatzeko estatua bihurtuta,
desegitear euripean, baina taupaka.

«Ametsetako gatza»,
Bitsa eskuetan, 82. or.

Aldizka, **desira**:

(...) nire gorputzaren gatza bero busti zuri izara artean / nahi nuke gatza izan zure elurrean /

gatza zure ur gezan ura zure egarrian / gatza izan ezerk ase ez zaitzan (...).

«Plaisir d'amour»,
Bitsa eskuetan, 80. or.

Aldizka, **maitasunaren ezintasuna**:

Gatza emango dizut nik gosari, urre zuria.
Gure bihotz pisuek flota dezaten, arindurik,
ezinaren ur erabilian.

«Gaua eta gatza»,
Bitsa eskuetan, 67. or.

7. eskala: Kresala, pasioaren perfumea

A zer durduzadura den kresalarena!

«Mahatsaren Andre Mariaren mandatua»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 71. or.

Zentzumenen pizgarri, badu kresalak zerikusirik abenturarekin eta arriskuarekin.

Zabalik utzi nuen bart logelako leihoa / eta piztia bat sartu zen (...).
Ez zekien biluzik nengoena, bere zain, / ezta bere izena nekienik ere.
Animalia ugaztuna zen, / burusoildua, / bularrean bilo gutxikoa, / ipurdi irtenekoa,
begiak kilometroz eta loguraz beterik / eta tabako, kresal eta ogitarteko hotzen nahastea
ahoa.

«Memoria ez galtzeko oharrak-2»,
Azalaren kodea, 13. or.

Aho kresaltsutik jausten den adurrak txinpartaka jartzen du zorua, «infernuko
itsasoen moduan» («Memoria ez galtzeko oharrak-2», Azalaren kodea, 13. or.).

Eta desiraren erresakan, **gorputzak olatu** dira, eta halabeharra naufragioa,
triskantza bat non izenak diren identitate-seinaleak.

Eldarnioaren zurrumbiloan uzten zaitut, / nire gorputzaren ohol blaituei lotuta.
Laster olatu bi hasiko dira nahas-mahasean korrika:
batak zure izena dakar apar gainean; / bestea neurea apar azpian.

«Amoniako zaporea»,
Azalaren kodea, 61. or.

8. eskala: Itsasoa, doluaren gordailu

Maite izandakoen errautsak batzen dituenean, **ura da hil-oihala**. Testuinguru
horretan, natura sintetikoki aurkezteak biziaren iraupena azpimarratzen du.

Ez zaude jada, esan dut, bai (...).
Triste, triste jarri da mundua. / *Lacrimosa dies irae, lacrimosa dies illa*.

Min oro da absolutua. Min oro da erlatiboa. / Ez dakit non den zentzabidea.
Olatuak. Uharteak. Kalatxoriak. /

Faltan dut zure hatz-koskorren deia atean, / sekula izango ez dugun hitz ase eder luzea.

«Kronika»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 146. or.

Bestalde, dolualdian gertatzen da **txalupen metamorfosia**: bizitzako uretan
dabiltzanean, zapatak txalupa airosoak dira; heriotzak hilkutxa bihurtzen ditu.

Zazpitan zazpi aldiz hil zaitut.

Zazpitan zazpi baitziren Erromako hartxoriak zeruan,
zuk eta biok Tiber ibaiaren bazterrak
korritu genituenean
berbetan, berbetan, berbetan (...).

Kilometroak egin zituzten nire zapatek, / orduan txalupa, orain berriz katabutak.
Erromako txorien harrabotsa, / saldoan gatoz baina bat gara / eta banaka hilko gara,
bakarka.

«Erromako hartxoriak»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 133. or.

Marierrrotako (Marea-errota) basatzen preso dauden **egurrezko eskeletoek**,
antzeria, hondamendia eta ahaztura iragartzen digute:

Egon al zara noizbait begira / itsasadarreko paduran
animalia zaurituen antzeria / egonean dauden ontzi zaharrei?

Zerurantz jasotzen dituzte masta zarpailak / beren bidaietako oroitzapenak
atzamar higatu horietan aupatuz. /
Lizunezko primulak loratu zaizkie / arotzak izena zizelaturiko oholetan (...).

«Ontzi zaharrak»,
Zer da, ba, maitasuna?, 63. or.

9. eskala: Genealogia femeninoen ozeano horiek

Nire poemetako emakumeak, errealak nahiz fikziozkoak, erreferentzialak
dira gure belaunaldiko emakumeontzat heziketa sentimentalari edota literarioari
dagokionez. Batzuetan, *alter ego* gisa agertzen dira, edo solaskide, edo beren artean
nahasita, edo mezu-jasotzaile huts moduan.

Horietako bat da **Wendy**, Peter Panen laguna, ama zuhurraren, zainketen edo
debozioaren estereotipoa. Dependentsia emozionalaren eredutzat hartu dut nik,
kostako Peter Panen kastak adikzioa sor baitezake.

Aspaldi utzia zuen Wendyk Sekula Betiko Lurralde, eta Peter Pan trankil zebilen surf
eta skate jolas berriak asmatzen haur galduentzat, bere bikientzat.
Urrun jada, Wendy, kamisioen andremaistra, gauero azaltzen zen leihora autoprotesta
egitera: «Koralaren eta algen jonki ostia bat naiz!». Izaretan baziren oraindik huskeriak:
maskorak, hegaztien lumak, hazia.

Eta Wendyren bagina jarioka hasten zen ametsetan. Eta esnatzean, arrazoiaren zartailuak
adina ekartzen zion gogora: «Agortzeaz duzu berpizteko denbora... Independentzia nire
arimarentzat! IN-DE-PEN-DEN-TZIA!».

«Wendyk zubi batetik salto egin...»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 56. or.

Beste itsaso zale bat, **Marguerite Yourcenar** idazlea, ekialdeko kulturen
ezagutzaile sakona eta bidaiari handia. Bere *Ipuin urdina* delakoan, *terra incognitara*
doazen zazpi merkatariren bidaia kontatzen du. Espedizio zoritxarreko horretan,
aberastasun-grinak zigorra izango du. Izan ere, absolutuaren bilaketa alferrikakoa
da.

Marguerite geldi dago begiekin itsaso bila. Premiazkoa du bide-orria deskribatzea, eta
fereka dagio folioaren ikur urdinari. Urdina zen ipuin urdin hartako zazpi merkatarien
irrikaren istila, madame Yourcenar. Denek desio zuten harribitxi bikainena. Aitzitik,
bitxiak urtu egiten dira hatz gosetiek ukitzearekin batera. Berak badaki ez dagoela
azkenean saririk, euripeko eskalearen nini itsuan preso hartutako argia izan ezik. Orain
ez zait axola *il amore, tell me more, tell me more*, baina bai nire sostenaren igarobide-
arkuak, ai, oi, ei, traidore.

«Ilargia Genovaren ondoren»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 65. or.

Eta itsasoan dabil, baita ere, **Mary Shelley**, Frankenstein kreaturaren sortzailea,
piano garden bat jotzen. Piano ikusezin hori hainbat gauzaren sinboloa da:
askatasun-egarriarena, amodio erromantiko toxikoan harrapatuta dagoenaren
minarena eta, azkenik, gure aurreko emakume sortzaileen estatus sekundarioarena.

Gizon bi albotik pasatu zitzaizkion salba-txalekoekin, baina ez zuten ikusi. Eta bera
teklak astindu eta astindu zebilen, bere eskuak balira bezala galeoi baten mailuak
galernarekin borrokan (...) «Ekaitzaren mende zegoen Maryren maitea, hiltzeaz, hiltzeaz
bera berriro ere bakarrik uzteko, bizitza osoan legez, beste behin bakarrik eta beti. Zuk,
neure idazkari laztanak, ordena itzazu nire paperak eta zeureak, maita nazazu.

«Mary Shelley eta bere piano garden»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 69. or.

10. eskala: Ur-mitoen gazitasunaz

Nire poesiak, tarteka, sartu-irtenak egiten ditu mitologia klasikoan —ez ikuspuntu estetizista hutsarekin—, mitoak eguneratzea **gaurko munduko gatazkak polemizatzeko** estrategia bat delakoan. Kasu bi aipatuko ditut:

— **Nereidak eta kutsadura moralak.** Antzinaroan naufragoen salbatzaileztat hartzen ziren itsasoko ninfek ezin izan dute eragotzi Mediterraneoa migrariantzako kanposantu bilakatzerik.

Kutsadurak hil zituen Nereidak. Utzi egin zioten itsasoan galdutakoak salbatzeari. Maskaldu egin zitzaizkien tunikak, galdu egin zituzten koralezko koroak. Norakorik gabe zebiltzan itxaropenaren hiruhortzekoak ur-barrendegietan, iheslarien hezurrekin ziltzi-maltzan. Eta itsasoak hartu zuen Halloween parke akuatiko baten antza. Ez zen ageri ez ezirik, ez oliorik hondartzetan, ez zen ongi-etorriarik, Antzinateko kondairen kontrara. Nereidak akabatu zirenean, kraskatu egin ziren izar multzoak, ezabatu uharteak. Haien lantuak blaituko du gure sofamundia, sekulorun sekulotan.

«Nereiden akabera»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 119. or.

— **Sirenak eta kutsadura ekologikoa.** Neoliberalismoaren hipokresia salatzeke aitzakia bat dira.

Garbikariek eta erregaiek algak pozoitzen badituzte,
salba ditzagun sirenak,
latan sartuta.

Mitoak kontserban,
arrakasta segurua.

«Ecomanual devotioenezcoa»
Nola gorde errautsa kolkoan, 126. or.

Bistan da mitoek gaziak izan behar dutela: mito dultzeek ez dute pikatzen; kontrara, bertan gozo geratzeko gogo handitzen digute.

Mitologia grekolatindarrarekin batera, itsasoarekin zerikusia duten **mito biblikoak** ere tartekatu izan ditut; esaterako, sareak gainezka direla ur gainean

oinez dabilen gizonarena edo atzamarrarekin hondarrez egindako emakumea pizten duenarena. Bata nahiz bestea mirarien sortan sartzekoak lirateke, gizona buruzko ikuspegia aztertu nahi izanez gero (baina hori beste hitzaldi baterako geratuko da).

11. eskala: Tresnak (belak, arrauna, amuak eta mapak)

Lehenago aipatu dut **bela**, esanez norberak puztu behar duela bere ontziari norabide zuzenean-edo bultzatzeko. Eta noiz edo noiz, birrikak ahul badabiltza, autoerrukiari uko egin eta «belak erretzen ikasitako emeen larruan jarri» («Hirian ibiltzeko jarraibideak», *Nola gorde errautsa kolkoan*, 78. or.). Azken esfortzuak erabiltzea garaitzea da, helburua lortu nahiz lortu ez: ez errenditzea da egitandirik heroikoa.

Baliteke haizerik ez izatea, baliteke motorrik ez izatea nabigatzeko. Gaitzerdi arraun parek badugu. Nire **arrauna** boligrafoa da, pentsamenduaren eta hizkuntzaren aliatu leiala.

Handiegiak dira zure minak, denak nire gerrian urtzeko. Horregatik idazten dut boligrafo arraun bat balitz lez, bidegurutze batetik erauzi berria.

«Ibaiadarra»
Bitsa eskuetan, 22. or.

Izan ere...

Itxaropena arraun bat da, berdez pintatua.

«Itxaropena»
Zer da, ba, itxaropena?, 78. or.

Lehenagokoek zer sartzen zuten txalupan arrantzarako? Palu, erramu, bela eta kordel..., gure herriko kanta ezagunaren arabera. Hala ere, ez da milagro enpatxua egitea sarea dela, edo pita-haria dela, edo **amuak** direla. Zein estugarria den norberaren dorpeziaz edota mugez ohartzea! Botanikaren zientziara jo behar ernamuinak sortzeko.

Zergatik ez zenuen ikasi amuekin olgetan? Arrainen noblezian sinisten zenuen horri karrakatzen dabilzkizu bihotza, botanika-formula berriak ikertu bitartean.

«Potxingoa moilan»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 46. or.

Eta azken tresna, **mapak**. Inoiz «karta geografiko purpurak» («Colette ez da hemen bizi», *Nola gorde errautsa kolkoan*, 104. or.) izandakoak filosofia labur baten formulazio sinpleak dira, aforismoak, jakinik edozein barne-bidaiaaren abiapuntua haize-arrosaren mezua dela.

Begiak zerumugan, / argi-itzaletan mela.
Taupadak bide-orri, / han-hemen marinela.
Izarretan leiturik / arimaren arbela, / mapa-txikiak lagun, / neure arnasa dut bela.

«Haize-arrosaren mezua»,
Begiak zerumugan, 12. or.

12. eskala: Itsas belarrien bilduma

Batzuetan, itsaspean murgiltzen garenean, itsas belarren artean txirla nakaratuak bereizten ditugu, itsas belarritxoak. Halakoxeak dira euskera batuari aberastasuna eta kolorea ematen dioten geure berbak, beste herri batzuetakoak ez bezalakoak: *potxua* eta *txo*; *marmua*, *karrabasua*, *zeinerua*, *maritalakua*, *matxangua*, *mangolinua*; *parasma-metxia*, *kabania* eta *tangia*; *gangarabija*; *dzanga*, *dzingo*, *dzapart*; *bronparaka*, *auskaka*; *atezuan egon* edo *bauan-bauan egon*; *turrit egin* eta *palt egin*; *txitxiña* eta *txikiña*; *kinkirrinkoia*.... Itsas belarri horien —*lekitxarkaden*— hotsak, haretzek ematen dio, maitea, testuari poza!

13. eskala: Harea, arbel eta lehengai

Kostako umeontzat hondartzan dugu lehenbiziko arbela. Nire lehen **arbel poetikoa** ere, horixe.

Kalatxoriak begira-begira neuzkan / zure marrazkia hodartzan egin nuenean.
Olatua etorri eta joan. / Kalatxoriak, musuzapi zuriak harkaitzetan.

«Agurra»,
Begiak zerumugan, 12. or.

Hareak beti berdin, beti finko, beti bat irauteko ezintasuna adierazten du: **suntsikortasuna**, **galkortasuna**, geu garen biokonstrukzioaren ezaugarri behinenak. Ahal bezala moldaturiko eskulturak gara, eta nahiak ere iragankorrak.

Haitzetatik erauzitako muskuiluen markek / neure orbainak dakarzkidate gogora.
Hondarra hartu dut eskuetan, eta askatu: / horixe da gure nahikarien xedea (...).

«Flotean»
Nola gorde errautsa kolkoan, 116. or.

Hondarra soltatzea desjabetzea da: askatzen ikastea, ahazten ikastea, bizitzen ikastea. Urak inisial guztiak borratzen baititu, norberarenak eta inorenak.

Emakume katuduna da, badakizu nor, inoren inisialak hondartza gurmatsuan idatzi zituena, bere inisialak lurrean iltze batez grabatu zituena. Inisial oro, baina, ezabatu egiten dute olatuek edo euriak, balantzaren oreka izorratzeko.

«Colette ez da hemen bizi»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 104. or.

Kontzientzia horrek ematen die lotura semantikoa nire poema-bildumen izenburuei: **hondarra**, **azala**, **bitsa** eta **errautsa**. Hondarrean idazten dena olatuak ezabatzen du; azalaren kodea aldakorra da; bitsa, ezereza; eta errautsa, zer izan zen oroitu ezin duen hautsa.

14. eskala: Sormenaren ur irauliak

Itsasoaren koloreetan ikasbidea dago: **uraren kromatismoak** badu analogiarik gure pultsioekin, baita ahalduntze pertsonalarekin ere.

Itsasoa ertzean argiagoa den legez,
ez dute tindu bera minak eta orbainak.

«Exorzismoa»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 97. or.

Eta ahalduntze horretan oinarritzakoa da hitza, bizitzaren aurreko jarrera eta hitzak erabiltzeko modua bata bestearen mende daudelako. Sortzaileak obligazio zaila dauka: **ura iraultzea**; alegia, buelta ematea bere masa egokitu dadin gure denborak eta gure espazioak eskatzen dituzten etikara eta estetikara.

Lanbroa zeharkatu, gaza harilkatu, hormarriak ahokatu, testuingurua berrerratu: ura irauli.

«Uhobia»,
Bitsa eskuetan, 23. or.

Sormenaren uretan gabilta, belaz eta arraunez; txarrenean, besoekin paladaka ere bai. Uretan sartzen dugu bizia urak bizi gaituelako.

Itsasontzi baten maketa idazmahaian.
Botilan preso sentitzen naizenean
edo nasa lehorrean
edo zerumugarik gabe marea hiletan,
pieza hori harru
eta ur tanta bat botatzen diot.

Eta ontziak arnasa hartzen du,
bere zentzuaz jabetuta.

«Errituala»,
Nola gorde errautsa kolkoan, 97. or.

Paul Valéryk idatzitakoari omen eginez: «*La mer, la mer toujours recommencée!* / *O récompense après une pensée*»: 'Itsasoa, itsasoa, beti berriz hasia! / Oi, pentsamendu baten osteko saria'.

Mila esker.

Miren Agur Meabe Plaza
2023ko apirilaren 22an
Lekeition, Andre Mariaren Jasokundearen basilikan

Bibliografia

Oi, hondarrezko emakaitz! (Labayru, 1999).

Azalaren kodea (Susa, 2000).

Zer da, ba, maitasuna? (Elkar, 2008).

Bitsa eskuetan (Susa, 2010).

Kristalezko begi bat (Susa, 2013).

Zazpi orduak (Elkar, 2010).

Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020).

Begiak zerumugan (Elkar, 2020).

Eremu semantikoen zerrenda osagarria

EGURALDIA: langarra, galarrena.

FAUNA: maskorrak, maritalakoak, ubarroiak.

GUNEAK: ontziola, tala, talaia.

ITSASO MOTAK: txatarrazko itsasoa, itsaso xahutuzko begiok.

LANDAREAK: ofiurak, goroldioa, anemonak.

MATERIALAK: galipota, mahoia.

NAUTIKA: galeoiak, gerra-ontziak, baleontziak.

Castillo Suárez euskaltzainaren erantzuna M.A. Meaberen sarrera-hitzaldiari

Galtzearen arteaz

Alkate jauna, euskaltzainburu jauna, agintariak, euskaltzainak, jaun-andreak, eguerdi on.

Ez naiz akordatzeko noiz eta non ezagutu nuen Miren Agur Meabe. Uste dut Galeusca batean izan zela, hemen bertan, Lekeitio. Berehala pentsatu nuen ez ginela ongi moldatuko, ni birigarro baten moduan sentitzen nintzelako indioilar haren parean: bera handia eta koloretsua, irisatua eta elegantea, hezetasunarekiko eta hotzarekiko sentikorra; ni, ordea, bizkar uherrekoa, pasakoa eta negutarra, baina kantari ona. Berdin jarraitzen dugu: hark adjektiboak gehitzen dituen tokian, nik kendu egiten ditut; hark maionesa jartzen duen tokian, nik baztertu egiten dut; eta hark ematen dituen besarkada guztiak, nik eman gabe uzten ditut. Hala ere, beti izan dut ondoan. Beti babestu eta defendatu nau behar izan dudanean. Horregatik, niretako ohore bat da haren sarrera-hitzaldiari erantzutea, miretsi eta maite dudalako tamaina berean, niri, hori ere, asko nabaritu ez arren.

Itsasoaz aritu zaigu Miren Agur Meabe, eta niri Angel Erroren poema bat etorri zait burutara, *Marinelek gogoa itsasoan dute beti*:

Marinelek gogoa itsasoan dute beti,
bertze nahirik ez omen.
Lehorrean, belak, mesana masta,
lema faltan dituzte, mortu hezea.

Lehorrean marinelek
dakiten latin murrizta
nauigare necesse est, uiuere non
delakora mugatzen da.
Gu, lehorrekook,
hainbertzeko oroiminak,

hain *saudade* mingarriak
 hunkitzen gaitu
 eta marinelei buruzko poemak
 idazteari ekiten diogu.

Guk, lehorrekook, gure lehorrean
 inola ere ez dakiguna da
 marinelak, itsasoan bakarka,
 zeren minak ote dauden, zeren.

Angel Erro
 «Marinelek gogoa itsasoan dute beti»,
Eta harkadian ni (Elkar, 2002)

Horregatik ez naiz ausartuko itsasoaz aritzera. Angel Erro eta biok bezala poeta nafarra den Ramón Andrések dioenez, eremu idorretako idazleok irlekin egiten dugulako amets, baina ez dugu itsasoa maite. Seguruena beldurra ematen digulako. Niri behintzat, bai. Eta beldur bat beste batekin ordezkatu dut nire erantzunerako. Denok sentitu dugulako noizbait galtzearen beldurra, izan pertsona, objektua edo tokia.

Galtzen ikastea eta agurra onartzea. Bizitzak nahi ala ez erakusten dizkigun bi gauza dira. Galerei aurre egiteko idazten du Miren Agur Meabek. Agur esateko ere bai. Negar egiten du galerei neurria hartzeko. Idatzi egiten du gaitzetik ateratzeko. Baina, batzuetan, ez dago mina arintzerik, boligrafoak ez daki bereizten zer den lehenago, negarra edo mina, idatzia edo sentitutakoa, nahigabea edo gonbitoa. Batzuetan bihozmina biderkatu eta oinaze bihurtzen da, gainera. Orduan nahiago du gorputzik eduki ez, eta testu hasikin bihurtu, esaldi mataza, ohar-kaier. Finean, idaztea galtzen eta erratzen ikastea da.

Eta zer hoberik, gin-tonic bat baino, idatziko dugunaz hitz egiteko.

Baratzean eman dugu arratsaldea,
 zume zurizko besaulkietan jarrita,
 kiwi-jasminen aterpean
 adelfaren koreografiari begira brisan.

Hor dira artaziak, arrastelua, aitzurra,
 poeta orok behar dituen lanabesak.

Uraskan hasi dira igelak beren silabak askatzen,
 beti bat, beti bat, heriotzaren tenperatura bezala.
 Zenbat hildako hemen, belar artean
 esnatzeaz, gure aurreneko malkoarekin batera.

Zozoak palmondotik gorostira hegaka
 nire galderari itzuri: zertaz idatzi?
 Mahai gaineaz paratu ditut aukerak,
 aperitifako zizka-mizken antzera.

Memoria atalkatuak zirrimarratzen duen nortasunaz?
 Gure genealogiak hautsi beharreko markez?
 Pausatutako tokietan begiak bakandutako zeinuz?
 Indarkeria orotan bakoitzak itsasten dugun seiluaz?
 Desamodioaz eta doluaz eta heriotzaz eta doluaz
 eta damuaz eta doluaz eta doluaz eta doluaz?
 Poesiaren misterioaz, zertarakoaz, muga-egunaz?

Elur-marroak ez daki ura denik.
Errautsa zer da?
Zer izan zen oroitu ezin duen hautsa.

Ixiii..., eten dit Margaretetik gogoeten jitoa,
esku zimurrarekin neure eskuari helduta.
Atera ezazu beste kopa bat, *my dearest*,
zer egiten duzun, ez du larregi inporta.

Miren Agur Meabe
«Atwood andrea eta biok gin-tonic bat hartzen
Miramarren»,
Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020)

Meaberen idazkera beti dago bere bihotzaren gorabeheren eraginpean. Maite dituen baina maite ez dutenengandik urrutiratzen denean ere, bere atzetik heldu dira hitzak. Poema baten lehen zedarriak. Narrazio baten sarrera. Maitatzeari uzteko idazten du, beste batzuk maitatzen hasteko, edo bakarrik geratzeko tarte batez.

Meaberen lanak bizitzaz elikatzen dira —izan azalezkoa edo intelektuala—, baina intimoak bezain orokorrak dira, eta pertsonalak bezain unibertsalak. Bere testuak esperientziarekin lotuta daude, bizitakoa zein irakurritakoa. Irakurtzen duelako idazten du, eta badaki ezin izanen duela ezer irakurri idazten ari den horretan pentsatu gabe. Izan ere, norberaren itzaletik askatzea ezinezkoa da. Ezin da puskatu edo moldatu. Beti dago gurekin. Beti doa gurekin. Itzal hori besarkatuta idazten dugu, tarteka itolarria sentiarazten digun arren. Hala ere, beharrezkoa da denborak memoria desitxuratzea iraganari buruz hitz egin ahal izateko. Oroitzapenak mudatzen direnean has gaitezke horiei buruz idazten. Lehenago ez.

Baina, zeren arabera hautatzen ditugu gure urtebetetze-festako gonbidatuak? Alegia, gure poetika egiteko, zeren arabera aukeratzen ditugu bizi izan ditugun gertaerak, irakurri ditugun liburuak eta ezagutu ditugun pertsonak? Zeren arabera nahasten ditugu gezurrak eta egiak poema batean? Meaberen testuak ni bati buruzkoa dira beti, baina urtebetetze-festetan bezala, maiz etortzen zaizkigu burutara gonbidatu ez ditugunak ere. Etorri ez direnak. Eta hor sartzen da subjektibotasuna. Poemak memoria-ariketak baitira, finean, subjektiboak eta zehaztugabeak, baina egiantzekoak eta, beraz, eraginkorrak.

Norberaren literatur estiloa erabat loturik dago izaerari eta eskarmentuari. Meaberen idazkuntza hausnartua eta konpultsiboa da aldi berean. Beharbada horregatik ez du sekula idatzitakorik botatzen. Gorde egiten du dena, ustez zentzugabeak diren hitz horiek esanahia hartuko dutelakoan noizbait, edo beste zerbaiten erregai edo ongarri bihurtuko direlakoan. Izan ere, batzuetan oso gauza ederrak idazten ditugu, baina une horretan ez zaizkigu batere interesatzen.

Aniztasun formala da Meaberen poema-liburuaren ezaugarri nabarmen bat. Bertan aurki ditzakegu epitafioak, gutunak, postalak, narrazioak, hitzaldiak, idazlanak, koplak eta haikuak. Meabe, batez ere azken urteotan, etengabe ari da poemen formarekin esperimentatzen. Horrek egiten ditu bere liburuak askotarikoak eta ustekabeak.

Honakoa litzateke adibide garbi bat:

Lau gauza hauek kenduta
hobeto biziko nintzatekeen:
amodio batzuk,
lanbide hura,
soberako kiloak
eta idazteko grina.
SEMEAK BERENEZ
ASMATURIKO KONTRAEPITAFIOA.

Ez egin kasurik:
orain ere idazten ari da.

Miren Agur Meabe
«Epitafio bat Dorothy Parkerren estilora»,
Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020)

Gorputza modu askotara agertzen da Meaberen testuetan; areago, bera izanen da beharbada gorputzaz gehien idatzi duen euskal idazlea, emakumezkoa zein gizonezkoa. Gorputzaren atalak aipatzen ditu. Protesiak. Kristalezko begi bat. Izan ere, gorputzean islatzen da hobekien denboraren igarotzea —zahartzearen esperientziak aritzen da Meabe bere azken lanetan—. Gorputzak bere memoria

dauka. Gorputza behar dugu komunikatzeko, gure egoera emozionala aditzera emateko. Ezin da sentsazioez hitz egin gorputza aipatu gabe.

Meabek espresuki eskatzen die hitzei gorputza aipa dezaten; areago, gorputzaren gainbehera:

Ez utzi, hitzak, lurretik urundu nadin,
ganaduaren hatsetik, txibiaren odoletik.

Zuen orin margotuak limurtu baninduen,
xaloak zuek, nire lehen sostenaren loretxoa bezain.

Ez onetsi, hitzak, historiaz ahaztu nadin,
ideiaren logalduaz, fedearen giltzatxoaz.

Zuen hatz anizkoitzek zirri egin bazidaten luzaro,
nire bendak egosiz zuen presio-eltzean.

Ez onartu, hitzak, nire gorputza aipa ez dezadan,
bere lege aldakorrak, bere gainbehera zuhurra.

Bidarteak asko izan arren garraiatu banauzue,
kakalardoak pasteltxo ofizialaren zamaren azpian.

Ez zilegitu, hitzak, ofizio hau albora dezadan,
nahiz eta gordinak jo, nahiz eta onurak jan.

Azken obuluaren egunetik beste bat ari naiz bilakatzen.

Hitzok, ez nazazue bahitu
Renoir adeitsuaren ezein eszenatan.

Miren Agur Meabe
«Esakera hitzei»,
Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020)

Urtebetetze-festa baten antzekoak dira Meaberen poema-liburuak. Literaturan, zientzian eta historian aitzindariak izan ziren emakumeak gonbidatu ditu. Urteetan ezagututako emakumeak dira, eta horiek testuetara ekartzea ekintza feminista da. Bestalde, badaude fikziozko emakumeak. Elkarrekin hitz egiten dute, edo irakurlearekin, eta idazlearekin ere bai batzuetan. Meaberen *alter ego*ak dira zenbaitetan; bozeramaileak besteetan. «Fosforoak» deitu ditu Meabek, pospoloek bezala argia eta beroa ematen dutelako beren jakituria eta indarrarekin. Nahiz eta horietako batzuk giza eskubideen defentsan nabarmendu ziren, Meabe ez da poeta soziala, ez da bere idatzien bidez injustiziak salatzen dituen idazlea, baina bere —edo, hobeki esan, gure— emakumeen genealogia bat osatu du, pertsonala eta, beraz, lerratua, eta lortu du ahizpatasun edo sororitatea literatura gainditzen duena.

Pospoloek, ordea, hatz-puntak erre ditzakete. Orduan komeni da hatzak txorrotako uraren azpian jartzea zizta-mina desagertu arte, eta baselina egunean bizpahiru aldiz egitea, lasaitasun-sentsazioa luzatzeko. Bai sendatze-prozesuan, bai erredura sendatu ondoren, eguzkitan egotea sailhestu behar da. Azala sentibera gera daiteke asteetan, eta, beraz, eguzkitatik babesteko krema erabiltzea gomendatzen da. Baina ezinbestekoa da azal minbera izatea idatzi ahal izateko. Horrela bakarrik begira dezakegulako geure baitara.

Behaketa etengabea idazten du Meabek, zintzotasunez jokatzeko eta zuzentzeko gauza bera izanen balira bezala. Horiek horrela, ezin da Meaberen poesiagintzaz hitz egin minaz hitz egin gabe. Bere ustez, literaturak nahigabeak garatzeko eta pertsona hobea izateko balio du, eta idazteko —batik bat poesia idazteko— beharrezkoa da norberaren zauriak irekita edukitzea, sendatu gabe, orbaindu gabe. Nolanahi ere, haren literatura ez da sentimenduen deskribapen hutsa: emozioak gogoeta-gai bihurtzen dira. Zintzotasunez disekzionatzen du bere burua Meabek. Alabaina, nahikoa al da zintzotasuna poema ona izan dadin? Hortxe dago literariotasunaren gakoa. Nork bere burua ulertzeko saiakera izan dadin besteendako baliagarria. Hortaz, benetako bizitza aski al da benetako poesia egiteko?

Horixe *Geranioaren minipoetika* poeman plazaratu duen galdera:

Jarraitzen dut sukaldean idazten
makarroiak edo hitzak egosi bitartean.

Beste etxe batean. Geranio bat leihoan.
Zurtoinak esku bat dirudi, zerbaiten eske.

Gertaerak paper-mozkin bihurtu zaizkit.
Tentuz sailkatzen ditut, urrun galdurik begirada.
Baina zer esango dizut minaz? Zuk zer diozu?
Minaren amuak tenk egiten dit samatik.

Trantze horretan aitortzen dizut dena:
magalmina eta argidura eta bitsaren loreak.

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,
alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.

Badut erritmoaren sena, xehetasunetik joera,
irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea.

Zer diostazu, oro har, emaitzaz? Esadazu
benetako bizitza aski den benetako poesia egiteko.

Miren Agur Meabe
«Geranioaren minipoetika»,
Bitsa eskuetan (Susa, 2010)

Kontraesana eman dezakeen arren, galeraren ondorengoa beti da aurkikuntza edo irabazia, baina hara iristeko ezinbestekoa da hitzezko hesi bat zeharkatzea. Eta, horretarako, galeren zenbaketa doia egin behar da. Neurria hartu behar zaie tragedia txiki zein handiei.

Ni pertsonaletik *ni* kolektibora jauzi egiten du Meabek. Bere buruari buruz idazten du, baina *ni* hori beste *ni* batzuekin nahaspilatzeke baliatzen du. Errealitatearen eta fikzioaren arteko eremu lanbrotsuan dabil Meabe erosoan, autofikzioan. Izan ere, bizi duenaz idazten du, baina baita ere bizi nahiko lukeen horretaz, edo bizi izan ez duenaz; ez baita soilik bizi izan duen hori, irudikatu duen guztia ere bere bizitzaren parte bat da. Meaberen kasuan, bizitzaren eta obraren arteko batasuna hautsezina da. Poemak beti dira *ni* bati buruzkoak. Nolanahi ere, *ni* hori subjektibotasunez osatutakoa da, oroimenez hein handi batean —eta, esan

gabe doa, ez dago oroitzea baino gauza subjektiboagorik—. Halaber, askotariko *ni* bat da, plurala singularra izan ordez, beste indibidualtasun batzuen ordezkaria, beste batzuen ahotsa eta begirada dutenak. Meaberen talentuaren funtsa da, *ni* horren bitartez nahi duen efektua lortzen duela: irakurlearengana iristea.

Kontraesana eman dezakeen arren, hasierara bueltatuko naiz nire hitzaldiari bukaera emateko. Galtzearen arteaz egin zuen Elizabeth Bishopek poema zoragarria, *Artea*:

Galtzearen artea ez da zaila ikasten;
hainbeste dira galdu nahian diruditen gauzak
galtzean ez dakartela inongo hondamendirik.

Gal ezazu zerbait egunero. Onartu ezazu
ateetako giltzak galtzeak sortutako nahasmendua, alferrik galdutako mementoak.
Galtzearen artea ez da zaila ikasten.

Praktika ezazu orduan, eta galdu gehiago eta azkarrago:
lekuak eta izenak, eta egin asmo zenituen bidaiak oro.
Ezerk ez du hondamendia ekarriko.

Amaren erlojua galdu nuen. Eta hara!, ene arimako
hiru etxeetako azkena edo azken-aurrekoa desagertu egin da.
Galtzearen artea ez da zaila ikasten.
Bi hiri xarmagarri galdu nituen. Eta zabalagoak diren
zenbait eremu: bi ibai, kontinente bat.
Faltan ditut, baina ez zen hondamendirik izan.

Zu zeu galtzean ere —keinu burlatia, hainbeste maite dudana—
ez nuen gezurrik esan behar izan.
Bistan da: galtzearen artea ez da zaila ikasten
hondamendiaren traza izan dezakeen arren.

Elizabeth Bishop
«Artea».

Itzulpena Jon Benitoren,
Castillo Suárezen *Bala hutsako* (Susa, 2020) liburuan
argitaratua.

Ez digute galtzen irakatsi. Galera zein heriotza —bizitzan galerarik handiena eta saihetsezina den hori— ezkutatzen ahalegintzen den munduan bizi gara. Hala ere, gauza asko galdu ditugu. Ohitu gara, gero eta gauza gehiago eta bizkorrago galtzen; Bishop bezala, bizitzari ironiaz eta distantziaz erreparatzen.

Baina dena ez da galera. Euskaltzaindiak euskaltzain berri bat irabazi du, hitzak maite dituen eta lanari beldurrik ez diona. Ongi etorri Euskaltzaindira. Literaturaren eremuan dena dugu eginkizun eta egingarri.

Castillo Suárez García
2023ko apirilaren 22an
Lekeition, Andre Mariaren Jasokundearen basilikan

CASTILLO SUÁREZ GARCÍA Euskaltzaindian sartzea

Altsasu, 2023-VII-1

SUÁREZ GARCÍA, Castillo
Euskaltzain osoa

Maitasunaren botanika

*Asun Aierbe, Jose Luis Bidador, Jon Barberena eta Pello Apezetxea in memoriam,
ontasuna eta inteligentzia gauza bera direla erakusteagatik,
ezin baita ezer inteligerterik egin, ontasunaren esparruan ez bada.*

Alkate jauna, euskaltzainburu jauna, agintariak, euskaltzainak, euskalgintzako ordezkariak, lankideak, ahaideak eta lagunak, eguerdi on guztioi.

Ni euskaltzain izateko proposatu zuenetako bat Sagrario Aleman izan zen, eta nago bi aldiz eskertu behar diodala hemen egotea une honetan, Sagrario Aleman izan baitzen ni jaio baino lehenago gure aitari euskarazko lehen hitzak erakutsi zizkiona. Gurasoek bazekiten, beraz, nire ahizpa Amalia eta biok euskaldunak izanen ginela oraindik jaio ez baginen ere. Biei, aitari eta amari, eskaini nahi diet nire hitzaldia, literatura eta liburuak maite dituztelako eta haiei esker maitasun hori neure egin dudalako.

Nire euskaltzain-lana arduraz hartzen saiatuko naiz. 9. aulkia egokitu zait, ni baino lehenago Joxe Agerrek, Damaso Intzakoak eta Patxi Zabaletak hartu zutena.

Patxi Zabaleta Zabaleta, Leitzan jaioa 1947ko maiatzaren 20an, Zuzenbidean eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna, idazlea, abokatua eta politikaria da. Euskaltzain urgazle izendatua 1975eko ekainaren 27an eta euskaltzain oso 1987ko martxoaren 27an; euskaltzain emeritua da 2022ko maiatzaren 21etik aurrera. Dagoen tokian dagoela, Jiminy Cricket, gaztelaniaz Pepito Grillo edo Pinotxo ipuineko Kilker Hitzuna da, kritikoa eta zorrotza.

Bere sarrera-hitzaldian, besteak beste, Euskararen Legea zabaldu beharraz aritu zen. Zoritzarrez, lege berarekin jarraitzen dugu. Ofizialtasunik gabe jarraitzen dugu. Irakaskuntzari dagokionez, nahiz eta euskaraz ikasten duten umeak garai hartan baino askoz gehiago izan, kezkaz begiratzen diegu azkeneko urteetako matrikulazio datuei eta euskarazko lerroak abian jartzeko oraindik ere dauden zailtasunei. Lege hartatik kanpo geratu ziren lanbide-heziketa eta unibertsitatea, eta gaur egun nabarmena da gaztelaniaren tokia batean zein bestean.

Euskararen Legeak komunikabideen alorra ere arautu zuen. Kalitate handiko hedabideak ditugu Nafarroan; nahi baino gutxiago, hori bai; baina dirulaguntzen

oso menpekoak. Horrexek mugatzen du euskarazko hedabideen eraldaketa eta egonkortasuna. Areago, ETB3 ikusteko aukerarik gabe jarraitzen dugu, hemen bertan, Sakanan. Eta haurtzaroa askoz ere erdaldunagoa da euskarazko marrazki bizidunak ez badago, jakina.

Euskararen Legeak irakaskuntza eta komunikabideak arautu zituen nagusiki, eta beste hainbat alor garrantzitsu kanpoan geratu ziren. Gaur egun esparru horiek, administrazioa izan ezik, lege-garapenik gabe jarraitzen dute. Horiek horrela, lan handia dago Nafarroan euskarak gero eta esparru gehiago har ditzan. Patxi Zabaleta bezalako ekintzaile nekaezinak beharko ditugu, beraz, lanbide horretan. Ez dut zalantzarik orain arte bezain tenkor jarraituko duela lanean. Izan ere:

Hizkuntzaren alde egitea jendearen alde egitea da,
bulkada eder bat, neguko itsasoa ere eder egiten duena.
Ez du amorerik ematen, arnasa hartzea bezalakoa da.

Hizkuntzaren alde egitea ados jartzea da,
kaio saldoak zerua gurutzatzeko ados jartzen direnean bezala,
elkarrekin joaten direnean nekea txikiagoa baita.

Hizkuntzaren alde egitea kausa galduen bilduma egiteari uko egitea da,
injustizien antologia egitea denean bezala,
edo ezinikusien zein etsaien zenbaketa egiten denean bezala.

Castillo Suárez
Pago egurrezko gila bat
(Euskalgintzaren Kontseiluaren 25. urteurreneko ekitaldian
irakurritako testuaren zati bat)

Maitasunaren botanika

*Nire Herrialde eta Besteen artean /
itsasoa badago
baina loreek
gure artean negoziatzen dute /
diplomatikoen antzera.
(Emily Dickinson)*

Pikondoa

Gure etxean bada pikondo bat sekula pikurik eman ez duena. Aitak ekarri zuen bere jaiotetxetik, Oteitzatik, eta susmoa daukat bazekiela inoiz ez zuela fruiturik emanen Sakanako eguraldia askoz ere txarragoa delako Estellerrikoa baino, eta horregatik jarri zuela bazter batean. Pikondoaren arrimuan egoten da ama eguraldi ona egiten duen arratsaldeetan, irakurtzen. Batzuetan nik erositako liburuak uzten dizkiot, baina ez zaizkio gehiegi interesatzen nire hautuak. Liburuak maite ditu hark eta maite du Iruñeko liburu-dendetara joatea liburuak eroستا eta, bidenabar, orri-markatzaileak eskatu bere bildumarako. Egia esanda, liburuekiko maitasuna bien aldetik heldu zait niri, amaren aldetik eta aitaren aldetik ere bai, baina aitaren hautuak beti izan dira klasikoak. Nire lehendabiziko irakurketak aitaren eskutik etorri izan zaizkit beti: *Mikel Strogoff*, *Tom Sawyer*, *Huckleberry Finnen abenturak*, *20.000 legoa itsaspean*, *Moby Dick*... Hark ez du ezer botatzen, zer esanik ez libururik. Beraz, haren etxabeko armairuetan begiratzuz gero, seguru nago han egonen direla nire txikitako liburuak ere. Hantxe izanen dira Iñigo Aritzak Ikastolan ikasten nueneko irakurgaiak ere: *Txitoen istorioa*, *Asto bat hypodromoan*, *Tristeak kontsolatzeko makina*, *Iholdi*, *Izaba Mariasunen ipuinak*...

Gurasoek erakutsi zidaten liburuak objektu preziatuen gisan maitatzen. Nahiz eta beste formatu eta euskarri batzuetan irakurri, gurean liburuak objektu maitatuak eta desiratuak dira.

Irakurri asko irakurri da gure etxean, baina idazten amonaren etxeko patioan hasi nintzen. Han fruta-arbolak zeuden, eta eguraldia askoz hobea zenez, arbolek

fruituak ematen zituzten. Aspertu egiten nintzen Cervera de Pisueran, Palentzian, eta bertako liburu-dendan deskubritu nuen Mondadorik argitaratutako liburu-bilduma bat: poeta klasikoaren zein garaikideen hautaketak liburu txiki eta merkeetan. Hasieran horko esaldiak kopiatzen nituen kaier batean. Ondoren esaldi horiek berridazten hasi nintzen. Teknika berbera erabiltzen jarraitzen dut egun ere nik poemak idazteko: hitzak handik eta hemendik hartu, eta kaier batean elkartu. Senaz eta intuizioz egiten dut esaldien antolaketa. Hortaz, ez nuke balioko idazkuntza-tailerrik emateko.

Askotan iruditzen zait, xafraz eginiko soineko bat janzte bezalakoa dela poesia. Sekula jantziko ez genukeena, baina deigarria egiten zaiguna aldi berean. Poesiari diogun beldur hori gaztetan kendu nuen nik, Mondadori argitaletxeko poema-liburuxka haiekin. Uste dut antzeko zerbait egiten jarraitzen dudala: esaldiak, tokiak, berriak, argazkiak, kantak..., horiek guztiak hartu, josi eta xaflatxoak soinekoa jantzen dut, inguruan dudaren kolorea hartzen duena. Eta ez dit beldurrik ematen esaten badidate ez dutela ulertzen baina barrena iristen zaiela nik idatzitako zerbait, eta ez dakit azaltzen oso ongi zergatik. Izan ere, poesia irakurle amorratua naiz, eta gauza bera gertatzen zait.

Idazten, hoge bat urterekin hasi nintzen, baina noiz izendatu nuen neure burua idazle? Beharbada Euskal Idazleen Elkartearen izena eman nuenean. Izena eman eta berehala Ana Urkizak eskatu zidan Galeuscar joan eta *Nire lehendabiziko Galeusca* izeneko artikulua bat idazteko. Lekeition izan zen Galeusca hura. Gogoan dut galdu egin nintzela bueltarako bidaian eta Durangon agertu nintzela, eta lasaitu nintzela handik etxerako bidea banekielako, Durangoko Azokara aitarekin joaten ginelako urtero, Urkiolako portutik barrena. Lekeitiokoa izan zen nire lehendabiziko Galeusca, baina ez azkena.

Baina Durangon gaude, handik urte batzuetara artisautza-azoka egiteko erabiliko den aretoan. Nire lehendabiziko poema-liburua erosi dut bertan, Harkaitz Canori zuzenean: *Kea behelainopean bezala* izenburukoa, eta galdetu dit ea sinatzerik nahi dudana. Ezet nik. Eta ez galdetu zergatik.

Harkaitz Canorena da irakurriko dizuedan lehendabiziko poema, txoriak aipatzen dituelako. Txorien hizkuntza maite dut nik, nahi bezala norabidea aldatzeko aukera ematen digulako. Ihes egiteko aukera ematen digulako.

Mila hitz idatzi.
 Mila metro igeri egin.
 Irakurri Cynthia Ozyck.
 Bizarra moztu ebakirik egin gabe.
 Postontzian ez eskaintzarik, ez eskaerarik.
 Leioa zabalik egiten dut lan.
 Gorputza eta burua entzun eta isil dira,
 baina oraindik gai naiz bereizteko
 txorien txioak eta haiek adarra uztean
 egiten duten hotsa.

Zure hegazkina garaiz iritsi da.

Gauetz, balkoian,
 zeruaren atlasa zabaltzen dugu magalean,
 eta gurea izan gabe
 gure denaren pozarekin, uste dugu
 konstelaziorik zaharrena ezagutzeko gai garela.

Harkaitz Cano
 «Egun ona»,

Gente que trabaja en los tejados (Fundación Ortega Muñoz, 2020).
 Itzulpena: Castillo Suárez, Harkaitz Cano eta Fernando Rey.

Palmondoak

Garai bertsukoa da Rikardo Arregi Díaz de Herediaren *Hari hauskorrak* liburua. Hura Imanol Arratibelek oparitu zidan, Altsasuko Arkatz liburu dendatik ale bat hartu eta eman egin zidan dendan bertan. Liburu ona zela esan zidan. Norbaiti utzi nion eta ez dakit non den orain.

Arregi Lekeitioko Geleusca hartan ezagutu nuen. Oso aholku baliagarria eman zion nire aurrean Andolin Eguzkitzari, niretako ere hartu nuena: maitasun-kontuetan eskakizun-maila igo egin behar da beti —Eguzkitza kontu horietan zorrotzegia ez zelakoan esan ziola ulertu nuen nik—. Aldatu «maitasuna» beste hitz batez: «literatura», esate baterako, edo «bizitza», zer esanik ez.

Rikardo Arregiren poemen eraginez sartu nituen nik palmondoak nire lehendabiziko poemetan. Haren poesia edertasun oasia da zabarkeriaren basamortuan.

Ez daude basamortuan errepideak seinalaturik
 anitz dira bide posibleak, anitz irteerak.
 Izarretan bilatzen dut oasi ametsa,
 atsedena hartzeko leku mazala,
 palmondo berdeak eta ur eztiak,
 gorputz nagiak eta amodio nahiak.

Ehun mila palmondoak,
 usain gozoko bidezidorrak.
 Nola bizitzaren zorionak
 hala oasiak basamortuan.

Adreiluzko etxoletan sosegua kausitzean
 ahanzten da karabanak egunsentian joanen direla
 eta dendaren samurrak babesturen
 hurrengo gauen ametsak.

Ez da deus ehun mila palmondo
 hondarra leñoak zenbatzean.

Rikardo Arregi Díaz de Heredia
 «Oasiak basamortuan»,
Kartografia (Alberdania, 1998)

Albitza

Ez dakit nork oparitu zidan Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari* liburua. Beharbada nik erosi nuen, baina badakit kartzela batera bidali nuela erdi hondatuta zegoen liburu hura, eta alerik ez dudala orain; eta horregatik liburu-azoketan peskizan ibiltzen naizela ea topatzen dudan aleren bat. Bi ataletan daude banatuta liburuko poemak: «Almitza» eta «Polderrak». Almitz-belarra edo

albitz-belarra. Hosto luzeko belar zakarra. Aziendak maite ez duena. «Almitza» aipatzen da euskaraz idatzi den maitasunari buruzko poema-libururik ederrenean. Maitasuna esan dut, baina maitetasunaz hitz egin beharko nuke, liburu horretan deskubritu bainuen niretako maitasuna zena maitetasuna zela beste batzuendako. Liburu horrekin ikasi nuen hamaika aldiz entzuna nuena, alegia hitz bakoitza geure egiten dugunean hartzen duela adiera osoa, eta, idazterakoan, hitz bat edo bestea hautatzen dugunean, geure burua ari garela zedarritzen. Polderrak egitea dela idaztea, itsasoari lurra irabaztea, alegia. Itsasoa saiatu egiten da berea zena berreskuratzen, baina ingeniari-tza-obrekin alferrikakoak dira olatu bortitzak. Alferrikakoa da dena maite ez gaituztenean. Maitetasuna ez da hautazkoa, bakardadea aukerakoa ez den bezala.

Poto batean sartuta zeukaat
minutu hura
hiri emateko gauean
eta usoak milaka
udazkenean barrena.

Lanbroa zeukaat gordeta
kaxa batean
hiretzat
eta eguzkia
hankak berotzeko
bakarrik bahago neguan.

Jose Luis Otamendi
Poza eta gero (Susa, 1990)

Iratzeak

Hamaika gauza alferrikako egiten dugu bizitzan. Iratzeak birlandatzea da horietako bat. Fátima Urteaga lehengusina eta biok erauzi egiten genituen iratzeak basotik eta lorontzietan jartzen genituen. Berehala lehortzen ziren, baina guk ez genituen loradendakoak nahi. Guk Orobeko iratzeak nahi genituen etxean. Artean ez genekien iratzeek lur azidoak maite dituztela. Landare primitiboak diren aldetik

lehendabizikoak izan zirela finkatzen eta azkenekoak direla desagertzen paraje bat ahitzen denean. Irautera egiten duten landareak direla. Horregatik maite ditut nik Jon Gerediagaren poema-liburuak, beti jartzen delako iraun behar duenaren alde. Literaturak baldin badu dohain bat, sakoneko gauzak azalekoetatik bereiztea baita. Bihotzean gorde behar duguna esaten digu poema batek. Isilean gorde behar duguna, alegia.

Zer esan nahi dute
lore urdinek sasietan
eta asunen artean?

Zeren seinale dira
tximeleta zuriak
eta tximeleta iluna?

Zer iragartzen dute
benetan, zer
txoriak eta katuak
bide-ertzean hilak?

Zeri eskaini kantu bat.

Zer isildu.

Nola jakin
nola jardun,
nola paratu behar —beti—
iraun behar duenaren alde.

Jon Gerediaga
Argia, lurra, zuhaitza, zerua (Pamiela, 2015)

Naturako paisaiak agertzen dira Gerediagaren poemetan, baina azpian gure baitako paisaiak daude. Badute batzuek eta besteek ezaugarri komun bat: ziklikoak dira, errepikatu egiten dira. Eta beharbada horretan datza bizitzaren gakoa, eta poesiarena ere bai, badakigulako lehengo tokira bueltatuko garela gu eta gure

ingurukoak gurekin izanen direla. Izan ere, naturan, dena etengabe aldatzen ari den arren, ez dago erabateko heriotzarik.

Egunero bizi garen mundua apur bat gehiago desegiten da. Hazi gineneko paisaiak, maite genituenak eta gure genealogia eta historiak berekin daramatzatenak, egunetik egunera, gomuta baino ez dira. Paisaiekin batera haiek eta gure arteko loturak desagertzen dira. Oinaze batek zeharkatzen gaitu, eta horrek pentsarazten digu, agian gatozen leku gehienak aurreko belaunaldiek emandako kolpe eta pairatutako zaurien ondorio direla.

Belazeak zaintzen ez badira, iratzea ateratzen da lehenengo; gero, otea. Gurean ira-zelai ugari dago, eta erabilpenik gabe gelditu den lehengaiari irtenbide bat ematen saiatu dira. Iratzea bildu, eta papera egitea lortu dute. Izan ere, zelulosa dago iratzeen zurtoinetan. Gure liburuetarako lehengaia.

Limoiondoa

Urtetan Lekeitiora joan izan naiz, Miren Agur Meaberen baratzerara, Miramarrerara. Han limoiondo bat dauka Meabek, gin-tonicetarako limoiak ematen dituen.

Gaur egun ez da itsasorik ikusten handik etxeak eraiki zituztelako parean. Palmondoari begira nago: gero eta handiagoa da, eta lurra iraultzen ari da zorua apurtu arte:

Zatoz, baratzean itxaroten nago.
Izan dezagun arrasti luze bat.
Bada mahaian zer jan, zer edan;
erleak erne hirusta artean;
limoiak eta daliak txabola aldean;
itzala parrapean, besarkada bat bezala.
Palmondoa eta putzua oasia ditugu;
zuretzako denda bat da nire gorputza.
Zatoz, ortuan nauzu zain.

Miren Agur Meabe
«Baratzeko deia»,
Bitsa eskuetan (Susa, 2010)

Gauza askori buruz hitz egin dugu Miramarreko ortuan, baina batekin geratuko naiz, literaturarako eta oro har bizitzarako baliatzen dudana: dezepzioak ez duela atzera-bueltarik.

Esporak

Iratzeen esporak izenburua jarri zion Igor Estankonak bere liburu bati. Esporek ez dute beste banakorik behar zatitzeko eta landare berri bat osatzeko.

Estankonaren poesiak beti esaten dizu, zer den benetan garrantzitsua eta zer bigarren mailakoa.

BAT

Maite nauzun jakiteko
lorea mutilatu behar badut,
nahiago dut duda horrekin
hil.

BI

Ikustearekin ez al duzu nahikoa?
Zergatik eduki nahi duzu gorria?
Azkenean ihes egingo dizu bilatzen duzunak
(laztanduz eta laztanduz
arrosak hondatu egiten dira).

HIRU

Gezurra da loreak atsegin ditugula.
Gezurra.
Haien egoera bat atsegin dugu
(zimeltzen direnean ez diegu
begiratu ere egiten).

LAU

Leihoaren ondoan jartzen dut,
petaloak kontatzen hasten naiz,
hitz goxoak esaten dizkiot
usaindu egiten dut etengabe,
ura botatzen diot
(nire
lore
artifizialari).

Igor Estankona
«Maite nauzun jakiteko»,
Anemometroa (Susa, 1998)

Poesia autoezagutza-modu bat da, inguratzen gaituen mundua hobeki ulertzea eramaten gaituena. Horiek horrela, autoezagutza hori barne-borroken, kontraesanen, desoreken eta zalantzen mende egoten da beti.

Estankonak erakutsi dit, poeta batek, ona izanen bada, beti aldarrikatu behar duela lirikotasuna. Egin ditzakegu poema, itxuran, narratiboak, esplizituak edo errealistak, baina horiek deseraiki eta beren barreneko abstrakzioa bilatzea eta esentziara iristen ahalegintzea da poeta baten xedea. Izan ere, idazterakoan errealitatea lanbrotu egiten da, eta beste errealitate bat sortzen da, parez pare duenaren ispilu izan daitekeena edo ez. Maite ditugun irudiekin poemak atzean daukan bizipena iradokitzea da poesia idaztea. Hortaz, poesia, itxuraz, sozial edo politikoa egiten dugunean ere, ezinbestekoa da sentimenduak edo sentsazioak uztea, modu apal, pertsonal eta intimo batez.

Oihana

Bernardo Atxagari behin entzun nion Austriako gatzagetako meatzariak zuten ohitura bati buruz: neguan pinu-adar bat moztu eta gatzaz estaltzen zuten. Udaberrian atera egiten zutenean adarrari itsatsitako milaka gatz-aleak kristalizatuta zeuden, eta gauza zoragarria zen, diamantez estalitako argimutil bat bezalakoa. Deigarria egin zitzaidan Atxagak izan zuela adar horien edertasunaren berri, baina ez zuela inoiz bat parean eduki.

Antzeko zerbait gertatu zitzaidan luzaroan haren *Etiopia* liburuarekin. Laster agortu zen eta urteetan ezin aurkituzko liburua bihurtu da. Aspaldi eskuratu nahi nuen liburua zen, ez nintzelako fotokopiatzera ausartzen, berriki oparitu zidaten arte. Maite zaituen jendeak maite dituzun liburuak oparitzen dizkizulako maiz.

Liburu hura irakurri nuen; beste batzuk irakurri nituen. Poemak eta esperientziak pilatu nituen, gauza asko ahaztu nituen; beste batzuk berreskuratu. Orduan ez nekien, hainbeste txunditu ninduen liburu horrek lagundu zidala munduko gorabeherak jasaten.

Biek, idazketak eta bizitzak, irudimen handia eskatzen dute, baita irauteko gaitasun handia ere:

Bizitzak ez du etsitzen
ezpada muga latzetan;
ez badu Oihanarekin egiten amets,
egiten du Desertuarekin.

Eta hala, Iraila Garo Gorridunak
soilik Elur, soilik Otso,
Barren zabal eta izoztu
izan nahiko zukeen;

Eta izan nahiko zukeen Eguzkiak
Argi huts eta zorrotz
Erleen memoria ahulean;

Gaua, berriz,
hastapenetako garaiaz
oroitzen da bereziki,
orduan ez baitzen gaua besterik;

Era berean, «Egundo Ez»
edo «Beti, Beti»
esaka dabil nire Bihotza;
Bi hitz bakarretan
erabakitzen ditu, zoritxarrez,
bere desira guztiak.

Bernardo Atxaga
Poemas & híbridos (Visor, 1990)

Larreak

Ume batek amarengan
leku berri bat sortzen du,
penintsula bat
amaren bularpean
irla izandako eremua
esne itsasoz inguratzean.

Ume batek amarengan
leku berri bat sortzen du,
azal txatalezko padura
mugarrik gabeko mendi magal
oinutsik ibiltzeko zelai.

Ume batek amarengan
larre berri bat sortzen du.

Eta larreak bazkatzeko dira.

Leire Bilbao
Ettxeko urak (Susa, 2020)

Ordenagailuan karpeta bat ireki eta *Bazka* izenburua jarri nion. Hor gordetzen ditut *deskarteak* (edo utzitakoak), beste batzuek idatzitako testuak, sakelako telefonoaren irudien harrapaketak, bideoak... Horietako asko zutabeetara ekartzen ditut, poesiaren eta narrazioaren arteko hibridoak diren testu motzetara.

Larratzea, atsedean hartzea eta berriz bazkatzea. Horixe da emankortasunaren giltza.

Idaztea errealitateari zentzu berria ematen saiatzea da. Eta batzuetan gertatzen zait —edo beharbada hori da gertatzea nahiko nukeena— idatzitakoa bizitzari kateatzen zaiola eta gertaeren bilakaera aldatzen duela. Beharbada horregatik ez da geroko utzi behar geure baitan daramaguna, idazteko lanak herdoildu, kutsatu edota ospintzeko arriskua duelako, eta, azkenean, poema txar bihurtu —edo

balekoa, askoz ere makurragoa dena—. Nostalgia ez du inoiz poema bat ontzen, ez eta on egiten ere.

Poesia munduarekin harremanak izateko moduetako bat da. Izan ere, bizitza ez da beti pentsatzen dugun bezalakoa, baina idazteak askoz interesgarriagoa egiten du.

Zuhaitz debekatuak

Ene paradisuetan
zuhaitz asko debekatuak daude,
paradisu guztietatik
jaurtikia izan naiz,
ez naiz borrokalari bat
borroka guztietan
sartzen naiz,
infernua guztiak irabazirik.

Amaia Lasa
Nire paradisuetan (Ediciones Vascas, 1979)

Batzuetan penaz hartzen duzu lehenago iritsi ez izana paraje batera. Arrangura sentitzen duzu beste emakume idazle batzuek irekitako bideak ezin izan dituzulako ibili, laharrek estaltzen zituelako. Oztupoak kendu eta bilatu behar izan dituzu zure aurretik zeuden emakume poeta euskaldunak.

Batzuetan iragana orainaldia baino berritzaileagoa da. 40 urte beteta erosi nuen nik Amaia Lasaren liburu bat. Ni jaio baino lehenagoko poemak ziren. Kobazulo batera lehen aldiz sartzea bezala izan zen: zoragarria. Sarrera, urteetan, sastrakek eta eroritako enborrek ezkutatu zuten, baina kobazuloa ukitu gabe zegoen artean, indarrean, aztora ezin.

Maite dut espeleologia egitea poema-liburuetan. Linterna piztu eta zoko guztiak arakatzea berritasunen bila.

Mintegia

Idatzi ondoren, askotan, idatzitakoa bizitzeko gogoia sentitzen dut. Horrek beldurtu egiten nau.

Horregatik badaukat ene baitan belarkiz betetzen ari naizen mintegi bat. Belarki horiek landare izanen dira egunen batean. Beste dermio batzuetan birlandatuko dituzte. Bakarren bat zimeldu egingen da, akaso.

Lehendabiziko belarkia: «Idazteko ausarta izan behar da».

Egiazki, idaztea senaren, ikasketaren eta ausardiaren nahasketa da.

Bigarren belarkia: «Poesia ez da autofikzioa».

Nolanahi ere, nire bizipenean eta gauzen ikuspegian oinarrituta dago nik idatzitakoa. Denak du gezurraren gerrikoa, baina gezur orok badu egiatik zerbait, xingola bat bada ere.

Hirugarren belarkia: «Poemak idaztean jendearengana iristea dugu helburu».

Bestela esanda, poema bat idatzi eta beste pertsona bat —beharbada beste garai, giro edo toki batekoa— ukitzea lortzea.

Laugarren belarkia: «Poesia ez da gutxi batzuekako generoa».

Badago —beti egon da— poesia gustu guztietarako, adin guztietarako, bizitzako aro guztietarako.

Bosgarren belarkia: «Poesiak azaltzeko balio du».

Hein handi batean, neure burua eta bizi dudana ulertzeko idazten dut, eta, horrela, nire ingurukoak pixka bat gehiago ulertzeko.

Seigarren belarkia: «Poesia antidotoa da».

Ez lokartzeko idazten dut, ez galtzeko, ez ahazteko, ez isiltzeko, ez hondoratzeko, neure burua ez ukatzeko.

Zazpigarren belarkia: «Poesia ez da terapeutikoa».

Ez dut neure egiten, gaizki gaudenean sorkuntzara jartzeko unerik onena dela diotenen baieztapen hori. Ni triste edo nekatuta nagoenean, idaztea da egin nahiko nukeen azkeneko gauza.

Zortzigarren belarkia: «Idaztea irakurtzea da; eta alderantziz».

Hortaz, poemak idazteko irakurri egin behar da. Irakurketak pentsamendua eta idazketa pizten ditu, eta, beraz, beti laguntzen du irakurtzeak.

Ez da komeni ez ankerregia ez argiegia izatea poema bat idazteko. Autoa hartzea hurrengo egunean bizitza berri bat hasteko esperantzarekin. Norbere buruaren beldur izatea, edo, makurrago, beste norbait ezin izatearena. Zerua zeharkatzen duten hegazkinei begira geratzea. Icebergen alde ezkutua begietan daramaten neskekin oheratzea. Hitzen frankotiratzailea izan eta albo-kalteak sortzea. Zauriak ixtea mina barrenean utzita. Maite izan ditugunak orain zein lur ari ote diren zapaltzen galdetzea. Sustrairik gabe errotzea. Geuk jarritako tranpan harrapatuta sentitzea.

Ez idatzi poema bat ez baldin baduzu aldeztetik beste liburu batean irakurri.

Castillo Suárez
«Poetika»,
Irautera (Elkar, 2019)

Bederatzigarren belarkia: «Poesia behatzailea da».

Beste errealitate eta ikuspuntu batzuk ezagutzea inspiratzailea da. Baina, gainera, uste dut bizitzari, gauza txikiei, barrutik eta kanpotik gertatzen zaigunari adi egon behar dugula.

Hamargarren belarkia: «Idaztea bizirautea da».

Horregatik idazteko zentzumenak erne eduki behar dira. Poema bat sor daiteke autobus batean, zutik edozein hiritan oinez goazela, bulego batean eserita ordenagailu baten aurrean, *restop* batean, gure etxean.

Hamaikagarren belarkia: «Idaztea ekintza politikoa da».

Ez dizut poema politikorik egin nahi,
baina ni euskal idazlea naiz,
eta hitzak asteburuetan eta udako oporretan datozkit:
manifestaziorik ez dagoenean,
bilerarik ez dudanean.

Castillo Suárez
«Politikoa»,
Bala hutsak (Elkar, 2006)

Hamabigarren belarkia: «Idaztea oroitzea da».

Jakin badakigu oroimena iruzurtia dela eta gure bizitza eraikitzeko, trinkotzeko eta bizi dugunari zentzua emateko balio duela. Horregatik xehetasun txikiei erreparatzen die, inoiz ez zaigu geratzen bizi izan dugun zerbaiten oroitzapen osoa. Idazle gisa, oroimena oso baliotsua da, berarekin jolas egin baitezakegu, nahi duguna egin, egia izan edo ez, baina zerbait kontatzen du, bizi izan duzunaren sentsazio bat, bizitza hura izan zenueneko.

Hamahirugarren belarkia: «Idaztea hiztegigintzan aritzea da».

Aire zabalean dauden hitzak lotzen dizkiegu lurraldeei, objektuei eta pertsonari. Eremu berrietara zabaltzen ditugu. Esanahiak berreskuratzen ditugu.

Hamalagarren belarkia: Poemak alferrikakoak eta ezinbestekoak dira aldi berean.

Ebakiondo batek ebakia gogoraraztea beste helbururik ez du.
Ez dira ez ederrak ez baliagarriak.
Poemen antz handia dute, beraz.
Gauza bera direla esan liteke.

Castillo Suárez
«Poetika»,
Alaska (Elkar, 2023)

Hamabosgarren belarkia: Poemak bakardadetik aldentzeko idazten ditugun arren, bakardadeaz idazten dugu maiz.

Egia esanda, poema liburu guztietan lau gai nagusi agertzen dira: maitasuna, bakardadea, denbora eta heriotza. Hortik kanpo ezer gutxi dago.

Ez da lanbide erraza norberaren poetika zedarritzen duten irakurketak, aholkuak, hutsuneak, oroitzapenak eta bizipenak zerrendatzea, baina haxe, ahalegin bat izan da.

Idazten ez badugu, ez dugu geure burua ezagutzen; geure burua ezagutzen ez badugu, ezin dugu maitatu. Geure burua maitatu ezin badugu, ezin ditugu besteak maitatu. Eta besteak maite ez baditugu, ez dakigu bizitza zer den.

Castillo Suárez García
2023ko uztailaren 1ean
Altasun, Iortia Kulturgunean

Miren Agur Meabe euskaltzainaren erantzuna C. Suárezen sarrera-hitzaldiari

Zazpi gutun eta erditxo
«Maitasunaren botanika»ri

Lehenengo gutuna: Zuhaitzak kantuz

Zer moduz, Castillo Suárez García?

Zorionak esateko idazten dizut lehenbiziko gutun hau. Zorionak euskaltzain oso izendatu zaituztelako eta baita ere, eskuzabaltasuna, errespetua eta mirespena agertzeagatik literaturaren estigmatik markatu zaituztenei.

Treanean noa, Galiziaruntz. Basoak irakiten daude maiatzaren amaiera honetan, eta, hara, zu maitasunaren botanikaz ari zara zure paperetan.

David George Haskell biologoak *Zuhaitzen kantak* saiakeraren hitzaurrean dio, «aditza dela gure ahotsak eta gure familiarenak entzutea». Eta horixe da zuk egin duzuna, zure gurasoen familia ere izan diren liburuetatik hasita.

Beste hau ere badio Haskellék: «Aditza, estetoskopio bat ipintzea da paisaia baten azal gainean, barruan borborka zer dagoen entzuteko». Eta horixe da zuk egiten duzuna poemak idaztera jartzen zarenean.

Zure hitzaldiaren izenburuak hasieratik harrapatu nau. Irakurle grinatsuok geure identitatearen parte bihurtzen ditugu gure liburu kutunak. Liburuek bideak eratzen dituzte gure *ni* sakonaren artean —aldizka kaotikoa eta aldizka barea den putzu horren— eta gure *ni* sozialaren —munduaren martxara egokitu behar den ur-xirripa horren— artean.

Haskell zuhaitzen irakurlea da, eta zuhaitzak irakurtzeak biziaren kateak eta espezieen arteko harremanak deskribatzea dakar. Eta horixe da zuk egiten duzuna zeure burua aztertzean, esaterako, poema honetan:

Maite zaitut
ez duzulako nire iragana ezagutzen,
ez duzulako nire orainaz jakin nahi
eta ez zarelako nire etorkizunean egongo (...).
Pinu beltzak dituzu begien hondoan;
nik prozesionaria habia bat umetokian.

Castillo Suárez
«Prozesionaria habia bat»,
Irautera, 21. or.

Ezin dut analogia lazgarriagorik irudikatu iragan eta etorkizun lausoen artean dagoen orain likatsua definitzeko.

Diozu:

Iragana nork bere baitan daraman denbora zatia da. / Memoria, ordea, urratutako denbora osatzen laguntzen diguna da.

Castillo Suárez
«*Memoria*»,
Elurra elurraren gainean

Zure irudiz, xaflatxo eginiko janzki bat jostea da poesia idaztea, inguruan duzunaren kolorea hartzen duen bestidura bat osatzea. Galdetu nahi nizuke zer koloretakoa den memoria.

Megafoniatik jakinarazi digute hamar minutu barru tren-aldaketa egin behar dugula. Kodernoa itxiko dut nire puskak hartzeko.

Bigarren gutuna: Geltokiko txoriak

Kaixo berriro, Casti!

Estazioak tristeak dira, ala neuri horixe begitandu?

Kantinarik ez dagoenez, ilara luzea eratu da litxarrerien makinan. Beste bidaiari batzuk nasan sakabanatu dira. Ordubeteko itxaronaldia tokatzen zaigu.

Edadeko gizon baten ondoan jesarri naiz kanpoko jarleku batean. Torratxoriak datozkio otartekoaren papurretara. Agureak kontutxoak esaten dizkie txoriei, ilobak-edo balira bezala.

Hitzaldiaren hasierako partean txoriak aipatu dituzu: txorien hizkuntza maite omen duzu, nahi bezala norabidea aldatzeko aukera ematen dizulako, ihes egiteko aukera.

Motxilatik atera dut *Irautera*, zure azkenaurreko poema-liburua, azalean iratze-hostoen antzinako grabatua duena eta hauxe leitu dut:

Taberna batean
ezezagun bati eskutik heltzen uzten diodanean
badakit ondotik bere bizkarrari lotuko natzaiola,
lanbroak galarazitako txori herrariak
hartuko dizkidatela birrikak.
Ez dut inoiz hasiera baten kontrako borrokarik irabazi.
Ez diot inoiz ezezagun bati zauririk erakutsi.
Bakardadearen berri emateko
beste hitz bat asmatzen badute
aurkituko dute irteera txoriek.

Castillo Suárez
«Txori herrariak»,
Irautera, 23. or.

Beti miretsi izan dut poemei errematea emateko duzun trebezia. Apunta dezadan amaiera hori: «Bakardadearen berri emateko / beste hitz bat asmatzen badute / aurkituko dute irteera txoriek». Hor da, sasia ez ditz egiten masustaren pare, zure gai nagusietako bat: bakardadea. Izan ere, zu txori herrarien zalea bazara ere, bakardadearen txoriak habia ugari egin ditu zure poesian.

Txistua, badator trena. Txolarreak badoaz, ikaratuta.

Diozu:

Esaten badizut maite zaitudala, txorien hizkuntzan mintzo naiz.

Castillo Suárez
Irautera, 55. or.

Berdintsu geltokiko torratxoriek: alde egin dute. Txoriek bezala maite duzu, ados; zuk, ordea, horiek ez bezala, karranka egiten duzu hegaldatzean, karranka bakoitza poema bihurtuz.

Diozu:

Nagoen tokiaren / eta egon nahi nukeenaren arteko distantzia da bakardadea.

Castillo Suárez
Irautera, 29. or.

Nago zeure-zeurea dela Pessoaaren pasarte honetako filosofia:

Hegaztia pasatu egiten da eta ahaztu egiten du, behar den bezala.
(...) jada ez den tokian da eta horregatik ez du ezertarako balio jada.
Erakusten du lehen izan zela, eta horrek ere ez du balio ezertarako.
Oroitzea da Izadiari egindako traizioa.
Atzoko Izadia ez delako Izadia.
Izan zena ez da ezer, eta oroitzea da ez ikustearen pare.
Pasa zaitetz, hegaztia, pasa zaitetz eta irakatsiezadazu pasatzen!

A! Beste kontu bat: zure bakardadea eta galerak loturik daude, ezta? Hala ere, galeraren xarmapean idatzi duzu sarri. Ahoa betetzen zaigu esatean, ohituta gaudela gero eta gauza gehiago galtzen, ezta? Baina... a zelako marka, liburuak maite eta liburuak ere galdu beharra!

P.D.:Txorien hizkuntzan mintzo zara, baina landareen hizkuntzan ere bai, eta animalia basen hizkuntzan.

Hirugarren gutuna: Iratzezaleen grinak

Bos días, Castelo!

Atzo gauean iritsi nintzen lagunaren etxera. Bai, poesiak adiskidetasunaren sareak ehuntzen ditu aldizka. Nekatuta nago baina umoretsu. Kantari esnatu naiz.

Maiteagoak udazkenean / zuhaitzen hosto gorriak,
horitasunez apainduriko / makal zuzenen gerriak.
hego-haizetan lokartutako / iratze okre geldiak (...).

Leteren iratzeak..., zertara? Kontua da, etxe hau iratze-hostoz beterik dagoela, han-hemengo altzarietan ipinita. Txori-lumak eta habia txikiak ere tarteka. Mantellean ere, iratzeen estanpatua. Ornitologo bat eta poeta bat elkarrekin bizi direnean, etxea baso bihurtzen da nahitaez.

Zure poema bat itzuli diet hitzetik hortzera, Gosariko kafesnetan bustita, *Haritz-iratzeara*:

Aspaldi ikasi genuen mina hitzetara bihurtzen (...). Baina ni iratzea naiz (...). Lur azidoetan bizitzera ohitua nago, eta karea eman arte hemen izanen naiz (...). Hazirik eman gabe begiratzen diot munduari.

Castillo Suárez
Irautera, 66. or.

«Oh, *Castillo queridinha! Dá-me muitos bicos de parte nosa*», esan didate marmeladaren doinukeran. Eta nik, zure hitzaldiarekiko ardurak kinatuta, galdera interesatua egin diet: «Castirentzat, iratzeak irautera egiten duten landareak dira. Baina zuok zer dela-eta zarete hain iratze zaleak?». Eta eurek: «*Imaxinate! Para nós el feito [iratzeara] é a beleza multiplicada, o exemplo mais perfeito do fractal, da nosa felicidade*».

Horra hor sinboloen semantika.

Castelo, izenean bertan daramazu zuk erresistentziaren labela. Esana duzu inoiz:

Nire poemak ez dira inoiz errendizio-ikur izan.

Castillo Suárez
Irautera, 80. or.

Orain jantzi egingo naiz, topaldi bat daukat-eta institutu bateko ikasleekin.

Laugarren gutuna: Poetiken bildumatzailea

Hello, Mary Castle!

Bai ikasle jatorrak! Baten batzuek, idazle gurakoek, aholkuak eskatu dizkirate. Poema bat hartu dizut maileguan, baina ez dakit, bada, asmatu dudana, zuzendariak aurpegi arraroa ipini du eta. Adierazi nahi nien bakarra zera da, idazteak ez daukala ezer urtebetetze-festatik.

Ez da beharrezkoa idaztea. Egia esan, jende gehienak ez du egiten. Izan ere, idazteak min ematen du. Letrak gero eta gehiago estutzen ditugu sasoi arteko berokia balira bezala. Begietako zainak loditzen zaizkigu. Lagunek ez dakite non aurki gaitzaketen. Ez dute ulertzen idatzitakoa. Aldiriko trenak hartzen dituzte gure robot-irudia sakelara dutela. Gure bila ari dira. Guk, bitartean, giltzak nahita galtzen ditugu, zure etxean har gaitzazun iluntzean.

Castillo Suárez
«Ez da beharrezkoa idaztea»,
Urtebetetze festa, 52. or.

Poema hori hartu dizut, baina beste batzuk ere har nitzakeen. Gaztaroko liburuetan amorante-bildumak egiten bazenituen, ez duzu txikiagoa helduaroan poetiken bilduma!

Zure hitzaldiaren arabera, hamabost belarki zaintzen omen dituzu zure mintegian. Ez zara makala! Hala ere, permititzen didazu beste bi usain-belar hauek inkluitzea zure sortan? Zeure bertso-lerroetatik erauzitakoak dira, sustraituak biak.

Bata da baieztapen bat:

Hondamendi batean zer den ederra ikustea da idaztea.

Castillo Suárez
Alaska, 60. or.

Bestea da galdera bat:

Zergatik dira poemak errugabe sentitzen garen munduko leku bakarrak?

Castillo Suárez
Irautera, 57. or.

Zure mintegia, zure printzipioen eta ondorioen bilduma.

Bazenekien Emily Dickinsonek herbario bat egin zuela 1839. eta 1846. urteen artean? Bederatzi bat urterekin hasita, 400 espezieetik gora hosto eta lore sailkatu zituen, eta bere kaligrafia dotorearekin etiketatu, lagin horien bidez bere inguruaren erregistro-lana eginez: sepaloak, petaloak, arantzak, pezioloak, zurtoinak... Izadiaren bitxiontzi bat osatu zuen, patxadaz eta zehaztasunez. Geroago, poemetan ematen hasi zen bere begiradak bakar-bakan bihurtzen zuen guztia.

Zure belarkiak zenbatzerakoan egin zait, Emily deika duzula larretik. Entzun ezazu zer ari zaizun eskatzen.

Ekar dezakedan guztia da,
hauxe eta nire bihotza ondoan.
Hauxe eta nire bihotza, eta larre guztiak
eta belardien zabaltasun zabala.
Konta ezazu faltarik gabe, ni ahaztuko banintz-edo,
baten batek zenbaketa egin bailezake.
Hauxe, eta nire bihotza, eta hirusta artean
bizi diren erle guztiak.

Emily zurekin ari da, *Mary Castle*, biok lankide, botanikari-poetak, poeta-botanikariak.

Bosgarren gutuna: Elur-minaz

Château, hemen naiz berriro!

Arrastian lagunaren jaiotetxera igo gara, baserri zaharrera. Txakurra atera zaigu bidera, Neve. Izena entzun eta batera kargutu naiz: ez duzu elurra behin ere aipatu zure hitzaldian. Zelan ba, elur-giroa nagusi izanda zure eguraldietan? Bereizten badituzu elur uherrak, elur-baltsak, elur artifiziala, elur gesaldua, elur geldoa, ahazturaren elur fina, elurguneak, elurtegiak, zapaldu gabeko elurra eta lurmentzea bera, elurraren aldaera guztiak, izotzak, icebergak eta glaziarak?

Diozu:

Elurrez betetako bizitza da nirea. / Galerek ez dute trukean ezer ekartzen.

Castillo Suárez
Alaska, 15. or.

Diozu:

Elurretan urratsak egitea da bizitzea: / ederra dena zikintzea, / estalita nahi duguna agerraraztea, / galmenak onartzea.

Castillo Suárez
Alaska, 25. or.

Diozu:

Elurra maitatzeari utzi nahi nioke, horixe delako zauri irekia ixteko aukera bakarra.

Castillo Suárez
Alaska, 37. or.

Diozu:

Baina ez nago ziur, badakidalako minek ere janzen gaituztela, elurrak nola.

Castillo Suárez
Alaska, 43. or.

Diozu:

Elur-minez bizi den emakumea naiz, / isiltasunaren begiratzailea, / bere buruaren arerioa.

Castillo Suárez
Alaska, 5. or.

Neskatiko, *Alaska* utzi diguzu, baina Antartika oso bat duzu zeure baitan. Non lortu izotza urtzeko gatz nahikoa?

Gatza dago errepideetan. / Errekara erori den zaldia / korrontearen kontra borrokatzen da. / Begi handiak ditu, nik bezala.

Castillo Suárez
Alaska, 16. or.

Begi handiak dituzu elurraren tragediak antzemateko, dudarik ez.

Hemen ez da elurrik, euria baino. Atondoan nago zure elur-minaz pentsatzen, barandan katilu bete gerezi eta oinetan Neve. Atzealdeko zelaian, sagastia, hori ere elur-loretan. Besteen artean bada arbola bat makur-makurra, ia-ia etzana baina enbor sendokoa. Lagunak seinalatu dit, esanez: «Horixe da». Eta ulertu dut. Argazia egin eta telefonoz bidaliko dizut, badakit-eta estimu handian duzula Olga Novoren bertso-lerro hau: «Nire azalarekin txertoak egin ditzakezu sagarrondoetan».

Agur, *Marielur*.

Seigarren gutuna: Zauriak eta motozerrak

Oles, oles, Gaztelua!

Jaso dut zure erantzuna *whatsapp*ez. Hauxe:

Balearen azala da nirea.

Castillo Suárez
Alaska, 47. or.

Eskerrak emotikono irribarretsua jarri duzun!

Atzo, atertu zuenean, baserri inguruko zidorretatik ibili ginen, larre-mahatsak hartutako mugarri batetik bestera.

Diozu:

Mugarri estalien bestaldean / ez dute poetek kontsulta materialik, / horregatik ez da han poetarik.

Castillo Suárez
Mugarri estaliak, 61. or.

Poetarik ez da izango, baina historiak... Uf! Eta ez edonolakoak. Orain dela hirurehun urte pazo batean gertatutako krimen bat kontatu zidaten, morroiak nagusia jo zuela aizkoraz kortan, ugazabandrearekin maitemin-tratuetan zebilelako.

Aizkorak erabiltzen zituzten lehengo denboretan arbolak jotzeko. Zuk, baina —hala tokatu zaizu—, erreminta modernoak ezagutu dituzu, hurbiletik, hala nola *Sthil* MS 880 modelo:

Bigarren mailako errepideetatik egiten dudanean etxerako bidea, alboan zaramatzadala iruditzen zait; gasolina usaina aditzen da motozerra konpontzera eraman nuen z geroztik.

Gaur ekarri dute konponduta etxera. Ez naiz ausartu esatera jada ez zarela hemen bizi (...). *Stihl* MS 880 bat dut etxeban, nahi duenarendako (...). Zure etxerako bidea hartu dut konturatu gabe, autoa hutsik (...). Mundua da errepidearen bi aldeetara geratzen den basopea.

Castillo Suárez
Irautera, 56. or.

Zein *filmikoak* diren zure testuak! *Exactly* irudikatzen zaitut gauez gidatzen, tresna forestal hori, arma hilgarria izan daitekeena, kopilotuaren tokian daramazula.

Lehen gutunean esan badugu zuhaitzek kantatu egiten dutela, heldu da ordua negar ere egiten dutela esatekoa. Noiz? Labanaz inizialak grabatzen dizkietenean, txertoak egiten zaizkienean, botatzeko seinalatzen dituztenean. Ondo dakizu hori. Mary Oliverrek ere bai.

Erantzuten ote diote zuhaitzek haizeari
haizeak gonbiten bat egiten dienean?
Gutako batzuk bezala, mintzatzen ote dira eguzkiarekin?
Baiezkoan nago, eta uste horrek frogaren bat behar badu,
utzi esaten aldizka
asko kexatzen direla.

Baina bada gehiago.

Zuhaitzei entzun ahal badiezu beren ordu lasaietan
seguru gero ere entzun ahalko diezula
zerrategian garrasika.

Zure motozerrak gogoraratzten dit zure poesian konstante bat direla markak,
zauriak, orbainak, ebakiondoak.

Aldizka eskatu egiten dituzu:

Nire gorputza marka dezazula, zuhaitzak bota aurretik markatzen dituzun bezala (...).
Marka arrosa bat egidazu bularrean, ertz batetik bestera.

Castillo Suárez
Irautera, 10. or.

Eta aldizka, eskaini:

Zugana berriz iristeko zerbait idatzi nahi nuke, hitzeko ildaxka bat egin zure bularrean,
eta nire poemak zure azalean txertatu.

Castillo Suárez
Irautera, 48. or.

Oinaze batek zeharkatzen zaitu. Oinaze horrek ez dio su-etenik ematen zure lurrezko bihotzari.

Zeure hitzak dira: idazteak eta bizitzeak erresistentzia handia eskatzen dute.

Diozu:

Min ematen diguten gauzei esker egiten dugu Aurrera.

Castillo Suárez
Alaska, 6. or.

Zazpigarren gutuna: Sasiko loreak

Castitxu:

Ohean nago, hiruzpalau liburu aldamenean. Edonoren etxean nagoenean, zizka-mizkan ibiltzen naiz apaletan eta gero ohera ekartzen ditut liburu erakargarriak.

Zer gara? Zerk definitzen gaitu eta nola definitzen dugu geure burua? Hasiko banintz egiten zure autodefinizioen zerrenda —zuzenean egiten dituzunak nahiz zure ekintzen bidez adierazten dituzunak— zazpi gutun ez, baizik eta zazpitan zazpi idatzi beharko nizekizuke.

Zure berbetan, poesia autoezagutza-modu bat da, nahiz eta idazterakoan errealitatea lanbrotu eta beste errealitate bat zirriboratu.

Orkatza naiz,
goizaldean soroa gurutzatzen.
Maite nauzula esatea
nahikoa litzateke trostan ez jarraitzeko,
baina izotz beltza da zure isiltasuna. (...)
Orkatza naiz, txarrantxak zauriturik.
Zure ferekek esanda dakit banaizena.

Castillo Suárez
«Itzulmina»,
Irautera, 19. or.

Baina bazara euripean galdutako zakurra, aterpe bila (*Alaska*, 46. or.). Eta izan garen emakume guztiak, sasi artean ezkutatzen diren animalia basak, errepide ondoko etxe batean agertzen direnak, beste etxe batean (*Alaska*, 46. or.). Eta izan zinen gaztainondoa akazien artean (*Alaska*, 5. or.). Eta bihotz kontra bizitzen ohitua (*Alaska*, 56. or.). Eta oinutsik dabilena elurretan (*Irautera*, 44. or.). Eta orbela adarretara itsasten ibiltzen dena (*Irautera*, 44. or.).

Ohean barreiatutako liburuetako bat hartu eta aliritzira zabaldu dut.

Ene badatxoa! Hau ere izan zintezkeen, elur artean jateko bila edota suak setiatuta dabilen Rosana Acquaroniren orein hau:

Aztarrika jardun bisuts azpian
fruitua aurkitu arren.

Muturrarekin igurtzi
errekako lokatza.

Arnasestuka ibili
sutean hesitutako
oreinarekin batera.

Elurak ea suteak apailatzen zaituzte.

Logurak erreta nago... Gaur baietz Bambirekin amets egin.

Azken gutuna, gutun-erditxo bat: Loreontzirik ez

Iratze Otatxori Elurtegieta:

Diozu:

Gauza eder guztiek dute akabera: elurrak eta maitasunak

Castillo Suárez
Irautera, 30. or.

Orobat gutun hauek. Ahal izatera, lasterka jarraituko nuke zure zelaietan, hain dira eztiak, hain dira mingotsak; eta jarraituko nuke aztarrika zure lurzoruan, hain ditu geruza trinkoak. Zeu botanikari, maitasunarena; eta aldi berean, zeu botanikagai, zure anatomia, morfologia, fisiologia eta fitokimika.

Gauza asko geratu zait esateke, baina egongo gara. Ai, zer letra txarra egiten nabilen trenaren triki-trakarekin! Bueltan noa jada eta. Laster Miramarreko baratzean garbira pasatzea gutun hauek guztiok. Limoi batzuk hartu eta gin-tonica prestatuko dugu... Zatoz, ortuan nauzu zain.

Zain maitasunerako eta zain lanerako.

Eta zaude luzaroan zorioneko, badakigu eta:

Nekez birlandatu daiteke iratze basa bat loreontzi batera.

Castillo Suárez
Irautera, 75. or.

Miren Agur.

Miren Agur Meabe Plaza
2023ko uztailaren 1ean
Altsasun, Iortia Kulturgunean

Bibliografia

Escritores de la naturaleza (Joaquín Araújo. SEO/Birdlife, 1997).

Urtebetetze festa (Castillo Suárez. Elkar, 2014).

Felicity (Mary Oliver. Valparaíso Ediciones, 2016. Nieves García Paredesen edizioa).

Las canciones de los árboles (David George Haskell. Editorial Turner, 2017).

Irautera (Castillo Suárez. Elkar, 2019).

Mugarri estaliak (Castillo Suárez. Susa, 2000).

Herbario & Antología Botánica (Emily Dickinson. Ya Lo Dijo Casimiro Parker, 2020).

Elurra elurraren gainean (Castillo Suárez. Autoedizioa, 2021).

Alaska (Castillo Suárez. Elkar, 2023).

18 ciervas (Rosanna Acquaroni. Bartleby Editores, 2023).

ITXARO BORDA XARRITON Euskaltzaindian sartzea

Baiona, 2023-X-28

BORDA XARRITON, Itxaro
Euskaltzain osoa

Mugari tirorik ez

Baionako auzapez jauna, Euskaltzaindiko lehendakari jauna, Akademiako kideak, hautetsiak, familiakoak eta adiskideak, egun on zuei eta bereziki milesker, etorririk momentu hau nirekin partekatzerara etorri zaretelako...

Laugarren aulkia egokitzen zait, beraz. Xarles Bidegainen segida hartzen dut, naturak bezala, Euskaltzaindiak ere, hutsa ez duelako batere maite. Aulki horren gainean itzal erranguratsuak hedatzen dira gainera: Arturo Campion nafar erraldoia, Juan Carlos Guerra eta Iñazio Maria Etxaide donostiarrak, bai eta orain, urtebete utzi gintuen Txomin Peillen zuberotarra. Tartean, hor egon zen euskal antzerkiaren alde hainbeste obratu zuen Piarres Lartabal azkaindarra. Amikuzeko Oragarreko JAC salan pazko-arratsaldeetan bezperetatik landa, haurrak ginenean, Lartabalen teatro enblematikoak ikusten genituen, herriko gazteek emanik. Bizitza, askotan, tragediatik komediara doan bidea dela gogoan atxikiz, eta ni ere aski komedia-egile izan naizela oroituz, ene gaurko mintzaldiak, Lartabalen *Mugari tiro* izeneko antzerkiari oihartzun eta begi-keinu konplizea egiten dio, *Mugari tirorik ez* deitu dudalakoan.

Mugari tirorik ez

Mugatua den mundu bateko jende mugagabeak gara. Infinitua goersten eta gure muga murrizten madarikazioa goraki salatzen dugu. Bizkitartean, mugak baino ez gara. Muga pertsonifikatuak. Hor dira jartzen ditugunak. Jartzen dizkigutenak. Muga horien barnean gatibu atxikitzen gaituzte, periferietakoak gara, emakumeak gara, iparraldekoak gara, idazleak gara, proletarioak gara, zuriak edo beltzak gara. Beti bada zerbait zentralitatetik baztertzen, urruntzen gaituena. Eta bakoitza bere lekuan geratzen da. Ezaugarri horien artean ez da porositaterik, ez da pasabiderik. Egia da, muga finkoetan preso sentitzen ahal garela, mugak izendatzen gaituelako, eta izendatzen gaituenean, kategoria zehatz batean entzerratzen.

Mugak ditut gaur aipatuko, beraz. Aturri eta Errobi bi ibaiek biziarazten eta mugatzen duten Baiona hiriaren bihotzean. Muga franko gurutzatu ditut ene idazle-bizitzan eta bizitza pertsonalean, ordena horretan, batzuetan itzulerarik gabe, beste batzuetan aldiz, hegoak ebaki ez nizkion nire egoa hazten eta elikatzen zidalarik etxeratzeak. Espazio horretan, oreka galtzeaz kausitu naiz frankotan, oreka galdua zutenekin eguneroko ahaleginetan, borrokatzen ere sosegua eta segurtasuna eskaintzen zuen Sokratesen harpe ospetsura hurbiltzeko. Hain ongi gara azkenean, infinituan sinesten duen itzal-antzoki horren gerizpean, itzalak egiazat hartzen, betidaniko gogoetak harilkatzen, mugak ukatzen, «gure artekotasun» mota bat lantzen, bai eta elkartasuna dastatzen, harpean bakartasunaren legea lehenetsia den arren. Mugak, aldizka, errotzen eta exiliatzen gaitu.

Hona hemen, **lehen zedarri** poetikoa:

Muga anitz zeharkatu dut,
Kontrola zakar sobera pairatu
Zuregatik.
Badakit
Izenetik beretik
Eraikuntza faltsua naizela:

Urguilua eta beldurra
Daramatzat
Nigan.
Gaua dator Lagako hondartzara.
Kobre koloreko itsasoan Izaro datza itzal.
Ogoño lur muturra uhinetaraino
Itxeskatzen bezala da ispilu bila.
Memoria ezabatzen doa.
Saminak ahanzten ditut
Nire biharraren balizko ardatza
Bizi-pozez zizelkatzeko.

Ubarroi hegaldi bat miretsiz
Xuxurlatzen dut, *ad libitum*:
Nork zaitut hark urrunetik
Bezainbeste maite?
Mapa mundia tatuatu dut begiaren zurian
Zure hatzaren ez galtzeko.

À mon amour toujours (2013)

Zer da muga? Hitz batez errateko, marra erreal bat da, bi lurralde, bi herri edo bi kulturen artean... Noizbehinka lurraldeek, herriek eta kulturek, gure kasuan bezala, muga politikoak gainditzen dituzte, muga kultural berriak are urrunago hedatzeko. Sinbolikoa izan daiteke muga, edo imajinarioa. Gure identifikazio-premien arabera sortzen ditugu mugak. Mugaren zera sinplea da eta konplikatua batera, eremu horiek gatazkatsuak suertatzen ahal direlako. Indar-harremanen oldean, lekuz alda, ager edo desager daitezke. Duela bi mila urteko mugak ez dira gaurkoak. Eta gaurkoak ez bide dira hemendik bi mila urterakoak. 2011n, *Limes Imperi Romani* delakoaren hatzetatik ibiltzeko zortea ukan nuen: Germaniaren eta Erromatar munduaren arteko mugan nengoen, Saalburgen, gaur egungo Alemaniako Hesse eskualdean. Sentsazio bitxia zen: oin bat neukan «zibilizazioan», hala erran badezaket, eta bestea, Constantin Cavafis batek espero zituen «barbaroen» funtsetan. Europan bederen, dagoeneko ikusezin eta likido bilakatuak dira mugak, eta badirudi, muga bi hegaletan orain, «barbaroak» daudela!

Azken hamarkada hauetan, munduko estaturik puxantenek bi metro gorako hormak eraiki dituzte; erromatarren zedarri miliarrak deus gutxi dira Mexikoren

eta Estatu Batuen arteko harresiaren aldean. Gibraltarren ere burdinazko eta alanbrezko hesi erraldoia altxatu da. Muga gotortuek, planeta euro-zentratu baten bizimodu ez negoziagarria babestea dute helburu. Kontinente ezberdinetako muga horien gainditzeak, idazleek, zine-egileek, musikariek, aspalditik harilkatzen eta hitzez iruten duten abentura humano baten atal berria errepikatzen du. Epika eta mitoa uztartzen dira *Odisearen* abaroan, guregana heltzen den afrikar herritar bakoitza Ulises baten gisa irudika dezakegularik. Muga, batzuen ametsa da eta besteen amets gaiztoa.

Gogoan dut beti, 80ko hamarkadan, hemen dagoen Aurelia Arkotxak nola argitu zidan mugaren eta «fronteraren» arteko ezberdintasuna. Detaileekin jostatzen zela uste nuen. Ordenagailuko pantailan «frontera», edo guk diogun moduan «frontierra» idazten baduzu, zuzentzaile automatikoak «muga» hitza proposatzen dizu, biak sinonimo zuzenak balira bezala. Eta ez dira. Aski da —barkatu ene blin-blinkeria—, *Euskal hiztegi historiko etimologikora* jotzea horretaz jabetzeko: «frontera» erranahia ukatu gabe, zeltar jatorria lukeen «muga» hitzak Pirinioetan, 'muino, hegi, lurralde, ipurular' erranahi ere badauka, hau da, mugak, marra soila eta askotan arbitrarioa eta politikoa den fronterak baino espazio sendoagoa betetzen duela. Lurrean, bai eta gure buruetan ere. Fronterarik pasatu gabe, halatan, mugako joerak ukan ditzakegu argiki. Nahiz eta instituzio bilakatzea bilatzen duen beti, mugako egikera horietatik bat, literatura da, hegi horietan bizitzea, hitzen hurbiltasunean, ikusten jartzea, nabaritzen dena idaztea, paperean etzatea, irakurriko duen balizko baten esku uzteko. Hori da, «balizko»! Pario eroa da. Irakurle goari dagokionez, bada «legenda» urbano bat, zeinen arabera euskaraz idazten dugunok irakurleko murrizta dugun, «bereziki iparraldean» gehitzen dugu, kakotx artean. Poetok hirurehun irakurle baino ez omen ditugu. Ez dakit hala denez, bitxiki, irakurri behar ez duenak ere irakurtzen duelako gurean! Baina, estatistikek eta salmenta-kopuruek ematen dituzten zenbakiak ez ditut ukatuko.

Aitor dut, urguilurik gabe, mugalari-izpiritua daukadala. Onerako. Txarrerako. Taldean otzan ibiltzeko hezia izanagatik etxean, herrian, elizan, eskolan. Hor nago, egundainokoan, mugekin jostatzen, ezagutzen ez dudanaren leizea oinpean eta erortzeak zenbat kostatzen duen hausnarrean. Eskua behin erre duen haurrari ez bezala, gustatzen zait literaturaren arloan bederen, su horretara etengabe hurbiltzea, dakidan arren su hori sekula ez dudala ebasten eta nireganatzen ahalko. Idazlea, hondarrean, Sisifo bat delako. Egun oroz irekitzen zaio hitz-kordelez beltzatu «behar» duen orrialdea, prekarietatearen, ezintasunaren eta bere

mintzaira agoniakoaren etsipenaren mugak gaindituz. Mirakulua gertatzen da bakarretan: testua edo olerkia, garunean hain luzaz ontzen egonik, irudikatu bezala ateratzen da, lantzeko premiarik gabe. Gehienetan, idazlea artisaua da. Hizkuntza multzoa badu, buztin-bola eta Larruneko *gres*a puska baten antzera, denboraz eta pazientziaz forma emateko, soberakinak kenduz eta kenduz, kasko-zokoan daukan ideiarri ahalik gertuen dagokeen emaitza bakunera hurbiltzeko. Poema labur bat leitzen dugunean, hamazazpi oineko haiku bat, ez gara ohartzen zenbat energia eta ordu eskatu dituen, baina lau izarreko jatetxe batera joatean ere, sukaldeak ongi gordeak direla konturatzen gara. Muga hori ez du nornahik trabeskatzen.

Bigarren zedarria, ate-kantoian:

Ez dut nik
Gizarteak isiltzen duena
Erakutsi nahi,
Ez baitu gizarte honek
Deus gordetzen
Ikusten dakienari.

Ez dut nik
Poesia klasikoaren lege
Hartaz axolarik
Hitzeekin jostatzen ari
Bainaiz, juntatuz
Berdin, ezberdinak direnak.

Ez dut nik
Debru famatu haren beldurrik
Adiskideak
Bezala, (hau debrukeria!)
nere aldeko
etsaia nerekilan baitut.

Ez dut nik
Zeruko jainkoaren lotsarik
Zeren goizero

Hango sua ebatsirik
 Bainoa beti
 Mundu guzia erre nahiz.

Ez dut nik (1977)

18 urte nituen olerki hori idatzi nuenean, eta oraindik ere, ene urratsak gidatzen dituen poetika gisa hartzen ahalko nuke. Erran behar dut, neskentzat partikulari, irakurtzea denbora-galtzetat zeukan nekazari-mundu batetik natorrela. Gure etxea, alde horretatik, uhartea bezalakoa zen, haurra nintzen garaietan: telebistarik ez geneukan, eskolako liburuak esku batetik bestera pasatzen ziren, *Herrian* izkiriartzen zuen Parisen genuen osabak euskal disko, hiztegi eta gramatika atera berriak igortzen zizkigun Eguberriko, izeba bat bagenuen Bastida Biarnora ezkondua, ama Parisen egona zen sehi, eta Piarres Xarritonen euskaltzain zenaren nahikundez eraiki zen hango Duban karrikako Euskal Etxean ikasi kantak irakasten zizkigun.

Hala ere, gure belaunaldiko haurren moduan, eskolaratzearen ondorioz euskara galtzen ari ginen arren, bagenuen euskal gauzekiko halako tirria bat. Mugaire batean bezala bizi ginen, bi mundutan. Idazten nuen nik jadanik, frantsesez, lehen mailan nintzelarik. Beranduago euskara berreskuratu eta hizkuntz aldaketa egin nuen. Badakit, Uhane auzoko herriko eskolako ene lagun batzuek, orduko nire olerkitxoak atxiki dituztela. Euskara ikasi nuen hamaika urtetatik aitzina, bakarrik, salbaiki, Lafitten gramatikarekin, *Haize Garbiako* hiztegiekin eta aste oroz, Lekainean, Oragarre-Uhane auzoko gure dendan *Herria* hartuz: hiruko sakratua enetzat, pasatuak diren ikas-material horiei oraindik ere begirune amultsua eskaintzen diet, bereziki *Herria* astekariari, ene lehen adolezente-olerkiak bertan agertu zirelako 1974tik aurrera. Ez gaitu datu horrek gaztetzen, baina...

Oragarre, mugako herria da, baina ez da xarnegu-herrietan sartzen, nahiz eta baduen bere Bartetako kartier okzitanofonoa. Inta-gune horren saneatzeko Landetatik etorri ziren gaskoiak hor finkatu ziren, Purgatorio, Santamaria, Peliku, Lafrika edo Petipierrenea izeneko etxaldeetan... Aita beti ari zen espantuka, elebiduna zela, gaskoia eta euskara zekizkielako. Guk ere bearnesa doi bat konprenitzen genuen, izeba Felixiren baserrian pasatzen genuelako uda, barazkiak biltzen eta asteen bietan, Baionara hurbiltzen, uztak, Pannecau zubiaren gainean saltzeko. Memoriaren intimitatean elkar bizitzen zebizkigun euskara, gaskoia, frantsesa eta kolegioan gehitu zitzaizkigun ingelesa eta gaztelera. Ez ote ginen

bizitzarako prest, mintzairen aldetik bederen —hizkidea aurkitzekotan, alabaina—, euskaradunak orozbat...? Xarnegu-herri mugetako hitzunok, askotan, arras euskaldunak ere ez ginela entzun behar genuen, gu baino perfektuagoak ziren euskaradunen partetik. Arrazoa zuten, ez ginen egiazko euskaldunak, euskaldun eleaniztunak baino. Mugetakoak, ipar-mugetakoak, hitzak trukatzu iraun zuten hitzunak, gaskoiaren eta euskararen arteko bidaia etengabea, gu haien hitzekin, haiek gure hitzekin: satorrek *buhatzen* zuten, *gitak engisatzen* genituen, ibaiak *burrumbaz* isurtzen ziren... Iñaki Camino hizkuntzalariak Amikuzeko euskara ikertu zuenean, joan-etorri linguistiko horiek azpimarratu zituen. Euskararen zurrumbiloan berean, diglosia sentsazio-egoera batean bizitu garelako, ez gaitu agian diglosia orokorrak hainbeste beldurtzen, «agian» diot. Iharduki behar dugunean, umorea eta ironia hor dauzkagu, sarkasmoa ere bai beharrean, basamortuan eta bakartasunean aitzina egiteko jaidurak, polita ez den euskara hibrido bat ezpainetan, eta sekula ez etsitzeko borondatea.

Izpiritu «xarnegua» dabilkit buruan: gustatzen zait hizkuntzak ikastea, ezagutzea, hizkuntzekin lan egitea, jostatzea, komunikatzea. Horregatik, segur aski, itzulpenaren zale absolutua naiz: 1981ean *Maiatz* sortu genuenean, benetako literatur aldizkaria izateko gisan, itzulpen atala behar zuelako pentsatuz, orrialde horiek frantsesetik, ingelesetik edo gaztelarik euskarara itzulitako idazkiz betetzen nituen. Beranduago, auto-itzulpengintzari ere lotu nintzaion, bereziki 2002an Euskadi Literatura saria ukan zuen % 100 *Basque* nobela frantsesera pasatu nuenean. Azken urteotan hainbat euskal poeta, frantsesez jantzi ditut, hemen dira batzuk. Ene poema-bilduma zenbaiten eta Amaia Ezpeldoien ipuin batzuen edizio elebidunak ere kudeatu ditut. Badakit egiteko era hori ez dela ongi ikusia, baina marra gorri horren gainditzea maite dut, baketsuki, hizkuntzen arteko ohiko hierarkia ahantziz, euskaraz dugun hoberena partekatzeko modua delako ene gustuko.

Simone de Beauvoirren eta, ene partetik, Monique Wittigen diskurtso feministen abaroan, euskal emazte idazleei bidea ireki zien belaunaldiaren parte sentitzen naiz, Arantxa Urretabizkaia, Artur Rimbaudek ukatuko ez zuen bere A E I O U berri baten programarekin zetorren Amaia Lasa, Laura Mintegi, Tere Irastortza, hauekin ibili naiz hainbat lekutan «emakumea eta literatura» gaia publikoan jorratzen, gai berria zelako, eta gure eskualdeko Marixan Minaberri eta Marikita Tanburinekin batera. Emazterik gabeko euskal kultura mundua imajinatu behar da, duela mende Erdiko egoera, emakumeontzat «idazkari» hitza erabiltzen

zela eta gizonezkoentzat aldiz «idazle». Horrek dena argitzen zuen. Kezka sozial berriak ekarri genituen plazara, gorputzaren inguruko ikuspegi pentsaezinak eta bistan dena, orozbat, planeta honetako jendetzaren erdiaren presentzia literarioa.

Ez ginen beti ongi ikasiak, goratik hartzen gintuzten, gure ildoak ireki behar genuen, gaizki idazten genuela erraten zen, *ni* pertsona gehiegi erabiltzen omen genuela, gure huts gramatikalak publiko egiten ziren. Momentu gatazkatsua zela oroitzen dut. Baina orduan, euskal literaturaren larre motza aldatu zen errotik, gaur ezagutzen dugun panoramara heltzeko. Gure arrangurak genero-mailakoak ziren, baita ere sozial alorrekoak: langilearen figura eskas zen euskaraz, lantegietako giroa, hizkuntzak berak bere alokutibo marka ezberdinekin inplizituki zekarren klase borrokaren itzala, euskal gizarteko baztertuak oro, Tupintegiko Roxaliak, ezkontezinak, itsusi konjenitalak, euskalkietako hitz harro zaleak, haur ez maitatuak, buhameak, etxetiarrak, zaharrak eta zaharkituak, langabetuak, *auher* edo alfer famakoak, publikoan ere noka ari direnak, aditz trinkoen erabiltzaile amorratuak, guraso goizegi zenduak, sindikalistak, mutxurdinak, politikoki borroka armatuarekiko kritikoak direnen aburuak, mutuaraziak, guziak bistan dena, fikzioaren baheetatik pasatuz, ene nobeletako gai eta pertsonaia anbiguo bilakatzen zirela! Euskal jendartearen homogeneitatea genuen partida, erakutsi nahi genuen, egunean-eguneko euskara beharbada inperfektu batean, gure mundua ez zela bakarrik artzainez, laborariz, apezek eta hondar-denboretan kazetariz eta irakasle giristinoz osatua, hots euskara kalbario baten moduan bizi zuten eta mintzaira hau, dena debeku, dena gaztigu, dena gaitzespen, gurutze baten antzera bizkarrean ekartzen zuten herritar suharrez.

Emazte sortzaileak hor ginen, aniztasunaren ikur, eta emakume horietatik zenbait lesbianak ere ginen. Amaia Ezpeldoi detektibeak, 30 urteko bere ekinean, Euskal Herriko LGBTQIA+ jendearen destinoa paperean etzan du. 1986ko *Maiatz* aldizkariaren zenbaki batean plazaratu nuen *Klara eta biok* ipuinak ekarri zituen lehen neska bikote esplizituak euskal literaturara. Orain, egoera aldatu da erabat, eta ikusgarritasun zerbait badugu, baina urteak joan ziren isiltasun dorpearen mendean. Euskaldun izateak, homosexuala izateetik begiratu gintuen? Gay delakoak baziren, baina gehienek exodoaren bidea hartzen zuten, Bordelera, Parisera edo Londresera «euskaldun-fededun» tapakitik urrun bizi ahal izateko. Normalizatzen goaz hor ere, bide luzea egiteko geratzen da dudarik gabe, literaturan, bai eta bizitza errealean ere.

Hirugarren zedarria, bideko:

Badakit zure ondoan
Zer eta nor naizen,
Hatsa dudala gogoan
Urrats hori baizen:
Begiak zabalik
Oin biak lurrean
Banabil apalik
Argi elurrean.

Eman dut anitz denbora
Zer eta nor nintzen
Ikasten, zure altzora
Helduz maitemintzen...

Maite dut maite bizitza
Zer eta nor naizen.
Hegalda bedi gaur hitza
Ahalikan maizen.

Out (2006)

Tabu eta *omerta* trinkoa sustatzen duen herriko idazlea naiz. Muga bat dago hor ere, indartsua. Modu endogamiko batean funtzionatzen dugu. Burua agertzen duen edonork gaztigua jasotzen du. Hala da oraindik. Egia da, idazle naizenez, askotan gogorra suertatzen den giro soziopolitiko eta kultural uher horren izkiriartzea ezinbesteko xede gisa hartu dudala, batzuetan egiazki erabaki gabe. Labana (nire) zaurian zirika ibili dut frankotan. Biolentzia politikoak menturaz, are gehiago azpimarratu duen jendarte biolentzia gara oinarrian, desafio- eta pario-egilea, beti elkarren aurkako lehian gabiltzanok, beti gehiagokoan. Gu bezala ekiten ez dutenak baztertzen ditugu, eta bat-batean, iratzartzen gara, eta eskuzabaltasun ziztak batek elkartasunera eramaten gaitu. *Bref*, benetako herri eta jendalde baten zati gara. Maite dugu, errealki ala metaforikoki, bakartasunera, isiltasunera edo kanpora kondenatzen gaituen lurralde kontrastatu hau. Zinez maite dugu.

Iparraldekoa izan arren, ene idazki iparraldekoegiak jada ulertezinak bihurtuak diren arren, adinean hara noan arren, emazte-idazle belaunaldi berriak jazartzen ikusten ditugun arren, jendartean oraino izaera maskulinistak eta *mansplaining* joerak nabaritzen ditugun arren, ekonomikoki postari izanez segurtatu dudana «idazle-bizitza bat» eraman dudala aitortu dut, gehienbat 90eko hamarkadan nire burua «idazle» deitzea onartu nuen geroztik. Baina bide luze hori ez dut bakarrik egin: bidean gurutzatu ditut hainbat jende eta proiektu partekatzeke, hala nola Donapaleuko Etxekopar kolegioaren eta Jean Errekart lizeoan artean nintzelarik, Junes Casenave, Manex Erdozaintzi-Etxart eta Eñaut Etxamendi, besteak beste. 80ko hamarkadan, oraino ere enetzat biziki garrantzitsua den *Maiatz* aldizkariaren abenturan parte hartu nuen gogotik Luzien Etxezaharretaren konpainian. Halaber, nire harritxoak ekarri nuen euskalgintzaren terrenora, Zuberoan Ikastola berriaren eraikitzeko lanetan arituz edo 2000. urtearen bihurgunean, Seaska elkartearen presidentea izanez. Baina oroz gainetik, bidearen buruan, idaztea izan da herritarrekin ukan dudana lotura nagusia, historia honetako ene inplikazio politikoa, sinesten dugun *doxa* horretako «inpentsatuak» jorratu eta idazteraino.

Euskal prentsako behargin segitua izan naiz mende erdi honetan eta sinesten dut langintza hori modurik zuzenena dela irakurleengana heltzeko. Erran dut *Herrian* hasi nintzela, *Zeruko Argian*, eta geroxeago *Egunkarian*, *Berrian* eta beste hainbat baliabidetan jarraitu dut gaur arte. Artikulu edo ipuin baten izkiriatzeko eskakizun bati ez diot sekula ezezkorik ematen, are gutxiago pertsona partikular batenari, bataio, zorion, eztei edo ehortzetarako testu baten premian galdezka agertzen zaizkidanean.

Beste modua jendeak hunkitzeko, musika da. Euskal Herriko musikari askorekin «lan egin» dut, hor ere elkartasunak bilatuz, gure mugen baitan, bai eta gure mugetatik kanpo ere, demagun Landetako *L'orchestre maigre* taldeko Ahots & Poesia kide bilakatuz, hainbat ekarri didaten Madonna eta Björk erraldoien itzalean. Azken aldian, Ibon RGrekin ibili naiz Euskal Herrian zehar, ahotsa eta musika uztartuz. Musikarena opari bat da, eta melodia-egile trebe horiek oro eskertu behar ditut, ene testuak hitzez harago eman dituztelako.

Periferiako idazlea ez ote naizen galdatzen didate anitzetan. Bada euskal munduan «zentro» erabakitzaile garrantzitsu bat? Periferiakoa izateak —eta hala naiz duda izpirik gabe—, idazle «minorra» naizela erran nahi ote du? Periferia urrun horietatik alta, gauak gauari, Euskal Herriko ehunka herritan egon naiz,

irakurleekin solasean, ikusgarri musikatuak eta mintzaldiak eskaintzen, periferia hutsak diren gure sei probintzietan. Batzuen begietan, alde orotara, barne-logikarik gabe, barreiatzen den idazlea naiz, baina ene gogoan logika bat bada: ez naiz euskararen jabe sentitzen, euskara eman zidaten, galdu eta berreskuratu nuen, ez niretzat atxikitzeko, baizik eta partekatzeke, eskuzabal linguistikoa izateko. Gero egia da, askoren antzera, emakume sortzailea izanez, ene kultur ekinean hala duda bat nabaritzen dudala beti, batez ere gaur bezalako egun zehatzetan, segurtasun eta sinesgarritasuna falta dudala iruditzen zait, inpostore-irudipen kutsu bat, fikzio hutsa, eta lan asko egin behar dudala maila emateko, ene idazle-kide gizonezkoek baino anitzez gehiago. Baina bost! Lerrake Bilboko ene adiskide Pedro Alberdik, hori da nire betekizun obsesiboa, mugalari izateak oparitzen didan aldi berean *inside* eta *outside* ibiltzearena. Idazle-lana maite dut, ez nau egundaino aspertu, ez nau aspertzen, ez nauela aspertuko badakit.

Honatx, laugarren zedarria:

Outside nago
Has been baino has behin
Bat baizik ez naiz
Oraindik ere.
Ene poesia
a-soziala
dela
diotsut
outsidera
deitzen zaitudan
bitartean.
Ez dut laudaziorik nahi
Basamortuan oihuz dabilen
Ahots alderraia
Baizik ez naizelako
Oraindik ere.
Ene poesia
a-soziala
dela
diotsut.

Ez dut ezagupenik nahi,
 Ez egun, ez bihar, ez etzi,
 Basamortuan kantari dabilen
 Sakrifikatuaren itzal
 Alderraia
 Baizik ez naizelako
 Dagoeneko.
 Ene poesia
 a-soziala
 dela
 diotsut.
No future outside:
 Ahantzi dezatela
 Ene poesia
 a-soziala
 gure amen izerdiak
 ahantzi diren bezala.
 Amen.

Zure hatzaren ez galtzeko (2014)

Milesker zuei, milesker alabari, familiari, postako behialako lankideei, sindikatuko lagunei, elkarte ezberdinetako militantzia-kideei, pazientziaz jasan dituzuelako ene gehiegikeria analitikoak, ausentzia sortzaileak, isiltasunak, marmarrak, gogoeta debaldeak. Deus ez da egiten ahal, inguratzen gaituztenen konpliziterik gabe, batzuetan nardatzen ditugun arren. Deus ez da egiten ahal, menperatzen baino, gure oinarritzko euskal mintzairak menperatzen gaituelako kontzientziarik gabe. Muga, sorkuntzaren derrigorrezko baldintza *sine qua non* dela sinetsi gabe eta hondarrean, mugarik ez duen harreman bakarra, idazleontzat, irakurlegoarekikoa da: iraun beza esnaturik eta kritikoa izaten, ez diot besterik desiratzen!

Bonus track: azkeneko zedarria, begiak itxirik.

Nehork bilatzen ez duen haur galdu bat zara.
 Hizkuntza amildua zure ezpainetan hiltzen ari da.
 Ez zara gehiago ihardukitzeko adinean.

Malda pikoetan gora doazen xendetan zabilta.
 Haur galdu hura zara malkoak jada mateletan euri.
 Josep Condo Sambeaten otoitza duzu sakelan.

Otsoak hezi eta hartzak hazi haur galdu bat zara.
 Alide Sansen arbelezko kankak xuxurlatzen dituzu.
 Urrats bakoitzean ber pizten zarela sinesten duzu.

Eternitatea agudo pasatzen da bi mila metrotan.
 Maitasuna hondorik gabeko putzua dela badakizu.
 Bassa d'Oles hegian, haur galdu haren itzala zara.

Bausen, 931 m

Argitaragabea (2023)

Itxaro Borda Xarriton
 2023ko urriaren 28an
 Baionan, herriko etxean

Sagrario Aleman euskaltzainaren erantzuna

I. Bordaren sarrera-hitzaldiari

Idatzi gabe ezin bizi denari bi hitz

Baionako auzapeza, euskaltzainburua, euskaltzainak, agintariak, Itxaroren familiakoak, adiskideak:

Orain hilabete zenbait, Itxarok bere sarrera-hitzaldiari erantzuna eman niezaion eskatu zidalarik, kontent hartu nuen aspaldiko lagunaren gonbita. Baina esan behar dut kontent bezain lotsaturik nintzela. Itxarok ongi dakien bezala, bere eleberri anitzetako Amaia Ezpeldoi detektibearen gisan, ni ere ez naiz batere trebea hitzen lerrokatze lanetan. Eta hori aski ez, eta, bi idazle handiren, Miren Agur Meaberen eta Castillo Suárezen, sarrera-hitzaldi eta erantzun ederren ondoren nator Bordari erantzutera. «Luma baino errazago hartuko dun telefonoa», erran zenidan, Parisen zinenean niri igorritako zure gutun gehientsuenak erantzunik gabe gelditzen zirela eta.

Oragartarra hiruretan hogeita hamarreko hamarkadan ezagutu nuen. Oker ez banago, Aresoko Elizetxean euskara-ikasleekin egin genuen barnetegi batean. *Basilika* liburua argitaratu berri samarra zuen Itxarok, eta pentsatu genuen arras egokia zela Itxaro gure artera gonbidatzea, Ipar Euskal Herriko emakumezko idazle gaztea izanik. Uste dut orduan nuela lehen aldiz entzun Oragarre herriaren izena, eta Itxarok ere bai, beharbada, Etxaleku eta Areso Nafarroako herrien izenak. Aresokoaz geroztik, Sarako barnetegian, Iruñeko Arturo Campion euskaltegian eta Zaldiko Elkarteko irakurle-taldean, bertzeak bertze, izan genuen Itxaro gure artean. Nafarroaren Egunean ere elkartu izan gara Baigorriin.

«—Erantzuna prestatu beharko dut, Itxaro. Zer izanen duzu hizpide? Pentsatua duzu izenburua? —Bai, muge inguruan ariko naiz».

Neure baitan, «zer arraiio, deabru, esan behar dut horretaz!». Baina badakizue, guziok baditugu obsesioak eta bizipenak eta zer bururatu niri muga-kontuak entzun

orduko eta, Sartaguda eta Ebro ibaia, batetik, eta, bertzetik, nola ez, Nafarroako Euskararen Legeak lurralde barnean ezartzen dizkigun lerroak, Nafarroa Garaia eremuka zatitzen dutenak helduki niri berehala burura.

Sartagudan helduei eta haurrei eskolak ematen aritu nintzenean ikasi nuen Sartagudak lurralde bazituela Ebroren bi aldeetan. Ebroz bertze aldera joateko, lurra lantzeraz, trenaz hartzeraz eta, bereziki, bertako produktuak garraiatzeko, La Barka deitzen zuten ontzia erabiltzen zuten Sartagudako jendeak. Ibaia gainezka egin zuten batean, urak handiturik delako La Barka eramane zuten. Herritarrek bertze manera batzuek baliatu behar izan zuten Ebro iragatzeko. Txalupa tikiak erabiltzen hasi ziren, edo Lodosan barna, joan-etorrian 16 bat kilometro egin behar izaten zuten. Luze gabe, Nafarroako Diputazioak, Sartagudakoek eskaturik, zubia eraiki zuten.

Nafarroako Euskararen Legeak, 1986an, irizpide jakinik gabe, Nafarroa zatitu zuten. Hiztunon eskubideak ukatzeko eta hizkuntza-komunitatea desagiteko egin zituzten eremuen arteko mugak. Euskaraz ez daiteke inon bizi, ez eta eremu euskaldunetan ere, Legeak euskara ofiziala dela esanagatik, eremu horretako herritarrek zerbitzu gehienak euskara ofiziala ez den eremuan baitituzte.

Koldo Izagirrek, *Argia* aldizkariaren enkarguz, *Zaldi bat ihes garrezko zelaian* liburua prestatu du, 1869tik 2000rako aldian euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri bilduz. Hautatutakoen artean, Itxaroren bat dago, *Argian* 1968an plazaratu zuena. *Urepelen Xalbadorren hiltzearen 10. urtemuga* izenburupean. Itxarok idatzi du zazpi bertsolari aritu zirela taula gainean (emakume bat tartean, Arantzazu Loidi). Ipar eta Hego Euskal Herrikoak. Batzuen eta bertzeen artean diferentzia nabaritu zuten, batez ere gizartearen ideologia erakusteko orduan. *Fronteraren* eragina zalantzarik gabe. Horri, *fronterari*, luze iraunaraziz, zatiketa betikotzen da, amildegia sortzen bi alderdien artean. Nafarroako Euskararen Legeak 40 urte beteko ditu agudo. Nafarren artean hesi mentalak handitzen ari dira. Ondorioak bistan ditugu gure buruetan; dagoeneko, anitzendako, euskara ez da nafar guziena. Euskaraz bizitzea ezinezkoa.

«Idatzi gabe ezin bizi». Horixe aitortzen dio Itxarok Ana Urkizari *Zortzi unibertso, zortzi idazle* liburuan. Urkizak liburu honetan lehen mailako 8 idazle emakumezko elkarriketatu ditu: Arkotxa, Arrieta, Borda, Landa, Meabe, Mintegi, Oñederra eta Urretabizkaia. Guziak euskaltzainak, bat izan ezik. Euskal literaturan eta Euskaltzaindian gauzak aldatzen ari diren seinale. Eta 2017ko *39 idazle nafar* liburuak, berriz, periferian ere euskal literaturak indarra baduela erakusten digu. Bordaren testua: *Mugalari hotzak*. A-tik Z-ra, *Ablanedotik Zabaletara* 39 idazle, Nafarroa Garaiko zein Beherekoak, denak ageri ez direlarik, gainera. Nafarroako narratibaren bilduma gisa, 2016an, *Relatos navarros* izenburuarekin aurkezturiko liburuari kontrapuntua jarri nahian eginikoa, horretan euskarazko bi idazle bertzerik ez baitzen ageri. Euskara bera da periferia gure herrian. Aingeru Epaltzak dioen bezala, auzoko bizilagunak ere ez daki idazlea naizela. Euskaraz idazteak hori dakar, ikusezinak egiten gaituela. Gure hizkuntza ez dakitenak, eta euskaldun zenbait ere, euskal kulturari eta euskarari bizkar emanik bizi dira.

Itxaro Borda Xarriton, haurtzaroan Oragarren jostatu zen, bere sei senideekin. Han eskolatu zen, eta han hasi idazten. Etxeko hizkuntza euskara bazuen ere, bere lehenengo olerkitxoak frantsesez idatzi zituela dio. Eskolako eta etxeko hizkuntzetan, bi mundutan bizi zen Itxarok galduxea zuen euskara, hamaika urtetan berreskuratu zuen. Familiako giroa, Lafitteren gramatika, *Haize Garbiako* hiztegiak eta *Herria* aldizkaria lagun omen zituen. Eta ziur naiz, bidea erraztu ziotela aitak auzokoen hizkuntza ikasteko zuen jakin-minak eta amak Parisko Euskal Etxean ikasi eta seme-alabei transmititu zizkien kanta haiek.

Euskal kanta zaharrak eta gaurkoak ere oso maiz aipatzen ditu Itxarok bere liburuetan. *Maitia nun zira, Itsasoa laño dago, Jalgi hadi...* Euskal kantategi ederra osa genezake Itxaroren liburuak irakurritz. Zure gutun batean erran zenidan, *gu* bilakatu zinela Ainaraz erdi zinenean. Eta Ainara zure alabari euskal kanta erakutsi zenizkion, amak zuekin egin zuen gisan. «Gaur Ainarak *Uso xuria errazu* eta *Oi Pello, Pello!* ikasi ditu», zenion gutunetako batean. Puntuka ere aritzen omen zineten ama-alabak, baita Ainarak kanten aireak ikasi eta haien gainean hitzak asmatzen ere. Horrela, amak bere lan-baldintzak hobetzeko egiten zituen greba

haietan, nonbait, *Internazionalaren* melodia ere buruan hartu zuen neskatoak, eta, hartan gogoko letra ezartzen zuen usu. Euskal kantari eta taldeek musikatu izan dituzte Bordaren eta bertze poeta askoren poesiak. Orain gutxi elkarrekin joan ginen Baluarte Jauregiko aretoan Iruñeko Ganbara Abesbatzak eta Yolanda Campos Berguak eskaini zuten kontzertura. Milia Lasturkoren eresian oinarritutako Itxaroren poemak kantatu zituzten. Ikastoletan eta euskaltegietan ere, ahozkoa lantzeko ezinbestekoak direla eta, gure poeten olerkiak buruz ikasten dira, ez behar hainbat, seguru. Olerkariak pentsa bezate, bada, poesia-liburuak gutxi salduagatik jendeak poemak barneratzen dituela, hala edo horrela.

Postari-lanak Parisa eraman zuen Itxaro eta han ez zuen euskara ttinttik ere entzuten. Ahal guzietan etortzen zen etxera. Euskal Herrian egun batzuk egin, eta berriz Parisa joan behar, ordea. «15 egun euskaraz, eta orain euskara kasko zokoan kartzelatu, frantsesa ezpainetan», zenion. Horregatik egoten zen Euskal Herriatik etorriko zitzaizkion eskutitzen eta lagunen beha. Tamalez, ez zuen nahi adina euskaldun hartzen Frantzian. Biziki eskertu zuen *Maiatz* aldizkari adiskide Luzien Etxezaharretaren bisita. Haren gida izan zen Parisen gaindi. Inondik ahalean, Euskal Herrira itzuli nahian zebilen, euskaraz aritzeko, eta alaba ikastolan eskolatzeko. Sohütako ikastola eta hura eraikitzeak harriak nork ez ditu buruan! Maulerat etorri ziren. Eta Parisen zirenean bezala, Oragarrera joaten ziren, maiz, familiartera. Aterpera. Euskarara. Euskaraz bizitzera.

Behin erran zenidan: «Injustiziak salatzen ditinat, ardura ene kalterako, burugogor, ero, bitxi fama bildua dinat». Hori Parisko postetxean. Bere testuekin ere antzeko zerbait ez ote zaio gertatu? Ez ote du bitxi-fama eskuratu? Zirikatzailea da, ironia eta sarkasmoa erabiltzen ditu arrazioetan, mugak gainditzeko errekurto gisa. Euskalkiak eta hango eta hemengo hizkerak tartekatzen ditu, hiltunon arteko lokarria eta gehienen hizkera-moldea den euskara batuaz egiten dituen liburu eta zutabeetan. Koloretsuak dira haren narrazioak.

Euskaraz aritzea, euskaraz bizitzea, bertze anitzena bezala, Itxaroren kezka. Hizkera diferenteak dituztela eta, elkarri ez diotela ulertzen aitzakiatzat harturik,

erdaraz ari diren euskaldunei hauxe esaten die Joana Garraldak, Amaia Ezpeldoiren Zaraitzuko laguntzaileak: «Ñiñiñi, ñañaña, eta bizkitartean erabiltze eskasez euskara galtzen ari zaigu». Gauden tokian gaudelako, ez euskaldunok elkarri ulertzeko gauza ez garelako, aritzen gara maiz erdaraz. Ez gara, nonbait, ohartzen bi saihetsetan ditugun hesi gero eta estuagoez. *Eñe* letraren baitan jartzen dutenak beren hizkuntzaren etorkizuna. Alde batean *eñe* letra ordenagailuen teklatueta ez agertzeagatik, amorrazio biziz, mundua txikitu nahi zuen zezen astuna, eta bertze aldean, toki eta pertsonen izen-deituretan *eñe* hizkia inola ere onartu nahi ez zuen oilar harro koleratua. Hor, gu, bien erdian hatsik hartu ezinik. Urruña eta Iruñea.

Euskarari ezartzen zaizkion muga administratiboen, legeen ondorio latzak. Bertze gauza anitzetan bezala, mugak xehatu behar ditugu, Euskal Herria puskatzen dituzten guziak. Erdietsi behar genuke euskararen ofizialtasuna, eta, euskaraz bizi ahal izateko bitartekoak jarri euskararen lurralde guzian. Saiatzen gara Ebro ibaia gurutzatzeko eskola, ikastola, euskaltegi, komunikabide, literatura, kanta eta bertso deitu «txalupak» uretara botatzen; kilometroak egiten ditugu Lodosan barna, ekologiaren izenean «zero kilometro» aldarrikatzen den garai honetan. Bai, horiek denak behar ditugu, baina Sartagudako zubiaren espa eta beharra dugu euskal hiztunok.

Ongi etorri Euskaltzaindira, Itxaro. Amañiren egitekoaz landa, astia izanen duzu Euskaltzaindian aritzeko. Zurekin, Andoni Sagarnak, Miriam Urkiak eta Hiztegiko Lantalde guziak, lehen aski ez eta, zeregina izanen dute zuk ekarriko dituzun hitzen biltzeko. Euskal Herrian barna egin dituzun itzulietan herritarrengandik jaso eta idatzietan izkiriatu dituzun hitzek, paperetan aski erabiliak izan arte, txandaren zain, ilaran egon beharko dute hiztegira jauzi egin aurretik. Literaturari tokia egiten ahaleginduko zarete idazleok Euskaltzaindian. Poesian, Irailekoak, *fronteraren* bi aldetan antolatu duzuen ekimenen antzekoak etorriko zaizkigu zuen eskutik. Gure bileretan-eta, noizbehinka olerkiren bat irakurriko diguzula espero dut... Eta zure ezten probokatzailea ere dastatuko dugula uste dut. Bide polita egin dezazula!

Sagrario Aleman Astitz
2023ko urriaren 28an
Baionan, herriko etxean

ANDRES ALBERDI GOROSTIAGA Euskaltzaindian sartzea

Getaria, 2023-XI-25

ALBERDI GOROSTIAGA, Andres
Euskaltzain osoa

Arauen itsasoan barna. Araua al da dena?

Agurra

Euskaltzainburu jauna, Getariako alkate jauna eta agintariok, euskaltzain-kideok, senide maiteok, lagunok, herritarrok: eguerdi on digula guztioi eta mila esker gaur gurekin izateagatik.

Zin dagizuet. Ametsik ederrenean ere inoiz ez zitzaidan agertu gaur eguerdiko imajina hau. Ederra da benetan, baina momentu estua da niretzat, eta ea asmatzen dudan ezer fundamentuzkorik harilkatzen.

Pentsatu nahi dut, nire merezimendu pertsonalak baino areago, nire izenean, eskoletako maisu-andereñoen eguneroko afana eta lana saritzen direla izendapen honekin. Hala nahi nuke behintzat, ekitaldi eder hau gehiegizko aitortza baita nire merezimendu ahulentzat.

Aitor dezadan zalantza eta kezka asko izan ditudala hitzaldi hau prestatzen, batez ere nori zuzendu behar natzaion irudikatu ezinik. «Arrain nahastua» baitzaudete hemen: sarean antxoak, sardinak, txitxarroak, berdelak... nola, halatsu hemen euskaltzainak, politikariak, idazleak, arotzak, arrantzaleak..., denok nahasian. Nori hitz egin behar diot? Nola iritsiko naiz ondoen zuen buru-bihotzetara?

Bestalde, nirearen aurretik ospatu diren hitzaldietan hiru «poetandre» bikain aritu dira (Miren Agur Meabe, Castillo Suárez eta Itxaro Borda), eta hitzaren ederraren langa hain utzi dute goian, ezen beldur naizen ez naizela gauza izango haien hitz-dotoreziaren arrastoari segida emateko.

Ekitaldia Getarian ari gara egiten, baina horretan ere izan dut zalantza: non egin nire sarrera-hitzaldi hau, hemen Getarian ala Elgoibarren? Neure burua getariartzat aitortu arren edonon, ez ditut alferrik eman izitzako 50 urte Debabarreneko herri kuttun horretan, eta gainera han mamitu dut nire kasik 40 urteko irakasle-lan guztia; han egindakoaren ondorioa da neurri handi batean gaur hemen egotea.

Sarreratxo hau bukatzeko, esan behar dizuet jende askoren zordun naizela. Alboan izan zaituztedan lankideok falta izan bazintuztet, nekez asmatuko nuen esku artekoak taxuz burutzen. Beraz, eguneroko ekinean gaiak eta lanak nirekin eztabaidatzeko adeitasuna izan duzuen eta oraindik ere duzuen lankideoi esker onik handiena adierazi nahi dizuet.

Ezin ahaztu etxeko hurbilekoenak ere, paper artean pergamino-aurpegia jartzen ari zaidala gogorarazten didazuen horiek. Bihoakizue zuei ere nire eskerrik bihozkor eta maitekorrena nirekin izan duzuen pazientziagatik; zuek, Mari Jose, Uxue eta Antton. Eta ezin aipatu gabe utzi bilobak ere: hemen zaudeten Lur eta Xan, eta Kopenhage aldean dauden Anuk eta Kai.

Eta zuei ere, entzuleoi, eskerrik asko gaur eta hemen eskaini didazuen aukera paregabe honengatik, eta natorren harira.

Euskaltzainen aipamena

Andoni Sagarna. Euskaltzaindiaren araudiak agintzen du, euskaltzain berriaren egiteko bat, ordezkatzeko duen euskaltzaina gogoratzea dela; haren aipu edo/eta oroitzapena egitea, alegia. Honela dio hitzez hitz: «Sarrera-hitzaldia hautatuak berak nahi duen gai batez izan daiteke, baina betiere euskaltzain zahararen —zeinen ondorengo sartzen baita— aipu edo oroitzapena egiten duela». Aipu eta oroitzapena.

Euskaltzain «zaharra», dakizuenez, gaurko honetan, Andoni Sagarna dugu, euskaltzain emeritu iaiztik, 75 urte bete zituenetik.

Aipu edo oroitzapena zio araudiak, Andoni. «Oroitzapenik» ez diat egingo oraindik, hemen hago-eta; «aipua» bai, gustura eta goresmenarekin gainera, errespetua, esker ona eta miresmena besterik ez ditiat-eta hirekiko. 26. aulkia¹ elkarrekin partekatuko diagu etorkizunean. Ez diat dudarik oraindik ere hireak urte oparoak izango direla. Hala opa diat.

Memoriak huts egiten ez badit, 2015eko urtarrilean ezagutu nuen aurrez aurre Andoni Sagarna, Bilbon, Plaza Barriko egoitzan. Irudia argi daukat gogoan: nola hurbildu zitzaidan irribarretsu, nola luzatu zidan bostekoa, eta esan zidan, «Hi Alberdi haiz inondik ere!». Harritu egin nintzen ezin ulerturik nolatan ezagutzen ninduen... Nik bera bai, bera gizon ezaguna baitzen euskalarien artean, baina berak ni? Berak leundu zidan harridura: ikaskide izana zuen nire anaia Arrasateko

¹ Azken orduko azalpen bat behar du aulkien numerazio-kontuak: 2024ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkurak erabaki zuen doitze bat komeni zela aulkien numerazioan, eta, 26. aulkia zegoenez, hura hemendik aurrera 7. aulkia izango dela.

Eskola Politeknikoan, eta, anaia eta ni bi ur-tantaren pareko izaki, ez omen zuen dudarik egin ni Alberdi nintzela. Laster lerratu zen nahi zuenera: ez omen zetorren bat nik *Oinarrizko Gramatikan* nioen gauza batekin:

**Hobeago* forma ez-gramatikaltzat jotzen omen nuen nik (esaterako, **Bizitza hobeago baten itxaropena* esaldia txartzat ematen omen nuen, eta esaten, *Bizitza hobe baten itxaropena* behar zuela. Ezetz berak, ez zela hala; erabilera nagusia nik nioena izanik ere, *hobeago* forma aspalditik erabili zela tradizioan eta ez zela baztertzekoa.

Asko estimatu nion zuzenketa. Ulertarazi zidan gramatikaren gainetik zegoela askotan usadioa; gramatikak ez duela zertan beti hizkuntza moldatzen ibilirik, gramatikaren egitekoa hizkuntza esplikatzea dela, eta ez hari parapeto eta lubakiak jartzen ibiltzea.

Urte asko daramatza Andonik Euskaltzaindian lanean, baina ez diozue bere emanari neurri zehatza hartuko; izan ere, ez du bere buruaren afanik jotzeko tentaziorik sekula sentitu.

1987an izendatu zuten euskaltzain urgazle, eta 2006an euskaltzain oso. Industria-ingeniarria da karreraz, eta ibilbide oparoa egin du euskalgintzan. Besteak beste, Elhuyarren, UZEIn, Elkarren, Udako Euskal Unibertsitatean eta Euskararen Aholku Batzordean. Hizkuntzaren teknologiaz sarri idatzitakoa da euskarazko hedabide askotan. Irakasle ere aritu izan da.

Euskaltzaindiko egitekoei dagokienez, Iker sailburua izana da eta baita Gipuzkoako ordezkaria ere. Arlo akademikoan, Bergarako Biltzarrerako (1978) txostena prestatu ondoren, bereziki hizteigintzan (LEF, EBBS, *Lexikoaren Behatokia*, *Hiztegi Batua*) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean aritu da. Gaur egun, Euskaltzaindiaren Hiztegia Batzorde Ahaldunduaren burua da, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* zuzendaria eta Euskaltzaindiaren IKT Batzordearen burua. Badu emana, beraz.

Urte luzez elkarrekin lanean feru segi dezagula opa diat bihotzez, Andoni, eta horretan luzaro elkar ikusteko parada izan dezagula, jakina.

Arauk horretara behartzen ez banau ere, beste izen batzuk ere aipatu nahi ditut. Alde batetik, eskualdeko euskaltzainak, eta bestetik eta bereziki, bi getariar.

Eskualdeko euskaltzainak. Alde batetik, hildakoak daude, eta horien artean sona handiko idazleak antzeman ditzakegu:

- Bonifazio Etxegarai legegizon zumaiarra (1878-1956). Euskaltzain osoa.
- Julene Azpeitia idazle eta irakasle zumaiarra (1888-1980). Euskaltzain ohorezkoa.
- Salbatore Mitxelena zarauztar olerkari handia (1919-1965). Euskaltzain urgazlea.
- Karmele Esnal idazle eta irakasle oriotarra (1932-2012). Euskaltzain ohorezkoa.

Bestetik, gaur egungo euskaltzainak. Hementxe ditugu batzuk gure artean, eta horien artean ere sona eta itzal handikoak ditugu batzuk:

- Iñaki Beobide (Zumaia, 1934). Euskaltzain urgazlea.
- Antonio Campos (Orio, 1942). Euskaltzain ohorezkoa.
- Anjel Lertxundi (Orioko zarauztarra, 1948). Euskaltzain ohorezkoa.
- Andoni Egaña (Zarautz, 1961). Euskaltzain urgazlea.

Bi getariar. Bailarakoen artean baditugu bi getariar ere, eta horiei aparteko aipua dagokie. Getariako sonako pertsonez aritzean, ia beti, itsasgizonak, jostunak, kantariak, sukaldariak... aipatzen dira irrati-telebistetan, paperetan, liburuetan. Une hau aprobetxatu nahi dut, gogora ekartzeko euskaltzainak ere badituela Getariak, eta horiek goratu nahi ditut hemen, beren isilean euskal letretan egin duten ekarpena gorestekoa eta aldarrikatzeko. Mikel Lasaz eta Kaxildo Alkortaz ari naiz.

Mikel Lasa «Alegrianekua»

Paperek diote Mikel Donostian jaio zela orain dela 85 urte, baina getariartzat dugu getariarrok. Hementxe da gaur gurekin.

Bere ibili literarioan, *Egan*, *Olerti*, *Yakin*, *Zeruko Argia*, *Zabalik* eta *Literatur Gazeta*

aldizkarietan eman zituen argitara bere lanak. Amaia Lasa arrebaren poemekin batera argitaratutako *Poema liburua* izeneko liburuarekin egin zen ezagun literatura-munduan.

Mikelen olerkigintzak berrikuntza nabarmena ekarri zuen euskal poesiara: garaiko olerki sozialetik aparte (Arestik erreprestatzen zuen hartatik aparte, alegia), Europako joerei ireki eta Jean Paul Sartre erreferentzia zuen existentzialismoan oinarritutako poetikara jo zuen.

Itzulpen-lanak ere baditu; besteak beste, egile hauen obra batzuenak: Alfonso Sastre, Michel Tournier eta Arthur Rimbaudenak. Mikelena da *Nobela berria Hego Ameriketara* (1972) saiakera ere.

Euskaltzain urgazlea da 1965etik aurrera, 27 urte zituenetik alegia. Eta Akademiako batzordeetan aritua da. Alfabetatzea Batzordean lehenik (1966an sortua eta zenbait urtez) eta EEBSen (Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa) gero (1987-1993).

Kaxildo Alkorta «Kaxildonekua»

Duela bi urte hil zitzaigun Kaxildo. Askotan egoten ginen elkarrekin, sarri etortzen baitzen anaia Joxe Mariren ardura hartzera. 80 urte egin berriak izango zituen egun, bizi izatera. Bizi-bizi daukat oraindik, zendu baino bizpahiru hilabete lehenago harekin izan nuen berriketaldia: *leamostu* arrain-izenaren nondik norakoaz aritu ginen.

Getarian jaioa, Filosofian lizentziaduna eta itzultzailea. Jarduera profesionalari dagokionez, IVAPeke itzultzailea izan zen erretiroa hartu arte. Mendebalde Kultur Alkartearen burua izan zen urte askoan. Lehenagotik, 2001. urtetik gora, aritu zen lanean Euskaltzaindiaren Euskalkien Lantaldean. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 2013an.

Itzulpen-lan batzuk badituen arren, ezagunagoa da autore den zenbait libururengatik. Ezagunenak agian, *Giza zirriborrea* (1972) eta elkarlanean eginiko *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran* (2004) eta *Kirola gogoan* (2013) zituen.

Eta honenbestez, sar gaitezen gaurko gaian...

Arauen itsasoan barna. Araua al da dena?

Sarrera

«Etxe blokeen arteko banku berdean itxaroten diet lagunei aitak ez diezaien interfonotik euskaraz gaizki egiteagatik kargu hartu. Gramatika du aitak ezinegonari aurre egiteko modua, araua zaintzea du ofizio, seguru sentitzen da “sintagmaren” barruan». Hala ageri naiz definitua alabaren liburu etako batean, eta badakit irudizko aita hori ez dela hain alegiazkoa...

Euskaltzaindiak ere antzera jokatu zuen nire hautagaitzaren berri hedabideetan ematean: hizkuntzalaria omen naiz...

Predestinaturik bezala nago, beraz; eta gaurkoaren moduko testuinguruan, ez da harritzekoa, gaia nork bere eremura eramatea, norberaren esperientzia delako ondoen ezagutzen duena. Hartara, bada, utzidazue zuen aurrean hizkuntzalaritzako gogoeta batzuk egiten.

Urte askoan irakaskuntzan eta testugintzan bildutako pentsamenduak, asmoak, bizikizunak, itxaropenak, aukerak, ilusioak, frustrazioak..., edukiontzi ireki batean sartu ditut hitzaldi hau prestatzean. Eta bete-beteko askatasunez egin dut, inolako muturreko edo bridarik izan gabe, ongi jakinik, betiere, erretratu osatugabe eta partzial bat zirriborratuko dudala. Eta testu-bildumetan eta antologietan maiz gertatzen den bezala, absentziak presentziak baino esanguratsuagoak izan daitezkeela...

Bi partetan banatu dut nire gaurko hitzaldia, bi zatiren batura da:

I) Lehenbizikoa historia da, historia objektiboa eta historia pertsonala nahasian, gai honetan, beste askotan bezala, ez baita debaldekoa izaten norberaren biografia. Atzera eraman nahi zaituztet denboran, gaurkoari testuinguru bete emateko.

II) Bigarrenak iragana eta etorkizuna lotu nahi ditu. Zenbait araugairen demanda, eskaria edo aldarrikapenarekin batera, euskararen eta arauen gaineko kezka eta gogoeten zertzelada batzuk plazaratu nahi ditut denon hausnarketarako.

I. PARTEA.

Eta honela hasi zen historia: Ibilian egindakoak

Filmetan eta nobeletan bezala, egin dezagun atzera salto (*flashback* esango lioke horri literaturako irakasleak). Getarian gaudenez, lehen parte honetan, itsas zeharkaldi bat egitera gonbidatu nahi zaituztet, eta portu jakin batzuetara eramán, haietan lehorreratu eta haietan gertatuak ikusiz, zuetako gehienok ere bizi izan dituzuen antzeko esperientziak biziberritu ditzazuen nirekin batera. Sei tokitan hartuko dugu portu. Sar gaitezen, bada, ontzian, aska dezagun txikota eta jar gaitezen ateko bandan.

LEHEN PORTUA: **Getaria**

Getariarekiko nire erreferentzia ia guztiek haurtzarora eramaten naute. Getariako umetako garai hura presente ikusten dut geroko nire ibilbide guztian... Garai zoriotsua izan zen seinale, nonbait!

Eta euskararen unibertsoa ageri zait nondik-nahi hartaz gogoratzean; izan ere, modu naturalean bizi genuen Getarian euskara. Eta euskara bizi-bizia, espontanea, trabarik gabea genuen ezpainenetan.

Nire belarrietan, eta pentsatzen dut berdin gertatuko zaiela nire adineko getariarrei, oihartzun aparta sortzen dute oraindik ere, esaterako, hitz hauek: *tangarta, kulubixa, katxopa, tántola, zírringilo, lohior, txókorro, anklaiko...* Antzeko oihartzuna pertsona-izen hauek ere: *Hipólito, Leokadio, Eulogio, Gorgonio, Eutimio, Xeledonio, Prontxio, Toribio...*, edo *Sekundina, Leona, Genoveva, Fidela, Plaxida...*; edo leku-izen hauek: *Katxapo, Antxirri, Praileburu, Artzape, Piepia, Pistona, Katrapona, Txori-tonpe...* Oroitzapenen kutxa irekitzen dute nigan durundi apartekoa duten hitz eta izen horiek. Getariarrok dakizuenez, hitz eta izen horietako asko hartu ditut gerora hizpide *Artzape* aldizkariko orrietan.

Bada, testuinguru euskaldun horretan hasi nintzen euskararen arauen neure balio-mapa pertsonala eraikitzen. Zazpi-zortzi urteko mutil koxkorra artean, ordukoa dut oroitzapenean iltzaturik lehenengo gramatika-ikasbidea.

Sakristian egin nuen topo orduan Getarian apaiz zegoen eta zoritxarrez joan den igandean hil zen Mikel Zuazabeitia estimatuarekin; solfeoa ematen zigun han.

Norbaitengatik egin zidan galde Mikelek, ea ikusi al nuen edo. Nik erantzun: «Ez, ez diot ikusi». «Zer ez diok ikusi?», hark. Ez nuen ulertu Mikelen ziria. Segituan argitu zidan, ordea, aldea: esan zidan, gauza bat zela «norbait ikustea» ('ikusi dut') eta beste gauza bat, »norbaiti zerbait ikustea« ('ikusi diot').

Nire buruko arauen mapan pasadizo horrek osatu zuen nigan gramatikako lehen lezioa, **lehen «araua»**. Esan dut: modu espontaneoan egiten genuen hitz Getarian, baina ez genekien euskarak ere bazuela gramatika bat, bazituela arauak. Laprastada gehiago ere egingo genituen, seguru, baina ez naiz gogoratzen. Ez dut uste, hala ere, gaurko getariar askoren ahotan entzuten diren *etorri lai; ondo labil, e?; jun laiela* eta antzekoak erabiltzen genituenik.

BIGARREN PORTUA: **Seminarioa**

Duela 60 urte pasatxoko kontuak dira lehenak, Saturrarangoak; geroagokoak Donostiakoak. 11 urte egin nituen seminarioan, baina ez dut sekula horren damurik izan. Alderantziz: «zorte» hitza da erabili beharko nukeena, zeren frankismoaren gordinetan bizi izan arren eta guztiz egoera diglosikoan izanik ere, euskal komunitate bateko partaide sentiarazi baiktintuzten han. Abaro zabala eta segurua izan zen guretzat seminarioa.

Euskaraz oso gazterik alfabetatzeko parada izan genuen Saturraranen. Hantxe hasi ginen euskaraz idazten ere: gogoratzen naiz nola animatzen gintuzten eskutitzak euskaraz idatz genitzan...

Eta euskarazko irakasle guztiz egoki batekin egin genuen topo han, ni 11 urteko mutil-kozkorra artean: Joan Mari Lekuonarekin. Ez zen idazle ezaguna oraindik, ez eta euskaltzain ere, baina jakin zuen guregan euskararen aldeko barne-grina ernetzen. Bide-erakusle aparta izan zen guretzat.

Gogoan dut Jose Zabala-Aranaren *Gramática Vasca* genuela ikasliburua. Joan Marirentzat, ordea, liburua aitzakia zen; Lekuonari ez zitzaion gramatika interesatzen berariaz, gu euskararen arimara arrimatzea baizik. Eta kantuen eta bertsoen bidez lortu zuen gu euskararen jabe egitea. Ez dago modu egokiagorik hizkuntza baten prosodia, sintaxia, esapideak... ikasteko.

Gordeta daukat oraindik kantu eta bertso haiek jasotzen zituen liburuxka hura:

Euskal kantak du izenburua, eta pozez ikusi dut Euskaltzaindiak argitaraturikoa dela 1960an. Handik ikasi genituen, besteak beste, Pedro Mari Otañoren *Mutil koskor bat* ezaguna; eta Antonio Urbietak bere anaia «Kaskazuri» bertsolariari Ameriketarik bidali zizkion bertsoak, *Nire sentimendua* tituluarekin; eta Bilintxen *Loriak udan ihintza bezala*; eta Joan Bautista Elizanbururen *Ikusten duzu goizean*; eta 1935eko Bertsolari Txapelketako Txirritaren *Laurogei urte gainean ditut*, etab.

Nire buruko arauen mapan horixe izan zen bigarren lezioa, **bigarren «araua»**: hizkuntza bat ondo ikasteko, hizkuntza horren arimara iritsi beharra dago, eta arima hori herri-literaturan dago batik bat.

Zorteko izan ginen Donostiako seminarioan ere. Frankismo beltzean oraindik, baina euskal giroa nagusitzen zihoan garaia zen.

Donostian nintzen 1968an, 18 urteko gaztea nintzela artean. Hantxe harrapatu ninduen Frantziako 68ko Maiatzeko haizeak, eta ikasle frantses gazte haien oihartzuna ozen iritsi zen seminariora. Seminarista-andana izan zen garaitu horretan ETArek uberara bildu zena ere... Urte horretantxe izan zen Arantzazuko Biltzarrekin euskara batuaren lehen zantzuak hasi zirenekoa ere; orduantxe izan genuen, esaterako, Mitxelenaen «Ortografia. Ze batasunen bila gabiltzan» opuskuluaren berri. Hurrengo urteetan, oinarritzko liburuak izan ziren guretzat, besteak beste, hauek²:

- *Batasunaren kutxa* (1970).
- Villasanteren *Hacia la lengua literaria común* (1970) eta *La declinación del vasco literario común* (1972).
- Txillardegiren *Sustrai bila* (1970).
- Patxi Altunaren *Euskal aditza. Batua?... Baturakoa* (1971).

Letretarako zaletasuna ez da berez etortzen, giro egoki bat behar da horretarako. Seminarioa likido amiotiko egokia gertatu zen garai horretan. Horren isla da bost-sei urteko adin-diferentziarekin zenbat eta nolako idazle-multzo bikaina hasi zen loratzen seminarioan. Egin kontu; hauek besteak beste: Anjel Lertxundi,

² Aipagarria da, Joan Mari Lekuonarekin erabilera handia eman geniola Luis Villasanteren *Historia de la literatura vasca* (1961) liburuari ere. Oso gazte ginela izan genuen irekia euskal literaturarako leihoa.

Luis Haranburu-Altuna, Joxantonio Ormazabal zena, Josean Agirre, Joxe Austin Arrieta, Juan Martin Elexpuru, Juan Kruz Igerabide...

HIRUGARREN PORTUA: **Elgoibar**

1973ko ikasturte hasieran, duela 50 urte, iritsi nintzen Elgoibarrera, ikastolara hain juxtu. Hezkuntza-sistema ez zen gaurkoa bezalakoa. Ikasturte hartan EGBko 6. mailan hastekoak ziren 11-12 urteko 26 neska-mutikoren tutoretza eman zidaten, eta irakatsi behar nituen ikasgaiak Euskara eta Gizarte Zientziak ziren.

Josita daukat memorian nola lehen eskola-egunean mutiko batek esan zidan: «Andres, ingurraztia itxian ahiztu jata». Ez nion ulertu. «Zer esan duk?», nik; hark erantzun: «Ingurraztia itxian ahiztu jatala». Ez nion lehenengoan baino gehiago ulertu.

«Ingurrazti»³ hitza egin zitzaidan guztiz ezezaguna. «Zer esan nahi du «ingurrazti» hitzak?», galdetu behar izan nion. Haren bueltakoa izan zen etsigarriena: «A ze maisua etorri zaigun! «Ingurrazti» hitzak zer esan nahi duen ere ez daki!».

Ohikoak ziren garai hartan, ikastola hasiberri haietan aranisten gurdiko hitzak: *ingurrazti, axot...; izki, ludi, margo, berebil...* Gutxi-asko, zorionez, garbizalekeriak ereindako hitz horietako gehienak zirkulaziotik kanpo geratu dira. Beste lezio bat ikasi nuen hantxe, **hirugarren «arau»** bat: garbizalekeriak ez ginderamatzala inora.

Hutsaren hurrengoa zen euskarazko ikasmateriala. Gaztelaniazko liburuak erabiltzen genituen helduleku, eta irakasleok paraturiko orri multikopiatuak. Bizi-bizi daukat oraindik begi-ninietan gure eskuetara iritsi zen garai hartako euskarazko lehen eskola-liburu garaikidea: Juan Antonio Letamendiaren *Euskera* 6 liburua, 1975ean argitaratua. Urre gorria, guretzat. Gerora, *Saioka* liburuak etorri ziren, eta beste batzuk.

Poliki-poliki iritsi ziren gure eskuetara Euskaltzaindiaren lehen erabaki eta argitalpenak ere:

- *Hilabeteen izenak* (1971).
- *Filateli hiztegia* (1973).

³ «Ingurrazti» hitzak «koaderno» esan nahi du.

- *Merkatalgo izendegia* (1974).
- *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* (1975).
- *Matematika hiztegia* (1978).
- *H letraren ortografi arauak* (1979).

Ezin aipatu gabe utzi Xabier Kintanaren *Hiztegi Modernoa* (1977) ere. Diapositibako argazkiak ondo erakusten du zein maskalduak dituen orriak...⁴

Antzeko prozesua ibili genuen Elgoibarko institutuan ere. Bigarren mailako hezkuntzaz ari gara jada; ordurako 1980. urtea. Euskararen itzala gauza ezereza zen maila horretako eskoletan.

Eskerrak eskueran genituen gau-eskoletako euskalduntze-alfabetatze jardunean erabiltzen ziren ikasmaterialak! Besteak beste, Patxi Altunaren *Euskera*, *hire laguna* I eta II (1967, 1969), eta *Euskalduntzen* I, II, III (1972-73), eta *Alfabetatzen* (1975), Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak paratuak.

Egoera badaezpadako horrek geure kasa alfabetatzera eramanez gintuen: D titulua, 1974an; B titulua, 1975ean. Ondo gogoan dut geure burua alfabetatze horretan berriz ere maisu ezin baliotsuagoak izan zirela guretzat Txillardegiren, Luis Villasanteren eta Patxi Altunaren liburuak, eta halaxe aitortzen dut hemen esker onez eta atsegin handiz⁵.

LAUGARREN PORTUA: **Testugintza**

Askotan tokatzen zaigu, aditu izan gabe, aitzindari izan behar izatea, ezagutzen ez ditugun itsasoetan nabigatu behar izatea. Halaxe gu orduan testugintzan.

Beharrak eraginda hasi ginen testugintzan. Ez zegoen euskarazko testulibururik Bigarren Hezkuntzan, ez euskara irakastekorik, ez beste inolako ikasgairik. Elkar Argitaletxeak utzitako idazmakina batekin hasi ginen testugintzan 1985ean.

⁴ Getariako ekitaldian, sarrera-hitzaldia irakurtzearekin batera, 45 diapositiba ere erakutsi ziren pantailan.

⁵ Batzuk aipatzen jarrita, hauexek, esaterako: Luis Villasanteren *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974), *Sintaxis de la oración compuesta* (1976), *Estudios de sintaxis vasca* (1978); Txillardegiren *Euskara batua zertan den* (1973), *Oinarri bila* (1977), etab.

Bost ginen, eta bidezkoa da beste lauren izenak aipatzea, adiskidetasunez, esker onez eta merezimenduz aipatu ere. Hementxe entzuleen artean ditugu hiru (Angel Ugarteburu, Iñaxio Garmendia eta Luis Villasante zenaren iloba Myriam Villasante). Laugarrena jada ez da gurekin. Heriok eramanez zuen duela lau urte denok bihotzez estimatzen genuen Markos Balentziaga. Haren alarguna eta semea ditugu hemen gurekin. Arauekin ez dauka zerikusirik, baina hementxe tokatzen zait aipatzea laugarren lezioa, **laugarren «araua»**: talde-lanaren balioa.

Lege-erreforma bakoitzeko eraberritu behar izaten genituen euskara eta euskal literaturako gure ikasliburu horiek. Horretan jardun genuen 20 urtean, 2005ean azkenekoa kaleratu genuen arte. Uzta ugaria izan zen, eta ona, itxura denez, oraindik ere erabiltzen baitituzte liburu horiek Bigarren Hezkuntzako institutu eta ikastola batzuetan!

Garbi genuen egitekoa: irakasle asko zen euskararen arloan hasiberria zena —asko euskararen ezagutza justu-justuarekin erdi moldatzen zena—, apunte ziztrin batzuk zirriborrazteko ere gai ez zena, eta geure buruari galdetzen genion: zalantzan eta noraezean baldin badabil irakaslea, nondik eta nola sortuko da euskaraz ondo dakien ikaslerik?

Berriro ere Txillardegiren, Villasante eta Altunaren liburuak begien aurrean⁶. Baina urri geratzen hasi zitzaizkigun programazioak betetzeko. Eskerrak hizkuntzalari-uzta berria bazetorren! Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan* (1978); Adolfo Arejitaren *Euskal joskera* (1982), etab. Funtsezkoa izan zen, orobat, Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika. Lehen urratsak* (EGLU) egitasmoa, 1985ean bere lehen gramatika deskribatzailea kaleratu zuenetik.

BOSGARREN PORTUA: **EIMA**

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa da EIMA⁷, eta, helburuen artean, euskal ikasmateriala bultzatzea eta horren hizkuntza-kalitatea zaintzea ditu. Programak aparteko aita pontekoa zuen orduan, Mikel Zalbide euskaltzaina, eta haren gidaritzara eta itzala urte

⁶ Hemen ere, batzuk aipatzen hasita, honako hauek, besteak beste: Villasanteren *Sintaxis de la oración compuesta* (1976), *Estudios de sintaxis vasca* (1978), *Euskararen auziaz* (1988); Txillardegiren *Euskal gramatika* (1980), *Euskal azentuaz* (1984), *Euskal fonologia* (1980), etab.

⁷ EIMA akronimoak 'euskal ikasmateriala' adierazpen-esanahia ezkutatzen du.

askoan izan zen ezinbesteko. Egitekoak egoki funtzionatzen zuen eta du oraindik ere: gaur egun 23.000tik gora liburu eta material daude euskaraz eskoletarako, eta euskara-maila egoki eta zainduarekin. Aurrerapen handia egin da urte gutxian.

Bosgarren portu honetan Euskaltzaindiaren arauen munduan lehorreratzea tokatu zitzaigun nahitaez, hizkuntzaren kalitatea zaindu behar baitzen! Izan ere, eskolako liburuak baziren, ezinbestekotzat jotzen zen arauak zorrotz bete beharra.

Hementxe aipa daiteke garai horretan ikasi genuen bosgarren lezioa, **bosgarren «araua»**: jendeak eta argitaletxeek estimu eta jarrera onez hartzen dituztela arauak, eta are gehiago horiek argi esplikatzen badira.

Eskola-materialean kontu gramatikalak ez ezik, baziren bestelako kontu eta beharrak ere, haiek baino premia larriagokoak guretzat maiz; leku-izenena, esaterako. Ez guk nahi bezain azkar, baina maiatzeko ihintza bezala etorri ziren akademiaren erabakiak; hauek, besteak beste: *Euskal Herriko udalen izendegia* (1979), *Espainiako autonomia-erkidegoen izenak* (1995), *Frantziako departamenduen izenak* (1995) eta abar. Deskantsu ederra eman ziguten!

EIMakoontzat eta argitaletxeentzat benetako urratsa izan zena, ordea, 2000. urtean argitaratu zen *Hiztegi Batua* izan zen. Ordura arte, eguneroko buruko mina izaten zen ez jakitea nola idatzi behar ziren ohiko hitzik oinarritzkoenak ere: *anai-arrebak* ala *anaia-arrebak?*; *aiton-amonak* ala *aitona-amonak?*; *itsasontzi* ala *itsasuntzi?*; *ihardun* ala *jardun?*; *eritzi*/iritzi, *zentro*/zentru, *iruzkin*/irazkin, *ebaluaketa*/ebaluazio, *eleberri*/elaberri? eta abar, eta abar.

EIMaren helburuetarako, nolanahi ere, Euskaltzaindiaren arauak ez ziren aski; askotan, gainera, nahi baino beranduago zetozen. Hori zela eta, haien osagarri eta paraleloki, EIMak bere estilo-liburuari ekin zion, betiere Euskaltzaindiaren onespenerarekin. Euskaltzaindiak hartu gabeko erabakien hutsuneak betetzera zetozen gomendioak jasotzen zituzten liburu horiek. Bederatzi liburu atera ziren⁸.

⁸ *Ortotipografia* (Joxe Ramon Zubimendi)

Kalko okerrak (Juan Garzia)

Onomastika / Izen-zerrendak (Alfontso Mujika, Ane Goenaga, Andres Alberdi)

Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak (Patxi Petrirrena)

Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak (Jose Ramon Etxebarria)

Letra larriak erabiltzeko irizpideak (Alfontso Mujika)

Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan (Andres Alberdi)

Puntuazioa (Juan Garzia)

Ahoskera (Andres Alberdi)

SEIGARREN PORTUA: **Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)**

EBEren portuan 2018an sartu ginen. Ordurako, euskara batua, 50 urte beteta, aski gorpuztua ageri zitzaigun, helduaroan sartuta nolabait esateko, hizkuntzaren oinarriari dagokienez.

Testuinguru horretan, EBek atzera begiratzeko abagune aparta oparitu zigun. Euskaltzaindiaren ordura arteko arau, gomendio eta irizpenak, eta euskalgintzako eragileek landutako estilo-liburuetan proposatutakoak modu sistematikoan aztertzeko eta plazaratzeko aukera eman zigun. Arlo guztietako kontuak (lexikoko, morfosintaxiko, ahoskerako, onomastikako...) aztertu ziren, zer genuen egina eta zer genuen egiteko ikusteko, eta, hala, egindakoaren ikuspegia izanik, aurrera begira jartzeko.

Ordura artekoak bildu zituen, beraz, EBek. Eta hortxe jaso genuen seigarren lezioa, **seigarren «araua»**: EBek adierazi zigun araugintzaren egoera zein zen, eta zer falta zen oraindik arautzeko. Iturburu hori dute, hain justu, hitzaldi honen bukaeran adieraziko ditudan arautze-premian dauden auziek.

Lan estimatua gertatu da EBE: bost urtean, bost edizio izan ditu paperezko euskarrian; sarekoa etengabe eguneratzen da. Jendeak estimuan hartu du liburuak duen perspektiba tekniko-linguistikoa, eta arrakastatsua gertatu da hizkuntza-plangintzaren hezurmamitze edo inplementazio aldetik.

II. PARTEA.

Eta historiak jarraitu egiten du: Ibilian egin beharrekoak

Non-nahitakik ikusita, txalotzeko moduko ibili izugarria egin dugu euskararen biziberritzean azken 50 urte pasatxo hauetan. Baikorrak izateko motiborik bada. Halere, denok dakigu euskara oraindik ere hizkuntza zaurgarria, kaltebera dela, ahula dela, eta ondorioz, eskuak bete lan daukagula Lizardiren «noranahiko» izate hartara iristeko, edo Orixeren «jo dezagun gorago» haren peskizan biharamun hobia izateko. xxi. mendearen hasierako erabiltzaileei erantzutea dugu gaur eguneko erronka, eta euskararen auzia den erronkak ertz asko ditu.

Sarrera-hitzaldi honi emaniko bigarren titulua —*Araua al da dena?*— nahita jarritakoa da, jakina. Izan ere, etorkizunaz mintzo garelarik, ezin gaitezke arauen mundura bakarrik mugatu. Dena ez da araua; arauak —edozein arlotan— bizitza zaintzea behar luke helburu. Gurea prozesu bat da, eta euskararen auzia den prozesu horrek bi bidetatik egin behar du aurrera:

a) Alde batetik, «normatibizazioa» daukagu ('norma'), hau da, hizkuntzaren arauak edo alde teknikoa lantzea (corpusa lantzea esaten diote horri adituek): hizkuntzaren arauak edo alde teknikoa arautzea, malgutzea, aberastea. Horixe da euskaltzainon, idazleen, itzultzaileen, irakasleen egiteko behinena.

b) Baina denok dakigu euskararen erronka hortik kanpokoa dela gehiago. Denok dugu buruan zerk erasaten dion nagusiki euskarari. Benetako zailtasunak, gaur-gaurkoz, ez dira corpusarenak (hau da, arazoa ez da arauena, ez da gramatika bat gehiago edo gutxiago egitea), estatusarenak baizik (hau da, euskararen «normalizazioarena»); alegia, hizkuntza erabiltzeko eremuak irabazteko desafioan dago lana. Hor jotzen da, egiazki, euskararen geroa; ez arauetan. Euskararen geroa, 2023an, ez dago kontu linguistikoen faltan, erabileraren faltan baizik.

Azken azterketa soziolinguistikoeak erakutsi digute euskararen ezagutza igo bada ere, ez dela proportzio berean hazi erabilera. Batak ez du bestea ekarri halaberharrez. Erabilera da, egun, ahulunea. Eta euskara normalizatzeko ahalegin behinenak horretara jarri beharra dago, «erabilera» delako gakoa, motorra, geroa.

Eta ez daukagu erraz, euskararen normalizazioak zutabe hauskorak baititu. Izan ere:

- i) Euskal Herriko demografiaren hazkunde-tasa txikia da.
- ii) Etxeko hizkuntza-transmisioa hizkuntza bat baino gehiagotan egiten da egun, eta halaxe edo areago izango bihar-etzi ere, eta errealitate eleaniztun horretan asmatu beharko dugu izaten, alde batetik, euskaldun, eta bestetik, xxi. mendeko «moderno».
- iii) Gure inguruko hizkuntza handiek itzal handiegia —gehiegizkoa— dute eta estaldura erabatekoa egiten diote euskarari bizitzako alderdi eta aurpegi guztietan.

iv) Gizarteko euskararen kontzientzia linguistikoko kolektiboa moteltzen ari zaigu azkenaldian.

v) Arnasgune batzuek hala izateari utzi diote (bide batez esanda, egokia litzateke galdetzea noiz arte jarraituko duen Getariak arnasgune trinko izaten, azken urteotako turismo-sardak hala jarraitzen badu).

vi) Oraindik ere hor diraute euskara batuari buruzko zenbait ideia oker eta jarrera arriskutsuk.

vii) Erabaki judizial kontrakoak etengabeak dira, euskararen normalizazio-prozesuari eusten dioten zutabeak kolokan jartzerainokoak. Diote, euskarak apurtzen duela desoreka linguistikoa; gurea omen da nazionalismoaren inposizio linguistikoa. Sarkasmoak ez du mugarik!

Eta egoera ez dugu irauliko berehalakoan...

Perspektiba horretan, elkarren osagarri diren bi ardatz zaizkigu ezinbesteko:

a) Alde batetik, hizkuntzaren estandarizazio eta normatibizazioan —arauen lanketan eta inplementazioan, alegia— aurrera egitea.

b) Eta bestetik euskararen normalizazioaren helburuak garbi izatea eta horien aldeko pedagogia egitea.

Eta bi galdera eginez saiatuko naiz arloa jorratzen: zeri buruz egin behar den pedagogia, lehena, eta oraindik arau gehiago behar al diren, bigarrena.

ZERI BURUZ EGIN BEHAR DA PEDAGOGIA?

Edozein hizkuntza-arau edo gomendio ematean, argi izan behar ditugu aurretiazko premisa adostu batzuk, horiek landu ezean —horiei buruzko pedagogia egin ezean— euskararen normalizazioaren helburuak zapuzteko arrisku handia baitago. Arazoak, ahuleziak, akatsak, ezinak, mamuak oro konkretatzea eskatzen du horrek. Eginkizun horretan ez dago miraririk, fantasiak sobera daude.

Hau da, zein dira, arauak emateaz gain, garbi behar genituzkeen helburuak? Zein giltza edo postulaturen gainean oinarritu behar genituzke arauok?

11 ardatz ekarri ditut nire zerrendara⁹, baina zerrenda, noski, ez da horietara mugatzen. Ziur bakoitzak berea duela.

1) *Euskara batu edo estandararen premia inor gutxik jartzen du zalantzan gaur egun.*

Premisa positiboa dugu hori. Etxepareren euskarazko lehen liburu hartatik gauzak asko aldatu dira, eta, zorionez, gaur egun badugu euskara estandar bat jakintza-alor guztietan eta euskararen lurralde guztietan erabili eta ulertzen dena.

Euskaldun gehienok konturatuta geunden, eta gaude, euskarak zenbait esparru bereganatuko bazituen, sukalde-zulotik jendartera irtengo bazen, etxetik genekarren euskara hura ez zela nahikoa; euskara batu bat behar genuela. Badugu. Giltza horri ondo eragin diogu. Lehen, sarritan, ez genuen elkar ulertzen alde bateko eta besteko euskaldunok; orain bai.

2) *Batuaren etorkizuna euskararen etorkizuna da.*

Bigarren premisa hau ere onartu du jendeak: euskarak etorkizunik izango badu, euskara batutik etorriko da¹⁰. Euskara baturik ez bada, erdarak izango dira jaun eta jabe. Bizi dugun xxi. mende honetan, euskara batuaren erronkak eta euskararenak elkarren eskutik doaz.

Erronka nagusia euskarazko jarduna beharrezko edo lagungarri egingo duten jardunguneak, gizataldeak, harreman-sareak eta situazioak indartzea dugu. Euskara beharrezkoa den lekuak baldin badaude, euskara, indartuko da eta euskara batua ere indartuko da; bestela, euskara behar ez dugun seinale izango da. Eta jakina, horretarako, denen inplikazioa eta konpromisoa beharko da: hezkuntza-munduarena, lan-munduarena, hedabideena, literatura-sorkuntzarena, itzulpengintzarena, kantagintzarena...

⁹ Zerrendako 11 horietatik 5 baino ez ziren irakurri sarrera-hitzaldiko ekitaldian: 4.a, 5.a., 6.a, 7. eta 9.a.

¹⁰ Ezinbestekotasun hori Mitxelena berak jaso zuen 1968ko Arantzazuko Biltzarrean, euskararen txostenaren sarreran: «Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura “ederrean” baino areago» (Euskaltzaindiaren 0. araua: «Ortografia»).

3) *Euskara batu edo estandarra batez ere idatzira bideratua da.*

Aldaera estandarrek hizkera idatziak dira batik bat, eta beren esparru propio eta egokia dute: liburu, aldizkari eta paper-kontuetako hizkera-moldea da, ez hainbeste taberna-zulorakoa, lagunarterakoa. Erregistro formaletan erabiltzeko pentsatua dago, euskara-molde bera irits dakien euskal irakurle eta entzule guztiei, haiek izan euskaldun zahar edo izan euskaldun berri.

Hizkuntza-molde hori ezin daiteke kaotikoa izan eta erabiltzaile bakoitzaren gustura ebatzia. Hizkuntza idatziak bere arauak ditu, ikasi egin behar direnak, eta ez dutenak askotan bat egiten ahozko hizkuntzarekin. Inork ez du idazten hitz egiten duen moduan. Gaurko gaztelania ustez bakar horretan ere, zenbat eratan ez ote den esaten «Me habéis hartado» idazten dena: *Me habéis hartado* modu formaletik *Máis jartau* ebakerara ez pilo makala ere. Edota, oraindik ere gaztelaniaz, nork idazten du horrela *Tira palante!* esaten dena? Bistakoa da estandar guztiak direla asmakizun kulturalak.

Gaztelania eta frantsesak ere, komunitate linguistiko handi guztiek bezala, badute hizkuntza estandarra¹¹, eta hiltunek ikasi egin behar izan dituzte (euskaraz, aldiz, belaunaldi berriek bakarrik dute horretarako modu hori, eta haiek ere ez % 100ean). Mendeetako eskola-bideak —edozein hizkuntzak eskola behar baitu bizitzeko— eta administrazioa ere horretara jarriak izan dituzte. Badute beste abantaila bat ere: duten itzala halakoa da, ezen eguneroko erabileran entzunez soilik ere ikasten diren, oharkabean ere bai alegia; izan ere, publizitatea dela, seinaleak direla, edozein motatako oharrek direla, hizkuntza horiek ez dute galga egiten dien inolako sabairik. Horien miraz da euskara, horixe baitu ments. Euskarak molde askotako sabaiak ditu zabalkundean eta erabileran, etengabeko oztopo-lasterketan balebil bezala.

4) *Euskara batua ez da batere monolitikoa, uniformea.*

Postulatu hau ez dugu guztiz geureganatu oraindik. Gizarte-fenomeno ia guztiak bezala, euskara batu edo estandarra ere gauza konplexua da, kolore askokoa, bai idatzizko forman eta are gehiago ahozkoan. Ez genuke zerbait monolitikotzat hartu behar, beraz. Malgua da, hiltun bakoitzak bere moldera taxutzekoa.

¹¹ Nebrijaren gramatika duela 521 urtekoa da (1492).

Berez erreferentzia bat da, eta ikasi behar genuke bereizten zertan izan daitekeen malgu eta zertan ez. «Hau ala hau?» galdetzeari utzita, ez litzateke txarra «hau eta bestea» ikasteari ekitea.

Ez dugu behar bezain garbi barneratu euskara den guztia kabitzen dela euskara batuan, aldi eta alde guztietako «euskaretatik» edaten duenez gero. «Nahi duzun bezala» bezain euskara batua da «gura duzun legez»; «etxeko lanak egitera joan da» bezain euskara batua da «etxeko lanak egiten joan da»; «aurten azkar igaro dira gure kaleko festak» bezain batua dela «aurten fite igaro dira gure karrikako bestak».

Perspektiba multikultural hori berreskuratu beharra daukagu, zeren hori ez da euskararen kalterako¹². Euskara batuak, ikuspegi murriztailea utzi eta aglutinatzailea izan beharra dauka. Bere kalterako du kanpoan uztea hainbat hitz, esamolde eta egitura, dela euskalki jakin baten edo bestearen ezaugarriak direla motibo, dela behe-mailako edo lagunartekoak direlako. Nola osatuko dugu, bada, estandar informalak halakoak baztertuta?

5) Euskara batu edo estandarra eta euskalkiak elkarren osagarriak dira.

Postulatu hau ere ez dugu geure egin oraindik. Euskara batua eta euskalkiak elkarren kontra baleude bezala planteatzen dute auzia zenbaitek, eta ez du hala behar. Ulertu behar dugu, euskara batuak bere tokia eta funtzioa duela eta euskalkiek berena. Ez dira aparteko bi mundu, osagarriak baizik; euskara batuak euskalkien mosaiko aberatsetik edaten du, eta euskalkiek ere euskara batutik edaten dute.

Euskarak berdintzera jo du, baina ez du zertan erabat berdina izan. Bazterrera uztekoa da estandarra dela garbia eta zuzena (edo aukera bakarra) delako ustea. Ona da euskara batuak prestigioa izatea, baina euskararen gainerako aldaera geografiko eta funtzionalei prestigiorik kendu gabe aritu behar du. Ulertu behar dugu, erabilera-eremuaren eta funtzioaren araberakoa dela auzia. Euskara batuak bere tokia du eta euskalkiek ere berena.

Hala, esaterako, tokian tokiko administrazioek, udalek bereziki, euskara batua

¹² Askotan nahastu egiten ditugu bi fenomeno hauek: euskara formala / euskara soziologikoa. Pello Salaburuk egoki bereizten ditu ("Euskara batuaren egungo premiak", *Euskera*, 39. alea, 1994-3, 681-682. or.). Euskara batu soziologikoa jende askoren ustean sartutako euskara batuaren eredu murrizta da; euskara batu formala, berriz, Euskaltzaindiak onartutako hizkuntzaren erabilera guztia.

bai, baina beren herritarren hizkeraren hurbileko euskara batua erabili beharko lukete. Berdin eskoletan ere, euskalkitik baturako jauziak pausoka eginiko bidea izan behar luke, ikasprozesuan hura idazkera eta ahoskera estandarrera naturalki eta gozoro egokitzeke.

Bazterrera uztekoa da, ordea, sarritan ageri den kontrako jarrera ere: txokokeriarako joera eta haren gorespina. Ez du zentzurik euskaldun «jatorrak» garela erakusteko, geure herriko hizkera bandera gisa («bando» gisa, «tribu» gisa) hartu eta harekin jardutea —haren kontrakzio, fonetismo eta ezaugarri guztiekin— zein-nahi delarik ere testuingurua edo hartzailea. Jarrera horiek euskararen normalizazioaren helburuen aurka egiten dute.

Gauden garaian, euskalkiak biziko badira, beharrezkoa dute estandarra, eta batuak erregistroak izango baditu, euskalkiek bizi behar dute. Euskara mintzatuak eta euskalkiek hizkuntzaren bizitasuna agertzen dute beren ugaritasunean, eta idatziak gehiago agertzen du haren batasuna. Oreka topatzea da kontua.

6) Erregistroak nola ugaltu du nahitaezko erronka euskarak.

Ez dago hiztunik, ez euskaraz ez txineraz, bere komunikazio-premiak erregistro bakar batekin ase ditzakeenik. Hizkera-mailak eta hizkera-motak daude, eta bereizten ikasi beharra dago, beste hizkuntzetan bereizten ditugun gisa berean.

Hizketa moldatu egiten da nor, non, norekin, zertaz... ari garen. Ez du berdin hitz egiten gazte-jergan dabilen batek edo apaizak pulpitutik. Ezta geuk ere tabernan, eskolan edo etxean.

Hala, bada, taberna batean esaterako, komuna hondatuta dagoela idazteko, ez da inondik egokia «Izorrauta» idaztea. Gaztelaniaz, horrelakoetan, «No funciona» edo «Averiado» idazten da normalean; ez, «Está jodido». «Ez dabil»-edo idatzi beharko genuke euskaraz; ez, «Izorrauta». Realzale giputzeekin komunikatzeko, Ondarroako euskara itxi-itxia aukeratzea ere ez da, bada, estrategia ona...; ez da hori erregistro egokiena horretarako.

Alegia, patrikan zenbat eta kanika gehiago eduki —zenbat eta erregistro gehiagotan moldatu—, hobe da; kanika asko dauzkanak aukera du norekin, noiz eta nola ari den, kanika batekin edo bestearekin jokatzeko.

Erregistroen jabe egiteko, eskolako ikasketa formala ez da aski izaten. Hori motz

geratzen da. Eguneroko euskarak dituen baliabide zorrotz, bizi eta gatz-piperrez hornituagoak beharrezkoak zaizkigu. Eta, beharbada, hortxe du kezka eta koxka handienetako bat euskarak, egun erronka ez baita soil-soilean euskara batua vs euskalkiak bikotea, ezpada hizkera arrunta vs hizkera bereziak bitasuna. Hizkuntza-erregistroen mundua gehiago jorratu beharra daukagu denok.

7) *Hizkuntzak ez dira komunikazio-tresna huts: hizkuntzek herria egiten dute.*

Hizkuntza ez da komunikazio-tresna soil. Hizkuntza herriaren arnasa da. Hizkuntzek herria egiten dute. Hizkuntzak ikur sinboliko-erreferentzialak dira. Euskara da gure hizkuntza. Euskara da euskaldunon itsasoa.

Herri-ikusmolde hori galtzen badugu, euskararen berreskurapenerako helduleku nagusirik gabe geratuko gara. Ekar ditzagun gogora J.A. Artzeren hitzak (*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako...*). Horretatik gabiltza gero eta hutsago, baretu egin gara, eta hori batez ere euskararen erabilera-jaitzieran sumatzen da.

Hizkuntza-pizkundean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestarazi behar dugu. Gurea bezalako hizkuntzan militantzia ezinbestekoa zaigu. Alferrik gabiltza arauak ematen, gure lehentasunetan euskararen balio-mapak tokirik ez badu, euskararen militanteak ez bagara.

8) *Ez da aski euskara ikastea edo alfabetatzea: euskaldun osoak behar ditugu.*

Baserrian ikasten den euskara, edo Getariako sukalde-kaleetan ikasten dena oso jatorra da, baina ez da aski gaur egunean euskaraz osoro funtzionatzeko.

Motiboak topatu behar ditugu jendea euskara ikastera animatzeko, edo badakiena alfabetatzera animatzeko. Ikusarazi behar dugu askotan erabiltzen diren aurreiritzi batzuk aitzakia baino ez direla gaudenean goxo egoteko... Eta ikusarazi behar dugu, Beterri aldeko zenbaitek uste duen kontrara, burubide ustela dela pentsatzea euskara batuan ari dela «det» erabili ordez «dut» erabiltzen badu. Hori baino zerbait gehiago saiatu beharko du!

Eta ez da aski euskara ikaste hutsarekin, ez genuke aski izan behar gure eskoletako ume eta gaztetxoek euskara ikaste soilarekin, «euskaldun osoak» behar ditugu. Hiztun aktiboak behar ditugu. Jakiteaz gain eta hiztun onak izateaz

gain, euskararekin lotura afektiboa dutenak lortu behar ditugu. Hori izan ezean, erdararen itsasoan itoko baitira.

9) *Eskolaren eta hedabideen erantzukizun apartekoa.*

Euskararen geroaren erantzukizuna denona da, bai, baina ez neurri berean. Esparru gutxitan izan du euskarak halako sarbide zabala eskolan eta hedabideetan bezainbat, baina garbi dugu horiexek direla preseski giltzarri euskararen ezagutza eta zabalkundean. Eurei dagokie aitzindari-lan eredugarria egitea, hiztun arruntari baino lehenago.

Hedabideetako eta batez ere eskola-giroko datuek, ordea, kezka sortzen dute. Atzerapausoak sumatzen dira euskararen erabileran eta kalitatean: eskola-giroan gero eta euskara gutxiago entzuten da; hezkuntza-ereduek ez dute lortu uste genuen emaitza; euskararen kalitatean ere eskasera egin dugu; hezkuntza-sistema ez da gai euskal tradizioaren ezagutza bermatzeko; irakasle asko dago garai batean EGA ateratzeko lortu zuen mailarekin aritzen dena geroko eguneratzerik gabe; eskoletan erabiltzen den ikasmaterial asko ez da euskal ikusmoldean egina, erbestekoan baizik, etab. *Mutatis mutandi*, berdintsu aritu gintezke hedabideez ere...

Ez zait gauza amorragarriago eta mingarriagorik egiten hezkuntza-munduko edo hedabideetako jende «jantzia» behar lukeenak, duela urteak Euskaltzaindiak emaniko arau edo gomendioen jabe egin gabe jarraitzen duela ikustea baino, eta oraindik ere entzun behar izatea: **maiatzaren lauean* (> maiatzaren lauan), **ez du pena merezi* (> ez du merezi), **eta abar luze bat* (> eta abar [eta abar]), **benetazko* (> benetako), **bolondres* (> boluntario), **hainbat enpresetan* (> hainbat enpresatan), **Euskaltzaindiako* (> Euskaltzaindikiko), **Azpeitiatik* (> Azpeititik), **Ongi etorriak!* (> Ongi etorri!), etab. Esan beharrekoa ote da, gure eskoletako ikasleek eta euskal hedabideen hartzaileek euskara eredugarria «hartzeko» eskubidea dutela?!

10) *Arauk ematea ez da nahikoa.*

Badakigu zein den testuingurua, eta hor saiatu behar du Euskaltzaindiak erabakiak hartzen, araugintzan sakontzen. Hizkuntzaren kalitatea dago jokoan, baina ez da egiteko bakarra: egiten duena gizarteratzen asmatu behar du. Perspektiba linguistikoaz gain, hizkuntza-plangintzaren hezurramitze edo implementazioa ere

mimoz zaindu behar du. Zorionez, halaxe ulertua du, eta bistan daude proiektuak, informazio-sistema online integratu baten asmotan, bilaketa eta kontsultak errazteko moduak bideratuz. Esaterako, EBE proiektua bera, Jagonet Zerbitzuaren indarberritzea, eta, oro har, ingurune digitalera salto egitea (arauak, hiztegi estandarra, terminologia espezializatua, onomastika-kontuak..., denak bilduz eta integratuz)¹³.

11) *Euskara goxatu beharra daukagu.*

Andu Lertxundiri irakurria: «Hiztunak euskaratik beretik atera behar du euskaraz bizitzeko poza, euskarari berari lapurtu behar dizkio hiztun segitzeko motiboak».

Ados. Hizkuntza bat ez da gauza bat zirkunskribatua, hesitua, hertsia, mugatua, hiztegiek eta gramatikek sinestaraz lezaketan moduan. Gizarte-gertakari bat da, etengabe aldatzen dena hiztunen erabilerarengatik, sormenarengatik.

Euskaltzaindiaren egitekoa horiek bideratzea da. Baina euskara ‘ondo’ jakitea bezain premiazkoa dugu euskaldun gehienak euskaraz eroso aritzeko moduko hizkuntza bat eratzea: behar komunikatiboei egoki erantzuteko gai den euskara, erabilgarria, erakargarria, monotoniatik urrunekoa, modernoa eta gozapoza sortzen duena¹⁴. Egiteko horretan Akademiak ez, ezpada idazleek, kazetariak, komunikatzaileek... hartu beharko lukete lidergoa.

¹³ Ingurune digitalean euskarak izango duen erroka berria tresna berriak eta eraginkorrak sortzea ez ezik, tresna horiek eta jada baditugunak erabiltzea ere izango da. Eta erabili egin behar! (Irakasle asko dago, Euskalbar baden ere ez dakiena!, itzulpen neuronalak daude ez dakiena!, Xuxen izeneko zuzentzailea ere badela ez dakiena!...).

¹⁴ Pragmatikoak izaten ikasi beharra daukagu. Maisuki adierazten du hori Pompeu Fabrak: «Zuek nitaz espero zenutenaren kontra, esan behar dizuet ezen, hizkuntza baten irakaskuntza denean, ni ez naizela gramatikari sakontze handiaren aldekoa [...], gramatika behar dela, baina ez “gehiegi” gramatika. Ohartu naiz irakasle askorentzat gramatika [...] helburu bihurtzen dela [...], azterketa filologikoetan jardun nahi duena izan ezik, gramatika bera ez da gauza interesgarria; denei interesatzen zaiena hizkuntza komuna, literatura-hizkuntza, zuzen idazten eta hitz egiten jakitea da. [...] Gu ez gara mundu honetara etorri hizkuntzalaritzari, fonetikari eta hizkuntzaren fenomeno guztiak entzuterak. Guk proposatzen duguna da, katalana irakasten dugunok, ikasleek katalana ondo idazteko behar dituzten ezagutzak eta arauak hartzea [...] sotiltasun gramatikalek ez dute ezertarako balio» (P. Fabra: *Obres completes*, vol. 9, Bartzelona, 2013: 417-429).

Giltza edo postulatu horiek gogoan, hel diezaigun funtsezko azken galderari: oraindik arau gehiago behar al dira?

Oraindik arau gehiago behar al dira?

Gaur eguneko eleberrak, egunkariak, ikasliburuak, idazkiak... ikusita, norbaiti irudituko zaio euskara estandar edo batuaren gainekoak eginak daudela, aski dugula egindakoarekin. Ez dago ukatzerik: urrats handiak egin dira, bai, baina oraindik bada eginkizunik, hizkuntza guztiak bezala zerbait bizia eta aldakorra baita euskara ere. Euskara lantzearen eta batzearen prozesuak ez du etenik, inoiz bukatzen ez den katea da... Euskarak, gainera, handicap edo eragozpen handi bat dauka inguruko hizkuntza handiekin erkatuta: gure hizkuntzak ez du tradizio literario oparorik eta lanik ez da faltako euskara osatzen, aberasten, bizkortzen, eguneroko beharretara egokitzen, alor guztietara hedatzen, kalitatea zaintzen... Nondik?: literaturatik, bertsolaritzatik, ahozketasunetik, euskalkietatik...

Gramatika, tradizionaliki, ortografia, prosodia, morfologia eta sintaxiaz arduratzen da. Horien osagarri, badira hizkuntzalaritzan beste bi adar nagusi ere: hiztegiak eta onomastika. Nola dago horietan guztietan araugintza-kontua?

Eman diezaigun gainbegiratu azkar bat alor ezberdinei¹⁵.

A. Ortografia

Koldo Mitxelenak 1968an Arantzazuko Txostenean jarri zuen lehen oinarria euskararen ortografia baturako. 1964an Baionako Biltzarrean adostutako erabakiak hartu zituen oinarri horretarako. Ordutik, eguneroko jardunean sortutako arazoei irtenbideak eman behar-eta, asko dira garatu diren bideak, baina badira landu gabeko eremuak ere. Zorionez, Euskaltzaindiak heldu dio arazoari, eta *Euskara Batuaren Ortotipografia* (EBO) izeneko arau-bilduma osatzen hasia da. Besteak beste, eremu hauetan egin nahi du aurrera batasunean: nola eman laburdurak, siglak, sinboloak, letra-estiloak, ortografia-markak...

¹⁵ Sarrera-hitzaldiko ekitaldian, denbora faltaz, ortografiari, hiztegiari, onomastikari eta ahoskerari buruzko ataltxoak ez ziren irakurri.

«Laburdurak» eremua adibidetzat hartuta, esaterako, erabakitzea zein diren laburdurarik erabilienak, zein hilabeteen izenen laburdurak, zein asteko egunenak, etab.¹⁶

B. Hiztegia (lexikoa)

Urrats handia izan bazen 2000. urtean *Hiztegi Batua* hiztegi ortografikoa, handiagoa izan zen 2012an *Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin* egin zena. Dote-arreo aberatsa izan zen euskararentzat. Sarean etengabe osatzen eta berrikusten den hiztegia da, gainera (urtean bi bider berrikusten da). 2023ko uztailan egina du azken berrikuspena.

Hiztegi ona, modernoa, aparta lortu da. Helburua euskarazko hitzak txukun erabiltzen laguntzea du, eta, horretarako, hitzen adierak argitzen ditu definizioen bidez, eta zehazten ditu kategoria gramatikalak, aditzen erregimenak, euskalki- eta garai-markak, espezialitate-markak, erregistroak, izaki bizidunen izen zientifikoak... Hiztegi arauemailea da, jarraitu beharrekoa.

Ez du inguruko hizkuntza «handi» deiturikoen hiztegien batere inbidiarik.

C. Onomastika

Goretsi beharrekoa da onomastikaren arloko arau-multzoa ere. Arau asko eman ditu Euskaltzaindiak, bai Euskal Herriko leku- eta pertsona-izenetan, bai Euskal Herriaz kanpokoetan. Buruko min asko eta noraez-arrisku asko aurrezten digu.

Baina badira arazo batzuk oraindik ebazpide garbirik gabekoak, eta aurrera begira, lantzekoak direnak. Esate baterako:

- Deiturei dagokienez, Euskal Herriaren historiako pertsonen izen-abizenak euskal jatorrikoak direnean, nola idatzi behar dira: garaiko grafiaz?, egungo

¹⁶ Informazioa zabaldu nahi bada, jo hona: Alfontso Mujika, «Euskara batuaren aulkia hirugarren hankatik herren», in *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018*, Bilbo, 2021: 253-265.

euskal grafiaz? Zalantzak ugari izaten dira horien gainean ikasliburuak eta entziklopediak egiterakoan:

- xvi. mendeko *Linguae Vasconum Primitiae* egilearen izena nola idatzi behar dugu: *Etxepare*, gaur idatziko genukeen bezala, ala berak idatzen zuen bezala: *Bernardum Decheppure* eta *Bernard Echeppure*?
- xix. mendeko izen hauek nola idatzi behar dira: *J.B. Elissamburu* ala *J.B. Elizanburu*? *Joaquín Lizarraga* ala *Joakin/Joakim Lizarraga*?
- xx. mendeko Toribio Altzaga euskal idazleak *Alzaga* idatzen zuen bere abizenak; zilegi ote zaigu *Altzaga* idaztea? Nola eman behar dugu: *Resurrección María de Azkue*? Nola *Jean Haritschelhar*?

– Pertsona-izenei dagokienez, urrats handia egin da ponte-izen epizenoak onartzean, hau da, genero markaturik gabeko pertsona-izenak onartzean. 487 izen daude gaur-gaurkoz epizenoen zerrendan EODAn (*Aihen, Aiuri, Alai, Aloña, Amaiur, Amets, Zuhaitz, Lizar...*). Eskertu du hori euskal jendeak, baina noraezean da sarri irizpideak ez direlako beti koherenteak. *Lur, Alaia, Ilargi...* zergatik ez dira epizeno, baizik eta andrezkoen izen bakarrik? Edo zergatik gizonetzkoenak bakarrik beste hauek: *Eguzki, Saroi, Agur...*?

– Euskal literaturako obren tituluei dagokienez, ondo ari al gara honako hauek honela ematean?: Axularren *Gero* (*Guero*), Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* (*Ontsa hiltzeko bidia*), *Euskeraren berri onak* (Kardaberazen *Eusqueraren Berri Onak*)...

D. Ahoskera¹⁷

Irrati eta telebista euskaldunak bazirela eta, ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezkoa zela ikusi zuen Euskaltzaindiak, eta, hala, 1998an, 81. araua eman zuen, ahoskerarena. Gutxieneko gida izan nahi zuen arau horrek.

¹⁷ Hau izan dut oinarrietako bat informaziorako: M.L. Oñederra et al., «Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordearen txostena (*Ahoskerak axola du*)», *Euskera*. 2015, 60-2: 499-531.

Bidea egiten ari dira, gutxi-asko, arauan erabakitakoak. Zorionez, hiztuna horietara ohitzen ari da¹⁸, batez ere irrati-telebista euskaldunetako esatarien ereduarekin, eta eskolako jardunarekin.

Beste urrats bat egin beharko genuke aurrera.

Norberaren euskara ondo dakienak batura jotzeko zailtasun apartekorik ez du izaten, ezta haren prosodiaz jabetzeko eta hura markatzeko ere. Baina arrakalatzan hasia da kontua: gero eta gehiago da egoera linguistiko zalantzatian bizi den euskal herritarra.

Euskararen prosodiaz gutxieneko zertzelada edo irizpideak behar genituzke; erakutsi euskal hiztunari nola ahoskatu/irakurri behar den esaldia, zer erritmo eman behar zaion, esaldien azentu-gorabehera nola kudeatu behar den, doinu-aldaketen jokoa nola egin, nola jokatu hotsen iraupenarekin, lastertasunarekin. Ereduak eskaintzea, bestela esanda.

Esate baterako, garbi esan beharko litzateke egokia al den era honetako prosodia, edota euskararen ohiko prosodiaren kontrakoa den:

[*egin be(h)ar-dúgu bion-artéan]

[*denbora-geyágo bizi(ah)al-díra]

Modu berean, zenbaterainoko tokia luketen, esaterako, euskal toki-izen eta izen-abizenek behar luketen azentu-moldeak zaintzea. Nola dago hobeto irakurrita?:

Anoéta ala *Anóeta*

Euskal Herria ala *Euskál Herrià*

Euskaltzaindian izan naiz ala *Euskáltzaindian* izan naiz

¹⁸ Nolanahi ere, dena ez da arrosa-kolorekoa. Har dezagun, adibiderako, gaztelaniazko ahoskera hortartekoaren –[θ] (gazt. *lápiz*)– kontua. Ahoskera hori euskaraz testuinguru guztietan gaitzestekoa izan arren, oraindik ere, sarri, honela entzuten dira, esaterako, izen eta hitz asko:

- Euskal leku- eta pertsona-izenak: [*θubeldia, *θuaθo, *liθaso, *θumalakaregi, *θamudio, *θuaθolaθigorraga, *gar*θia, *arθallus...]; [*liθarrusti, *liθarra, *θestoa, *θerain...].
- Hitz mailegatuak: [*θero, *proθesu, *proθesatu, *soθiologia, *esθena, *trapeθista, *esθeptiko, *eskiθofrenia, *θisyordania, *aθentu, *biθio, *liθeo...].

Eskertuko luke irakasle-jendeak batez ere. Izan ere, horrelako kontuei ez zaie lekurik egiten eskoletan, eta ez zaie egiten irakasleek ez dutelako horretarako heziketarik izan, eta biluzik ikusten dituzte beren buruak¹⁹. Arau-formatuan ez bada ere, eskertzekoa litzateke unitate didaktiko batzuen bidez emaniko gomendioak eta orientabideak paratzea, hiztun-ziurtasunerako besterik ezean.

E. Morfosintaxia

Hauxe dugu gramatikaren alorrik zailena. Baina honetan ere preziso da aztertzea batasunaren izenean erabaki gehiago behar den ala ez; are gehiago jakinik erabiltzaileen zalantzak alor horretan pilatzen direla batez ere, Jagoneteko datuek erakusten dutenez.

Denok dugu gogoan euskara batua abian jartzearekin batera hartu zirela morfologiaren esparruko lehen erabakiak Arantzazuko Biltzarraren ondotik²⁰:

1968, deklinabidea;

1979, erakusleen formak;

1973, aditz laguntzailearen formak;

1977, aditz trinkoen formak.

Denon gogoan dago, orobat, badugula gramatika deskribatzaile oso bat ere (EGLU), Euskaltzaindiak hogeita sei urtean onduta, 1985-2011ko epean, eta duela bi urte eguneratu eta argitaratu dena *Euskararen Gramatika* izenarekin (2021). Tartean daude, halaber, 1994tik, Leioako biltzarraren haritik, Euskaltzaindiak argitaratutako *Araua* ere, uztaidun karpitetan argitaraturiko haiek (ikus bukaerako eranskina). Horiek denak sarean daude, Euskaltzaindiaren webgunean.

¹⁹ Oratoria edo jendearen aurreko lokuzioa eskoletan lantzea gainditu gabeko ikasgaia da gurean. Lehenetsun handiagoa eman behar litzaioke.

²⁰ Araugintza berriaren kontuan ezin aipatu gabe utzi *Euskera* aldizkarian argitaratutako oinarritzko bi artikulu: Pello Salabururen «Euskara batuaren egungo premiak» izenekoak bata, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean Leioan irakurria (*Euskera*, 39. alea, 1994-3: 675-695); eta Miren Azkarateren «Euskalgintzaren araugintza» izenekoak bestea, Tolosan aurkeztua II. Jagon Jardunaldietan (*Euskera*, 41. alea, 1996-3: 557-582).

Beharra ikusirik, alor honetan ere urratsa egin du Euskaltzaindiak. Morfosintaxiaren Estandarizazioa izeneko batzordea eratua du morfosintaxiaren araugintzan sakontzeko, jakitun erabaki batzuk ezinbestekoak izango direla oraindik batasunaren bidean, gai eta auzi batzuetan ez dagoenez ezer artikulaturik.

Anjel Lertxundiren beste esaldi bat: «Indarrik banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eraman behar ninduke ni, eta ez nik bera. [...] Esaldiak bizkortu, [...], arin-arin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...».

Anduk dioena ez da bere osoan Euskaltzaindiaren egitekoa, noski; idazleena litzakete gehiago..., baina garbi dago Euskaltzaindiak lanak erraztu egin behar dituela, eta garbi arautu eta esan zein diren forma egokiak, zein tradizioak, molde bakoitza zein usadio-eremutakoa den, zein den bakoitzaren premiazkotasuna, etab.²¹.

Morfosintaxiaren alorrean dozenaka auzi har litezke eztabaidarako; premiazkoenetako batzuk baino ez ditut aipatuko²².

Honatx, batasuneranzko bidean, lehentasunen nire rankinga, labur emanda:

- Adostea aginterako adizki perifrastiko laburtuak egokiak diren ala ez.

Alegia, *begira iezaziozu, ulertu iezadan, deitu iezaguk* eta antzeko forma osoak modu laburtuan eman al daitezkeen: *begiraiozu, ulertuidan, deituidazu, pasaidak, barkaidazu, kontaiguzu...*

Eta forma laburtua onartzen bada, nola eman beharko genituzke?

barka iezadazu > barkaidazu/barkaduzu

konta iezaguzu > kontaiguzu/kontaguzu

utz ezak, utz iezadazu > uztak/utzizak, utzidazu

pasa iezadak > pasaidak/pasadak

²¹ Gramatikari batek hizkuntzalari eta filologo gisa bakarrik ez, soziologo eta politikari gisa ere jokatu behar du, batez ere, gure kasuan bezala, hizkuntza bat botere handiagoko bi hizkuntza indartsurekin kontaktuan kodetua izan behar denean.

²² 2023ko azaroaren 25ean Getarian eginiko sarrera-hitzaldian lehenengo hamaikak baino ez ziren irakurri.

- Hikako jardun-ingurumariaren edo erregistroaren mugak zein diren zehaztea:

◦ Alde batetik, zein den hikako tratamenduaren erabilera-eremua. Hau da, zeini egin dakioke hika? Aita bati egin dakioke? Monologoetan-eta, geure buruari ari gatzazkionean ere posible al da? Txakurrei egin dakieke? Toka, hura arra bada, eta noka emea bada?

◦ Bestetik, sintaxi-eremuko mugak zein diren. Menderagailua daraman adizkia hika eman daiteke? Alegia, egokia al dira era honetako esaldiak?:

Mendian bizi deken/denan gizona nire aita duk/dun.

Andoni etorri dekela entzun diat.

Ala nahitaez behar dute honela?:

Mendian bizi den gizona nire aita duk/dun.

Andoni etorri dela entzun diat.

- Ehunekoen (%) erabilera.

◦ Sintagma mugagabea ala mugatua dagokio esaldi honi?:

Emakumezkoen % 22k pentsatzen du hala.

Emakumezkoen % 22ak pentsatzen du hala.

◦ Aditz-komuntadura nola, singularrean ala pluralean?:

Gazteen % 60 gurasoei bizi da.

Gazteen % 60 gurasoei bizi dira.

- Zenbakiak eta *eta* juntagailua. Nola esan behar dira era honetako zenbakiak?

Kafea 1,40 euro da.

Kafea bat eta berrogei euro da.

Kafea bat berrogei da.

1.500 > mila eta bostehun / mila bostehun

2-1 irabazi du partida Realak > bi eta bat / bi bat

- Ere partikularen erabilera.

Adberbio honen erabilera sakon deskribatuta dago EGLU III-n, eta baita *Euskararen Gramatika* berrian ere. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere emanak ditu jarraibide batzuk. Hala ere, modu guztiz arrotzak ari dira hedatzen, tentuz aztertu beharko liratekeenak:

**Ere bai* Jone etorri zen. / Jone ere etorri zen.

*Ogia ekarri zuen *ere bai*. / Ogia ere ekarri zuen.

– Ez gara hondartzara joan.

– *Gu *ex*ta. / Gu ere ez edo *Ex*ta gu ere.

- Nola eman behar dira era honetako ospakizun-egunak?

Esana dauka Euskaltzaindiak Jagonet bidez eta *Euskararen Gramatikaren* bidez zein diren molde egokiak, baina komeni da birgogoratzea eta azpimarratzea.

Elkanoren Eguna / *Elkano Eguna*;

Xalbadorren Eguna / *Xalbador Eguna*

Antxoaren Eguna / *Antxo* Eguna;

Sagardoaren Eguna / *Sagardo Eguna*

- Hitz elkartuei buruzko 25. araua berraztertzea.

Gehiago zehazterik bai honelako aukeretan, besteak beste?

- «-ia» amaiera dutenak:

biologi azterketa,

biologia-azterketa,

biologia azterketa

- «burdina», «eliza», «hizkuntza», «kultura», «literatura» eta «natura» hitzekin:

literatur tradizioa,

literatura-tradizioa,

literatura tradizioa

- «sorta», «puska», «mota» gisako hitzekin eraturiko elkarketak, marratxoarekin ala aparte?:

lore-sorta / *lore sorta*,

ogi-puska / *ogi puska*,

eskola-mota / *eskola mota*

- Aditzoina noiz erabili (eta nola):

etorri / *etor nadin*,

ekarri / *ekar dezaket*,

aztertu / *azter zaitez...*

Bestetik, «-tu» edo «-i» bukaerako aditzetan, aditzoinak bi forma dituenen, zeinen alde egin behar da?:

gizon / *gizondu zaitez*en,

ohera / *oheratu gaitezke*,

gauza / *gauzatu dezagun*,

bereiz / *bereizi dezagun*

- Pertsona-izenordain indartuak. Lehenespenik komeni ote?:

Neu / *nihaur* / *nerau* naiz errudun bakarra.

Neuk / *neronek* / *nihaurek* ere nahi nuke.

- Zenbatzaileak eta neurriak. Lehenespenik komeni ote?:

bost kilometrorra / *bost kilometrotara*

lau segundoan / *lau segundotan*

hoge euroan / *hoge* eurotan

- Azkenaldiko «berrikuntza» batzuekin zer jarraibide hartu behar da?

- Onargarriak al dira honelakoak?:

Ze(r) ba egin duzu hori?

Ez dakit ze ba etorri den.

Kriston ondo pasatu dugu!, Kriston polita da!

- Komeni ote da ezer esaterik aditz sintetiko berrien emariari buruz?

darantzute (erantzun),

darakaste (irakatsi?),

damait (eman),

zirudidan (irudi)...

- Izenordainak:

– Forma indartuen esparrua noiz erabili behar da?

– haren vs bere.

- Gero, «(r)en» eta «(e)ko» genitiboen diferentzia zehaztea komeniko litzateke:

Euskaltzaindiko/Euskaltzaindiaren lehendakari,

taldeko/taldearen entrenatzaile,

Realeko/Realaren jokalaria

- «Zein» erlatiboa: <zein... bait-/-(e)n>, <non... -(e)n/bait>.

– Jokoa: mugagabea vs artikularekin (zeinen/zeinaren...).

– Numero-komunztadura.

- Konparaziozko forma hauen erabilera:

bailuan/bailuen,

bailitzen/bailitzan,

bailegoen/bailegoan...

- Ausartu behar genuke egitura funtzional, zuzen baina gutxi erabilitako zenbait sustatzen:

– Elementu iragarleen aukerak profitatzen (perpaus-hasierara ekarri): baldin eta, harik eta...

– Erlatibo anaforikoei protagonismo handiagoa eman: zein(a) bait, non...

– Perpaus osagarrietako ezen lotura-hitzaeren funtzioak.

– Zeren kausazko esaldietan...

Bukaera

Ez nadin luza gehiago. Jar gaitezen, bada, etxeko bandan, poparean. Agur esateko ordua iritsi da.

Mintzaldi txiki honen intentzio bakarra euskararen mundua eraikitzen jarraitzea izan da, elkarlanean, lankidetzan, aurrera begira... Hemendik 27 urtera, 2050ean, Euskaltzaindiak seguru aski beste biltzarren bat egingo du, ez dakit non, ez dakit zertaz, ez dakit nork. Bizirik banago, 100 urte izango ditut..., eta buruak laguntzen badit irakurriko ditut biltzar horretan orain gazte zairenok esango-idatziko dituzuenak... Ea, Etxepareren *Kontrapasen* moldera esanik, orduan ere, indarberrituta, euskara jalgia den plazara, jalgia den mundura!

Eskerrik asko!!!

Andres Alberdi Gorostiaga

2023ko azaroaren 25ean

Getarian, udaletxean

Eranskina

Zehazki adierazita, hemen ondorengo arau hauetan daude jasota morfosintaxiari dagozkion alderdiak (nahiz batzuk, zehatzago hartuta, berez ortografia-alorrean sartzekoak diren); lehenengoa 1968koa da, eta azkena 2017koa. Baina propio arazo morfosintaktikoren bat jasotzen duen azkeneko araua —116. araua: «(e)lako eta -(e)n atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan»— 2001ekoa da (duela 22 urtekoa).

Lehen zutabean, araua, bigarrenean, arauaren izena eta azkenean, urtea zehaztuta daude.

ORTOGRAFIA ETA AHOSKERA

0.	Ortografia (Luis Mitxelena)	1968
1.	<i>Bat-batean, behinik behin, batik bat</i>	1994
2.	<i>Baitu, baikara, bainaiz</i>	1994
7.	Zenbakien idazkeraz	1994
10.	<i>Nornahi, nonahi, non-nahi</i>	1994
13.	Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri	1994
17.	Euskal alfabetoaren letren izenak	1994
24.	<i>Ba-</i> eta <i>gabe-</i> ren idazkera	1994
26.	<i>-z gero</i>	1995
87.	Euskara Batuaren ahoskera zaindua	1998
141.	Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera	2004
158.	Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak	2009

MORFOLOGIA LEXIKOA

3.	<i>Aurrealde edo aurreko alde</i>	1994
6.	<i>Arrain, usain, artzain</i>	1994
9.	<i>-zio</i>	1994
19.	<i>Benetako. Ohiko</i>	1994

25.	Hitz elkartuen osaera eta idazkera	1995
49.	<i>-ARI (-lari)</i> atzizkiaz	1995
50.	<i>-ARI /-ARIO</i>	1995
73.	<i>-go</i> atzizkia eta izen multzokariak	1997
178.	Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak	2015

MORFOLOGIA FLEXIBOA

4.	<i>hau guztia</i>	1994
5.	<i>Ene/nire, nirekin, niri</i>	1994
11.	<i>Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk</i>	1994
12.	<i>Bat</i> eta <i>batzuk-en</i> deklinabidea	1994
14.	Adizki alokutiboak (hikako moldea)	1994
15.	Partitiboaren erabilera okerra	1994
23.	<i>Arazi</i>	1994
28.	Aditzoinen forma	1995
29.	Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea	1995
30.	Partitiboa baieztatu perpausetan noiz eta nola	1995
34.	<i>Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia</i>	1995
42.	<i>Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen</i>	1995
78.	Aditz laguntzaile batua	1997
85.	Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma	1998
183.	Adierazpen izendatzaileen deklinabidea (Onoma.)	2016
184.	Erdal hitzen deklinabidea (Onoma.)	2017

SINTAXIA

8.	Zenbakien deklinabideaz (<i>hiru, lau</i>)	1994
16.	<i>Zu izan ezik</i>	1994
18.	Ordinalen eta banatzaileen idazkera	1994

20. <i>Betiko eta horren kideak</i>	1994
21. <i>Arabera</i>	1994
27. <i>Hori eta, hori edo, eta horrelakoen idazkera</i>	1995
31. <i>Ekartzea merezi du</i>	1995
33. <i>Ongi etorri!</i>	1995
35. <i>Orduak nola esan</i>	1995
37. <i>Data nola adierazi</i>	1995
39. <i>Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu)</i>	1995
40. <i>Topiko(a) bihurtu</i>	1995
41. <i>Egiteko asmoz</i>	1995
43. <i>Arazi aditzaren erregimena</i>	1995
109. <i>Komunztadura aposizioetan</i>	2001
110. <i>Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabili daitekeen</i>	2000
111. <i>Izen-sintagmen arteko juntadura</i>	2000
113. <i>Behar izan aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin</i>	2001
114. <i>Nahi/gura izan aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin</i>	2001
115. <i>Zehar-galdera orokorretako aditz-atzizkia: -(e)n eta -(e)netz</i>	2001
116. <i>-(e)lako eta -(e)n atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan</i>	2001

Mikel Zalbide euskaltzainaren erantzuna A. Alberdiren sarrera-hitzaldiari

Arraunlari trebe, lemazain maisu eta laguna

Agintari agurgarri, euskaltzainburu eta euskaltzain-lagun, aspaldiko lankide, Andresen familiarteko eta bertara bildutako jaun-andre: egun on digula guztioi.

Eskerrak emanez hasi nahi dut, apalik eta esker onez. Eskertzekoa baita zinez, ohore izateaz gainera, konpainia eder honetan hitza hartu ahal izatea. Ez zaituztet inola ere hitz handi-hanpatuekin aspertu nahi. Besterik daukat gogoan: lauzpabost gogoeta xume aletu nahi nituzke, horra nire sentimendua argi deklaratu, Andres Alberdik eskaini digun hitzaldi eder eta gogoangarriari erantzuteko. Esan dezadan argi, gerora gabe: azal eta mami, erakargarria gertatu zait oso Andresen hitzaldia. Ez da hau, jakina, isipua astintzen hasteko lekua eta ordua. Argi eta ozen esan dituenak baldarki laburtzen edo alferrik errepikatzen hastekoa ere ez. Hobe izango dut hortaz, hitz-jario honek probetxuren bat izango badu, berak argi eta maisukiro erakutsi dizkigun kontuen harira gogoeta xume batzuk aukeratzea. Ez dira puntu bakarrak, inola ere¹. Bai ordea corpus-plangintzaren alorrean noiznahi kontuan izatekoak eta gaurkoan bereziki azpimarratzekoak. Gatozen beraz, itzulinguru handiagorik gabe, harira.

Lehen gogoeta: *Corpus-plangintzaren izaera anizkuna; guztia ez da arau*

Nondik-bait hasi behar eta, euskaltzale buruargi bat hartuko dugu bide-erakusle: Xabier Lizardi. Bere olerki-zati ezagun batek, 1931ko *Oro Mintzok*, paregabeko aukera eskaintzen digu lehen ale hau xehatzeko. *Norannahiko hizkuntza* bihurtu nahi zuen Xabierrek, ondo dakizuenez, ordura arte batez ere etxeko eta lagunarteko

¹ Hitzaldiaren bigarren partean, estatus-plangintzaren lehentasunaz eta hizkuntzaren barne-osaera egokia erabileraren xede-multzoan integratu beharraz esan dituenak, bereziki, oso dira kontuan hartzekoak eta iruzkin zabal baten duin. Erantzun-hitzaldi labur honen mugapetik kanpora gelditzen da, jakina, iruzkin hori.

berbaera gozo izandakoa. Lehengo altxorrari uko egin gabe behar berriei begira osatu eta aberastu nahi zuen euskara. Egunak dituen esna-ordu gehienetan hitzun gehienok solaskide gehienekin aurrez aurre², maitekiro edo muturka, serio edo txantxetan, hizkera hotz-eklektiko edo gatz-piperrez oraturiko esamolde bixiz, elkarrekin jarduteko erabili ohi dugun mintzabide jatorrari mendu berriak erantsi nahi zizkion. Amets-bideetan barna zihoalarik «azal horiztaren pean muin betirakoa» gordeko zuen mintzaira jasoaren beharra aldarrikatu zigun Xabierrek. Menderik mendeko jatortasun-zantzuei uko egin gabe, bizitza modernorako adierazpide zalu eta duina. «Iguzkik ezin urtuzko hegoz» eta «izar urdinetarainoko asmoz», harrigarritzko bidaia eskaini zigun poetak. Atzera begira abiatu zuen bere ibilia: «Dagigun arraun Izotz-errira, / zaharren aztarrik danentz begira: eskuan arpoia, soñean zira!». Egungo eta bihar-etzieta giroa gizarte berria zuen, ordea, helmuga: «Iri nagusi, giza erlauntza / zorapenezko aruntz-onuntza, / sumabearra, yakintza, / sal-eros ekurugaitza». Gero eta hitzun-herri gehiagori bizi izatea suertatu zaigun kale-giro nahas-burrundatsu, partez beregain eta partez supraetniko honetan bizirik iraun ahal izateko prestatu nahi zigun Lizardik, eginahal bizian, eskuan arpoia eta soinean zira zeramaten arraunlarien hizkuntza: «Ortzi oro ta egute³ oro / yaso, (...) apaindu zernaitarako: / agi⁴ gai adirazteko / gizaki guzien alderdi ta asmo»⁵.

Esan beharrik ez dago: gutako askoren pare Lizardizale eta bere hainbat gomendioren jarraitzaile dugu Andres Alberdi ere. Merezi du, horregatik, *Oro Mintzaren* asmo-azalpen hark ordutik hona izan duen ibilia axaetik bada ere begiratzea. Ehun urte beteko ditu laster olerki famatu hark eta, gure artean izan duen oihartzun ozen eta harrera zabala aintzakotzat hartuz, ezin esango dugu, euskaldun askoren gogo-nahia argi adierazten asmatu ez zuenik. Euskaltzetasun betearen bihotz-begietan ezarri zigun Lizardik, hitz labur bezain sarkorrez, goiburu garbia. Kopetan ongi iltzaturik daramagu harrezkero bere gogo-irrika: eguneroko jardungune arruntean bizirik dagoen (eta hala iraun behar duen) hizkera sotila solas-esparru espontaneoaren zokondotik atera eta, egungo gizarteak bere-bereak dituen jardungune eta harreman-sare jasoagoetan hitzez eta idatziz jarduteko

² Modu zabalean hartu behar dira, egungo egunean, aurrez aurreko egoera komunikatiboak: *fisikoki aurrez aurre* gorpuztu ohi diren ondoan kontuan hartu behar dira, ehuneko ehun gauza bera ez izan arren, telefono eta *whatsapp* bidezkoak ere.

³ *Orotariko Euskal Hiztegiaren* esanean, *egute* = 'clima, tierra'.

⁴ *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioenez, *agi* = 'fenómeno, suceso'.

⁵ Xabier Lizardiren 1931ko *Eusko Bidaztiaren* olerkitik jasoak dira kakotx arteko esaldi horiek.

gaitzea: batasun-eredu garatu batez hornitzea. Gauza bat da, halere, Zarautzen jaiotako buru-langile argiak euskaltzale askoren helmuga gorena maitekiro eta dotore adierazi izana, eta beste kontu bat, oso bestelakoa, gogo-amets hura *hemen eta orain*, gure eguneroko gizarte nabar honetan, alderik alde gorpuztea. Ondo ikasia dugu dagoeneko lezio hori: nahi izate hutsa ez da nahikoa, noranahiko hizkuntza-eredu hori euskaldunon artean luze-zabal hedatzeko. Gogoa eta borondatea ez dira aski, ezinbesteko baldintza izanik ere, batasun-eredu garatu horrek onarpen zabala eskuratzeko eta eguneroko jardunean euskal hitzun eta idazle gehienek ezpain-lumetan txertatzeko. Eginkizun bihurri, neketsu eta luzea izan ohi da onarpen kontu hori, kasu gehienetan. Batasun-eredu garatua hitzun-elkartean ezagutzea eman, nola erabiltzekoa den irakatsi, hitzun-idazle gehienek jardunean itsatsi eta belaunez belauneko perspektiban egonkortasun malguz proiektatzea ez da eginkizun erraza. Lan delikatua da, hasteko, bertako gutxiengo buru-jantziak, lanbidez hartara makurtuenak edo *language loyalty*ren jira-bueltako gizatalde aktibatuenak, eredu hori beregana dezan lortzea. Ez da hori, ordea, eginkizunik nekagarriena. Gero dator, izan ere, lanbide malkartsuena: gutxiengo buru-jantziak eta euskaltzale suharrek ez ezik, *hankabiko* hitzun arrunt gehienek ere batasun-eredu garatu hori gustuko izan, ikasi eta, hala dagozkion egoera komunikatiboetan, hitzez eta idatziz zuzen erabiltzea. Hitzun-elkarteko kideek eredu berri(tu)a gogoko izan, ongi ikasi eta zuzen erabiltzea da, askogatik, corpus-plangintzaren parterik gogorrena, luzeena eta, inoiz, arriskugarriena. Beharrena ere bai, ordea: hori gabe ez dago estandarizaziorik, adituen esanean⁶. Zailtasun hori are da nabarmenagoa hitzun-herri elebidunetan eta bereziki da bihurria, eguneroko jardunak ongi erakutsia digunez, auzo-erdara handien inpaktuaz belaunaldi berriak etxetik bertatik ele-erasanik daudenetan. Labur bilduz: ederra bezain zaila da, ia ehun urteko eskarmentua lekuko, Lizardiren gogo-asmo hura hemen eta orain luze-zabal hezurmamitzea.

Badakigu zergatik: euskaltzaleon ametsa hitz ederrez azaltzeaz gainera bestelako

⁶ Bi ohar egin behar dira hemen: a) estandarizazio kontzeptuaz (berekin dituen ezinbesteko osagaiez). Ikus, adibidez, Haugen 2001 eta Fishman 1983; gure arteko azalpenez ikus, besteak beste, Zalbide 2020; b) Inoiz esan izan dugunez, estandarizazioaren kontua ez da ezinbestean txuri-beltz arteko dikotomia zurruna. Gizartean prozedura askotan bezala urratsez urratseko zabalkunde gisa ulertu behar da, aitzitik. Eskubide osoz hitz egin liteke, hori dela medio, estandarizazio partzialaz. Zenbat biztanlek onartu du osorik edo partez, zer hitzun-multzok zer zatitan eta zeinetan ez? Estandarizazioa erdizka gorpuztua baldin badugu, batasun-eredu garatuaren onarpen hori zer abiadatan ari da gertatzen? Hori jakitea ere laguntza handikoa da. Ikus horretaz, besteren artean, Zalbide 2020.

pausoak behar izaten dira begiz jotako hizkuntza-eredu jasoa gizartean hedatzeko, eguneroko jardunean egoki aktibatze eta belaunez belaun transmititzeko. Ezinbestekoak dira pauso horiek, esku artean dugun estandarizatzeko arakastariek izango badu: batasun-arauak zehaztea eta nonahi erabiltzeko balio izango duen hizkuntza-molde jasoa elaboratzea bezain ezinbesteko; arauak ematea bezain beharrezko. Hartutako arau-erabakiak zabaldu eta itsatsi egin behar dira hiztun-idazleen artean, hizkuntza benetan estandarizatuko bada. Paperean ezarritako eredu hezurmamitu. Horixe dugu adituen *implementation* ezaguna⁷. Hezurmamitze hori nola egiten den galdetzean, erantzun argia eman ohi dute espezialistek. Bi helduleku nagusi ditu egitasmo horrek, haien esanean: batasun-ereduaren eta elaborazio-lanketaren eskola bidezko zabalkundea batetik (*educational spread*); hizkuntza-eredu batu eta garatu horren erabilera okerra zuzentzea bestetik (*correction procedures*)⁸. Eskolaren eta jakintza-gai guztietako irakasleen, gaztetako literatura-kontsumo zabalaren, hiztegi-gramatiken eta testu-liburuaren, glosario terminologikoen eta estilo-liburuaren bidez mamitu ohi da, hein ohargarrian, *educational spread* hori. Besterik dira, aldiz, *correction procedures* direlakoak: azken horietan sartu ohi dituzte adituek, hezkuntza-saileko, aginte-alorreko eta lanbide-esparruko instantzia ezagunez gainera, hiztun-idazle gehienon portaeran hain eragin bizia duten gainerako gizarte-eragilearen sari- eta zigor-bideak⁹. Neurri asko hartu behar izaten dira, nolanahi ere, paperean ezarritako edertasun-eredua hiztun-idazleen eguneroko praktika bizian hezurmamitzeko. Linguistika hutsaz haraindiko neurri operatiboak, eta hartan jarduteko trebetasun profesionala, behar izaten dira horretarako. Neurri horiek ere, araugintza hutsaz haraindi, hizkuntzaren corpus-plangintzaren funtsezko osagai dira.

⁷ «(...) implementation refers to all efforts to gain acceptance of the policies and “products” of language planning, including grammars, spellers, word lists, and school curricula for the implementation of language-policy decisions».

⁸ Pasarte honetako terminologia teknikoaren altzoan dagoen gertaera-multzo soziolinguistikoaz jabetzeko, ikus Zalbide, laster argitaratzen bidean dugun Tabakalerako hitzaldia: «Ondo al goaz?».

⁹ Einar Haugenek, ongi dakigunez, *correction procedures* direlakoak ezarri zituen bere modeloan, *educational spread* horren osagarri. Hizkuntza zuzena zein den eta zein ez bereizteko eta okerrak zuzentzeko, neurri zehatzak hartu ohi dira, sarri, eskola-munduan: zigor-bideak. *Informational* hutsaz gainera *coercitive* izatea eskatzen zaio, hein batean edo bestean, hezkuntza-esparruari. Zigor-bideen ondoan, are horien aurretik, sari-bideak aipatu izan ditu berariaz Fishmanek. Modernizazio terminologikoen sailean, adibidez, honela adierazi izan du kontu hori: «(...) as soon as terminologies become available the political authorities are once more relied upon to implement (utilize, require) them and to discontinue or prohibit their competitors or other deviations from them» (Fishman, 1979).

Ez beza inork uste izan, punta-mutur batetik bestera goazenik halakorik diogunean. Hizkuntzaren batasun-eredua kodeztatzea (*codification*) eta garapenezko elaborazio-lanketa (*elaboration*) corpus-plangintzaren osagai nagusi izan dira lehen, eta hala izaten jarraituko dute gero ere. Euskararen ortografia, oinarritzko hitz-altxorra eta gramatika bateratzea beharrezko eginkizun genituen orain dela ehun urte. Baita gizarte-molde berrirako elaborazio terminologikoa, sinaptikoa eta estilistikoa ere¹⁰. Lan handia egin da horretan guztian, Andresek argi aitortu duenez. Hizkuntzalarien parte-hartzea zabala eta sakona izan da eginbehar horietan: hainbat alorretan (aditzaren batasunean, adibidez) erabakigarri¹¹. Huts egiteko beldur handiegirik gabe esan liteke, orobat, hizkuntzalarien parte-hartzea behar-beharrezkoa izango dela gero ere, urak beren bidetik badoaz. Hizkuntzalariak ez dira ordea eragile bakarrak izan euskararen batasun-bidean eta elaborazio-lanketa terminologiko, sinaptiko eta estilistikoa. Ez dira bakarrak izan eta ez dira bakarrak izango. Gero ere hezurmamitu egin beharko da batasun-eredu garatu hori, paperean ezarritako eredu jolas-asmakizun elkor bihurtuko ez bada. Hori bakarrik ez: gizarteko hezurmamitze- eta txertatze-lan horretan lortuz doazen emaitzak aldian-aldian ebaluatu egin beharko dira eta, horren guztiaren argitan, aldatu beharrezkoak aldatu. Hizkuntza bizirik gordetzen dugun artean behin eta berriroko zabalkunde- eta hezurmamitze-lan hori ez da inoiz bukatuko. Gizartea berritzeaz bat, hizkuntzaren funtzio-esparruak, solaskide-sareak, egoera komunikatiboak eta, horren guztiaren ildotik (ez horren aurretik) hizkuntza-eredu bateratu-garatuaren barne-osaera ere aldatu beharra izaten da, gutxi edo asko. Gauza bat dago, nolanahi ere, eguna baino argiago: corpus-plangintzaren alorrean, guztia ez da arau.

Bigarren gogoeta: Arraunlari trebea

Argiro esan digu Andresek, mende Erdiko eskarmentuaren talaiatik, etengabeko lana dela gurea: «Norbaiti irudituko zaio euskara estandar edo batuaren ingurukoak eginak daudela, aski dugula egindakoarekin. Ez dago ukatzerik: urrats handiak egin dira, bai, baina oraindik bada eginkizunik, hizkuntza guztiak bezala, zerbait bizia eta aldakorra baita euskara ere. Euskara lantzearen eta batzearen prozesuak ez du

¹⁰ Terminologia horretarako, ikus Zalbide (argitaratzen bidean).

¹¹ Hor ere gogoan izan dezagun, halere, «*grauzkio* gabeko» aditz-paradigmaren alde egiteko orduan, motibo estralinguistikoak izan zituela Mitxelenak oinarri.

etenik, inoiz bukatzen ez den katea da». Arrazoi du getariarrak: arraunean egiten segitu beharra dago, portuz portu, hitzun-idazleen fabore. Atal eta neurri-pauso asko ditu hizkuntzaren corpus-plangintzak, eta hortxe sartzen dira noski ebaluazio- eta iterazio-lanak. Zoragarri azaldu digu hori guztia Andresek, hain berea duen argitasun sentzilloaz: biografia pertsonala harturik abiaburu, arraunketa bizian iritsitako sei portu azpimarratu nahi izan dizkigu. Guztietan ezin lehorreratu izango badugu ere, ez baitugu hartarako astirik, pausa ditzagun begiak bi portuotan:

- *Hizkuntza era bizi eta naturalean eskuratzeak duen garrantzia.*

Doai preziatua da eskuratze-bide natural hori, edozein hitzun-elkartetan. Are preziatuagoa etxeak eta kaleak, lagunarte hurbilak eta herri-giro arruntak hizkuntza horretaz baliatzeko eta, baliatuaren baliatuaz, eroso jarduten ikasteko gero eta aukera meharragoa eskaintzen duten gurea bezalako hitzun-elkarteetan. Ikasketa formalak asko egin dezake, egia da, L2 hitzunak sortzeko. Eskola eta euskaltegia direla medio hala ari da hemen ere, aspaldi honetan, euskaldunberriekin gertatzen. Adierazbide jakinetan aparteko goi-erpina jotzera iristen dira euskaldunberri horietariko batzuek: badugu Euskaltzaindian bertan, begiak urrutira itzuli gabe, gertaera pozgarri horren adibide argirik. Arau nagusia bestea da ordea, hemen eta nonahi: hitzunak, hitzun ona izango bada, etxetik eta kaletik, lagunarte hurbiletik eta herri-giroko harreman-sare arruntetik jaso eta eraiki ohi du lehenik eta behin, eguneroko interakzio-marko espontaneo lagun, bere mintzagaitasun bizia. Hizkuntza bere osoan eskuratzeko ingurumen oparo horren garrantzia zein handia den ederki azaldu digu euskaltzain-lagunak. Gerokoak gero etorri zaizkiolarik, Getariako arnaguneak emana dio Andresi, haur eta mutiko-denboran bereziki, egungo egunean hain berea duen hitzezko trebeziaren oinarria, euskaldun garbiaren aparteko doaia. Bere hitzetan esanik, «euskara bizi-bizia, espontaneo, naturala, trabarik gabea genuen ezpainetan».

- *Umetako aldaera-sorta osatu, zabaldu eta aberastearen garrantzia.*

Une batetik aurrera osatu eta zabaldu, aberastu eta dibertsifikatu egin zuen Andresek umetako eta nerabazaroko mintzamen bizi, natural, espontaneo hura. Hitzun-elkartearen *linguistic repertoire* osoaz jabetuz joan zen¹². Ezer gutxi dago hor berririk edo bitxirik, mundu zabaleko hitzun-elkarte handi-osasuntsuak

¹² Ikus, adibidez, Fishman 1972.

hartzen baditugu eredu. Hitzun-elkarte horietan ere zabaldu eta osatu egin ohi du bertako hitzun gazte askok¹³, beharrak edo komenentziak, aukerak edo gogoak hartaturik, bere umetako hizkuntza-gaitasuna. Jardungune, harreman-sare eta egoera komunikatibo jaso-formalagoetara egokitu beharrak batetik, eta urrunagoko —beste dialektoetako— solaskideekin jardun beharrak bestetik, eragiten du aldaera-sortaren zabalkundea. Ahozko trebetasunei idatzizkoak erantsiz egiten da, neurri ohargarrian, gaztetako osatze- eta aberaste-lan hori. Irakurtzen eta (hein batean edo bestean) idazten ikasi ohi dute hitzun eskolatuek, hizkuntza formal-jaso(ago) aren zuzentasun- eta egokitasun-arauak eskuratuz. Umetako eta lagunarteko mintzaira xotilaz gainera bestelako aldaerak izan ohi ditu hitzun helduak, hori dela medio, eskueran. Mundu zabaleko hitzun-elkarte handi-osasuntsuetan lege-arau zabala da hori. Aldiz gurean, eta gurea bezalako hitzun-elkarte txiki-ahuletan, umetako aldaera-sorta (oso) neurri mugatuan zabaltzen eta dibertsifikatzen da. Umetako eta lagunarteko mintzaira bakuna izaten du bertako hitzun heldu askok, hori dela medio, aldaera bakar edo nagusi. Horrezaz gainera, hitzezko jardunetik idatzizkora (are irakurtze-esparru hutsera) ez du hitzun-elkarte txiki-ahuleko hitzunak nahi bezain sarri jauzi egin ahal izaten: zer irakurrik ez badu, edo dagoena desegokia bada mamiz edo azalez, ezin irakurri eta, horrenbestez, ezin bere irakurmen-trebetasuna nabarmen indartu, zabaldu eta dibertsifikatu. Zer irakurria izanik ere, gutxitan lortzen du halakok erdaraz bezainbateko irakurmen-erraztasuna. Gatozen gurera, hurreneko egoera teorikoak une batez baztertuz: bertako herri-aginteen dokumentu ofizialak, bankuen jakinarazpenak edota supermerkatuetako publizitate-orriak euskaraz zein erdaraz izanik eskueran, (ia) beti erdaraz irakurtzeko ohitura duen euskaldunik (are euskaldun *alfabetaturik*) ez al dugu inguruan ezagutzen? Umetako aldaera-sorta osatu, zabaldu eta aberastea garrantzitsua da. Irakurtzen (zer esanik ez idazten) *jakitea* gauza bat da, eta *erraz eta probetxuz, etekin osoz eta dotore* egiten jakitea bestea. Mailak eta mailak daude horretan ere: *nolabaiteko* alfabetatzetik alfabetatze *betera* abaniko zabala dago, eta gradazio zabal horrek bere garrantzia du.

Andresen biografia pertsonalak badu, puntu horri dagokionez, gaztetxotan

¹³ Gaztetan gertatzen bada ere aldaera-sorta zabaltze hori maizenik, beranduago etorri ohi da zenbaitetan: idatzizko jarduna edota teknolekto jakinez baliatu beharra zentrala deneko lan-mundura sartzean, adibidez. Jendaurrean mintzamolde jasoaz berba egin behar izaten dugunean garatu egiten dugu gure mintzarena; askotariko testuak sarri irakurritik, era berean, garatu eta sendotu egiten dugu irakurmena; bide beretik, behin eta berriro idatziz, eta idatzitakoa zuzenduz eta hobetuz, osatzen eta aberasten dugu gure idazmena. Pedalei emanez ikasten da bizikletan ibiltzen, ez alderantziz.

eta gaztaro betean gutako askok izan ez genuen ezaugarria: seminariotik pasea da getariarra. Bertako zenbait maisuren laguntzaz, alfabetatze betea eskuratzeko aski esparru sendoa gertatu zitzaion ikastegi hura. Mesedegarri gertatu zitzaizkion Saturraran eta Donostia, euskararen erregistro landuetara hurbiltzeko eta mintzamen-idazmen garatu horiek zuzentasun-patroi jakinetara egokitzeko. Artean euskara batua garatu gabe izanik ere gizartean, osorik alfabetatzeko bidean jarri zen bertan. Bera bakarrik ez: beste horrenbeste gertatu zitzaion hainbat ikaslaguni ere, izen-deitura zehatzez azaldu berri digunez. Hori ere oso gogoan izatekoa da, azken hirurogei urteko batasun-bideak izan dituen oinarri eta iturburu soziologikoak xehekiro aztertze orduan. Batzuek Andresen bide beretik, gehienok aski bestelakotik, ibili izanik ere egia da, dena den, hemen bildurik gauden asko antzeko portura iritsi ginela une batean edo bestean. Gotorleku sendotik edo jakingura hutsetik abiatuz, nork bere kasa jardunez maiz asko, alfabetatu ginen euskaraz. Alfabetatze horrek eraginik, batasun-eredu baliagarria eskuratu dugu bidean. Gutako gehienon gurasoek eta aitona-amonek ez bezala, euskaraz irakurri eta idazteko gai gara. Gizarte-mailako alfabetatze horren berritasunaz jabetu gabe nekez gure belaunaldiaren ibilbide soziokulturala uler liteke. Andresek esan berri digunez, «euskara baturik gabe» iritsi ginen gehienok euskara idatziaren esparrura, euskal aditz baturik eta hiztegi baturik gabeko larrean ikasi genuen bazkatzen, eta euskara batuan finkaturik gaude orain: baditugu zuzentasun-arauak, erreferentzia fidagarriak eta eredugarritzko testuak eginkizun batean zein bestean.

Erreferentzia-puntu baliagarri dugu Andresen biografia, alfabetatze-lanak 1960ko hamarkadatik hona gure artean izan duen bilakaera argi entenditu ahal izateko ere. Hori bakarrik ez: alfabetatze hori noiz-non gertatu zen galdetzen badu inork, erantzun ernagarria jaso dezakegu hainbat kasutan. Inguruko hainbati galdeturik, emaitza moduko hau eskuratua dut aspalditxo: eskola (inoiz unibertsitatea) amaitu ondoko praktika profesional jarraiak aparteko garrantzia izan du gure belaunaldiaren alfabetatze-bidean. Euskalgintzaren eguneroko praxian alfabetatu izan da gutako asko: irakasle moduan, argitaletxeetan, komunikabideetan, administrazio-guneren batean... Estatistikei zor zaien begiramena aintzakotzat hartuz, badirudi irakasleen alfabetatzeak aparteko lekua izan duela: eskolan edo euskaltegian ikasleei irakurtzen eta idazten erakutsiz ikasi dugu gutako askok hobeto irakurtzen eta zoliago idazten. Teoriazko argibiderik eskueran izan badugu ere une batetik aurrera, eta terminologia teknikoaz baliatzeko hainbat aukera praktiko eskaini bazaigu ere azken 50 urtean, formulazio teoriko eta hiztegi tekniko horiek adina laguntza eskaini digu eguneroko eskarmentu profesional jarraiak.

Zer euskara-modu genuen baliagarri eta zein ez, zeinek funtzionatzen zigen eta zeinek ez, eguneroko praktika konkretu horrek erakutsi digu maiz. Gutako askok alfabetatze kontuan bizi izan dugun ibilbideaz jabetzeko ispilu ona dugu, honetan ere, Andresen eskarmentua: «... duela 50 urte iritsi nintzen Elgoibarrera, ikastolara hain juxtu (...). Beste lezio bat ikasi nuen hantxe: garbizalekeriak ez ginderamatza inora». Berritasun handia izan zen, orain besterik badirudi ere, lezio hori. Korapiloa askatu ezinik zebiltzan orain dela ehun urte euskaltzale eta euskalari gehienak, *euskara* onaren bilaketan. Besteak beste zirela, beregaintasun osoko garbizaletasunaren eta mailegu bidezko praktikotasun funtzionalaren arteko sokatiran katigaturik. Jarraitu ere hala jarraitu zuten luzaro, modernizazio terminologikoaren alorreko auzigai larrian¹⁴. Egia da, 1950. urte ingurutik aurrera aski bestelako paradigma hasi zela protoelite euskaltzalean indartzen eta zabaltzen: Krutwig eta Villasante oso kontuan izatekoak dira paradigma-berritze hartan. Egia da, orobat, Baionako eta, bereziki, Arantzazuko Biltzarrak erreferentzia-puntu argia ezarri zuela, labur baina zorrotz, puntu horri dagokionez. Eta egia da, azkenik, 1975. urtetik aitzina, gutxi gorabehera, terminologia tekniko lan-eremu beregain bilakatu zela gure artean, corpus-plangintzaren sailean: Elhuyar, Jakin eta UZEI, orobat Bilboko (gero han-hemengo) Zientzia Fakultatea(k), mugarri sendo bihurtu ziren hainbat aldetatik. Hori baino konplexuagoa da, ordea, garai hartan luze-zabal gertatua. Alfabetatze-lana goiko talde horiek baino ondotxo eragile gehiagok ekarria da. 1960. urte ingurutik aurrera hitz lauz jardundako idazle-belaunaldi gaztea eta hainbat eztabaida eragindako batasun-eredua hertsiki loturik daude, orain gutxi aipatzen baditugu ere, kontu horrekin. Eztabaidak eztabaida eta proposamenak proposamen, aparteko kongresu monografikorik, aditu-espezialisten batzorde bidezko hitzarmen-emaitzarik edota doktore-tesi definitiborik gabe, pausoz pauso askatuz joan zen korapiloa¹⁵ eta, une batetik aurrera, *berez bezala* konpondu zen mende laurden lehenago ezin konponduzkoa zirudien auzia. Goitik behera bezainbat, edo gehiago, behetik gora etorri zen konponbide hori¹⁶. Unean uneko beharrak eraman gintuen, besteak bestez, irtenbide kolektibo hartara. Eztabaida teoriko handirik gabe askatu genuen korapilo hura: hizkuntza-

¹⁴ Ikus Zalbide (argitara bidean), Euskaltzaindiaren mendeurrenaren kariaz Oñatin emandako hitzaldia: «Euskaltzaindiaren sorrera eta euskara batuaren egitasmoa, perspektiba soziohistorikoa».

¹⁵ Orain gutxiago balorotzen bada ere laguntza handia izan zen, dudarik gabe, Euskaltzaindiak (Mitxelena idazle zela) 1959an emandako araua, maileguzko hitzen erabilerari —eta, inplizituki, idazkerari— buruzkoa.

¹⁶ Hots, *top-down planning* adina *bottom-up* modukoa izan zen hemengoa.

-eredu jaso-funtzionala behar genuen gero eta euskaldun gehiagok, eguna joan eta eguna etorri, hizkuntzaren erregistro landu(ago) batean jarduteko. Haren beharra genuen eta, ibiliaren ibiliaz, *sortu* egin genuen erregistro hori elkarren arrimuan. Beharrak eraman gintuen irtenbide horretara. Garbi ageri da hori, xalo baino zehatz, Andresek irakurri berri digun pasarte honetan: «Beharrak eraginda hasi ginen testugintzan, hark markatu zigun bidea. Ez zegoen euskarazko testulibururik Bigarren Hezkuntzan, ez euskara irakastekorik, ez beste inolako ikasgairik. 1985ean hasi ginen testugintzan. Lege-erreforma bakoitzeko eraberritu behar izaten ziren ikasliburu horiek. Horretan jardun genuen 20 urtean». Beharrak eraman zituen irakasle-taldeak, bai, berehala kaleratu beharreko ikasmaterialak terminologia operatibo batez hornitzera. Ikasgelan terminologia hartaz baliatu behar zuten irakasleen eta ikasleen gogo-ahalmen praktikoak, batez ere, gogor makurtu zituen testugileak terminologia eskuragarri(ago) eta estilo sinple-lauago batera. Mendeetan ezagutu gabeko fenomeno arrotza eguneroko gertakari ezagun bihurtu zen, horrela, bizpahiru hamarkadetan: Lehen Hezkuntzan ez ezik, Bigarrenean eta Unibertsitatean ere, are tesi-lan bihurrienen, bere lekua egin zuen euskarak. Lekutan utzi zuen gertaera soziologiko horrek Miguel Unamunok eta Pío Barojak euskarari egotzia zioten *berezko* ezintasun-mantxa. Argi ikusi zen orduan, eta argi dago egungo egunean, gertaera hau: euskal hiztunak, hiztuna ona baldin bada eta behar adina alfabetaturik baldin badago, ez du aparteko ezintasunik bere aldaera-sorta zabaldu eta, hitzez zein idatziz, H esparruko gaiak euskaraz adierazteko. Esatari¹⁷ eta prosa-idazle, irakasle, kazetari eta bestelako profesional askok zabaldu du bide hori. Euskaldun multzo horrek *larreko hizkuntza* zena *noranahiko mintzo* bihurtu du. Berrikuntza horretan parte hartu zuten gizon-emakumeei (orduan oro har gazteak) argi aitortu beharko zaie, noizbait, hizkuntzaren corpus-plangintzan ere izan duten aparteko garrantzia. Tartean, nola ez, Elgoibarko testugile-taldeari eta, inoiz gutxitan aipatzen bada ere, argitaletxeetako orrazketa-arduradunei. Horien guztien konpainian ari izan delarik luzaro, arraunlari trebearen zertzelada argiak ageri ditu, aldaera-sortaren azken 60 urteko zabalkundeaz denaz bezainbatean, Andres Alberdik.

¹⁷ Hortxe sartu behar dira, jakina, ez hain aspaldiko predikari etorri onekoak eta, elizaz aparte, azalpen argiko hizkuntza irrati-mundura zabalduetako Dolores Agirre eta Basarri moduko bide-urrazketaileak. Baita taberna-zuloko bertsolaritza egungo moldeetara jasotzen eragin bizia izandako plaza-gizonak eta orain, aparteko distiraz, plaza-emakumeak ere.

Hirugarren gogoeta: *Lemazain maisua*

Apaltasunak hartaturik nekez halakorik aldarrikatuko badu ere, gutako askok dakigu Getariako euskaltzain-lagunaren biografiak baduela aparteko ezaugarria: arraunlari trebe izateaz gainera, lemazain maisu dugu Andres, aspaldixodanik, hizkuntza-eredu jasoa gizarteratzeko saioen esparruan. Ezin has gaitzke, hemen eta orain, bere ekarpen guztiak xehekiro aletzen. Ez dago hartarako astirik, eta zuen pazientzia ere ez da mugagabea. Esan dezagun, halere, talde-lanean jarduteaz gainera arduradun nagusi izanik dugula Andres, sarri asko, corpus-plangintzaren hezurmamitze-alorreko hainbat eginkizunetan. Hala izan dugu luzaro Euskaltzainditik kanpora, eta hala dugu orain Akademiaren baitan. Eskolako ardurez gainera, hor ditu metaturik, eta zenbaitek ez ditugu inola ere ahaztuak, lemazain gisa ondoko lan-esparruotan eskaini dituen ekarpenak: EGAREN alorreko gestio akademikoari dagokion parte-hartze erabakigarria, Bigarren Hezkuntzako ikasmaterialgintzan egindako bide-urratze sakona; EIMAKO onespén-azterketaren gidaritza, hezkuntza-mundurako estilo-liburuxken prestaera eta, 2018tik aurrera, *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE). Ba ote da gure artean, hizkuntza-eredu landuaren *implementation* edo hezurmamitze-faseari, lemazain moduan, Andresek baino lanordu gehiago eskaini dionik?

Aski hurbiletik ezagutzen ditudan puntu bi azpimarratuko dizkizuet hemen, gainerakoen argigarri: ikasmaterialen hizkuntza-kalitatea zaintzea batetik, eta hezkuntza-mundurako estilo-liburuxken prestaera bestetik. Funtsezko protagonista izanik da Andres, batean zein bestean. Gizon isil, langile eta sentzilloa baina erabakitzaile baliosa. Profesional fidagarria eta, hori ere ez da ahaztekoa, gaitasun eta dotorezia handikoa. Demagun xehekiago aztertu nahi dugula, goiko bi puntu horietako bat hautatuz, ikasmaterialen onespén-azterketa. Garai batean Xabier Mendiguren bezala, eta haren ondoren, ikasmaterialen hizkuntzako onspén-aztertzaile izanik dugu Andres luzaro: aztertaldearen arduradun, erretiroa hartu arte. Har dezagun kontuan, bere eginkizunak baduela, EAEko Agintaritzaren arauzko erabakiz, analisi intralinguistiko hutsaz haraindiko oihartzunik. Onspén-azterketa hori gainditzin ez duen ikasmateriala egokitu eta hobetu egin behar du argitaletxeak edo norbanako egileak, eskoletarako sarbide ofiziala izango badu, eta argitalpen-gastuei aurre egiten laguntzeko dirulaguntza jasoko badu. Bistan da, tentuz, zuhur eta oreka betean jokatu behar duela onspén-azterketaren arduradunak, handik ez bada hemendik ezinegon larria sortuko ez badu hezkuntza-alorreko argitaletxeen eta egileen artean. Ezinegon larria sarri, eta inoiz,

korapiloa ongi askatzen asmatzen ez bada, iskanbila bizia. Gure esparrua zein delikatua den jakinik, harrigarria ere bada ondorena: milaka onespén-azterketa egin delarik urteen buruan, deigarria da hizkuntzazko onespén-epai horiek zein ezinegon mugatua sortu izan duten. Hori bakarrik ez: eskertu ere egin izan du esparru horretako profesional batek baino gehiagok, Andresek ongi dioenez, onespén-azterketaren ildotik jasotako gomendio-sorta. Ez al da hori ere trebetasun profesionalaren adierazgarri? Baietz uste dut fermuki, eta eskerrak ematen dizkiot onespén-azterketaren ontzia hainbat urtean hain zuhurkiro gidatzen jakin duenari. «Surtan jartzean jakiten omen da —hala erakutsi zigun bertsolariak— nolakoa den eltzea». Ondo baino hobeto erakutsi du Andresek lemazain-lanerako duen aparteko abilidadea.

Laugarren gogoeta: *Laguna*

Euskaltzaindiko ate-zabaltze hau dela eta, gogo biziz eta esker onez esandako hitzak izan dira hauek. Euskaltzain berriaren aparteko itzalari zor zaizkion hitz apalak, maitekiro esanak. Horrelaxe da hori, baina hori ez da guztia: profesional handia baino gehiago ere bada Andres niretzat, eta hori ere ezin sakelan gorderik utziko dut. Hamarkada luzez, honetan ez bazen horretan eta bestela hartan, eskuz esku jardundako lankide eta laguna dut: zenbat bisita ez ote ditut egin Elgoibarko institutura edota Eibarko egoitzara? Alde horretatik ere, poz-iturri handia izan da bere sorterri eder honetan erantzun-hitzailea eskaini ahal izana.

Bere doai profesionalak aipatzen saiatu gara laburkiro. Guztien artetik bat aukeratzekotan, berriz, honako hau hautatuko genuke: talde-lanean jarduten dakien, hala jardutea gustatzen zaion eta hainbat urtez bide horretan barrena ibili delarik maiz aski erdi erdi asmatu izan duen gizaseme lagunkoia dugu Andres. Aparteko abilidadea erakutsi du, beste hainbat alorretan bezala, talde-lanean orpoz orpo eta ilusioa piztuz jarduteko. Altxor preziatua du doai hori. Horretan ere nahi izatea ez da aski: «Berez behar Billabonakoa!»¹⁸.

Azken ohar xumeaz amaitu nahi nuke jarduna, jaun-andreok. Badu gure euskaltzain-lagunak, ilea urdinduz badoakio ere gutako askori bezala, aurrera

¹⁸ Latinez bada, gure behialako estudiante tunanteen jakingarri ausaz, antzeko adiera duen esaldia: «Quod natura non dat, Salmantica non praestat». Txomin Agirrek (*Garoa*), Lizardik eta Azkuek (*Euskalerriaren Yakintza* III, 142. or.) oso kontuan izanik dute euskal esaldi hori, nork bere sailean.

begirako ilusio ederrik. Batasun-eredu garatua lantzen eta garatzen jarraitzeko gogo-nahimena agertu digu lausorik gabe. Hitz-ebakera, ahoskera-prosodia eta doinuera alorrean, horrela, gomendio sotil gisa izango bada ere, aurrera jo beharraz mintzatu zaigu gaurkoan. Esan dituenak oso dira, ene ustez, erakargarri. Egunen batean, berandu gabe, aurrez aurre heldu beharko zaio eginbehar horri, hartarako langintza dagoeneko bidean ez bada¹⁹. Ez du hori proiektu bakarra. Ebaluazio- eta iterazio-lanetarako agertu duen isuria ere, gainerakoak ezertan gutxietsi gabe, baliagarri eta probetxuzko iruditu zait, oso. Gure lan guztia arauak ematea ez dela aldarrikatu ondoren, halaz ere hizkuntza jaso orok arauak behar dituela ez dugu inoiz ahaztu behar. Ez dira ezinbestean behin-betiko gomendio-erabakiak, bai, ordea, erreferentziatzko lagungarriak.

Batasun- eta garapen-arau horiek aldatuz joan ohi dira urteen, hamarkaden edo, inoiz, belaunaldi batzuen joanean. Hala da hizkuntza landuetan oro har, eta gurean ezin bestela izan. Une jakinean ere aukera bat baino gehiago du hiztun-idazle trebeak eskueran, egoera komunikatiboaren edo aurrez aurre duen solaskidearen argitan hautakizun. Ehun urte egingo du laster Pragako Eskolaren baieztapen ezagunak, hizkuntza estandarren ezaugarriez eginak eta, dakigula, harrezkero inork auzipetu edo baliogabetu gabeak: hizkuntza estandarren egonkortasun malguaz, *flexible stability* delakoaz²⁰, ari gara noski. Batasun-oinarriak eta aldakortasun-elementuak batera hartzekoak dira halakoetan. Egungo euskaldunak eta beren gaitasun-ahuleziak, egungo egoera soziolinguistikoak berekin dakartzan eskuratzeko-moldeak, erabilera-markoa eta gainerako ezaugarriak han-hemen (demagun Durangon eta Azpeitian) desberdinak direnez eta, hori aski ez bailitzan, denboraren harian aldatuz doazenez, ez da batere harritzekoa izango aldakortasun eta berrikuntza horiek hizkuntzaren ereduazko barne-osaeran ere oihartzun argia izatea. Beti bateko estekamendua nekez izango horretan ere lege-arau finko eta bakar. Batasun- eta garapen-kontuak ere aldakortasun-iturrien argitan eta perspektiba zinetikoan ulertzekoak dira, hortaz.

Egonkortasun malguaren kontu hori astiro eta sakon argitu beharko genuke, dena den, ezer konpontzera goazelarik lehen baino nahaste-borraste handiagoa sortuko ez badugu. Edozein arau aldatu eta eguneratu egin litekeela argi onartu ondoren,

¹⁹ Hala balitz kontua, nirea litzateke errua: gaizki esana eta barkatu.

²⁰ Pragako Eskolak estandarizaturiko hizkuntzez esandakoak oso kontuan hartzekoak dira. Euskarazko azalpenik nahi duenak jo beza, adibidez, hona: Zalbide 2020.

aldakuntza hau edo hori zer neurritan komenigarri edo beharrezko den jakin behar genuke. Zerbait aldatu nahi badugu, zergatik aldatu behar den ikusi beharko dugu lehenik eta behin: lehen ezarritako araua (hainbat kasutan) desegokia, hasieran begiz jotako helburua lortzeko okerra edo kaltegarria delako, behar bezain zehatza ez delako, zuzena izanik ere alferrikakoa delako... Ondo dabilena bakean uztea urrezko arau izan beharko genuke, nolana ere. Euskaldun-jendea ezin dugu eten gabe batasun-eredu garatuaren arau eta emariak berrikastera behartu. Corpus-plangintzaren esparru batean edo bestean lehendik emandako arau-erabakiek eta gomendioek izan duten probetxu-emaizta ebaluatzea ez da, hortaz, denbora-galtze alferria. Lehendik emandako arau-erabaki eta gomendio horiek izan duten probetxu-emaizta ebaluatu ondoren, ez lan hori burutu aurretik, komeni da arau-berritzen edo arau-osatzen hastea. Oraindainoko arauak zertan probetxugarri izan diren, zertan antzu, eta zertan traba edo kalte, analitzatzea ez da inolako alferlana. Belaunaldi berriei hizkuntza-eredu erraz, malgu eta baliagarria eskuratu nahi badiegu, oraindainoko esan-eginak ebaluatzeak ez digu kalterik egingo. Norbaitek esan dezake, xede berria dela hori gure artean. «Ez erabat», erantzungo nioke halakori, adibide bat baino gehiago eskainiz²¹. Hitzun-idazleak zuzentasun-arauz *hizkuntza perfektuaren zernetara* eraman nahi izatea ere berrikuspen pausatu baina zentzuzko baten beharrean dago. Ikuspegi berriak dira horiek, egungo eta ustez begien bistako etorkizuneko egoera soziolinguistiko nabarraz kezkaturik dagoen hainbat euskaldun buruargik ernaturikoak. Horiei ere ez genieke ez ikusia egin behar.

Egia da lan delikatu dela, hemen eta nonahi, hizkuntzaren barne-osaerari dagokion berrikuspen- eta ebaluazio-lana. Eginbehar erraza balitz ere, bagenuke, gainera, lan horri gogo-bihotzez heltzeko behaztopa larririk: etxean eta auzoan deabruak ur bedeinkatuari baino izu-beldur handiagoa diogu, corpus-plangintzaren esparruan hartutako erabakiak berraztertu eta ebaluatzeari. Beldurrak beldur eta izuak izu, oso kontuan hartzeko lana da, ordea: aurrera begira Akademiak esku artean izango duen eginkizun handi, sakon eta beharrezkoena izango da hori, ene ustez, bihar eta etzi. Badu horretan gure Akademiak, gizartearen benetako behar-premiei garaiz eta artez erantzun nahi badie, bizpahiru hamarkadetarako lan-programa mardula. Lan zaila da hori, jakina.

²¹ Ikus Zalbide, laster argitara bidean dugun Tabakalerako hitzaldia: «Ondo al goaz?».

Besterik ere badu ordea Euskaltzaindiak, zorionez: herri-aginteen babesaz eta euskaldun askoren atxikimenduaz ebaluazio-lanen ontzi kulunkari hori portu-aterpe onera eramateko gai diren pertsonak; hots, Andresen moduko langile iaio eta zentzuzkoak. Eutsi, beraz, lagunok, arraun eta lema, xxi. mendeko beharren arabera itsasontzia zurkaiztu eta osaberritzeko lan ederrari!

Eskerrik asko, jaun-andreok, eta urte askotako, Andres.

Mikel Zalbide Elustondo
2023ko azaroaren 25ean
Getarian, udaletxean

Bibliografia

FINEGAN, Edward (2004). *Language: its structure and use*. Boston: Thomson Wadsworth.

FISHMAN, Joshua (1972). *The sociology of language*. Rowley (Mass.): Newbury House.

— (1983). «Modeling rationales in corpus planning: Modernity and tradition in images of the good corpus», in J. Cobarrubias eta J.A. Fishman (arg.), *Progress in Language Planning*: 107-118.

HAUGEN, Einar (2001). «Standardization», in R. Mesthrie (arg.), *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*: 681-3.

ZALBIDE, Mikel (2020). «Euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak: zer dira eta zertarako? Biak nola uztartu?», in *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloa eta erronkak*, Jagon bilduma, 20. Bilbo: Euskaltzaindia.

— (argitara bidean). «Euskaltzaindiaren sorrera eta euskara batuaren egitasmoa, perspektiba soziohistorikoan», in Euskaltzaindiaren Mendeurreneko Jardunaldia: *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)*. Euskaltzaindiaren XVII. biltzara. (Arantzazu, 2018/10/04-05-06).

— (argitara bidean). «Ondo al goaz?». 2019an Donostiako Tabakaleran, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren kariaz, emandako hitzaldia.

Ahoskera Jardunaldiak

MIREN LOURDES OÑEDERRA

Euskaltzaindia (Ahoskera Batzordeko burua)

Agurra

Hogeita bost urte dira 1998an Euskaltzaindiak Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ), 87. araua, onartu eta plazaratu zuela. «Mende laurdena», esan zuen Pilartxo Etxeberriak. Hark eta biok hogeita hamar urte beteko ditugu Euskaltzaindiarentzat gai hauetan lanean, 1993an abiatu zenetik lehen Ahoskera Batzordea, Patxi Altuna euskaltzaina buru izan zuena eta 1994a arte aritu zena. Euskara Batuaren Batzordearen hegaltzeko lantalde bezala berrekin genion lanari, 1995. urtearen azken aldera Pello Salabururen deia onartuta. Hasieratik ondoan izan dudan Pilartxo Etxeberria fonetikariak gainera, lantalde hartan lankide izan nituen, Jon Aurre —Bilboko Iraleko irakaslea—, Juan Carlos Hernández —Donostiako Iraleko irakaslea—, Adelaida Kintana —Nafarroako Irakasleen Birtziklatzeko Ikastegiko irakaslea—, Jon Kortabarria —Gasteizko Iraleko irakaslea— eta Igone Etxebarria —EiTBko euskara teknikarien ordezkaria—. Lantalde horrek landu zuen Euskaltzaindiak 1998ko ekainean onartu eta urte bereko irailean plazaratu zuen EBAZ.

Iraileko aurkezpena Nafarroan izan zen, Donezteben antolaturiko Euskaltzaindiaren IV. Ahoskera Jardunaldietan (1998ko irailak 25 eta 26). Han zen gurekin Jean Haritschelhar, euskaltzainburu zelako eta halaxe zegokiolarako, noski, baina baita ahoskera bereziki interesatzen zitzaizkion ere. Ezagutu zuenak badaki nola kezkatzen zuten Hegoaldeko gehiegikeriek, <j>ren /x/ ahoskera belarrak batik bat. Horregatik eta duela ehun urte jaio zelako (1923/V/13) eta duela hamar hil (2013/IX/1), eta merezi duela uste dugulako, batez ere, Ahoskera Batzorde honek 25. urteurrenaren ospakizun hau Haritschelharren gorazarrez egitea erabaki zuen iazko gure azken bileran. Izan ere, horixe da gaurkoa: ez ikastaro, ez jardunaldi ohikoa, baizik ospakizuna. Urtemuga-festa.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, beraz, gurekin hori ospatzera etorri zaretenoi. Ongi etorri eta eskerrik asko, Madrileko Universidad Complutenseko María Jesús Gil Valdés irakasleari, ahoskeraren irakaskuntzaz urte luzeetako lan eta jakituriaren berri ematera etortzeagatik. Ongi etorri eta eskerrik asko Xabier Euzkitzeri eta Aner Euzkitzeri, ahoskeraren araugintzari ikuspuntu sortzailatik begiratu eta artistikoki analizatzeagatik EBAZ araua. Har itzazue gure esker zintzoak hirurok, hain eskuzabalka onartzeagatik gure gomita.

Eskerrak emate honetan batzordekideen ordezkari naiz. Eskerrik asko, Agurtzane Elordui, Irantzu Epelde, Maider Bedaxagar, Oroitz Jauregi eta Pilartxo Etxeberria batzordekideen izenean ere ematen ditut. Batzordekide guztion artean egingo dugu gero EBAZ arauaren nondik norakoen inguruko hausnarketa laster bat txandaka, bakoitzak hari bati tiratuta. Izan ere, arauaren azalpenak ematea arauaren funtzionamendurako ezinbesteko iruditzen zaigu.

Eskerrik asko, neronen aldetik batzordekideei, urteotako elkarlanagatik. Oso gogoan dut, orain dela bi urte, 2021eko apirilean, hil zitzaigun Jasone Salaberria Fuldain batzordekidea, bileretara Iparraldetik etortzen zitzaigun bizkaitarra; irakaskuntza eta ahoskerarekiko pasioa bilduak zituen aspaldi-aspalditik. Lagun zintzo eta langile haren oroitzapena gurekin da eta, beraz, zuokin ere bai gaur.

Eskerrik asko, hau guztia eta ondorengo aurkezpenak partekatzeko aukera emateagatik. Gainera, erregu bat: ez gaitzazuela bakarrik utzi lanbrotuegi, estaliegia eta astiroegi doan euskararen ahoskera behar bezala batzearen abentura honetan. Mikel Laboak kantatu eta denok errepikatu ditugun Joxan Artzeren hitzen indar poetikoa ezin ukatuzkoa dugu, baina hizkuntza estandarizatzea kontu prosaikoa da, batez ere hastea egokitu zaigun belaunaldiotan, prosaikoa eta pazientziaz hartu beharrekoa. Oraindik ere «eskamak kentzen» —txikitako abestiak zioen bezala— segitu behar dugu. Fuera, beraz, lanbroa! Lanbroa ezagutzarik ezak trinkotzen duelako, saia gaitzezen gaur ere gure gaiak azaldu eta —nahi baduzue— etzabaidatzen, aurrera egiteko bideak irekitzen. Nahi genuke ospakizun honek orain arteko urteak ospatuz datozenetarako argia, itsasargia, piztuta uztea.

Irakurlearentzako oharra: Ondoko artikulua eta txosten idatzietan ekainaren 30eko ahozko aurkezpenetan erabilitako molde eta doinuak gorde nahi izan dira.

M.^a JESÚS GIL VALDÉS

UCM

Facultad de Filología

(Departamento de Filología Alemana y Filología Eslava)

La enseñanza de la pronunciación: por qué, a quién, cómo

En la enseñanza de la pronunciación, aún bastante descuidada en la clase de lenguas, se deberían tener en cuenta parámetros relevantes, tales como el destinatario y las características del contexto en el que se enseña, con el fin de desarrollar estrategias *ad hoc*. En esta comunicación se aborda la importancia de la pronunciación, de su técnica, y de la emoción que, incluso sus segmentos, son capaces de transmitir en función del contexto.

Palabras clave: pronunciación, enseñanza, adquisición, aprendizaje, alemán.

1. Introducción

El contenido del mensaje va envuelto en una forma. Pronunciar adecuadamente una lengua va mucho más allá de la realización idónea del emisor de cada uno de los segmentos fónicos y que forman cada unidad rítmica, cada palabra. Va más allá de la integración de la unidad rítmica en unidades mayores, como los grupos rítmicos o sintagmas o los grupos melódicos, es decir, las oraciones. Además intervienen en la emisión parámetros, como el tono, el volumen de voz, la velocidad de habla, que contribuyen a que el mensaje llegue de manera efectiva. Y la emoción que transmite la lengua, también a través de su pronunciación, que a veces no se tiene en cuenta. Por otra parte está el receptor de la emisión, cuya competencia lingüística en la lengua de comunicación entre los actantes reconocerá como fonemas lo que percibe, si el contenido se ha transmitido en las condiciones adecuadas. En el caso de una pronunciación inadecuada, puede que el interlocutor se fije en un primer momento más en esta que en el contenido del mensaje, o que constituya una interferencia total o parcial para su comprensión. Para todo ello se ha de tener en cuenta el destinatario del mensaje, el contexto en el que se desarrolla este y generar estrategias para que la enseñanza sea lo más efectiva posible.

2. La enseñanza de la pronunciación: por qué

A la pronunciación en la clase de una lengua se le concede una importancia secundaria. Se cuenta con que la fonología propia de la lengua receptora, facilite y concluya el proceso comunicativo, aunque la pronunciación emitida no sea la óptima. Así juega la fonología un papel fundamental. Muchos de los migrantes de la posguerra española que fueron a trabajar a Alemania utilizaban lo que se denominó posteriormente «hispaalemán» o «alemañol»; empleaban para comunicarse en algunos contextos palabras del castellano que tuvieran similitud fonética con palabras de la lengua alemana. Así, por ejemplo, oraciones como *Herr Ober, ein Bier!* ('¡camarero, una cerveza!'), se realizaba como: «¡Joroba, una pía!», que el receptor del mensaje entendía perfectamente, actuando en consecuencia; o la fórmula de despedida *Auf Wiedersehen!*, (¡hasta la vista!), que se expresaba con el imperativo «¡Aféitense!», etc.

Efectivamente, la fonología de la lengua receptora, si la conocemos, recodifica el mensaje que nos llega descodificado, también gracias al contexto. Es un proceso cerebral extraordinario, en el que el cerebro del receptor reconstruye el mensaje que le llega en su aspecto fónico de forma más o menos deficiente o incompleta. Lógicamente, si la pronunciación resulta muy deficiente, ni la fonología del hablante receptor será suficiente para la comprensión del mensaje.

De la misma manera, un texto escrito a base de números y letras, aparentemente ilegible, puede ser recodificado por el cerebro y permitir su lectura correcta. Desconociendo la lengua, esto sería muy difícil.

La pronunciación actúa de tarjeta de presentación del emisor. Tiene carácter identitario. Puede revelar su origen y nivel sociocultural, su raza, su pertenencia a un grupo étnico, incluso su nivel de inteligencia. Una pronunciación adecuada en una lengua influye positivamente en la consideración que despierta en los hablantes de la misma: aproxima emocionalmente, provoca aceptación social, favorece la inteligibilidad con la posible consecuencia de esta en la vida profesional y en las relaciones personales, y reconduce al oyente de forma más directa hacia el contenido del mensaje. En general mejora la imagen del hablante, y es motivo de admiración.

Por el contrario, una pronunciación no adecuada consigue que se preste más atención a la forma que al contenido del mensaje por parte del receptor, puede crear barreras en muchos campos y producir irritabilidad en el oyente. En el caso del docente es motivo de poca credibilidad por parte del discente.

La pronunciación también puede manifestar voluntad de acercamiento a los demás o lo contrario. Hay hablantes que manifiestan su voluntad de no integración en una comunidad lingüística a través de la pronunciación, manteniendo las características de su lengua mientras pronuncian la lengua de acogida. Otra muestra de que la pronunciación es emoción, es afecto.

2.1 Factores socio-psicolingüísticos

De cara a la enseñanza de lenguas, sobre todo de segundas y terceras lenguas, se deben tener en cuenta algunos factores sociolingüísticos y psicolingüísticos.

La variación en general es una característica fundamental de las lenguas vivas. La pronunciación tiene que tener en cuenta para su enseñanza los diferentes tipos de variación, tales como la geográfica, la social, es decir, el nivel cultural, el nivel socioeconómico, la educación, la variación estilística o los diferentes entornos del uso del lenguaje (familia, profesión...), y la individual, como la edad, el sexo y el género, etc.

Respecto a la primera, el contexto físico y social condiciona incluso la tipología de las lenguas. Hay investigaciones que señalan que la temperatura de la zona hace que las lenguas tonales se concentren en territorios tropicales. El contexto físico de origen de las primeras lenguas aprendidas condiciona a las segundas y terceras lenguas, porque desde el primer momento también condiciona al cerebro del hablante, es decir, el tipo de lengua que aprendemos primero determina y limita nuestra conceptualización de la realidad y esa limitación condiciona su uso en otro tipo de contextos. En un experimento con hablantes árabes y alemanes, se demostró que las regiones del cerebro que más se activan son aquellas en las que se procesa la pronunciación y el significado en el caso de los primeros, y la estructura de la frase en el cerebro de los segundos.

La variable estilística no es menos importante. Las características del discurso, a todos los niveles, tanto fonológico como morfosintáctico, léxico y pragmático, quedan afectadas por el contexto y el grado de conocimiento mutuo entre los hablantes. También es significativa la variable social y tiene repercusión directa sobre el plano fónico. Por ejemplo, la elisión de las sibilantes en el andaluz de Granada, se suele dar en hablantes de nivel instruccional bajo, mientras que aquellos, cuyo nivel de estudios es alto, tienden a conservarlas, en cualquiera de sus dos variantes, aspirada o sibilante (*cfr.* Tejada Giráldez 2015: 119).

Otro ejemplo, entre muchos, lo ofrece el gallego, en el que el uso de la gheada es relevante: utilizar la fricativa velar sorda en lugar de la oclusiva velar sonora (decir «jallina» en lugar de «gallina»), es prejuiciosa por criterios historicistas. La articulación fricativa tiene un prestigio encubierto por cuestión identitaria, pero se está volviendo a él, dado que la oclusiva velar sonora se observa como castellanizante.

El origen del hablante y el hecho de proceder de una comunidad lingüística más abierta o más cerrada, condiciona también su tipo de aprendizaje y tiene trascendencia sobre el de más lenguas. Por último, en cuanto a las características

individuales del hablante y de cara a la enseñanza, la edad es importante: la variación fónica es tanto más estable cuanto mayores son los individuos, sobre todo a partir de los 70 años, mientras que la variable léxica puede seguir cambiando, desde el momento en que la competencia del hablante incluye léxico familiar, juvenil, etc.

2.2 Estandarización

Tipificar, homogeneizar, normalizar, uniformar, igualar, normar, normativizar, ordenar, regularizar, ajustar, regimenter..., son sinónimos de lo conseguido con la promulgación de las reglas de pronunciación en muchos países, su estandarización, que se realiza, precisamente, debido a la variación lingüística.

En todos los países hay «abstracciones modélicas», «acentos prototípicos» que conducen a los estándares de pronunciación de las diferentes lenguas y facilitan su procesamiento. Así la pronunciación estándar británica es la propia del inglés de la BBC, o de Oxford y Cambridge. En el caso de Francia, el francés de referencia se basa en la variedad hablada en la región de Île-de France, que incluye París y sus alrededores¹. Italia toma la variante del toscano florentino como modelo, y así podríamos hablar de todos y cada uno de los países con comunidades lingüísticas reconocidas. La variante estándar de dichos países es la utilizada en los medios de comunicación, en la educación formal, también en la administración pública y en más contextos formales.

El alemán es un ejemplo de cómo y por qué se confeccionaron las reglas o directrices de pronunciación que hoy conforman su variante estándar.

Esta lengua tiene gran cantidad de dialectos, más de 50 divididos en 2 grandes grupos, *Hochdeutsch* (alto alemán) y *Plattdeutsch* (bajo alemán), y estos a su vez en más de una veintena de dialectos. A ello se suma lo que se denomina *Mundarten*, término que hace referencia a divergencias de pronunciación dentro de cada dialecto. Los hablantes de los dos grandes grupos no se suelen entender entre ellos.

¹ Según me refiere un experto en fonética de la lengua francesa, últimamente se está produciendo un alargamiento llamativo de las vocales francesas. La pronunciación estándar se mantiene aún estable, pero empieza a producirse un exceso de contracciones en unidades y grupos rítmicos. La precisión no gusta. El lingüista Bernard Lacks lo expresó recientemente: «O volvemos al escrito hablado o perderemos todo».

A finales del siglo XIX se lleva a cabo una normalización ajustada de la pronunciación siempre a partir de la ortografía, que se impuso como necesaria, debido a reglamentaciones oficiales y a la necesidad de su uso en la práctica docente. Han hecho falta sin embargo décadas para que el gobierno codifique la lengua alemana para darle carácter de lengua oficial.

En el año 1898 la comisión organizada por el germanista Theodor Siebs, que estaba compuesta por tres lingüistas y tres directores de teatro, fija reglas de pronunciación para aplicarlas en las artes escénicas, sobre todo teatro y canto, en medios de comunicación, en el ámbito escolar y académico y de uso generalizado. El modelo fue la pronunciación alemana del norte, debido a que gozaba de un mayor prestigio social en escritura y pronunciación.

Se convierte así en una variedad suprarregional, utilizada básicamente por profesionales de la voz (locutores, periodistas, actores...) y en la enseñanza, pasando a llamarse *Hochdeutsch*. Tiene sin embargo una aplicación individual parcial, dado que su práctica varía de región a región y en función del hablante. Aunque es la variante que se utiliza oficialmente, en el ámbito escolar alemán la pronunciación no es objeto de corrección. En general se respeta la pronunciación «genética» concediendo flexibilidad en cuanto a la variabilidad. Ello hace que la lengua estándar utilizada por la población presente rasgos propios y se distancie también en situaciones formales de la pronunciación suprarregional, pero esto no supone impedimento comunicativo alguno.

Aunque la base para la codificación del alemán está en su uso por profesionales de la voz y la variación, siempre que sea posible, ha de evitarse, lo que postulan hoy los autores de los diccionarios de pronunciación², es que, para una descripción lo más realista posible de la pronunciación estándar del alemán, se hace indispensable una ampliación de las situaciones y del número y los tipos de hablante que, por su frecuencia de registro, se estimen relevantes para su codificación. Eso es lo que se denomina *Gebrauchsstandard* ('estándar de uso'). La tendencia es ampliar el concepto de «pronunciación estándar» para que sea más cercano a la realidad y al uso de la lengua en función de las necesidades de los hablantes en cada situación. La cierta variación permitida incluiría, pues, de una manera más auténtica, a las variantes suiza y austriaca (cfr. Duden 2015; Krech 2009: 259).

² *Das Aussprachewörterbuch*, Duden 2015; *Deutsches Aussprachewörterbuch*, De Gruyter 2009.

3. A quién se dirige la enseñanza de la pronunciación

En la enseñanza de la pronunciación de una lengua es fundamental tener en cuenta el destinatario. Partiendo de la base de ausencia de patologías, no es lo mismo enseñar a un niño que a un adulto. No es igual enseñar a un migrante, que a una persona con competencia cultural suficiente, propiciadas ambas circunstancias generalmente por el entorno. El destinatario puede precisar de una pronunciación adecuada, bien porque profesionalmente se dedique a transmitir de forma oral (periodistas locutores, políticos...), bien a las artes escénicas que precisan de la palabra (teatro y canto), o bien sea estudiante de segunda, tercera o más lenguas.

3.1 La pronunciación en el canto

Así como una traducción esmerada, bien hecha, facilita la lectura de un texto, y establece de una manera mayor el vínculo entre el autor y su lector, y una pronunciación adecuada puede constituir el hilo conductor entre la lectura en voz alta de un texto y el receptor del mismo; en la interpretación de música vocal —ópera, zarzuela, Lied—, también la pronunciación es relevante. Conocer la relación entre la lengua escrita y su buena realización sonora contribuye en gran medida a la ejecución de la música vocal (*cf.* Carranza 2013, en Guzmán 2018: 36). Yo misma canto en un coro y la directora insiste en el peso de la nota sobre la vocal o la consonante y los diferentes «matices» y «tintes» que da el «acento» sobre uno y otro sonido.

En la enseñanza de la pronunciación en el canto, Carranza (2013, en Guzmán 2018: 36) menciona algunos de los beneficios de una buena pronunciación, tales como: «uniformidad de las vocales, precisión en la afinación, empaste del conjunto, una articulación mejorada, mejor enunciación y claridad del texto, precisión rítmica, control de los niveles dinámicos, uso eficiente del manejo del aire», que hay que tener en cuenta en la enseñanza a cantantes.

El conocimiento de la pronunciación consiste también en reglas fonéticas que el cantante conoce y aplica en la pieza que interpreta.

Sin embargo, el canto también es comunicación, y por ello hay que tener también en cuenta la diferencia entre la enseñanza técnica y la expresiva.

Actuando como asesora fonética en el Coro Nacional y en el de la CAM en la preparación de varias obras en alemán, me centré en lo técnico, en aquellos sonidos, escindidos de contenido, que debían sonar de una manera adecuada para favorecer la claridad del texto, la uniformidad y el empaste del grupo y la precisión articulatoria según el estándar, y no tuve en cuenta la potencialidad expresiva de la pronunciación. Ciertamente es que la melodía hace que la frase musical acorte a veces las vocales largas del alemán o que alargue las breves, es decir, la pronunciación, en ese caso, está supeditada a la música y no cumple fielmente con las reglas de pronunciación.

De la relevancia de la fuerza expresiva de la pronunciación hay bastantes muestras en la historia del canto: cuenta Guzmán (2018: 36) que durante un ensayo de una cantata de Bach, a la cantante y asesora fonética Constanze Backes, consultada por el director británico John Eliot Gardiner, le llamó la atención el sonido vocálico <ä> [ɛ:] en la palabra *quälen* ['kvɛ:lən] ('atormentar'), en los versos: *Lass es niemals nicht gesche'n / dass uns Satan möge quälen* ('Jamás permitas que caigamos / en los tormentos de Satán'). Backes percibe que la <ä> en esa pieza y momento concretos, resulta «demasiado amigable» en una palabra de connotación tan «fea» como *quälen*. Según ella, las palabras a veces suenan como suenan, no por mera coincidencia: la vocal <ä> en *quälen* tiene que sonar «fea», porque la semántica de la palabra lo es. La /ɛ:/ en *quälen* es demasiado abierta y anterior (para el canto lírico), y puede restarle valor expresivo a la idea de tormento que transmite. Entran por lo tanto en contradicción la técnica, que por supuesto ha de ser también estrictamente atendida y la capacidad de expresar la intencionalidad poética (*cf.* Guzmán 2018: 37).

También en el canto, pues, el cuidado de la técnica puede ir en detrimento de la emoción, de la expresividad.

La interpretación del texto en el canto constituye, de nuevo y como en el resto de los contextos comunicativos, una interacción entre al menos dos actantes: un emisor y un receptor, el cantante y el oyente, el actor y su público. Es pura comunicación. Por ello, como en otros ámbitos, los fonemas y su realización sonora adquieren determinado valor expresivo cuando están dentro del contexto. ¿No ocurre en el canto lo mismo que en la comunicación emocional entre dos

actantes? Igual que en ella, Sundberg (1987, en Guzmán 2018: 38) afirma que «es posible enriquecer la ejecución vocal mediante la incorporación de rasgos o detalles del habla emocional, como la duración de sílabas, fonemas y pausas, el contorno de afinación, la velocidad, la entonación y la precisión en la articulación [a lo que llama “microentonación”], sin quebrantar por ello la estructura musical dada [que llama “macroentonación”]».

Saliendo de la lírica, uno de los exponentes de la expresividad musical a cargo de la pronunciación es el grupo Rammstein, que marca estilo con su articulación. Se les clasifica dentro del género *Neue Deutsche Härte* ('Nuevo heavy alemán'), que se caracteriza por su interpretación musical agresiva y enérgica que se pone de manifiesto en la combinación de pronunciación y música. Es decir, también tiene un componente identitario y de reconocimiento en sus canciones. Si bien en alemán el peso prosódico recae sobre las vocales, ellos realzan los sonidos consonánticos, lo cual dota a sus canciones de dureza y agresividad.

En especial la <r> presenta una multivibración apical muy fuerte e intensa. Y en cuanto a los segmentos vocálicos, utiliza vocales largas y muy matizadas que aumentan la intensidad emocional.

El cantante, en general, debe familiarizarse con el idioma a través de sus audiciones, aunque convendría que conociera el significado de lo que canta, precisamente para dotarle de la fuerza expresiva adecuada.

3.2 La pronunciación en la escena

En la escena, la pronunciación ha de ser una reproducción casi exacta del texto escrito. Aunque el texto sea impecable, la obra que se representa puede fracasar por la mala pronunciación de uno de los actores. La pronunciación ha de tener una proyección pragmática: la palabra es esencial y ha de oírse en su totalidad. La importancia de la articulación en las artes escénicas es, precisamente, la nitidez en la emisión del mensaje, todo elemento ha de ser pronunciado para que sea percibido por el oyente. Las condiciones acústicas de los escenarios no son las de una clase o las de un encuentro entre dos actantes, independientemente del entorno, donde también hay posibilidad de observar los labios de la persona que emite.

En una obra de la propia Sarah Bernhardt (1844-1923), gran actriz de teatro y cine, en la que hace todo un tratado acerca de las características fisiológicas de la boca, mandíbula, dientes... para la correcta pronunciación, dice que un artista que no tenga voz la reemplazará por una articulación impecable y así se creará un público.

Y también hace referencia a la expresividad de la pronunciación, y señala que «la verdadera dificultad de la articulación, tanto en el teatro como en el foro, radica en saber dar a las palabras su valor; [...] es preciso que los actores jóvenes articulen; tengan el talento que tengan, no obtendrán un éxito verdadero más que si el público puede captar el sentido de lo que oiga, y a menudo la pérdida de una palabra desmonta toda la frase».

Los actores en Alemania³ asisten a clase de dicción, a clase de habla, sobre todo de colocación de la voz. En cuanto a su gran variedad dialectal, el actor tiene que poder hablar sin colores dialectales, a no ser que se trate de televisiones regionales o de teatro regional, en el que se valora lógicamente el acento de cada zona. Sin embargo, están muy solicitados los actores que pueden expresarse no solo libres de acento, sino con el de varios dialectos. Hoy en día se habla y se valora mucho en Alemania la *Wandlungsfähigkeit*, la «capacidad de transformación», no solo en cuanto al personaje que se representa, también es relevante la versatilidad a nivel lingüístico que permite pasar de un acento a otro.

En Austria, el tener acento austriaco no es impedimento alguno, o incluso en Suiza. En Viena hay una tradición muy fuerte de teatro y el tinte específico del acento austriaco no se considera negativo, pero en general hay una aceptación mayor si hay ausencia de acento. El que no se hable en *Hochdeutsch* puede encasillar al personaje de la obra en ciertos estereotipos de determinados registros. En los escenarios, sobre todo en los importantes, no cabe duda de que en cualquier caso es el *Hochdeutsch* el de máxima presencia.

En el caso de la industria cinematográfica, sobre todo en las películas bávaras, cuenta más el «tipo» de personaje que se representa: el típico bávaro está encarnado no solo por su dialecto, sino por tratarse de un alemán rudo. En películas más exigentes o de impacto más general, se busca lo que no llame la atención, es decir, es el *Hochdeutsch* lo que impera.

³ De la conversación con una actriz alemana del teatro berlinés *Berliner Ensemble*.

3.3 La pronunciación en los profesionales de la comunicación

Los periodistas, y el mundo de la locución en general, y en un contexto castellanoparlante, apenas tienen formación en cuanto a la pronunciación de la lengua en la que transmiten. Los más interesados suelen acudir a talleres privados de locución. En algunos casos, los que menos, la lengua propia con sus matices es la que se utiliza frente a la estándar. En los másteres organizados por cadenas de radio apenas se dedica tiempo a la pronunciación. El alumno que tiene una dicción más o menos correcta es por genética.

En Alemania, por el contrario, es obligatorio hablar en la lengua estándar, hasta el punto de poder tener hasta trascendencia legal si no fuera así. Fue el caso de la locutora Carolin Reiber (*cfr.* Hakkarainen 1995: 87) de la cadena ZDF. Resulta que, en lo que se refiere a lo segmental, en el alemán estándar se reconocen dos variantes consonánticas, una apicodental y otra uvular o velar (hay otra vocálica) para el fonema /r/. La /r/ apicodental tiene en alemán dos o tres ataques como máximo. Sin embargo, el número de vibraciones se ha reducido desde comienzos del siglo xx. Dependiendo del hablante, y es el caso de dicha

locutora, esta tremulante puede ser articulada con un solo ataque, especialmente en cabeza silábica. Por esa razón se la llegó a acusar públicamente de pronunciar una [l] en lugar de la [r] monovibrante, que no se correspondía con la variante estándar exigida. El caso llegó a los tribunales y el jurado dictaminó finalmente, que la acusación era injusta y que atentaba contra su prestigio profesional, porque los fonetistas habían podido determinar en su informe que lo que realmente pronunciaba la locutora era la realización monovibrante apical ([r]) del fonema /r/.

En los locutores, sobre todo radiofónicos, cuya comunicación es no gestual, la prosodia resulta fundamental: hay locutores cuya entonación no ayuda a que el oyente capte lo que pretende comunicar. Las preguntas acaban en inflexiones cadentes y las aseverativas en inflexiones anticadentes, manteniendo en la emisión del mensaje un mismo ritmo, que el propio oyente puede ir prediciendo (seguramente debido a la lectura incorrecta del mensaje cuando no hay habla espontánea). Las pausas son relevantes: a veces cuesta decidir si una parte del discurso pertenece a la frase anterior, antes de la pausa, o a la posterior, es decir, puede inducir a errores de comprensión incluso a oyentes de su misma lengua materna.

La entonación, que puede tener un carácter afectivo o informativo, es de importancia crucial para la comprensión del mensaje y tiene que ver directamente con la emoción, el sentimiento, siempre presente en la interacción de unos seres humanos con otros.

A nivel cerebral, el afecto, la emoción y neurotransmisores como la serotonina y la dopamina, y que son los responsables del interés o no por el mensaje, no solo juega un papel importante en las profesiones reseñadas. En el aprendizaje de segundas y terceras lenguas, el aprendiz gestiona también con la emoción, como emisor y como receptor, la fonología, el léxico y la gramática.

3.4 La pronunciación en el aprendizaje de lenguas

La importancia de la pronunciación en la clase de una lengua, queda patente en un experimento que realizo siempre con mis alumnos del primer curso o en seminarios de formación con asistentes que apenas tienen conocimientos de la lengua alemana. Consiste en una presentación de mi persona en dos versiones, una inmediatamente seguida de la otra; la primera de ellas en una pronunciación alemana castellanizada pero sin errores gramaticales, y la segunda en una pronunciación alemana adecuada llena de errores gramaticales. La primera versión despierta extrañeza porque, aunque los conocimientos de la lengua alemana sean escasos o nulos, la competencia oral en cuanto a su pronunciación no es la esperada por parte de los receptores de mi mensaje. Por contraste, la pronunciación de la segunda versión eclipsa todo error gramatical, aunque se tuviera cierto conocimiento de la lengua, y se da por definitivamente válida, correcta y «más alemana». Es en la «forma» que envuelve al mensaje donde comienza su interés por él, y es ahí cuando la neurociencia, de pautas tan relevantes hoy en día para la didáctica, indica que el cerebro empieza a producir serotonina y dopamina, neurotransmisores básicos para despertar el interés por la materia que se intenta enseñar, en este caso, la pronunciación.

Enseñar la pronunciación de la lengua requiere que, en el plano receptivo y desde la percepción auditiva, se logre la identificación y discriminación de los sonidos de la lengua meta, y, en el productivo, su reproducción, integrados en combinaciones que forman unidades rítmicas y conjugadas estas con un ritmo y

melodía adecuados, construyendo estructuras superiores. Todo ello precisa de una metodología propia desde la premisa consciente de que «la pronunciación de una lengua no se aprende solo a partir del ejercicio de las cuatro destrezas básicas». Pero sí es sobre su base donde se ejercita hasta que se logre su adquisición. Para ello no es necesario el texto escrito, que desvía la atención del alumno, impidiendo que la señal llegue al cerebro por el canal auditivo —avalada por el gesto articulatorio del profesor—, y por lo tanto, ejerciendo la letra de factor distractor.

La percepción y sobre todo la producción son procesos muy complejos. No se perciben los sonidos sueltos sino integrados en sílabas, que es donde se opera la auténtica realización de cada sonido por la influencia de unos sobre otros. El conjunto de sonidos llega en ondas al oído interno y se transforman en impulsos nerviosos. Estos se vuelven a organizar en sílabas y estas en unidades rítmicas, es decir, palabra. Cada palabra, o grupo o frase se compara con el contenido de la memoria lingüística y se confronta con el conocimiento del mundo y el contexto (*cfr.* Roth 2003: 21, en Grein 2017: 38).

En el caso de la lectura, la letra se transforma en impulsos visuales. Así se reconocen los grafemas que se transforman en fonemas, estos en palabras y es en un área del cerebro —la llamada área de Wernicke—, donde se les concede su significado (*cfr.* Grein: 2017: 40).

Todo ello ocurre en milisegundos en la lengua materna. El proceso de la lectura se asocia a un contenido, a una semántica y a su pragmática. En el caso de otra lengua, y dependiendo del nivel en la interlengua, a veces el proceso se realiza independientemente de la asociación con un contenido. En ese caso a veces dura bastante más la transformación de los grafemas en fonemas y la composición de sonidos en palabras. Por ello la lectura de un texto en una lengua extranjera es mucho más lenta.

Considero que para que el cerebro reconozca el texto escrito y lo lea adecuadamente aunque no lo entienda, tiene que haber una memoria previa de cómo se transforman en sonidos tales combinaciones grafemáticas, es decir, el cerebro tiene que haber aprendido previamente. Por eso, un comienzo de clase de lengua con la lectura resulta artificial, porque no sigue el proceso natural de adquisición de una lengua, tal y como ocurrió con la materna. Si esa entrada visual combinada con su realización oral es «no adecuada», puede desencadenar enlaces neuronales que se asienten con una realización incorrecta y que esta acabe incluso

fosilizándose. El proceso es el mismo que en el caso de la lengua bien aprendida, pero con resultados positivos.

La utilización de ambos canales en la clase de una nueva lengua, el auditivo y el visual, favorece la lectura, la interpretación del signo gráfico, pero no la ortoepia, su correcta pronunciación.

En la enseñanza de la pronunciación en la clase de idiomas, pues, se parte en general de la lectura. Tanto es así, que en una encuesta realizada este mismo año (2023) a 84 profesores de alemán, acerca de las dificultades de pronunciación de los estudiantes castellanoparlantes, ninguno de los 84 profesores mencionó una de las mayores dificultades de pronunciación de la lengua alemana: la ausencia de la oclusiva glotal sorda [ʔ], que actúa como señal delimitativa en cabeza silábica ante vocal⁴, y ello porque este sonido no tiene, en alemán, una correspondencia gráfica.

Para enseñar una lengua, por lo tanto, no es necesario el texto escrito ni es suficiente la mera imitación del enseñante. Hay que dar al aprendiente recursos para que los utilice en la emisión de lo que percibe.

Y aquí juegan un papel importante tanto el aprendizaje como la adquisición.

La adquisición es un proceso inconsciente en el que las reglas se interiorizan de forma natural en situaciones comunicativas sin una atención consciente al lenguaje; el aprendizaje, por el contrario, es un proceso consciente, en el que las reglas de la lengua, en este caso, se explicitan (*cfr.* Krashen 1981: 152-153). Krashen señala además que, mientras que la adquisición es un proceso típico en el niño, el adulto se beneficia tanto del proceso de aprendizaje como del de la adquisición, en una combinación de la enseñanza tradicional con la oportunidad de adquirir la lengua nueva de una forma natural, escuchándola, repitiéndola, etc.

El primer paso de los niños para conformar su lenguaje es el procesamiento de su información prosódica.

En el útero materno y a través del sentido auditivo ya hay un procesamiento de la información prosódica. El volumen, las frecuencias, la prominencia silábica, las pausas, las inflexiones entonativas son relevantes. Los niños pueden reconocer fronteras sintácticas permitiendo la segmentación de lo que percibe. Dicha frontera

⁴ Ejemplo, en la oración que significa «Son las ocho»: *Es ist acht Uhr* ([ʔes ʔɪst ʔaxt ʔu:ɐ]).

entre las frases está marcada por el cambio de tono, el alargamiento de la última sílaba antes de la pausa y la pausa.

Sobre esa base, el bebé aprende a diferenciar entre lengua e input auditivo no lingüístico. La prosodia está pues directamente relacionada con la sintaxis, y esta induce a la comprensión semántica.

Por ello debería constituir una estrategia para la enseñanza de lenguas el ejercicio de la prosodia en todas sus vertientes: acentuación, inflexiones entonativas, pausas, prominencias silábicas... Su ejercicio tiene que ver más con la adquisición que con un aprendizaje consciente, pero es la manera de llegar a transmitir no los meros sonidos, sino la emoción que los envuelve.

4. Conclusión

La estandarización de la pronunciación es adecuada para la enseñanza de cualquier lengua, ya que hace falta un modelo prototípico del que partir. Sin embargo, la aplicación estándar sin concesiones resulta antinatural. Cierta flexibilidad atendiendo a la variabilidad puede resultar necesaria. La normativización ha de atender también a la flexibilidad y a la pluralidad sin desatender a la variabilidad: una lengua sin variabilidad pierde vida.

Cierto es que el profesor no nativo de la lengua que enseña hace una hiperestandarización de dicha lengua. Se enseña una lengua ortopédica. El nativo, por el contrario, más que la lengua estándar atiende a su propia competencia. En ambos casos se recomienda partir de una lengua prototípica, con la flexibilidad suficiente como para que quepan variables tales como la personalidad, el hablante, su procedencia, sus rasgos de estilo y los diferentes registros según el entorno y la situación.

La técnica (articulación) es importante sin descuidar la pronunciación global, que también incluye la expresión, la emoción (prosodia y ritmo).

Escribir y leer son actividades cognitivas complejas. La lengua oral es mucho más compleja que la escrita. Biológicamente la capacidad de escribir se aprende o modifica, es artificial. La prosodia y el ritmo son claves para la comunicación. La

lengua transmite emociones más que proposiciones lingüísticas.

Sin embargo, en las normas de pronunciación de muchas lenguas solo se dan unas pautas generales que corresponden a las inflexiones entonativas, marcadas por el lenguaje escrito, es decir, por los signos de puntuación.

Aprender una lengua en la edad adulta, puede consistir en esa combinación de adquisición y aprendizaje consciente.

La articulación de los segmentos y el acento de la unidad rítmica en algunas lenguas se puede aprender, la entonación y el ritmo son un tema de adquisición. Debido a ello, aprender una lengua desde la oralidad y en situaciones comunicativas contextualizadas es, a la larga, más efectivo que el aprendizaje a través de la lectura. Esta puede llegar en una etapa posterior, cuando ya estén asimiladas a partir de la percepción auditiva y práctica por repetición las características segmentales y suprasegmentales de la lengua objeto de estudio. Por ello resulta más efectivo, en un principio, partir de la percepción auditiva e ir incorporando la articulación. La lectura es una tercera vía que exige un procesamiento mayor.

La enseñanza de la pronunciación de una lengua no se hace de forma secuencial ni progresiva, como en el caso de otras competencias, ya que todos los elementos fonéticos y fonológicos están presentes desde el primer momento y de manera simultánea. Dependiendo del destinatario y del contexto, no consiste solo en mostrar la técnica para la articulación de sus sonidos; consiste también en proporcionar estrategias para que el aprendiz sea capaz de transmitir el afecto, el sentimiento en la prosodia de la lengua que aprende. A fin de cuentas, la lengua es música, y sus notas son los segmentos fónicos en la melodía que los envuelve.

Bibliografía

BERNHARDT, Sarah (1994). *El arte del teatro*. Parsifal ediciones.

GREIN, Marion (2017). *Neurodidaktik*, Hueber.

GUZMÁN, Mariano Nicolás (2018). «La pronunciación como variante expresiva en el canto en español. Un estudio comparativo de la articulación consonántica en cinco versiones musicales de La Tempranera de Carlos Guastavino», *Epistemos* 6, 2: 33-60.

HAKKARAINEN, Heikki, J. (1995). *Phonetik des Deutschen*. W. Fink.

KLEINER, Stefan et al. (2015). *Das Aussprachewörterbuch*. Duden.

KRASHEN, S. D. (1981) *Second Language Acquisition and Second Language Learning*. Pergamon.

KRECH, Eva Maréa et al. (2009). *Deutsches Aussprachewörterbuch*. De Gruyter.

SUNDBERG, Johan (1987). *The science of the singing voice*. DeKalb: Northern Illinois University Press.

TEJADA GIRÁLDEZ, María de la Sierra (2015). *Convergencia y divergencia entre comunidades de habla. A propósito de la /s/ implosiva. Contribución al estudio de los patrones sociolingüísticos del español de Granada*. Universidad de Granada. (Tesis doctoral).

XABIER EUZKITZE eta ANER EUZKITZE

Bertsolariak, aita-semeak

Hitzetik kortsera

XABIER.— Egun on, denoi!

Gustura etorri gara Euskaltzaindiak ahoskera zainduari buruz antolaturiko jardunaldietara, gaia biziki interesgarria iruditzen zaigu eta.

ANER.— Gonbidapena egin zigunak estimatzen gaitu, inolaz ere, baina gure ezagutzaz iritzi jasoegia du. Berehala konturatuko zarete.

X.— Baietza eman genuen eta zerbait prestatu egin behar, baina berehala ohartu ginen hainbeste adituren artean nekez esan genekakeela ganorazko ezer.

A.— Niri beldurra eman dit Euskaltzaindiaren jardunaldi batean, kartelean karrerako irakasleen ondoan nire izena ikusteak. Oso goitik abiatu eta gaizki amaitu baino nahiago izan dugu, beraz, aurkezpen jostari bat egin, ganora handikoa izango ez bada ere.

X.— Biok etortzearena, aldiz, autodefentsa ariketa da: erridikulua beti jasanerrazagoa da konpainian.

Has gaitezen, bada.

Euskaltzaindiaren 87. arauak hauxe dio sarreraren: «Arantzazuko Biltzarrerako prestatu zuen txostenean, euskara batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Koldo Mitxelenak».

A.— Orduen nik Axkoittiko euskeran itz eingo'iat gaur.

X.— Arrazoi pixka bat badu gazteak.

A.— *Puske bat, xaharra.*

X.— Batuan, mesedez.

A.— Puska bat, zaharra.

X.— Jarrai dezadan 87. arauaren sarrerak dioenarekin: «Euskara batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Mitxelenak eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste lanetarako».

A.— Ikaste kontuetarako ez, beraz. Mitxelenak zerbait bazian nire kontra...

X. (Ahapeka)— *Aner, amen aitzen ai dien geixenantzat sakrilejixue dek semiek attei ike itz eittie...*

A. (Ahapeka)— *Joe, ba neretzat zallaua dek iri zu esatia ijito (iyito) aoskatzia baño...*

X.— Orduan, zer?

A.— *Natural, atta, natural!*

X.— Jarrai dezadan: «Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori».

Euskaltzaindiak «bat baino gehiago» aipatzen duelarik, euskaltzainez ari da nagusiki, baina espero gabeko lekuetan ere sor daitezke, eta sortu ere egiten dira, horrelako galdeak. Fermin Etxegoien idazle eta adiskideari gertatu zitzaion duela zenbait urte. Nafarroa Behereko taberna batean zelarik, telefono-dei bat ukan zuen. Solaskidearekin han aritu zen, *jo, jan, jun...* Eta deia moztu zuenean tabernariak eraso zion: «Nik behar nuke doike erre frantses honen kentzen entseatu, bainan zuk ere behar zinueke jota itsusi bazter utzi».

A.— Eta Fermin jota geratuko zuan...

X.— *Yota...*

Erre letraren ahoskeraz parentesitxo bat irekiko dugu orain. EBAZek honako hau dio erre frantses horri buruz: «Euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra».

A.— *Ubulagga, alegia.*

X.— *Ubulagga, alegia.*

Arau hori idatzi zutenetik igaro diren urteetan erre letraren euskal ahoskera ia desagertu egin da frantsesaren eraginpeko euskal eremuan. Bitxi da, baina gaur egun *egge ubulaggik* gabeko behe-nafarrera entzuteko jende oso zaharrarengana jo beharra dago, edo... Ameriketako Estatu Batuetako euskaldunengana.

A.— Badiagu guk horren berri! Gehiago esango dut. Badugu guk familia hagitz maitea Kalifornian, jatorria Ibarla-Azkarate inguruan duena. Bosgarren belaunaldia ere euskaraz mintzo da, eta erre letra bikain ahoskatzen du bosgarren belaunaldi horretako mutikoak, Xantik. Udan Euskal Herrira etortzen dira, orain ere hemen dira, eta amak udalekuetara igortzen du Xanti. Iparraldeko euskal udalekuetara. Han pare bat aste igaro eta gero, *egge ubulaggak* kutsatzen du. Aitatxik amorrua dio *egge* frantses horri, frantsesei ere bai ziurrenik, eta ezin izaten du jasan. Inoiz deitu izan digu: «Otoi, hartuko al zenukete gure Xanti zuen etxean zenbait egunez, *egge* zikin horren kentzeko?».

A.— Bestalde, Asisko Urmenetak eta Juanjo Elordik *Gartxot*, *konkista aitzineko konkista* animaziozko filma egin zutenean, inguruko euskal hiztunen artean bilatu zituzten bikoizleak, eta xiberotarrak ere baziren tartean. Asiskok galdegin bide zien ea bazekiten erre letra ahoskatzen. Haien erantzuna: «Badira 30 urte erabiltzen ez dudala, baina jakin badakit». Gaur egungo Iparraldean hil hurren da *errea*.

A.— Iparraldeko bertsolari gazte eta gaztetxoaren artean ere erabat hedatua da *eggea*, baita guraso biak Hegoaldekoak dituztenen artean ere. Lujanbio txapeldunaren *ejjearen* eragina ere izan daiteke...

X.— Itx dezadan parentesia, honi horrelako beste ateraldirik bururatzerako!

Esan dizuedan moduan, Euskaltzaindiak bazuen *yotaren* alde egin beharraren konbentzimendua, eta zeregin horretan bidelagunak behar zituela ohartu zen, eragileak. 1992. edo 1993. urte aldean, duela 30 bat urte, Euskaltzaindiak bilera-*eskaera* bat egin zien beraien ustez ETBn sonarik edo eraginik handiena zuten lau esatariri. Maribel Aizarna, Pedromari Goikoetxea, Maddalen Iriarte eta ni neu deitu gintuzten.

A.— Lau gaxte.

X.— Baita oraindik ere... *Yota* ahoskeraren alde egin genezan eskatu ziguten bilera hartan: *yagon, yo, yakin, yaso*... Eta horrela hasi ginen, *Yaurlaritza, yardunaldi, yaiotze-data* edota *yaialdi* ahoskatzen. Zenbait hitzekin gehixeago kosta zitzaigun, baina ohiturak uste baino errazago aldatzen dira, aldaketaren beharraz eta eragitearen garrantziaz ohartuz gero.

A.— Beraz, ordura arte «Altunak jo» eta «Lasok jaso» esaten zenuten.

X.— Ez zehazki. Altuna eta Laso artean *yaio* gabeak izaki, baina bai: «Tolosak jo», «Retegik jaso».

A.— Orain ere arazoezin sumatzen zaituztet pilota-emankizunetan. Peio Martinez de Eulate erretiratu zuan, baino Peio Etxeberria ari duk orain...

X.— Bai. Eta makurrena duk, Euskaltzaindiak, zeinak jardunaldi hau antolatu duen, onartua duela *Pe-i-o*. Nire mingainak ez zekik, zorionez, halakorik ahoskatzen...

Baina, aizak, bertsolari gazteen artean ere sumatzen hasia nauk yeismoaren eragina.

21 bat urtera
iritsi naiz *iya*,
pentsatzen jarri eta
hau da urte *piya*...

Edo:

Arazo honi aurre
nork egingo *diyo*?
Gaurkoz askatu ditut
nahiko *korapiyo*.

A.— Gogoaitzen naik ni galanki, hein batean tranpa duk gainera. Horrela errazagoa duk errimatzea! Eta ez duk, antza, konponbide errazeko afera.

X.— Konponbidea lukek, edo izan litekek, garai batean Xabier Amuritzak egiten zuen moduan bustidura sailhestea: *bila, abila, mutila*... Baina hori yeistek egin beharreko ariketa lukek, eta yeistak ez dituk konturatzen direnik.

A.— Hor zagok koxka!

Bertsolariak aipatu dituk eta ni beste arau batek kezkatu naik: «Bokal biren artean <h> idatzen denean, /h/ ahoskatzen ez den euskalkietako hitzunez ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzera joko dute hizkera-maila zainduan».

Ezaugarri hori betetzen duten hitzetako bat silaba bakarrean erabiltzen dugu bertsolariok, eta gainera ez genuke bertsotan asmatuko hitz hori erabiltzen dugun moduan erabili gabe, neurriagatik hein batean, baina funtsezko errimetako bat delako, batik bat.

X.— *Na.hi*, alegia.

A.— Horixe bera. Bestetik, «ai» amaieraz bukatzen diren hitzak errimarako erabili behar ditugunean, nekez bukatuko du inork bertsorik «nahi» hitza erabili gabe.

X.— Xalbadorren hainbat bertsotan ageri da «nahi» hitza *Odolaren mintzoa* liburuan. Beti bi silabatan ebakia. Errimarako ez zuen behin besterik erabili, halere. Honatx:

Ikus dezagun Gipuzkon nola
lauzkatua den Basarri,
Bizkaian ere pertsularia
trumilka bada nun-nahi.
Naparra ere hor etzaukuia
Erne-ernea ezarri?
Eta lo daude Baxenabarre,
Xibero eta Lapurdi.

A.— Tira, errima aldetik ez du berez ekarpen handi-handirik egiten bertso horretan, baina bistan da bi silabatan ebakita ere balio duela errimarako. *Haragi, dagi, garabi, jalgi, adi...*, baita *ari, bertsolari, kantari*... ere. Dena den, ezin uka silaba bakarreko ebakerari uko egin behar bagenio, oin bikain bat galduko genukeela.

X.— Beti esan dezakek Euskaltzaindiaren arau denekin ez hatorrela bat.

A.— Alegia, hizkera «zainduaz» ari garela, baina ez «sainduaz».

X.— Ongi ekarria. Hitz-joko horrek balio du <s> eta <z> bereiztea zein garrantzitsua den edo izan daitekeen azaltzeko.

80ko hamarkadan bazen Espainiako Futbol Ligan, Xixongo Sporting taldean, Manolo Mesa izeneko jokalaria bat. Eta garai berean ETBn bazen <s> eta <z> bereizteko zailtasunak zituen esatari bat. Hala esan zuen behin: «Meza zelai erdian...».

A.— Pilota partidetakoa angelusaren bertsio garatua.

X.— *Anjelusa, angelusa, anyelusa...?*

A.— Hau duk atarramentua!

X.— Azkoitian, oster, bazen duela urte batzuk, Eroski saltoki handiaren ondoan, autoak garbitzeko gune bat. Han jarria zuten, kartel handi batean: «Kotxe-garbitzeta prezio handiz». Ez zen oso kartel erakargarria, berez, baina bazuen abantaila bat: Azkoitiko eta Azpeitiko bezeroak joaten zitzaizkiola nagusiki, eta haiek ere arazo berbera izaki <s> eta <z> bereizteko garaian. Han, <s> eta <z> bereizten jakin gabe, nola desberdintzen dituzte hitz biak? Azentuaren bidez: *presixiue* eta *préxixue*.

A.— Halere, ohartuta nago herri berean egon daitezkeen hizkera eta ahoskera aldaketek. Azkoitian bertan badira <s> eta <z> ederki bereizten dituzten guneak...

X.— Badituk, bai. Eta baita *ogixe* ez baina *ogiye* ahoskatzen duten auzoak eta guneak ere: Martirieta, Kukuherri, Izarraitz magala...

A.— Hauxe ere badio arauak: «<z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da [niri frikaria irakatsi didate, baina!] eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelaniazko *zapato*, alegia). Beraz, *eskizofrenia* ahoskatu behar da, eta *soziologia*». Eta *Izaskun*, dedio! Haurrei euskarazko izenak zergatik jartzen dizkiete, behar bezala ahoskatzen jakin ez eta!

X.— <S> eta <z> letren ahoskeraren aferari bukaera emateko, esan dezadan zenbat edertzen den testu, bertso edo kantu bat ongi ahoskatzen dakienaren ahotan. Esate baterako, Imanol Lartzabal zenaren ahotan. Xabier Amuritzaren bertso zoragarri hau kantatzean, adibidez.

Euskal Herriko tristura,
soineko beltzen joskura,
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.

Emadazue freskura,
ura eskutik eskura...,
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura.

X.— Errepasa ditzagun 98ko arau-sortan aipatzen diren beste zenbait letra.

«<G>, <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat. Azken orduko maileguetan, salbuespenak banan-banan markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun gin (edaria)».

A.— <G> letrak jostaketarako aukera ematen du: «Gogogabeturik geunden *garagean*, ganbaran gehiago goza genezakeela gogoratu ginelarik».

X.— Zin dagizuet gure gaztea ginik edan gabe jin dela...

A.— Yotak ere libertitzen nau. Hau mitikoa da: «*Yauna*, *yan* gabe *yoan* gabe, *yan* ezazu, *yan*».

X.— «Jota hitz barruan gertatzen denean, /y/ izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, gaztelaniazko “jamón” eta frantsesezko “jambon” onartzen dira hizkera zainduan “garaje” eta “ijito” bezalako hitzetan».

A.— «Onartzen dira» horrek ez al du pentsarazten /y/ ahoskera hobesten dela? «*Iyitoak garayean yaialdia yarririk, yantzitako yertseak erantzirik, yira eta bira yostatu ziren*».

Tira, *iyito* baino hobe aukeran «buhame».

X.— Edo Azkoitian esaten dugun moduan...

A.— *Motxalle!*

X.— «*Motxaile*», zeina «*moztaile*»-tik heldu baita, garai batean *ijitoak* baserriz baserri ibilki astoei ilea mozten.

A.— Bistan da norberaren euskalkian eta giro informalean aritzeak buruhauste gutxiago dakarrela; bestela, *yota* bai, baina ez beti, «nahi» ebaki edo ez... Ez dago erraz-erraza zernon nola jakiten!

X.— Hain zaila ere ez duk, motel! EBAZek, arau zehatzez gainera, ematen ditik haien erabilerari buruzko oharrek ere, arauen malgutasunaz. Horren erakusgarri, besteak beste, hatxearen eta «garaje»-ren sailekoen kontuak.

A.— Hor askatasuna ematen dik arauak, nahieran aritzeko aukera-edo, ados, baina haxe ere esaten dik: «Bada hizkuntzaren bizi-iturri den aniztasunaren beste alderdi garrantzitsu bat: hiztun bakoitzarengan gertatzen dena». *Kitto, ba!* Zertarako arauak? Bakoitzak berea!

X.— Ez, Aner, badakik ez dela hala. Nola jarraitzen du?

A.— Tira... Hizkuntzaren funtsezko ezaugarri da, izan ere, hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriari, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea».

X.— Eta geroxeago: «Aniztasuna, dena den, ez da kaosa eta hizkera zainduenetatik arduragabeagoetarainoko mailak, gauzak nahasi gabe egin behar dira. Horregatik arauetan ematen diren adibideak lekuan lekuko edo norberaren sistemaren arabera hartu behar dira. Esaterako, ahoskera zainduko *etxea*, erabilera arduragabeagoan *etxia* izango da ea > ia ordezkatzeari egiten den euskara batean; bokal bilkura horretan ordezkatzetik egiten ez den euskaran, «etxea», *etxea* izango da hizkera-maila guztietan».

A.— Horixe ez al da, ba, zailena? Zein leku eta egoerari dagokio hizkera zaindua eta zeini arduragabeagoa? Bokal-bilkurak aipatu dituanek, gogoan zaukaat nola egiten zitzaidan kurioa eta ulertzen zaila, Bernardo Atxaga bere testuak publikoki eta formalki irakurtzen entzuten nuenean, idatziz «hiria», «basoa» eta «etxea» zirenak, *hiriya*, *basua* eta *etxia* ahoskatuta entzutea.

X.— Xalbadorrek salatu egiten zian bertsolari gipuzkoarrek egiten zuten tranpa. Basua? Ederki. Baina ez «sua»-rekin errimatu!

Tira, tranpatxorik gabarik ba al da inor? Okerragoa da irizpiderik gabea izatea...

Interesatuta ikusten haudanez...

A.— Eta oraindik 25 minutu bete ez ditugunez...

X.— Ariketa bat proposatuko diat bukatu aurretik. Hiru egoeratan jarriko haut, eta testu bera irakurri beharko duk egoera bakoitzari hire iritziz legokiokeen moduan. EBAZ oinarri, baina heure irizpideekin batik bat, ados?

A.— Nahiago nian puntuari erantzutea!

X.— Beste gai-jartzailei oldartzen al hatzaie? Zer, gero! Prest?

A.— Bai.

X.— Lehendabiziko egoera: Urola Kostako Erlo telebistako entretenimentuzko saio batean ari haiz hizketan.

A.— *Gaur, aul xamar esnatu naiz etxian, jateko ezer askorik e'tzegoen eta arrebak garajera juteko esan dit. Egiya da, ordia, nekia ere baneukala, aje pixka bat ere bai, eta iñora mugitu baiño naiago izan det bertan geratu batetik bestera mugitziak ematen'tzidan antsietate soziala ekidituko. Badakit lojikua dala aje-egunetan zerbait jatia, baiña zer nai dezu, ba, esatia? Alferkeriya ere sanua izango da, ba, ala?*

X.— Ados. Bigarrena: lagunekin ari haiz hizketan trago baten bueltan.

A.— *Gaur, aul xamar esnau naiz etxian, jateko eze'askorik e'tzeon ta arrebak garajera juteko esan dit. Egiya da, ordia, nekia're baneukala, aje pixkat e'bai, ta iñoa muiitu baiño nayo izan det bertan geau batetik bestea muiitziak emate'zin antsiedade soziala ebitatzeko. Bakit lojikua dala aje-eunetan zeoze'jatia, baiño ze nai'zu, ba, esatia? Alferkeya're sanua izangoa, ba, o?*

X.— «O»??? Zarautzen «no»!, besterik ez duk entzuten! Ea ba, hirugarrena: euskaltegiko C1eko ikasleei hitzaldi bat ematen ari haiz.

A.— *Gaur, aul samar esnatu naiz etxean, jateko ezer askorik e'tzegoen eta arrebak garajera joateko esan dit. Egiya da, ordea, nekea ere baneukala, biaramun pixka bat ere bai, eta inora mugitu baiño naiago izan dut bertan geratu, batetik bestera mugitzeak ematen'tzidan antsietate sozi.ala ekidituko. Badakit logikoa dela bestondo egunetan zerbait yatea, baiña zer na.i duzu, ba, esatea? Alferkeria ere sanoa izango da, ba, ala?*

X.— *Na.hi* esango hukeela sinetsi egin behar al da?

A.— Ezta beste hainbat gauza ere ziurrenik, baina adibidetzat balio dik, ala?

X.— Balio dik. Belarria jartzen den bezala, ahoa eta burua ere ohitu daitezen saiatu behar. Arian-arian lortzen duk hori.

A.— Bukatu aurretik «euskal azentu sorgina» aipatu nahi dut, bada!

X.— Zer esateko?

A.— Adibide bat besterik ez. Euskal Herria ahoskatzeko azentu-modu bakarra ez da egongo menturaz, baina bat nagusitzen ari da, eta ez euskal senetik sortua: *Euskalerría Bildu* entzuten dugu, euskaraz zein erderaz. Horrek ere merezi luke irakinalditxo bat, ala?

X.— Azentuak ere merezi dik arreta handixeagoa, bai. Garai batean bazen Golden izeneko diskoteka bat Urretxun. «Urre-koloreko» nahiko zuten nagusiek, baina orduko gizarte ez hain urbanoan, erabat irauli zuten izena: *Goldéén*.

A.— Ona duk hori...

X.— Tira, gazte, denbora joan zaiguk.

A.— Espero dugu gure ariketa jostaria oso ganoragabea ez zitzaizuela irudituko.

X.— Hala biz!

Edonork esango dizu: «Sonoritate ederreko hizkuntza da euskara. Ahoskerak berebiziko garrantzia du eta euskara zainduan, jendaurrekoan, hedabideetarakoan, irakaskuntzarakoan..., ematen zaion arreta baino handiagoa eman behar genioke. Beti ere ahantzi gabe erabilera hori naturaltasunez garatzearen garrantzia».

A.— Alegia: EBAZen *ebaz-penak* oso erabilgarriak direla euskarari logika eta kohesioa emateko, baina, lehen esan dugun moduan, ahoskera «zainduaz» ari garela, ez «sainduaz». Eta hitzetik hortzera erabili behar dugula..., baina ez dugula «hitzetik kortsera» pasatu behar.

Eskerrik asko!

Mahai-ingurua

MAIDER BEDAXAGAR
Liburuzaina

AGURTZANE ELORDUI
UPV/EHU (Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila)

IRANTZU EPELDE
CNRS-IKER UMR 5478

OROITZ JAUREGI
UPV/EHU (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)

PILARTXO ETXEBERRIA
Euskaltzaindia (Ahoskera Batzordeko kidea)

MIREN LOURDES OÑEDERRA
Euskaltzaindia (Ahoskera Batzordeko burua)

Ahoskera Batzordeko kideen mahai-ingurua:
Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua araua, atalez atal

MAIDER BEDAXAGAR.— Euskara Batuarien Aholkera Zaindua (EBAZ) arauaren urtemugaren ospatzeko botzik bildu gara egun. Mahai honen inguruan bilduak gara: Lourdes Oñederra, Pilartxo Etxeberria, Irantzu Epelde, Oroitz Jauregi, Agurtzane Elordui eta niaur —Lourdesi esker taldean sartzeko ohorea ukan dudana—.

Urtean zenbait aldiz, taldetto hau biltzen gara eta gure hizkuntzaren aholkera, azentuak, ikertuz, esaldi erritmoak, soinuak, silaba-tankak, melodiak, aireak, batzuetan hitzen kantuak ditugu solasgai.

1993an lehen Aholkera Batzordea sortu zen Euskara Batua Batzordearen atal modura eta Patxi Altuna euskaltzain osoa buru zuena. Ondoko urtean, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean, lehen abiaburuak eta proposamenak egin ziren, zerrenda xehe batekin, adibidez ilustratua (Etxeberria 1994, Oñederra 1994a, b).

Beranduagokoa da Aholkera Lantaldea, Euskara Batuarien Batzordearen lantalde gisa sortua. 1995. urte azkenetik 1998ra aritu zen lanean. EBAZ 1998an Euskaltzaindiak onartu zuen —ekainean— eta plazaratu —irailean—.

2011n abiatutako lantalde suntsikor baten garapenetik, 2013an, oraingo Aholkera Batzordea (lantalde izan zenaren estatusa aldatuta) sortu zen. Hogei urteren buruan, xuxen. Badirudi 3 zenbakian berma eta hamarkadak ospatzeko usaia duela EBAZek.

Hortik aitzina eta zortzi urtez, aurkezpenak, jardunaldiak, ikastaroak proposatu dira; Hegoalde zein Iparraldeko hainbat herritan, aholkeraren inguruko hausnarketak eraman dira parte-hartzaileekin.

2023an, hots, aurten, EBAZen 25 urteak ospatzen ditugu, eta gibel so eginik, xendra loratua ikus dezakegu. Honek, nola ez, konfiantza ematen digu!

Arauen jakinaraztea, arauen sortzea, lana da, horiek idatziz argiki uztea ere bai, eta horien barreiatzea, partekatzea eta hedatzea oraino besterik. Izan ere, desiratuko genuke jendeak ezagut ditzan, beregana ditzan eta, nola ez, erabil ditzan. Hiztunak nola erdiets dezakeen maila zainduko aholkera bat, hizkera-mailen kontrolatzea nola kausi dezakeen, zer duen berea eta zer erabil dezakeen besteekilako solasetan, ala hitzaldi publiko batean, ala irratan, ala telebistan... Hauexek dira, besteak beste gure xedeak.

Audela, Jean Haritschelhar gogoan izan nahi izan dugu urtemuga honetan eta ezin genezake ahantz, bere boz barnakorrek lagundurik, hitz egiteko zuen trebetasuna eta artea.

Aurkezpen-prozeduraz, EBAZ barneko arauen inguruan solasean aritzeko, arauak sailka zatitzea ongi iduritu zaigu. Mahai-inguruaren xendra ireki dezagun, beraz.

M.B.— Herrialde bateko hiztuna herrikideengandik urrun dezake distantzia geografikoak. Pilartxo Etxeberriarekin ikusiko dugu euskaldunak bere bizitokiaren aztarna dakarrela maiz bere silaba-solasean. Nola aplikatu genitzake EBAZen arauak, dugun hizkeratik abiatuz egoera formaleko aholkerarako bidean?

PILARTXO ETXEBERRIA.— Aldakortasuna berezkoa du aholkerak, a) aldakortasun geografikoa (euskalkien arteko aldakortasunaz gain, aintzat hartu beharrekoak dira belaunaldi zahar eta gazteen arteko desberdintasunak, euskaldun zahar eta berrien artekoak...) eta, b) aldakortasun estilistikoa (*keizak bildu zittun* / gereziak bildu zituen). Aldakortasun-maila horiek landu eta ulertu ahal izateko, prosodia aintzat hartzea ezinbestekoa da, prosodia (ez azentua bakarrik). Prosodia ezberdinak dira hizkera-maila ezberdinen oinarri eta bide.

Aholkera aldakorra eta bizia baita (euskalkien barrenekoa eta orobat euskalkien artekoa), erabilera-mailak ikastea/irakastea eta erabiltzea garrantzi handikoak dira gurea bezalako hizkuntza txikiaren osasunerako.

Euskalkien aniztasunetik jaso beharko genituzke lagunarteko hizkerarako behar diren ereduak. Hori dela eta, EBAZ arauak ez dute aukera bakar bat lehenesten. Euskalkien araberrako aholkera desberdinak onartzen dira batuarien maila zaindurako. Adibidez, zubererazko seigarren bokalari dagokiona I. arauan; III.lean, hiato (III.1) eta diptongo aukera; VI.lean, hasperena; VII.a, (des)palatalizazioaz; XII.a, hitz hasierako <z> kontsonante ondoan gertatzeari dagokiona; eta XIII.a, <ez> hitzaren aholkerari dagokiona.

Halakoetan euskalkien arteko aldakortasun dialektala islatzen da. Esaterako III.2. atalak mugatzen du III.1. araua (Euskaltzaindia 1998: 487): «Bokal bi segidan eta lehena <i> edo <u> bada, bokal-bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: abi.an, sozi.ala, zi.ur) [...]»; baina: «Bokal-bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hiztunengan hizkera zaindutat hartuko da ahoskera hori».

Nahiz eta aldakortasuna ez den berdin adierazten arau guztietan, eta batzuetan ezer ez adierazi, ez da ulertu behar aukera bakarra ematen denik. Edonola, arauak ez dute aukera bakar bat lehenesten. Euskalkien arabera ahoskera desberdinak onartzen dira batuaren maila zaindurako. Ondoren zehazten dira, lehen aipatuak osatuz, euskalkien arteko aldakortasuna ispiatzen duten arauak (Euskaltzaindia 1998: 487-490):

- Bokalez, I. arauaren arabera onargarri dira /a, e, i, o, u/ zein /a, e, i, o, u, ü/.
- Kontsonantez, VI. arauko <h>-aren erabileraz proposatua adibide egokia da hemen: «Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hokabea den Hegoaldeko euskalkietako hiztunen ahoskera zainduan ere ez da ahoskatuko. Salbuespen bakarra Hegoaldeko ahoskeran <zihoan> bezalakoetan gertatzen da <h> [x] belarraz ahoskatzen da, gaztelaniazko <jamón> hitzaren lehen kontsonantea bezala, alegia».

Beste horrenbeste gomendatzen da <ph, th, kh> kontsonante hasperendunekin.

- Bestalde, baina, IV. arauak dio: «Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hiztunak ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzeraz joko dute hizkera maila zainduan: (bi.hurtu, a.hula, ge.hiegi)».
- Bokalkontsonante bilkurez, VII. araua: «<il, in> letra-bilkura hauek (hala nola: mila milla edo mailua mallua, bina biña edo baino baño) ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da. Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: mila mila edo mailua mailua, bina bina edo baino baino)».

- Kontsonante bilkurez, XIII. arauaren arabera onargarri dira: enaiz, eluke edo eznaiz, ezluke.

M.B.— Aldakortasun estilistikoari esker, hiztun batek egun guztietako hizkuntzatik haratago adierazpen bereziak, hizkuntza figurak eta erretorika balia ditzake. Nola uztartu, Agurtzane, estiloaren libertatea eta ahoskera-araua?

AGURTZANE ELORDUI.— Pilartxo Etxeberriak ederki azaldu duenez, euskalkien baliabide fonetiko-fonologikoak bere baitan biltzen ditu EBAZ arauak, eta batasuna helburu duela, horietako batzuk lehenesten ditu hizkera zaindurako. Baina, aldi berean aldakortasun geografiko hori, hau da, euskalkietan barrena dauden ezaugarri fonetiko-fonologiko horiek, baliabide soziolinguistikotzat ere baditu EBAZek: euskal hiztunak identitate eta estilo desberdinak eraikitze behar dituen baliabide soziolinguistikotzat, hain zuzen ere.

EBAZen azken helburua da, baina, «zainduak» deitzen ditugun komunikazio-testuinguru horietan hiztun horrek baliabide-erreferentzia argiak izan ditzala. Eta zentzu horretan erreminta-kutxa hori ordenatzeko ere, gidalerroak ematen dizkigu. Betiere, ordenatze horretan erregistro zaindua da EBAZen ardatz nagusia.

«Hizkera zaindua» berez kontzeptu estetiko da eta zenbait testuingururen, generoren eta pertsona motaren irudi estiloarekin uztartzen du EBAZek. Testuinguruetan hau berau izan daiteke adibide egokia, hitzaldi batean ohiko dugun estetika linguistikoa. Generoetan ziurrenik hedabideetako albistegia izan daiteke generoen ereduaren argiena; albistegian diharduen esatari horrengandik espero dugu erregistro zaindua. Azkenik, gu guztiok une jakin batean, edozein ahots publiko eta jendeaurreko horrekin lotzen dugu erregistro zaindua.

Horrelako testuinguruetan eraikitzen ditugun estilo soziolinguistikoetarako proposatzen ditu EBAZek arauak eta, hor, oso zaintzekoak ikusten ditu euskararen batasunarekin loturiko alderdiak. Jendeaurreko testuinguru horiek sarritan audientzia zabalagoak (translokalagoak) izan ohi dituzte eta hedatzeko aukera handiagoa. Hortxe, beraz, aparteko garrantzia hartzen du Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artean gero eta handiago den haustura dialektala leuntzeak, hain zuzen ere. EBAZek duen helburu soziolinguistiko horretan aurik esanguratsuenak (eta ziurrenik Hegoaldean polemikoenak) VIII –<j> (yota)— eta V.1 –/e/ eta /i/ aurreko <g>arena— dira. Salbuespenak salbuespen, yota ahoskera

proposatzen da hitz-hasiera eta hitz-barruko ahoskera zainduan. V.1. <g>, /e/ eta /i/ bokalen aurrean, beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola, *geologia*).

Adibidez, «logia» atzizkiarekin ere sortzen da arazoa: gaztelaniazko *-logia* (/x/) eta frantsesezko *-logie* (/ʒ/). Garrantzitsuago da hemen kontuan izatea, /x/ ez dagoela Iparraldeko hitzunen fonemen artean, ezta /ʒ/ Hegoaldeko askorengan ere: alegia, ez dute balio ez bata ez beste ahoskera batzeko. Hegoaldean zein Iparraldean dagoen y (/j/) ahoskera proposatzen da, beraz, aukera zaindu eta bateratzaile gisa.

Helburu soziolinguistiko bateratzaile (eta, neurri handian, ez baztertzaila) horiek ditu EBAZek, euskara batuaren ahoskerarako proposamena den aldetik. Baina EBAZen helburua ez da inolaz ere aukera estilistikoak murriztea: izan ere, euskaraz ahoz diharduen hitzun horrek duen identitate eta estilo desberdinak eraikitze erreminta-kutxa aberastea da EBAZen azken xedea: zentzu horretan euskalkien ezaugarri fonetiko-fonologikoak aukeran uzten ditu sarritan, identitate- eta estilo-sorkuntzarako erabat irekirik: beste era batera esanda, malgua da, ahoskera zaindu bat baino gehiago litezke EBAZi estuki jarraituta ere. Hona hemen, horren adibide zenbait, ideia ulertzeko:

- VI. arauko <h>aren ahoskera proposamena izan daiteke adibide adierazgarria: «Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hitzunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hosiakabea den Hegoaldeko euskalkietako hitzunen ahoskera zainduan ere *h* ez da ahoskatuko» (Euskaltzaindia 1998: 488).
- Bestalde, VII. arauan <il, in> letra-bilkura hauek bustiduraz (hala nola: *milamilla* edo *mailua* mallua, *bina* biña edo *baino* baño) ahoskatzen diren euskalkietako hitzunen bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da. Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hitzunen gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila* mila edo *mailua* mailua, *bina* bina edo *baino* baino).

Azkenik eta EBAZen kudeaketa estilistikoaren azalpena amaitzeko azpimarratu behar da euskararen aldakortasunaren unibertso semiotiko osoan kokatzen duela EBAZek hizkera maila zaindurako proposamena. Horrela ulertu behar ditugu II. arauko II.a eta II.b atalak, esaterako. Arauan <ea> eta <oa> idatzi bezala ahoskatzea proposatzen zaigu: *etxea* eta *telefonoa*. Baina, aldi berean, hizkera-

-mailaren araberrako aldagarritasunaren berri ematen digu, eta ageri-agerian azaltzen digu ez direla gaitzesten euskalkien bestelako ahoskerak. Bokalki-bilkura horretan ordezkatzetik egiten ez den euskararen *etxea etxea* izango da hizkera maila guztietan; *etxia* eta *telefonua* bezalakoak egiten dituzten euskalkietan, bestalde, zaindua ez diren bestelako hizkera mailetan egoki eta zuzentzat hartzen dira (Euskaltzaindia 1998: 487):

- II.a. <ea, oa> idazten diren bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: *etxia*, *etxie*; *geruago*, *telefonua* eta kidekoak).
- II.b. <ia, ua> idazten diren bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: *mendiya*, *mendixa*, *mendiza*; *buruba* eta kidekoak edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: *mendie*, *mendi*; *burue*, *buru* eta kidekoak)¹.

Horixe bera V. arauaren <b, d, g, r> bokalartean desager edo alda daitezkeen kasuena (hala nola: ari naiz *ai* naiz, horiek (*h*)oiek, egon *eon*, edan *ean*, *eran* eta abar). Hor berriz ere argi zedarrizten da zer dagokion erregistro zainduari: «Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokalarteko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira» (Euskaltzaindia 1998: 488).

M.B.— Euskaltzainak, euskara zaindu nahi du. Oroitz Jauregi euskaltzain urgazleak, berriz, fonemak ere zaindu nahi ditu. Ikus dezagun nola egiten duen.

OROITZ JAUREGI.— Bai, arauen oinarrian dagoen irizpide garrantzitsu bat izango dut mintzagai: euskarazko hotsen gordetzea, mantentzea. Zer esan nahi du horrek? Ahoskera zainduan euskarazko hotsak ekoiztea. Erabaki horrek itxiko lieke bidea beste hizkuntzetako hotsei eta, era berean, euskarazko hotsak, galtzen egon daitezkeenak, ez daitezen gal ahalbidetuko luke.

EBAZ erregelen ulergarritasunaren izenean ahalik eta zehaztapen tekniko gutxien ematea komeni da erredakzioan, EBAZen irakurketa zailtasun handirik gabe uler dadin, irits dadin. Baina zenbaitetan zehaztasun teknikoak, fonetika eta

¹ Aipuaren jatorrizko testuan huts tipografiko bat dago: *mendiza* adibideko «z» letrak [ʒ] hotsa adierazten du (arauaren 1. oin-oharrean Lekeitioko ahoskera ematen da ahoskera horren eredutzat).

fonologiari dagozkionak, aipatzea lagungarria da (EBAZen jazotzen ez dena). Ildo horretatik garrantzitsua da ideia bat, kontzeptu bat: «fonema».

Zentzu orokorrean, definizio azkar eta zabar batean fonemak hotsak dira, baina hots guztiak ez dira fonema. Fonemak, ahoskatutako hotsak dira, baina hiztunak bereizi, gogoratu eta nahita egin ditzakeen hotsak, hiztunak burmuinean gordetzen duen fonema-biltegia osatzen dutenak. Ikus adibideak: «baba» hitzeko bi ak ez dira berdin ahoskatzen (Iparraldeko gazteek bai), isilunetik abiatuta, lehenengo a hersketa batekin ekoizten da (ezpainei begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko, kasu honetan, ikusteko); aldiz, bigarrena ekoizteko ez da hersketarik egiten, organu artikulatzaileak hurbildu egiten dira, hersketara iritsi gabe (nahita egiten ez bada, behintzat). Hiztunarentzat, ordea, fonema berbera da, bere gogoan /b/ fonema dago bi ak egin nahi dituenean, hala egin nahi izan du eta euskal entzuleak halaxe hautematen du, bi hotsetan: /b/.

Hizkuntza bat menperatzeak esan nahi du, hotsei dagokienean, hiztunak izan behar dituela hizkuntza horren fonemak; gutxienez hizkera guztiek batzan dituztenak (eta geroxeago ikusiko dugun moduan, ahoskera zainduan agian gehixeago ere bai).

Hizkera guztiek batzan dituztenak dira, esaterako, bost bokalak. Hala agertzen da jasoa bokalei dagokien atalean, lehenengo arauan: «<a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u] [...]» (Euskaltzaindia 1998: 487).

Euskarazko hots guztiak mantendu nahia ikusten da, era berean, zenbait arautan, adibidez I. arauan, bost bokalen aipamena egin ondoren esaten denean: «[...] sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>aren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]), hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan» (Euskaltzaindia 1998: 487). Edo: «VI. <h> letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hitzunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hoshabea den Hegoaldeko euskalkietako hitzunen ahoskera zainduan ere <h> ez da ahoskatuko» (Euskaltzaindia 1998: 488).

Kasu hauetan hizkuntzaren errealitateari begiratu zaio; estandartzea batzea da, baina euskararen kasuan ez da muturreraino eraman nahi izan hatsarre hori. Ez da zilegi euskarazko hots bat, fonema bat, hiztunaren inbentariotik kentzea.

Fonemak gorde nahia ikusten da beste arau batzuetan ere: «VII. arauan,

albokari palatalaz ari den zatian, esaten da: «[...] ahoskera zaindua <ll> —milla— da eta ez <y> —miya— [...]» (Euskaltzaindia 1998: 488-489). Beraz, albokari palatala mantentzearen alde egiten da. Egia da egun, batez ere Hegoaldeko gazteengan ll/y aldakortasuna sumatzen dela; are gehiago, <ll>rik ez dutela (berdintze edo neutralizazioa) ekoizpen askotan. EBAZen apustua izan behar da mantentzearen alde egitea, hiztunari esatea gordetzeko ahalegina egin behar dela hizkera formal eta zainduan.

V.2. atalean ere garbi ikusten da euskararen sistema fonemikoari eutsi nahia, lagundu nahia: «<s, z> eta <ts, tz> hizkera zainduenetarako pare hauek bereiztea hobetsiko da» (Euskaltzaindia 1998: 488).

Azpiratutako nuke «hobetsi» aditza erabiltzen dela arauan bertan; aski aditz eskuzabala... Bereiztea hobesten da, zertarako? Hainbatik hainbatean, erabilera «profesionalerako», beste aukera guztiak berdin izanik, <s> eta <z> bereiztea nolabaiteko gehigarritzat har dadin.

Bestetik, <z, s> pareari arreta handia jartzen zaion arren, agian oharrenaren aldetik nabarmenena delako, kontuan izan <tz, ts> bereizketan, <ts> ez dela beti [ts] izaten, [tʃ] baizik. Beraz, ahoskera hori ere kontuan izan behar da.

Euskarazko hotsak gorde nahia ikusten da baita ere kanpoko hotsetatik babestu nahi duten arautan. Ideia horrek badu garrantzia, kanpoko hotsen aurrean euskarazko hotsak gordetzen, indartzen dituelako. Horien adibide dira ondoko arauak (Euskaltzaindia 1998: 488):

- V.2. Bestalde <z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelerazko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena.
- V.4. <r, rr> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

Azpiratutako nuke «gaitzetsi» aditza; ubularrak ordezkatu egiten du <rr>, beraz, euskarazkoa galarazten du.

Euskarazko hotsak gorde nahia dago ondoko honetan ere: «V.1. <g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*)» (Euskaltzaindia 1998: 488). Maileguak izanik, joera izan da Hegoaldekoek gaztelerazko moldeari jarraitzea eta Iparraldekoek frantsesarenari, hau da, gaztelerazko [x] *filolo[x]ia* eta frantseseko [ʒ] *filolo[ʒ]ia*, alegia. Bi norabidetatik doa, elkarrengandik bereiztuz. Horregatik, bereizketa ez areagotzeko, <g> gainontzeko bokalekin ahoskatzen den bezala ahoskatzea gomendatzen da (amankomunean denok duguna).

Hala, [x] hotsa ukitu dugu, hainbat buruhauste sortu izan duena. VIII. arauak haxe dio (Euskaltzaindia 1998: 489):

- VIII. <j> letraren euskarazko ahoskera oinarritzakoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera, oro har.
- VIII. 1. <j> hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola: jateko *yateko*, jokalaria *yokalaria*).
- VIII. 2. <j> hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena.

Ikus daiteke euskarazko hots bateratzaileenaren alde egiten dela; guztiek duten hots komunaren alde (<j>ren ahoskera desberdinen jatorri historikoa denaren alde).

M.B.— Idatzia den bezala ahoskatzen ikasi dugu eskolan. Hau EBAZen filosofiaren kontra ez ote, Irantzu?

IRANTZU EPELDE.— Arauak atalez atal ikusten ari garen honetan, nik kontsonante-bilkura batzuk izango ditut aipagai. Bereziki ozenki irakurtzeko eta ahoskatzeko garaian bitasunak gertatzen direnean, arauak bide batzuk erakusten ditu, betiere ahoskera zainduari dagokionez.

Bide horietako bat «ez» partikularen ingurukoa da, edo, hobeto esanda, «ez + kontsonantea» segidaren ingurukoa. EBAZen, hiru arau arduratzen dira «ez» partikularekin osatutako bilkuretan ahoskeraren nondik norakoak arautzeaz.

Lehen, X. araua da. Arau honetan «ez» partikularen ondorengo herikari ahosketa datozenean nola jokatu arautzen da (Euskaltzaindia 1998: 489):

- <zb, zd, zg> ahoskera zaindurako ere «ez» adberbioaren ondoren, ondorengo <d> kontsonantea (aditz-formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar da (hala nola: ez da *ezta*. «Ez» adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ahoskatzea hobesten da [...]. Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da [...].

Hurrena, berriz, XI. araua da. Bertan, «ez» partikularen ondorengo txistukari bat (<z>) datorrenean nola jokatu arautzen da: «Ahoskera zaindurako ere «ez» adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> batera ebaki behar dira afrikatua osatuz (hala nola: ez zara *etzara*, ez zetoze *etzetoze*, ez zenion *etzenion*, ez zuen *etzu*)» (Euskaltzaindia 1998: 489).

Hirugarrena eta azkena («ez» partikulari dagokionez), XIII. araua da: «Ahoskera zaindurako «ez» adberbioaren ondorengo <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz-formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere» (Euskaltzaindia 1998: 490).

Azkenik, beste kontsonante-bilkura batzuek arduratzen da XII. araua: «<nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> Letra-bilkura horietako txistukaria afrikatu egin ohi da euskaraz (hala nola: *unibertsitate*, *Frantzia*, *faltsua*). Hitz-mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaratan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola: *esan zuen* esantzu; *eman zion*, emantzion)» (Euskaltzaindia 1998: 489-490). Ohargarria da euskarak izan duen tradizioari jarraitzen diola hamabigarren arau honek.

M.B.— Ohartaraziko dugu hizkuntza bat hizketa bihurtzen denean, honek prosodia dakarrela. Orduan, Lourdes, hitzunen eta entzulearen adostasun horretara joateko nola lagundu gaitzake EBAZek?

MIREN LOURDES OÑEDERRA.— Tarteka, gehiago edo gutxiago, baina agertzen da prosodiaren inguruko arauaz galdera. EBAZen badago prosodiari buruzko araua: ageriko araurik eza da arau, nahiz horretan inozoegi, *naifegi* jokatu genuen. Euskaltzaindiak —ez Euskara Batuaren Batzordeak (non Ahoskera Lantaldea txertaturik baitzegoen), ez Osokoak— ez zuen besterik eskatu. Hori hala izan zen, onenean, arauarekin batera lantaldeak 1998ko errendapen txostenean (Oñederra 1998a) eta 1998an Donezteben aurkeztu ziren txostenetan (Oñederra 1998b, Etxeberria 1998) ematen zelako prosodiaz proposatzen zenaren berri (arauarekin

batera argitaratu ziren); lan haiek ez dira zabaldu edo ez dira irakurri edo ez dira ulertu. Txarreanean, inork ez zuen prosodiaz galdetu, ahaztu egin zirelako, prosodia ahaztutzea errazegia delako.

Zer da prosodia? Modu zabarrean, bokal eta kontsonantez gainerakoa hizketan; teknikoxeago: hitzak ahoskatzean hitz horiek denboran txertatzeko erabiltzen ditugun erritmo- eta doinu-moldeak. Denborak eta erritmoak hizketa ekoitzi eta hautematea posible egiten dute: hotsak doinu-erritmo moldeetan ezartzen dira, kantaren hitzak partituran bezala eta horrek hizkera funts-funtsean baldintzatzen du, ahoskeraren atalik inportanteena da alde horretatik, gainerakoen sustentarri eta eragile delako.

OHARRA: «Azentua» ez dut aipatu ere egin, eta horixe izaten da, ahoskerari buruzko eztabaidetan, ateratzekotan, ateratzen den bakarra asko eta askotan... Izan ere eskatu ohi den araua ez da prosodiazkoa, azentuarena baizik. Azentua erritmoaren eta doinuaren zerbitzura dago, batez ere erritmoaren. Prosodiaren funtsezko osagaiak erritmoa eta doinua dira (eta euskaraz silaba da erritmoaren agente nagusia; hobe legoke esatea ziurrenik azentuak, erritmoa markatzean, ez duela silaba «menperatzen»).

Hizkuntza (heldutan ikastea edo lehen hizkuntzaren ezagutza modu formalean eta berariaz sakontzean) ikastea, buruz ikastea hizkuntzaren formak, memorizatzea, hiztegiaren eta gramatikaren menpe (h.d. gramatika helburu nagusi dela) garatzen bada, horrek berarekin lotua dakar azentua: hitza, izena, aditza, erroa, aditz-aldia edo atzizkia adieraziko duen fonema-katea azentu jakin batekin memorizatzen da. Horrela azentua «lexikalduta» egiten da.

Gaztelaniaz arazorik ez horrekin, halakoxea baita hiztegiaren zati batean; gainerakoan ez, fonologikoa da (frantsesez beti bezala) eta ez lexikoa, baina edonola ere hizka banatzen da eta aski finkoa da hitzaren azken aurreko silaban². Horrexegatik gaztelaniaritzen dira maileguak azkenaurreko azentuarekin: «hemos comido *marmitáko*», «nos han bailado un *aurrésku*», «hemos quedado en el *Beartzána*». Gaztelaniaz, estiloaren, lastertasunaren eta abarren arabera urtu daitezke azentu batzuk, baina ez dago erabateko aldrebestarik inoiz; oso adierazgarria da fonema-

² Ondoko adibideetan tileta hiztunaren oharrena (nabarmetasun erlatiboarena) adierazteko erabiltzen da modu inpresionista. Hain zuzen ere, irakasteko orduan, hiztunaren oharren eta intuizioekin aritzea da ziurrenik xehetasun akustikoen neurketekin aritzea baino eraginkorragoa.

-bilkura beraz osatutako hitz bat hartzea eta alderatzea nola erabiltzen dugun gaztelaniaz eta nola euskaraz. Ikus dezagun zer gertatzen den euskarazko «orno» eta gaztelaniazko «horno» (biak /orno/) hitzekin ondoko adibideetan:

Euskaraz:

—*órnoa hautsi omen dū.*

—*òrnoá? ze ornó?*

Gaztelaniaz:

—*enciende el horno*

—*¡el horno! ¡qué horno!*

Euskaraz —euskalkiak euskalki— askoz indartsuago da esaldiaren (sintaxiaren eta morfosintaxiaren) erritmo eta doinua, hitz bakoitzaren azentua baino. Silaba-aldikotasuna funtsezkoa du hizkuntzak eta esaldia du neurri prosodiko, hitza baino areago (hori bide da azentu kokapenaren maila hierarkia prosodikoan).

Ikaslearen unitate lexikoak burutik azentuz markatuta datozenean (adibideak: *ikaskéta*, *géla*, *aparkaléku*, *horregátik*) bortitzagoa da hizkuntzaren joeren kontrako prosodia, esaldiaren araberrako aldakortasunik gabea. Errazagoa da, esaldiaren araberrako malgutasun hori ikasi ez bada, besterik ezean, hitzak gaztelaniaz bezala bakoitza bere —gehienetan azken-aurreko— azentuarekin ateratzea euskarazkoa ez den erritmoa eraikiz. Esaldika egin ordez hizka egindako publizitatearekin, besteak beste, ohituta gaude; bestelako hizketaldietan ere ohikoak dira ondokoak bezalakoak: *jatéko ordúa*, *bai... gatázka! gatázkarik gábe...*

Horien antzeko hamaika egon daitezke..., baina goazen axola duenera: nola demontre konpondu hori? Bide oparoa da, Julia Marín bezalako ahazkoren tekniketan aditu direnen laguntza bilatzea. Ozen irakurri eta irakurraziaz eskoletan ere bada zereginik; irakasleak ikasteko, hitzak zerrendatuaz baino esaldiak ahoskatuaz, kantuen bidez, poesia eta bertsoak errezitatuz eta kantatuz.

Halako jarraibideak ezin dira arau-formatoan idatzirik eman. 1998ko Jardunaldiaren ondorioetan esandakoak ikastaro beharrez (Oñederra 1998c), orduko artikulu irakurri gabe edo ahaztuetan lo gelditu zena, garatzen eta hedatzen

saiatu gara 2015eko eta 2019ko Jardunaldietan (Oñederra *et al.* 2015, Oñederra 2019) eta baita hainbat ikastaro eta mintegitan ere.

Arauan idatzita dagoenak badu noski prosodiarekin zerikusia, arau-atal zenbaitetan zuzenagoa dena. Esaterako, (mendia vs *mendljla*), edo bokalarteko ttakarenak (horiek vs *hofjlek*). Horietan silaba-kopuruak, hitzaren iraupena, beraz esaldiaren erritmoa, ukitzen ari gara.

Diptongoak egiteko edo ez egiteko, erritmo-aldaketa bat behar da eta horrek ahalegin berezia eskatzen du, esaldiaren prosodia honda dezakeena esalditan, behar bezala ikasten ez bada. Esalditan ikastea ez da azentu kontuetarako bakarrik onuragarri, oro har prosodia osorako baizik eta, hortik, baita bokal-kontsonanteen ahoskera egokirako ere.

Horixe da esku artean dugunaren funts-funtsezko galdera: nola ikasi kantatzen kantatu gabe?

Bibliografia

ETXEBERRIA, Pilartxo (1994). «Hizkera jasoaren ingurukoak», *Euskera* 39: 1527-1532.

— (1998). «Mintzakantuaren oharrena», *Euskera* 43: 425-437.

EUSKALTZAINDIA (1998). «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera* 43: 485-490.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1994a). «Ahoskera araupetzeaz», *Euskera* 39: 1523-1526 eta 1589-1605.

— (1994b). «Abiaburu zehatz batzuk», *Euskera* 39: 1533-1542.

— (1998a). «Ahoskera Lantaldearen errendapen txostena», *Euskera* 43: 265-274.

— (1998b). «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera* 43: 439-449.

— (1998c). «Ahoskera jardunaldiak: ondorioak», *Euskera* 43: 472.

—, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz eta SALABERRIA, Jasone (2015). «Ahoskerak axola du», *Euskera* 60: 499-531.

— (2019). «Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz», *Euskera* 64: 939-957.

In memoriam

Joan Mari Irigoien
(Donostia, 1948 - Donostia, 2023)

—Joxemari Iturralde—

2. Hilberri-txostenak

Filosofo batek idatzi zuen behin: «Ez naiz pentsamendu ilunez fidatzen. Adimenak eguzki-erregimen batean bizi nahi du, eta argitasunean bakarrik egiten du aurrera».

Joan Mariren aurpegia ikusi bezain laster konturatzen zen bat haren adimena argitasunaren erreinukoa zela. Eguzkiaren baitakoa zela bere mundua. Irribarre zabal hura, begirada maltzur eta pikaro hura, bere begi bixi eta sarkor haiek akuilatuta. Ironia zuen bidaide eta umorea betiko lagun. Pertsona ona, lagunkoia, mesede egiteko beti prest: adimentsua —lehen ere esana dut—, langile porrokatua, literatura eta euskararen maitale sutsua.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran ezagutu nuen, liburu bana kaleratu genuenean. Hizketan hasi eta berehala esan zidan Hego Amerikako literatura asko gustatzen zitzaiola, eta neuk ere gustuko nuela erantzun nion. Orduan, nik Ipar Amerikako literatura asko gustatzen zitzaidala esan, eta berak ere gustuko zuela erantzun zidan. Elkarrekin adiskide egin ginen. Lagun bilakatu ginen.

Pertsona argia, umoreduna, alaia izan zen Joan Mari. Urte haietan ni Donostian bizi nintzen eta gogoan dut, aldika afari goxo bat egiten genuela biok alde zaharrear. Garai hartako kontuak aipatzen genituen, baina gehien bat literaturaren eta euskararen inguruan mintzatzen ginen, nola zegoen egoera, zer egin gauzak hobetzeko, zertan geunden atzeratuta, noiz iritsiko ote zen etorkizun hobe... Apika ez zela inoiz iritsiko etorkizun hobe hori erabakitzen genuen

biok batzuetan, eta besteetan, guztiz kontrakoa. Gerora, behin baino gehiagotan gogoratu zait, Joan Marik bere liburu batean, eleberriaren hitzaurrean, jarri zuen poema hura; XVII. mende hasieran, Bartolomé Leonardo de Argensola idazle espainiarrak idatzia zen. Gaztelaniaz zetorren; nik, gaurko, honelaxe itzuli dut:

*Denok dakusagun zeru urdin hori,
ez baita zeru eta ez baita urdin.
Lastima handia
hainbeste edertasun
ez izatea egia!*

Urte haietan kontatzen zidan Joan Marik, egunero saiatzen zela euskara sakontzen eta euskara hobeto ikasten, egunero aukeratzen zuela hiztegitik orri bat eta bertan zetozen hitz guztiak ikasten zituela buruz. Komentatzen genuen, baita ere, errepasatuz, euskal idazleek aurrean dituzten erronka latzak. Liburu bat idatzi baino lehen, ongi aztertu behar da zer esan nahi dugun, zer idatzi behar den eta zer ez. Behin erabaki hori hartu ondoren, idatzi egin behar da liburua, behin eta berriro testua orraztuz eta txukunduz. Gero, argitaletxeen atarian egoten diren editore edo *cancerbero* zorrotz horien kontra borrokatu behar izaten da eta ondoren, behin sarrera gaitz hori gainditu ostean, liburua publikatu egiten dute, liburua kaleratu egiten da. Juxtu orduantxe hasten da, askori hau sinistea kostatuko bazaio ere, euskal idazleontzat lanik gogor, zail eta neketsuena. Zein den jakin nahi? Bada, euskal irakurleen bila hastea. Euskal irakurleak, bai. Ba al dira? Non bizi dira? Zertara dedikatzen dira? Horrelako oldozte hitsekin amaitzen genituen batzuetan biok afari-lege haiek.

Izan ere, Joan Marik, beti bezain umoretsu, bere liburu mardul eta, nire ustez, onena idazten amaitu zuenean, eskaintza hau jarri zuen nobelaren hasieran: «Zuri... nire liburu honen irakurle bakarrari». Handik aurrera, elkar ikusten genuenean, hizketan hasi aurretik, besoa luzatuz hatz bat goititzen genuen, eta elkarri esaten genion: «Bat, gutxienez bat badaukak!». Alegia, nik bere liburu atera berria irakurri nuela, edo berak nik ateratakoa; eta beraz, irakurle bat, gutxienez bat, bazegoela, bagenuela.

Eta, hala, Joan Marik ederki erakutsi zuen literaturan mugitzeko zuen trebezia, ia genero eta azpigeno guztiak landu baitzituen, eta ongi aski gainera:

eleberria, ipuingintza, poesia, itzulpengintza, haur eta gazte literatura, saiakera eta kazetaritza... Ez dut orain betarik eta hau ez da une egokia haren lanak zehazki aztertu eta komentatzen hasteko; badira literatur kritiko profesionalak lan hori egiten eta egingo dutenak. Nik hemen, bazter samar, ene ustez, geratu den atala aipatuko dut, ezin laburrago bada ere, oraintxe: poesia.

Haren azken urteetako pasarte hau nahiko ezaguna egin da; zer-nolako gaixotasun zitala zuen jakinda, hauxe esan zion kazetari bati:

«Denbora da gaixotasun guztientzako erremedioa eta, pixkanaka, heriotzaren aurkako nire eguneroko borrokan, konturatu nintzen umorea eta ironia izan zitezkeela oso aliatu onak. Adibide bat emango dizut. Zuek badakizue ni eutanasiaren alde nagoela eta, orduan, zer hobe arazo horri aurre egitea umorearekin baino? Poema hau idatzi nuen nire osasuna oraingoa baino hobea zenean:

*Printzesa urrun baten izena duzu, Eutanasia,
baina nik hurbilago nahi zintuzket, maite-maite baitzaitut,
eta ez baitut burutik baztertzen
zu neure egitea noizbait,
edo ni zeure, hobeki...
Zu, Eutanasia, ene azken orduko esperantza;
zu, ene azken hatsa;
zu, ene Buda errukibera;
zu, ene balizko sufrimenduen aringarri;
zu, ene maitaleen maitale.
Barkatu atrebentzia,
hurrengoan Eutanaxi deitzen badizut...».*

Dozena erditik gora liburu argitaratu zituen olerki arloan eta batzuetan nahiko arriskatuta gainera. Izan ere, soneto deituriko egitura arrotz eta zail samarra da euskaraz lantzeko, gutxienez beste hizkuntza batzuen ezaugarriak kontuan hartzen baditugu. Joan Marik aurrera egin zuen eta hortxe daukagu, esate baterako, bere *Biziminaren sonetoak* deituriko liburua, berrogeita hamabi sonetoz osotua, egitura eta arau estilistikoak zintzo eta egoki errespetatuz.

Ez naiz ni orain hemen heran sonetoak errezitatzen hasiko, baina uztazue sikiera horietako batetik azken lerroak irakurtzen:

*Libertatea su bat da, beharbada,
zeina hedatzen den haizearen hatsaz,
eta amets bat da deus baino gehiago.
Libertatea ez omen den lurra da,
eta, halatan, deus ere ez da ausaz,
zeren beti baita lur bat haratago.*

Joan Marik beti begiratzeko zuen aurrera bizitzan, bazekien ekinez gainditzen dela ezina. Bere hitzekin esateko: «Amets batek uzten ez bahau, guztia arriskatu beharra duk ametsaren alde. Eta ba al dakik zer den libertatea? Guztiek baietz esaten duten tokian, ezetz esateko eskubidea».

Lur bat haratago jarri zion izenburu bere nobela handi, trinko eta sendoenari. Eleberri honetan maiz aipatzen da, sarri aipatzen dute pertsonaiek «Ararat» hitza. Zer da «Ararat»? Bada, protagonistak eta beronen osabak duten hitz sekretu eta magikoa. Halaxe esplikatzeko zaio irakurleari: «Mugaz bertaldez toki bat zegoen, zeinak izen bat baitzuen, osaba eta bion mintzaira sekretuan: *Ararat*. Halaxe erraten nion nik, hark bakarrik aditzeko moduan: *Ararat*, osaba, *Ararat!* Bai, *Ararat!* Egin dezagun urrats bat aitzina, *Ararat* mendia urrats bat hurbilago izan dezagun».

Imajinatu nahi dut orain, Joan Marik utzi gaituenean, iritsi dela azkenik «Ararat» horretara, lur bat haratago dagoela, guri begira. Eta halako batean, bere begi zorrotz horiek estutu eta eguzki antzeko irribarre handienarekin, hasten zaigula esaten: «Aizue, ez kezkatu gehiegi, ni hemen nago orain, lur bat haratago, zuei begira. Zuen zain nago, badakit hona etorriko zarete, baina lasai egon, ez izan inolako presarik, eta, bitartean, ondo bizi!».

Eskerrik asko.

Joxemari Iturralde

In memoriam

Joseba Intxausti Rekondo (Segura, 1936 - Donostia, 2023)

—Paulo Agirrebaltzategi—

Behin baino gehiagotan egokitu zait Joseba Intxaustiren omenezko hitzaldia egitea, hura bizi zela; lehenbizikoz orain dela ia hogeitun urte—2005ean—, Mendebaldeko taldeak Bilbon egin zion omenaldian. Hil ondorengo oroitzapenezko artikulu biobibliografikoa ere idatzi behar izan dut *Arantzazu* eta *Karmel* aldizkarietan. Hala ere, zalantzarik ez nuen eduki Euskaltzaindiatik eskatu zidatenean gaurko hilberri-txosten hau aurkezteko. Ohoretzat hartu dut. Mila esker.

Bere ohartxo zorrotz eta guzti bidali ohi digu gure Erramun idazkariak horrelako txostena egiteko eskaria: ez dadila izan hitzaldi akademiko hotza; hurbileko testigutza pertsonal beroago eta arinagoaren doinua emateko, alegia. Joseba Intxaustirenean errazago daukat eginkizuna, beraren bibliografia osoa eta idatzi guztiak eskura baitaude *Jakinen* atari digitalean, eta biografiari dagokionez, hainbat lekutan agertu baitira haren bizitzako ibilbidearen eta lanen berriak; gainera, bere bizitzari buruz utzitako aitorpen biografiko luzeak aurki daitezke *Jakin* atari digitalean bertan, Imanol Muruak egindako elkarrizketan eta Lorea Agirrerenean¹.

Nire aurretik ibili zen Joseba gure fraide-ikasketa urteetan (*Arantzazu*, *Forua*, *Erriberri*, *Arantzazu*), eta ez nuen ezagutu urte haietan, entzutez besterik ez, eta agian haren idatziren bat irakurri *Jakin* aldizkarian. Gero Bartzelonara aldatu zen

¹ Beste bi elkarrizketa behintzat badira argitaratuak, Josebaren biografia eta obra jorratu dutenak: Arantxa Iturbe, «Joseba Intxausti, mende laurdena euskal nortasunaren bila» (*Hegats* 31, 2002); eta Miel A. Elustondo, «Joseba Intxausti: “Mirari bat da garai batetik hona Euskal Herrian gertatu dena”» (*Argia*, 2005eko maiatzak 1).

bera, Historia ikasketak egitera (1964) eta ni Erromara (1966). Atzerriko ikasketok amaitu ondoren ezagutu genuen elkar, 1970. urtean. Bera Arantzazura itzulia zen, irakasle. Jakin talde sakabanatua berriz osatzeko —Joxe Azurmendi Alemanian zen, Joan Mari Torrealдай Frantzian, eta besteak beren aldetik—, eta bi urte debekupean zeramatzan *Jakin* aldizkaria berriro bideratzeko eginkizuna eman zioten gainera. Gogoz hartu zuen Josebak «agindua». Ni neu ere 1970ean itzulia nintzen, Erromatik, eta Zarautzen niharduen irakasle; hara bidali zidan mezua, ea Jakin talde berrituan parte hartzeko gertu al nengoen, eta bere bisita agindu zidan, zuka idatzitako gutunean: «Egingo dizut ikustalditxo bat laster eta hitz egingo dugu». Hortik hasi zen bion arteko lankidetzaren historia, 50 urte luzetan iraun duena.

1. Josebaren ibilbide biografiakoa

1936an jaio zen Seguran, Gipuzkoan. Hamabi urterekin (1948) Arantzazun (Oñati) hasi zituen Humanitate ikasketak fraide apaizetarako, eta Foruan jarraitu. 1955etik 1958ra bitartean, ikastaroak Erriberrin eman zituen, Filosofia ikasketak egiten; *Gure Izarra* barne-aldizkariaren zuzendaria (1957-1958) izan zen bertan. Ondorengo lau urteak (1958-1962) Arantzazun eman zituen, Teologia ikasketak egiten; eta bertan jardun zen, aldi berean, *Jakin* aldizkariaren zuzendari eta bertako taldearen eta kanpoko lankideen koordinatzaile 1959-1962. urte bitartean.

Apaiztu ondoren, Foruko mutil fraidegaiei irakatsi zien *literatura castellana* eta euskal literatura bi urtez (1962-1964). Ondoren Bartzelonara aldatu zen Historia Moderno eta Garaikide ikasketak egitera unibertsitatean; eta horiek bukatuta, urte betez (1969-1970) bertan jardun zen Historia irakasle. 1970ean Arantzazura itzulita, Teologia ikasleei Elizaren Historia irakatsi zien lau urtean (1970-1974).

1970etik aurrera Euskal Herrian aritu zen, Jakin taldearen barruan: horren antolatzaile, buru eta proiektu editorialen kudeatzaile urteetan, eta erredakzio-taldeko gero, aldizkariaren zuzendaritza berriak «Jakin talde historikoarena» asmatu zuen arte (2014), «Ohorezko kide» titulua emanez ordura arteko erredakzioko lau lagunei.

1978tik aurrera Donostian bizi izan zen. 1993an ezkondu zen Hélène Handalianekin.

2023ko abuztuaren 18an hil zitzaigun.

Irakasle, hizlari, ikertzaile, idazle, editore eta dibulgatzaile: hori dena izan zen Joseba; eta (baina) aldi berean euskararen eta euskal kulturaren alorreko hainbat egitasmo kolektiboren asmatzaile eta forma-emaile, eta sarritan antolatzaile eta kudeatzaile, ere izan zen. —Alfabetatze-lanetan ere jardun zen: Bartzelonan, Valladoliden, Arantzazun, Tolosan—. Historialari ikertzailearen grina eta proiektu sozialen zuzentzailearen sena, biak lotu zituen bere bizitzan.

Haren idatziak digitalizatuta eskaintzen dituen *Jakin* atariko kontaketa-aren arabera, 512 idazlan daude bertan jasota: 37 liburu, 103 liburu-zati. 371 artikulua (12.000 orrialde denetara). Kultur ekimen sozialetako batzuk aipatzearren, berriz, honako hauek azpimarratuko nituzke, *Jakin* aldizkariaren eta edizioen zuzendaritzaz gain: *Anaitasuna* aldizkaria berregituratu eta zuzendu zuen (1972-1974); UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) eraiki eta zuzendu zuen (1977-1982); UEUren lehen urteetako zuzendaritzan (1973-1975?) eta gero bertako Historia sailekoan jardun zen; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) argitaratu ohi duen Bidegileak bildumaren lehen zuzendaria izan zen (1989-1991); EUSENOR Euskal Entziklopedia proiektuaren sustapen sozioinstituzionalaren eginkizuna bete zuen (1991-1992); Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioko idazkari nagusia izan zen, bertatik hainbat ekimen eta obra sustatuz: Euskal Erlijioso-ordena eta Kongregazioen Kongresua, Arantzazu Santutegiaren xx. mendeko historia eta abar. Eta azkenik, Joanes Etxeberri Institutuaren sortzaile eta zuzendaria izan zen (2017-2014), Euskaltzaindiaren babespean².

Ez dakit zein erdal erakunderi eskuraturiko beronen curriculumean, honetara definitu zuen Josebak bere burua: «Su perfil puede resumirse como la de un historiador, promotor-director de iniciativas sociales de normalización de la lengua e investigador de su pasado, en orden a la toma de conciencia de la dimensión sociopolítica del idioma».

2. Joseba eta Euskaltzaindia: Euskararen Historia Soziala (EHS) institutua

1961ean euskaltzain urgazle, eta 2004an euskaltzain ohorezko izendatu zuen Euskaltzaindiak Joseba Intxausti. Hirurogei urtean harreman estua eta lankidetzaz

² Horri dagokionez, aipatzekoa da, Joseba Intxausti idazkariaren eraginez sinatu zuela Kulturaren aldeko Euskal Fundazioak lankidetzaz-hitzarmena Euskaltzaindiarekin 2013an.

oparoa bete zuen Euskaltzaindiaren babesean. 2009an-edo osaturiko curriculumean Euskaltzaindiaren baitan betetako honako lanak aipatu zituen berak:

- 1962: Arantzazuko Biltzarrean komunikazioa (ik. *Euskera* aldizkaria);
- 1971-1973: Aditz Laguntzailearen Batzordekoa.
- 1975-1976: Gipuzkoako Ordezkaritzaren arduraduna.
- 1977: Aditz Sintetikoaren Batzordekoa.
- 1978: Bergarako Biltzarrean Batzorde orokor eta koordinatzailekoa (Soziologia eta Estatistika Batzordeko idazkaria).
- 1991: Nazioarteko Dialektologia Biltzarrean prentsa-bulegoko zuzendaria (Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza).
- 2007-2009: Euskaltzaindiako Joanes Etxeberri Egitasmoaren proiektua eta berorren zuzendaritza.

Zalantzarik gabe, azken hau izan zuen Josebak Euskaltzaindiarekin betetako lankidetzaproiektu nagusia, 2014ra arte luzatu zena.

Euskara kultura modernora jasotzea eta euskararen batasuna izan ziren Joseba Intxaustiren kezka nagusiak *Jakin* aldizkariaren lehen faseko zuzendari-eta idazle-lanean, 1968an debekatu zuten arte. 1969rik aurrera, berriz, Historia ikastetik eta historialariaren bokazioarekin zetorren Bartzelonatik, eta hizkuntzen eta euskararen kontuak ere ikuspegi historiko eta sozialetik ikusten hasi zen bereziki. Euskaltzaindiak berak badu erantzukizunik, hizkuntzen eta euskararen historia sozialaren eremura lerratzean Intxausti. 1975ean Euskararen Liburu Zuria proiektua bideratu zuen Euskaltzaindiak; horren lehen atala —«Hizkuntzaren giza ikuspegia, kulturala eta politikoa»— lantzea *Jakin* taldeari eskatu zion. Baiezkoa eman zuen *Jakin* taldeak³. Hiru lagunen artean banatu zuen, hiru ikuspegien arabera: linguistikoa batek, antropologikoa bigarrenak; ikuspegi politikoa hartu zuen Josebak bere gain. Uste dudanez, horixe izan zuen Josebak hizkuntzaren historia sozialeko bere lehen idazlana⁴.

³ Urte hartan taldekideen bidaia antolatu zuen *Jakin* taldeak, Erroman eta Italian zehar, beretako batek Erroman doktore-tesia aurkezten zuela eta. Gogoan dut, nola Piazza Spagnako eskailera famatuetan eserita egin genuen bat-bateko bilera, Euskararen Liburu Zurian parte hartzeko Euskaltzaindiatik etorria zitzaigun partaidetza-eskabidea aztertu eta erabakitzeko.

⁴ Euskaltzaindiarentzat idatzitako bere curriculum laburrean, hauxe dio: «1975ean hasita, arreta berezia jarri du Hizkuntzen Historia Soziala aztertzen, eta Euskararena batik bat».

Ildo horretatik bideratu zituen handik aurrera Intxaustik euskararen eta beste hizkuntzen bere azterketa- eta dibulgazio-lan gehienak⁵. Hainbat ikerketa-artikulu mardul argitaratu zuen ondorengo 30 urteetan euskararen eta bestelako hizkuntzen historia soziopolitikoari buruz, euskaraz nahiz gaztelaniaz; RIEV, *Boletín Sancho el Sabio*, *Euskera* eta *Jakin* aldizkarietan argitaratuak batez ere. Horietako batzuen tituluak dakartzat hona, adibide soiltzat: «Abertzaletasun Katalana eta Hizkuntza» (1978), «Linguistika eta Herrigintza Katalunian» (1979), «Euskararen kontzientzia eta eskea, XVI-XIX. mendeetan» (1985), «El Euskara: de su mito a la conciencia nacional» (1985), «Elizarrak eta euskal kultura, hizkuntz historia sozialaren argitan» (1987), «Iraultza Frantsesa eta hizkuntzak» (1989), «Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)» (1998), «Políticas lingüísticas del siglo XVIII borbónico» (1999), «Euskararen erabilpen-debeku eta arauak lehen gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)» (2000), «Eliza katoliko erromatarra eta euskara» (2004), «Lenguas: entre mitos, ideologías y ciencia. El caso del euskera (siglos XVI-XIX)» (2007).

Definitua zuen bere ikerketa-lan ildo nagusia: «hizkuntzaren historia soziala», alegia, euskararena bereziki. 2007an, apirilaren 21ean aurkeztu zuen, hain zuzen, Euskararen Historia Soziala (EHS) institutuaren egitasmoa, Euskaltzaindiak Etxalarren antolaturiko osoko bileran. Bertan onartu zuen hori Erakundeak. *Euskera* aldizkarian (LII, 2007: 239-267) ikus daiteke Josebak aurkezturiko 29 orrialdeko txostena. Hasieratik Andoni Sagarnaren eta Mikel Zalbideren lankidetzako oso baliotsua eduki zuen, Institutua bideratzeko. Horren zuzendari jardun zuen 2013ra arte, Euskaltzaindiari dimisioa aurkeztu zion arte, lehendakariari zuzendutako gutunean; eskerrak eman zizkion, berarengan jarritako konfiantzagatik eta eskura ipinitako baliabideengatik. Institutuko aholkulari jarraitu zuen handik aurrera.

Institutuaren babespean argitaratu zuen oinarritzko liburutzat *Euskararen historia soziala (HS)*. *Argibide bibliografikoa* liburu mardula (2011). Eta gero hiru tomotan bildu zituen lehendik argitaraturiko bere idazlan garrantzizkoenak, *Euskara eta hizkuntzak*, gizartearen titulupean: I. *Aitorpenak eta ekinbideak* (Euskaltzaindia, 2014: 402), II. *Jarrerak. Politikak, Pedagogiak* (Euskaltzaindia, 2014: 339), III. *Erljioak. Eliza kristauak* (Euskaltzaindia, 2014: 399).

Hirurogei urtez euskaltzain (urgazle eta ohorezko) izan zen Joseba Intxaustik

⁵ Gogoan dut, nola jardun zuen urte haietan Kataluniako zenbait egunkaritarako artikuluak, katalanari buruzkoak, biltzen eta pilatzen, gero bere azterketetarako erabiliko zituenak.

Euskaltzaindiari itzulitako opari nagusia hauxe izan zen zalantzarik gabe: Joanes Etxeberri Institutua eta bertan argitaratutako lau tomook.

3. Euskalgintzako proiektugilea eta kudeatzailea

EHS institutua asmatu eta bideratu aurretik, euskalgintzako eta euskal kulturgintzako beste hainbat egitasmo asmatu, diseinatu eta kudeatu zuen Joseba Intxaustik: batzuk arnasa luzekoak, beste batzuk puntualagoak, denak pisu adierazgarrikoak. Egitasmo berriak lantzeko makina modukoa zen Joseba, izan ere: bat bideratuta besteren bat bururatzen zitzaion jarraian. Horietako batzuk aipatuta daude gorago. Horien eta beste zenbaiten berri laburra doa jarraian:

— JAKIN

Aldizkariaren sorreran ez zen egon Joseba 1956an Arantzazu, garai hartan Erriberri bizi baitzen. Baina Arantzazura iritsi orduko (1958) sartu zuten taldean; eta horren gidaria eta aldizkariaren zuzendaria izan zen 1959-1962. urteetan. Unibertsitateko ikasketak burutu eta Euskal Herrira itzulita (1970), bi urte lehenagotik debekatuta zegoen *Jakin* aldizkaria berreskuratzeko eta Jakin taldea, sakabanatuta zegoena, berrantolatzeke eginkizuna hartu zuen. Horretan jardun zen buru-belarri ondorengo urteetan, ikuspegi luzeko liburu-edizio proiektua landu eta zuzentzearekin batera⁶. Taldea osatuta eta lanean jarrita, eta aldizkaria berriro bideraturik (1976), UZEI eta bestelako proiektuetan ipini zituen bere sormen eta kemen handienak, Jakin taldean bermatuta beti, taldeko lankide lehiatsu bera. Aldizkariaren zuzendaritzako eta erredaktore jarraitu zuen, 2014an talde gaztearen eskutara aldatu zuten arte hori.

— Anaitasuna ALDIZKARIA

Bilbon argitaratzen zuten aldizkariaren krisialdietako batean Jakinen laguntza eskatu zuten arduradunek, eta Josebak hartu zuen bere gain horren finantzabideak

⁶ 1973ko udan bilera zabala antolatu zuen Jakin taldeak Donapaleun, euskarazko liburuen bere edizio-ildoak eta egitaraua aztertzeko. Taldekoez gain, euskal kulturako beste hainbat lagunek hartu zuen bertan parte: Manex Erdozaintzik, Joseba Arregik, Antoni Sagarnak, Joseba Irazuk, Martzel Etchehandik, Lontxo Oñartabalek, Jerman Kortabarriak, Santos Belokik, Gurutz Larrañagak eta abarrek. Bertatik atera zen bereziki Hiztegi Tekniko Berezituen egitasmo ugaria, *Natur zientzietako hiztegiarekin* (Jakin, 1976) abiatu zena, eta gero UZEIren plangintzan sartu zena.

eta erredakzioa berrantolatzeke ardura, eta aldizkariaren zuzendari jardun zuen bi urtez (1973-1974); ondoren, Joan Mari Torrealdaireren eskutik ipini zuen zuzendaritza.

— UEU (UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA)

Euskal Unibertsitate euskarazkoaren ametsa aspaldikoa zuen Joseba Intxaustik, goian aipaturiko 1962ko Euskaltzaleen Biltzarrean emandako komunikazioan ere agerian jarri zuena. Horretara bideratuta zihoazen, besteak beste, *Jakin* aldizkaria bera eta horretatik bultzatu nahi izan zuten euskara landua, kultura modernorako egokitua eta batua⁷. Baionako udako euskal ikastaroen ondorioz, 1973an Udako Euskal Unibertsitatea bideratzeko zuzendaritzan jardun zen Joseba lehen urteetan; eta gero UEUko Historia Saileko arduradun. Aurretik aritua zen Bartzelona Unibertsitateko euskal ikasleen mugimenduan, bereziki horien alfabetatze-lanetan. Arantzazun zuzendu zuen 1973-1974. urteetan Unibertsitateko arteko ikasleen Euskarazko Mintegia; eta 1974-1976. urte bitartean hainbat hitzaldi eskaini zien unibertsitateko talde euskaldun saiatuei: Bartzelonan, Deustun, Valladoliden.

— UZEI (UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA)

Jakin taldeak programatua eta bideratua zuen euskal hiztegi tekniko-berezituen egitasmo itzal handikoa, alor bakoitzeko adituak eta hizkuntzalariak lankidetzan jarri nahi zituen. Guztien aurrekari argitaratua zuen *Natur zientzietako hiztegia*, Arantzadi taldekoekin eskuz esku. Baina egitasmoaren jomuga handiak Jakin taldearen ahalbideak gauditu egiten zituela ikusirik, beste erakunde bat sortzea erabaki zuen. Joseba Intxaustik hartu zuen horren gidaritza. UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) izenarekin eraikitako kultur enpresa 1977an jarri zen lanean, hainbat langile profesionalekin. Josebak zuzendu eta kudeatu zuen hori zazpi urtean, 1984ra arte. Bizirik eta lanean jarraitzen du enpresak.

— *Euskal Herria* ENTZIKLOPEDIA

Orduko Lankide Aurrezkiarekin lankidetzan *Euskal Herria* obra kolektiboaren

⁷ «Euskararen kultura bide bat» zuen gaia komunikazioak (*Euskera* VII, 1962: 309-314). Honetara amaitu zuen bere solasa: «Asko gera Euskalerrian Unibersidade baten gosez gaudenak, aunitz ori ba-dugula ta ez dugula intzirika gabiltzanok; baiña legez orrelakorik iritxiko bagenu, ez dakit gauden bezela ezer aundirik egiterik izango genuen: batetik euskalzale jakintsu gutxi ditugulako ta bestetik izkuntza bera oraindik eskas samar daukagulako». 1959an *Jakin* aldizkarian argitaratu zuen «Illobira bultzaka» idazlana (*Jakin* 9, 1959: 83-88) oihartzun handikoa izan zen, gordinki ipintzen zuelako mahai gainean euskara kultura modernorako egokitu beharra, eta horretarako irizpideak markatu.

plangintza zabala egin eta obra zuzendu zuen 1984-1985. urteetan, bi tomo marduletan argitaratua (Jakín eta Caja Laboral, 1985: 1223). Benetako entziklopedia tematikoa da, Euskal Herriaren joana eta oraina alde guztietatik aztertzen duena. 110tik gora adituk hartu zuen parte bertan.

— EHIH (EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN HISTORIA)

Ikastolen Artxibo Historikoaren egitasmoa landu zuen eta bideratu 1990-1991. urteetan. Horri begira eta horren inguruan argitaratu zuen *Historia baten bila. Euskal eskolaren iraganaz. EHIHren Proiektua* (1990) liburua (Irargi 1991).

— BIDE GILEAK BILDUMA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren (HPIN) babespean 1991n sortu eta hasitako liburu-bilduma izan da Bidegileak, euskalgintzan (euskararekiko pentsamenduan eta horren historian) bereziki seinalaturiko bide-urratzaileen biografia laburrak argitaratzeko. Joseba Intxaustik diseinatu zuen hori eta berak zuzendu zituen bildumako lehen hamahiru koadernoak (1991-1994) —Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan zen gainera bera, 1988tik 1992ra bitartean—.

— EUSKAL HITZ ETA EUSKARA DENONA ERAKUSKETAK

Euskararen historia gizarteratzeko eta erakusteko egitasmoak izan ziren horiek: 1) Euskal Hitz (1987), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eraturiko erakusketa ibiltaria⁸; 2) Euskara Denona (I eta II, 1989 eta 1992) erakusketak, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eraturikoak. Zuzendariaren eta koordinatzailearen eginkizunak bete zituen Josebak erakusketetan. Era berean, HPINek Ekin Euskarari izeneko hizkuntza-normalizazioari buruzko erakusketako aholkulari jardun zuen, eta horrako testuak idatzi (1991). Erakusketen lagungarritzat euskararen historiari buruzko zenbait liburuxka ere eman zuen argitara. Ordukoa du, era berean, *Euskara, euskaldunon hizkuntza* liburua ere, euskararen historia sozial orokorra (gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera ere itzulita).

⁸ 69 erakustaldi izan omen zituen, eta 150.000 bisitari.

— EUSENOR (EUSKAL ENTZIKLOPEDIA OROKORRA)

1991-1992. urteetan, Euskal Entziklopedia Orokorra proiektuan sustapen sozioinstituzionalaren arduradun izan zen.

— KULTURARAKO EUSKAL FUNDAZIOA

Joan Zelaia enpresariak sorturiko Kulturarako Euskal Fundazioko idazkaria izan zen Joseba Intxausti, sorreratik bertatik (1994). Musika eta literatura alorretako hainbat beka eta laguntza banatu zuen bertatik. Horren baitan landu zuen Basque People egitasmoa ere, euskal kulturaren eta bereziki euskal erlijio-historiaren berriak zabaltzeko Interneteko ataria. Bideratu gabe geratu zen hori, zoritxarrez.

— OBRA KOLEKTIBOAK

Aipaturiko *Euskal Herria* entziklopediaz gain, bestelako obra kolektibo hainbaten diseinatzaile eta zuzendari izan zen Joseba Intxausti. Horietako bi aipatu nahi ditut hemen:

1) Euskal Herriko Erlijioso-ordena eta Kongregazioen Kongresua (2000); *Euskal Herriko erlijiosoen historia. Familia eta Institutu Erlijiosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresuko aktak* titulupean argitaratuta daude bertako hitzaldiak (Arantzazu, 2004, I eta II).

2) Arantzazuko santutegiaren xx. mendeko historiari buruzko idazlanen bilduma, Arantzazuko fraideek beraiek eta beste hainbat lagunek landua; horien edizio laburtua *Arantzazu. Euskal santutegi bat xx. mendean* tituluarekin argitaratuta dago (Arantzazu, 2001). Idazlan osoen bilduma Arantzazuko artxiboan aurki daiteke: *Arantzazu. Ikerlanak eta saiakerak xx. mendeko historiaren* izeneko liburuki mardulean bilduta (2005).

4. Euskal Herriko erlijio-historialaria

Esparru historiko-soziolinguistikoa egindako ikerlanen parean, Euskal Herriko historia erlijiosoa azertu izan du Intxaustik ardura bereziz. Kezka apartekoa zuen, gure unibertsitateko ikerlarien aldetik Euskal Herriaren erlijio-historiaren gaia erdi baztertuta ikusten zuelako. Horri eskaini zion bere ahaleginik handienetakoa; eta mota ezberdinetakoa liburu eta idazlan ugariak eman zituen argitara,

arestian aipaturikoez gain: Jakinen katalogoaren arabera, 29 idazlan (liburu eta artikulu) ditu euskal Elizaren historiari buruzkoak, eta 62, euskal erlijioso-institutuei buruzkoak. EHko erlijio-historiaren barruan, ordea, gogokoen frantziskotarren historia (14 idazlan)⁹ eta Arantzazurena (29 idazlan) izan zituen. Bere azterlanetan beti zaindu izan du Intxaustik Euskal Herri osoaren ikuspegia (Ipar eta Hego). Bereziki adierazgarriak dira bi estatistika-lan, XIX. mendeko esklaustrazioaren ondoren, Euskal Herri osotik bi erlijioso-ordena hauetara egindako «ekarpen pertsonalari» buruzkoak: «Jesulagunak» (Karmel 2012) eta «Frantziskotarrak» (argitaragabea). Bestalde, azpimarratzekoa da Intxaustiren ikuspegi eta sentiberatasun soziala erlijioaren eta fenomeno erlijiozkoen ikerketa- eta dibulgazio-lanetan, ingurune sozialean kokatuz erlijiozko gertakariak¹⁰.

Hona hemen esparru horretako Intxaustiren liburuen tituluak, gorago aipaturiko obra kolektiboetako beraren lankidetzaz gain: *Euskal historialariak eta frantziskotarrak*. Azterketa historiografikoa, (1998); *Gure herriko frantziskotarrak*. Herrietako historia garaikidea (1791-2000), (2002); *El claustro vasco (1875-2000)*. *Ensayo sobre la historia contemporánea de los institutos religiosos en Euskal Herria* (2005).

Aldizkarietan eman zizkigun, ordea, euskal erlijiotasunari eta erlijiosoei buruzko idazlan ugari: *Karmel*, *Hemen* eta batez ere *Arantzazu* aldizkarietan. Azken honetan urte askotan bete zuen bere hileroko saila, euskal Elizan eta gizartean erlijioso-institutu hainbatek izandako presentziaren eta eraginaren buruzko historia laburrak eskainiz, gure Herrian kristautasunak eta bestelako erlijioek bete izan duten lekuari buruzkoekin batera.

Biografiaren edo azalpen biografikoen alorrean ere jarduna da Intxausti, eta horrela emanak dizkigu pertsonaia hauen berri biobibliografikoak: Luis Astigarraga, Piarres Lafitte, Joanes Huarte Donibanekoa, Pierre Villar, Edith Stein, Jokin Zaitegi eta bere *Eusko Gogo* aldizkariarenak. Alor horretan bereziki aipatzekoa

⁹ Liburu sail berezi baten izena ere asmatu zuen argitaletxearekin batera, Euskal Herriko frantziskotarren historia landuko zuten liburuena: «Franciscalia Vasconica».

¹⁰ UZEIn landu eta argitaraturiko *Gizadiaren historia mendez mende* izeneko historia unibertsaleko hiru eskola-liburuez gain, Josebak badu landu eta argitaraturiko Euskal Herriko historia lokala jorratzen duenik ere: Iraultza Frantsesa Ipar Euskal Herrian, Segura bere jaioterria, Donostiako Egia auzoa, Zarauzko Langintza eskola, etab. Gera batez horrelakoak hemengo aipamen hutsarekin. Argitara gabeko lanen artean utzia du Armeniaren historia laburra ere, euskaraz idatzia; mereziko luke argitara ematea. Bihotz-bihotzean zeraman Josebak Armenia herria, eta horren historia katramilatua, baina antzinatek hain aberatsa kultura aldetik.

eta aupatzekoena, berriz, beraren azken obra dugu, sakona bezain atsegina, urte luzeetan eta maitasun handiz aztertu eta landutako San Frantzisko Asiskoaren biografia kritikoa, hari buruzko azken garaioetako ikerketen emaitzak jasotzen dituen, eta irakurle kezkatuarentzat iradokizun bibliografiko estimagarriak eskaintzen dituen: *Asisko Frantzisko* (Arantzazu, 2018).

Horrekin utziko dugu, bada, Joseba Intxaustiren azalpen biobibliografiko labur hau.

Paulo Agirrebaltzategi

In memoriam

Mixel Oronoz Tricot
(Baigorri, 1935 - Baiona, 2023)

—Peio Jorajuria—

Mixel Oronoz Tricot ohorezko euskaltzainak utzi gaitu iragan irailaren 22an, Kanbon, 88 urtetan, minbiziak eramanik. Baigorriin sortua zen 1935eko abuztuaren 23an. Bizian zehar ibilbide aski atipikoa eraman zuen. Uztaritzeko seminario txikian hasi zituen apez izateko ikasketak. Irakasleetan, bazuen bat eragin handia ukan zuena baigorriar gaztearen etorkizunerako, hura zen Piarres Lafitte, 1948tik aitzina greziera irakasle ukan zuena. Eta Mixel Oronozek berak aitortu zuen, Piarres Lafittek begiak ireki zizkiola, eta hari bezala beste lagun askori ere, euskal hizkuntza eta kulturaren aitzinean. Etienne Salaberri heletar filosofoa ere ukan zuen irakasle Uztaritzen. Ondotik Baionako seminario handian segitu zuen apez-ikasketak egiten eta 1960ko ekainean apeztu zen.

Lehen batean, filosofia ikasketak nahi izan zituen egin baina apezpikuak ez zion horrelakorik baimendu. Ondorioz, Piarres Xarritonek aldeturik, Hazparneko San Josep lizeoan egon zen frantses irakasle, bai eta ikasleen zaindari. Urte baten buruan, haatik, Boli Kostako bidea hartu zuen, Baionako diozesaren kontuko misiolari edo *fidei donum* gisa. Sei urte iragan zituen han, Gagnoako eskualdean, hots Boli Kosta erdialdean. «Parabisua izan zen enetzat», du geroztik aitortua, lotura estuak atxikirik bizi guzian hangotar batzuekin.

Handik itzultzean, 1969an, Baionako katedraleko bikario izendatua izan zen, baina kargu hori ez zuen batere gustukoa eta laster handik «iheska bezala» —bere hitzak dira— joan zen eta Roger Etxegarai ezpeletarrak, kardinal izango zenak, aholkatu zion Flandriako Lovainako unibertsitatara teologia ikastera joatea. Hiru urte iragan zituen han eta bukaeran tesia aurkeztu zuen, Bernard Besret

bretoi teologoaren ekarpen ausartaz. Elizak geroago kanporatu zuen teologoa da, katolizismoaren dogmak ukatzen zituelako. Tesi-gai horren hautua Mixel Oronozengandik, ez zen kasualitatea izan, ostean ikusiko dugun bezala. Orduz geroztik, Mixel Oronoz Lovainako apez-elkargoari lotua egon zen erretreta hartu arte, eta ez gehiago Baionako diozesari. Eta osoki bizi izan zen bere lanaren soldatatik.

1972tik aitzina, gazteen irakasle, helduen formatzaile eta langabetuen laguntzaile aritu zen lanean, Turkian zenbait urtez, Istanbulen, ondotik Bordele aldean, Lormont hirian, eta hondarrik Baionan, 1990eko hamarkada erditsutan jubilatuta zen artio.

Berehala buru-belarri engaiatu zen euskararen eta euskal kulturaren alde. Egia erranik, lehenagotik ere hasia zen euskalgintzaren sostengu-lanetan. Hala nola *Herria* astekariaren zerbitzuko, berezikiago administratzaile gisa, Jean Haritxelhar eta Emile Larre herrikideen ondoan, 2023ko udaberria arte atxiki zuen kargua. Eta urte batzuek marrazkilari bezala ere aritu zen kazeta horretan, Kilika izengoitiaz. Marrazkilari fina zen, nahiz Emile Larrek egun batez erran zion: «Hire marrazkiak biziki politak dituk baina nehork ez ditik konprenitzen!».

Lauburu elkartearen ibili zen, Claude Labat, Mikel Duvert, Martzel Etxehandi eta beste batzuen ondoan, Euskal Herriko arkitektura, historia eta ondarearen begiratzearen alde lan eginez. Seaska, AEK, Euskal Hedabideak eta beste egitura asko aterpetzen dituen Euskal Konfederazioan ere jardun zuen hogeitaz, horietan hamabi lehendakaritzan, euskararen sustapen- eta zaintza-lanetan, euskararen ofizialtasuna etengabe aldarrikatuz. Euskal Herriko Giza Eskubideen Babes Batzordeko partaide ere izan zen, berezikiago egitura horretako *Jakilea* aldizkarian artikulu franko idatziz. Bertze egitura asko ere sostengatu zituen, Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta beste.

Bazuen beste talenturik ere. Musikari ona zen, hala nola organo-jole aparta. Baigorriko organoaren berritzea sustatu zuen eta ondotik kasik igande oroz organoa jotzen zuen. Eta Baxenabarreko Musikaaldiaren sortzaileetariko bat ere izan zen. Artetik, bidaiaz ere ibili zen munduan zehar, Boli Kostan, Quebecen, Txinan eta beste. Kepa Altonaga bizkaitar ikertzaileak hauxe du idatzia *Armand David pandaren aita* (Elhuyar, 2001) liburuan: «Mixel Oronozek Moupin printzerria Armand Daviden arrastoan egindako ibilaldiaren xarma neureganatu zidan».

Erran dut marrazkilari fin eta musikari ona zela; eta idazle ere genuen Mixel Oronoz.

Hamahiru liburu baditu argitaraturik, gehienak haatik frantsesez, biga halere euskaraz: *Oilandoiko ermita* (Elkar, 2001) eta *Deklinabide Baigorri* (Zortziko, 2011). Horiek denak aitzin, euskal ikasketei jarraiki eta Jean Haritxelharren zuzendaritzapean aurkeztu zuen tesi bat Bordeleko Montaigne Unibertsitatean, 1983an. Tesi horren gaia zuen *Erlisioezko informazioa Ipar Euskal Herriko aldizkarietan 1965-1977*, tesirako elementuak *Herria* astekaritik harturik nagusiki. Epaimahaian zeuden, Jacques Allières Tolosako unibertsitateko irakaslea, Piarres Lafitte *Herriaren* zuzendaria, Jean Pouyet saratarra, Bordeleko unibertsitatean zientzia irakasle zena, bai eta Koldo Mitxelena ere. Oronoz aski kritiko agertu zen *Herria* kazetak informazio batzuk agertu zituen moldeez. Eta horrek Piarres Lafitte sumindu zuen, baizik eta *Herriaren* auzia egiten zuela hor. Beharrik hor zen Jean Haritxelhar, Mixelen defentsa hartzeko eta egoera baketzeko, erranez ohore bat zela *Herriarentzat* Mixel Oronozek horrelako lan baten plazaratzea. «Zimendu eta finezia handiko lana da, han edo hemen lumak xorrotx aire bat erakutsirik ere», erran zuen Haritxelharrek. Oronen buru, tesiaren balioa gainez gain onartua izan zitzaion eta Lafittekilako eztabaida denborarekin eztitu zen.

Baigorri joan den azaroan Jean Haritxelhar zenari egin zitzaion omenaldian, haren heriotzaren hamar urteen karietara, aipatu nuen Jean Haritxelharren eta Mixel Oronozen arteko konplizitate handia. Bien arteko adiskidantzak erro urrunak bazituen. Mixel Oronozen arbasoetarik bat Josep Tricot zen, bretoia, mugazain gisa Euskal Herrira etorria. Jean Haritxelharrek ere bazuen arbaso bat mugazain zegoena, Martzelin Haritxelhar. 1809ko gau batez, bi mugazainak Arnegin zeudelarik guardan, kontrabandista batzuek tirokatu zituzten eta Josep Tricot han berean gorputz utzi. Istorio hori kontatua du Mixel Oronozek *Qui a tué le douanier Tricot?* liburuan (Zortziko, 2004).

Azken hamabost urteetan, Mixel Oronozek jo eta ke jardun zuen Euskal Herriko Elizak hartu duen integrismoari buruzko bidearen salatzen, berezikiago Baionako Marc Aillet apezpikua azkarki jorratuz. Hiruzpalau liburu baditu argitaratuak gai horretaz. Ibilbide horretan tokiko apezak ez zitzaizkion hainbat jarraiki, eta horretaz dolutzen zen, baina bazituen adiskide leialak, hala nola Jacques Gaillot apezpiku errebel ohia, Erromak Parteniako diozesa antzuaren buru igorri zuena, eta Jose Arregi azpeitiar teologoa. Honek, Belokeko monasterioan

joan den azaroan Oronozi egin zitzaion esker onezko ekitaldian, hitz laudoriotsuak erabili zituen baigorriar adiskideaz. Eliza katolikoaren dogma ezin jasanak bilakatu zitzaizkienei uko eginik, Ebanjelioaren iturrietara behar zela itzuli erraten zuen Oronozek. «Apezen kasta leherrarazi behar da», idatzi zuen egun batez deblauki. Eta pentsamolde horiek bururaino eraman ditu, amore eman gabe. Halere hil aitzineko hondar egunetan erran zigun bere baitan osoki baketurik zihoala. Eta bere ehorzketetarako galdetu zuen, berak hautatutako lau adiskidek kudea dezaten elizkizuna eta ez apez batek. Horrela egina izan da Baigorri, Germietako kaperan.

Gizon umila genuen Mixel Oronoz. Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuelarik 2021eko azaroan, lehen batean ez zekien zer ihardetsi: «Ustekabeko proposamena ukan dut, merezimendu gutirekin, onartu behar ote dut, jendetasunez?», galdegin zidan. Nik segurik ez nuen duda-izpirik, euskalgintzaren alorrean egin zuen lan guziagatik onartu behar zuela. Eta ondotik aitortu zidan gain-gainetik estimatu zuela izendapen hori, nahiz horretaz espanturik ez duen sekula egin. Hara, beraz, hitz laburrez nor genuen, eta nolakoa, Mixel Oronoz baigorriar adiskidea.

Peio Jorajuria

In memoriam

Jose Maria Rementeria Ibarluzea
(Etxebarria, 1940 - Bilbo, 2023)

—Lontzo Zugazaga—

1. Bizitza-ibilbidea

Derioko seminarioan ikasketak egin ondoren, apaiz ordenatua izan zen 1965eko uztailaren 3an. Apaiza, idazlea, itzultzailea eta ikertzailea izan dugu Jose Mari.

Azken 35 urteetan Ondarroan bere apaiz-lana osatu ostean, eta 59 urtez Jaunaren eta Eleizaren alde zerbitzu oparoa eskainita utzi gaitu.

Bere bizitzan zehar hainbeste ardura leporatu izan ditu gure Bilboko Elizbarrutian. Hona zerrendatxo bat:

1965: Larruskainen apaiz ekonomo eta Urberuagan apaiz arduradun.

1970-1972: Ikasketak egin zituen Madrilen. Teologian eta Katekesian diplomaduna.

1972-1980: Elizbarrutiko Katekesi Idazkaritzako zuzendari.

1972-1977: Erandioko apaiz taldeko kide.

1977-1980: Bilboko San Fernando parrokiako laguntzaile.

1980-1989: V. Bikaritzako gotzain-bikario eta Ajangizko parrokiako arduradun.

1985-1990: Aholkularien Kontseiluko kide elizbarrutian.

1988-1991: Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko kide.

1996-2001: Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko kide.

1989-2015: Ondarroako parrokiaren administratzaile (parroko).

1992: Euskal Baliabideak batzordeko kide.

1997: Katekesi Ordezkaritzako laguntzaile eta Ekonomia Alorra kontseiluko kide.

1998: Bilboko Elizbarrutian Bitartekaritza kontseiluko kide.

2015-2023: Ondarroako parrokian laguntzaile.

Apaiz-bizitzan zehar izan dituen kargu ugarien zerrenda luze hau aspergarri izan ez dakizuen, laburtu egingo dut nik, urteetan Pastoralta Kontseilukide, Katekesirako gotzain-ordezkar, eta Bermeo, Gernika, Lekeitio, Markina eta Ondarroa hartzen dituen V. Lurraldeko gotzain-bikario izan dela azpimarratuz.

Jarduera aberatsa izan du Jose Marik eta sekulako zerbitzua eskaini dio bere elizbarruti maiteari.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) ohorezko bazkide izendatu zuen, Donostian, 2002ko urriaren 4an. Eta Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain hautatu, 2018ko apirilaren 27an.

2. Euskararen aldeko jarduna

— EUSKAL ELIZBARRUTI ARTEKO LITURGIA BATZORDEAN LANKIDE

Fruitu eder eta mardulak jaso izan ditugu batzorde horretatik:

- *Meza Liburua*: 1984an, gipuzkeraz eta bizkaieraz.
- *Irakurgaiak Liburua*: 1978an gipuzkeraz, 1988an bizkaieraz.

- *Meza Liburua*: 2019an euskara batuan, 2020an bizkaieraz.
- *Mezako Irakurgaiak*: 2020an euskara batuan, 2021ean bizkaieraz.
- *Sakramentuen Ohikune Liburuak*: itzulpenetan partaide.
- *Jainkoaren Herriaren Otoitza*: 2023an bizkaieraz.

— *Elizen arteko Biblia* LANA

Itzulpenaren egitasmo erraldoi horretan lankide izan zen 1986tik 1994ra bitartean. Zortzi urtez lan egin zuen proiektu handi honetan, beraz.

1986ko abenduan, Lazkaoko beneditarren etxean elkartu ginen mintegi moduko bat egiteko. Erroman irakasle zen Carlo Buzeti izan genuen irakasle, eta berau izan zen *Elizen arteko Biblia* lanaren itzulpenaren prozesu osoan kontseilari, Biblia Elkarteko Batuen izenean.

Honelaxe izan ohi zen prozesua: itzultzaileak egiten zuen lehen itzulpena, beste hainbat hizkuntzetan eginak hurbiletik begiratu. Gero, Ramon Irizarrek, Biblian adituak, aztertzen zuen dena. Eta jarraian, itzultzailearekin bildurik, bien artean moldatzen zuten oinarriko bertsioa, prozesuaren lehen fasea burutuz.

Itzultzaileak eta exegetak prestaturiko lehen itzulpena Dionisio Amundarain koordinatzaileari bidaltzen zitzaion eta honek gainontzeko itzultzaile guztiei banatzen zien, bakoitzak bere zuzenketak egin zitzaion. Gero, berrikusle-taldekoak biltzen ginen zuzenketa guztiak ikusi eta behin betiko (edo ia behin betiko) testua finkatzeko.

Bibliako liburu bakoitza burutu samarturik ikustean, «zenbait laguni» bidali ohi zitzaion irakurtzeko; hain zuzen ere, erabilitako hizkera-mailaren egokitasuna eta irakurleen gaiarekiko hurbiltasuna egiaztatzeko asmoz. Irakurle horiek kristau-eliza diferenteetakoak —katolikoak eta ebanjelikoak— ziren; tartean ziren euskal kultura-munduko batzuk ere.

Gure Jose Marik ez zuen Bibliako libururik itzuli, baina prozesu osoan partaide izan genuen. Hasterako, bagenekien guk, aurretiaz hala erabakia genuelako, *Elizen arteko Bibliak* talde-lana izan behar zuela, lan elkarrekin banatua, partekatua liburu

bakoitzari dagokionean, nahiz itzulpenaren fase eta alderdi guztietan, hasi eta buka, honek prozesua franko luzatuko eta motelduko zuen arren. Jose Mariren iritziak bazuen indarra eta eragina, batez ere gure iritzi desberdinak uztartzerakoan eta berrikusle-taldearen bileretan, behin betiko testua finkatu aurretik, nahiz eta bizkaitarron iritziak sarri ez zuen behar besteko indarrik gipuzkoarren artean, Ramon Irizar oñatiarrarengan izan ezik. Gure proposamen asko beronegatik sartu ziren *Elizen arteko Bibliaren* azken bertsioan.

— ELIZBARRUTI ARTEKO KATEKESIKO BATZORDEKIDE

- Bilboko elizbarrutian, Katekesi Idazkaritzako zuzendari (1972-1980).
- Elizbarruti arteko Helduen Katekesia batzordeko kide (1997-2005).

Katekesi arloko itzul-lanetan partaide: *Jesusen jarraitzaile gure bizitzan* (1990) eta *Jesusen jarraitzaile elkarte barruan* (1998).

Nola sartu zen/zuten Jose Mari elizbarrutien arteko Liturgia eta Katekesiko testuen itzulpen-munduan? Berak eman zigun erantzuna (*Euskerazko Dotrinak I. Bizkaieraz*, 12. or.):

«1971ko ekainean (Madriletik) barriro eleizbarrutiratu nintzanean, D. Manuel Lekuonaren gidaritzapean, gure Euskal Eleizbarrutietako abade eta fraile talde batek urte batzuk lanean eroiazan Liturgia eta Katekesiko testu ofizialak euskeratzen. Eta, hain zuzen, urte haretako urriaren 12an, Pilarika egunean, talde osoa jai giroan Urkiolan alkartzen zan, lehenengo altara inguruan alkarregaz Meza Santua ospatzeko, eta gero Buenos Aires jatetxeko mahaian bazkaltzeko. Gure Karmelo Etxenagusiak batzar haretara konbidatu ninduan. Errazoa edo atxakia? Eleizbarrutiko katekesi-lanetan sartu behar neban ezkerro, talde haretako kide be izan behar nebala..., eta ze aukera hobeagorik batzar ha baino taldekide guztiekin aurkitzeko eta alkar ezagutzeko?».

Harez gero, bost hamarkada baino gehiago aritu da Jose Mari elizbarrutien arteko Liturgia eta Katekesi baliabideak euskeratzen eta noizbehinka baita sortzen ere.

Baina aparteko arreta eta berariazko azterketa merezi du Jose Mari Rementeriak **euskal dotrinan** inguruan burutu duen ikerketa aberats eta ordainezinak. Azken

urteotan buru-belarri murgildu izan da euskal dotrinen bilaketan, batuketan eta ikerketan.

— KRISTAU-IKASBIDEAK BIZKAIERAZ

Euskerazko dotrinak. Kristau katekesia Trentoko Kontziliotik Vatikanoko II. Kontzilia (1545-1962). I. Bizkaieraz (Jarein bilduma, 10, Labayru Fundazioa: 2018).

Bi atal nagusi ditu obra honek:

I. «Bizkaierazko Dotrinak edo Kristinau Ikasbideak» (23-137. or.).

II. Gehigarriak (139-244. or.):

1. «Eskuizkribuak».
2. «Edesti Deuna eta Otoitz Liburuak».
3. «Dotrina azalpenak eta Sermoi Liburuak».

Ikerketa luze eta sakon baten emaitza dugu lan hau. Egileak obraren sarreran eta ikerlanaren hainbat lekutan aletzen dizkigu beronen ibilbidearen zehaztasunak, bizkaierazko dotrinen liburu honekin eta bertoko edukiarekin zerikusia dutenak.

Euskarazko dotrinen inguruan gaurdaino egin izan den ikerketarik zabalena eta xeheena dugu. Trentoko Kontziliotik Vatikanoko II. Kontzilia arteko denboraldi luzean, lau mendetik gorakoan, kristau-dotrina euskaraz nola idatzi eta transmititu izan den xehetasun osoz deskribatzen zuen zeintzuk izan diren dotrinak, argitaratuak zein eskuizkribuzkoak, eta inprimatu direnen argitaraldiak: non (zein hiritan edo herritan), noiz (zein urtetan), eta zein eduki, ilustrazio, letra-tipo eta ezaugarri berezirekin atera izan diren. Egileak edo egokitzaileak zeintzuk diren; euskara aldeko hizkera ezaugarriak; argitaratze-garaiko gorabeherak eta ingurune historikoa.

Euskal literaturan garrantzi handiko alderdia izan da erlijio generoa, eta horren barruan, katekesi eta kristau-ikasbideak. Euskal literaturaren azpibarruti honen egiazko balioan neurria hartzen irakatsi digu egileak: ez bakarrik kristau-ikasbidearen aldetik; bai eta euskal hizkuntzaren, gizartearen, historiografiaren eta bibliografiaren aldetik ere.

Obra honek beste testigantza baliotsu bat ere eskaini digu, gure Elizaren jokabideari dagokiona. Dotrina labur horietan, bere ama-hizkuntzan ematen zaizkio gure herriko jendeari, Jesu Kristoren jarraitzaile izateko sinetsi behar dituen egiak, hartu/ospatu behar dituen sakramentuak, bete behar dituen aginduak eta esan/egin behar dituen otoitzak.

Harrokeria baztertuta eta ahulezia aitortuz bada ere, esan genezake gure Elizak aintzat hartu izan dituela euskaldunak beraren pentsaeran, esaeran eta predikuan. Ander Manterolaren ustez, horixe da obra honek erakutsi digun baliorik estimagarriena.

Sekulakoa izan da egileak horretan egin zuen ahalegina. Azken urteotan, batez ere pastoraltza-lanetatik askeago izan denean, soin eta muin jarri zen Jose Mari ikerketa-jardunean. Horretarako, gogotsu eta eroapenez ibili da gure bibliotekak arakatzen. Hona hemen zer esan zigun *Euskerazko Dotrinak I. Bizkaieraz* liburuaren aurkezpenean, Bilbon 2019an:

«Gure inguruko Biblioteka gehienak aztertu ditut: Labayrukua, Lazkaoko Beneditarrena, Arantzazukoa, Karmeldarrak Markinan eta Begoñan dituenak, Eusko Legebiltzarrekoa, Gasteizko Sancho el Sabio fundazinokoa, Deustuko Unibertsitatekoa, Loiolako Santutegikoa, Bizkaiko Foru Aldundikoa..., eta Iparraldean, Belokeko Beneditarren monastegikoa».

Lana nahiko astuna izan arren, «gogoko bidean aldaparik ez» eta gustura ibili da Jose Mari azken egunetara arte, begikoa eta kutuna izan duen ikerketan. Haren iloba Maribel Aiertza Rementeriak aitortu digu: «Beretzat ezlekua zen egoitzan aurkitu arren, eta osasun egoera alde ez izan arren, lan honetan murgiltzeak izugarri poztan zuen. Bisitan joaten nintzenean galdetzen zidan: “Ekarri dozu ordenagailua?”. Eta nik: “Bai, zuk nahi badozu ekingo deusagu”. Eta horretan ematen genuen denbora».

Bizkaierazko dotrinen ikerlanari doakioorain arte esandakoa. Baina zertan da Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako dotrinen ikerketa?

Maribel Aiertzak, Jose Mariren ilobak, jakinarazi dit noraino iritsi den ikerketa, erdi ezustean Jose Marik agur egin digun arte.

— KRISTAU-IKASBIDEAK GIPUZKERAZ

«Osaba erori ondoren Miserikordiako egoitzan bukatu genituen bion artean lan

horren zuzenketak. Bukatua eta maketatua dago irudiekin», diosku M. Aiertzak.

Zenbait zehaztapen aipagarri:

- a) Hogeita zortzi titulu, egile desberdinenak.
- b) Dotrina zaharrena Martin Yanez Arrietarena; gipuzkerazko lehen dotrina izan daiteke, 1608. urte ingurukoa. Argitaratu gabea.
- c) Dotrina bakoitzak izandako gainerako argitalpenak. Horietako askok lau-bost argitalpen desberdin izan zituzten. Juan Irazustarenak izan zuen argitalpen gehien; izan ere, beste laurogeita hiru argitalpen izan zituen. Irazustaren dotrina hau Gaspar Astetek erdaraz idatzitakoa bera da, euskaraz jarria.
- d) «Eranskinak 1»: «Kristau Ikasbide azalpenak» atalean sei egileren idazlanak aurkeztu ditu, tartean Juan Antonio Mogelena, eta eurok izandako argitalpen guztiekin.
- e) «Eranskinak 2»: «Edesti Deunak» atalean ere sei egileren lanak jaso ditu, tartean Jacques Bondallazek ondu eta Nemesio Etxanizek euskaratua, Bernard Barayren edergarriekin argitaratua.
- f) «Eranskinak 3»: Eskuizkribuak eskaini dizkigu. Atal honetan hamalau eskuizkribu bildu dira, lekuan lekuko euskaraz idatziak.

— KRISTAU-IKASBIDEAK NAFARRERAZ

«Osatua eta irudiekin maketatua dago. Honi ere Miserikordia egoitzan egin genizkion azken zuzenketak. Neuk bukatu dut falta zen apurraren zuzenketa», M. Aiertzaren hitzak.

Baditugu zertzelada eta xehetasun aipagarriak:

- a) Hamalau dotrina-titulu, egile desberdinenak.
- b) Nafarreraz argitaraturiko dotrina zaharrena Sancho de Elsoarena da, 1561ekoa; argitaratu zen baina desagertuta dago.

c) Dotrinek izan dituzten gainerako argitalpenen informazioa ere eman du. Adibidez, Baztango parroko batek idatzi zuenak hamahiru argitalpen desberdin izan zituen, lehena 1826koa.

d) Eskuizkribu asko dago nafarreraz, euskalki, azpieuskalki eta hizkuntz aldaera desberdinetan: iparraldeko goi-nafarreraz, 16; hegoaldeko goi-nafarreraz, 7; aezkeraz, 7; zaraitzeraz, 8; erronkarieraz, 3; mendebaldeko behe-nafarreraz, 1. Guztira, 42 eskuizkribu.

Bizkaierazkoekin egin bezala, oraingoan ere egile eta dotrina bakoitzari eskaini dizkio argibideak. Dotrina bakoitzaren ezaugarri teknikoak dakartza: azala, egilea, izenburu eta datuak, orrialdeak, neurriak, moldiztegia, non gordetzen den eta abar. Horrez gainera, edukiaren azterketa egin du eta argitalpenak erabilitako idazkera eta hizkuntza ere jorratu ditu. Egilearen biografiak eta garaiko egoerak eta kontestuen informazioak osatua da Jose Mariren azterketa.

Eta, beharbada, hementxe jarri beharko genuke Jose Marik idatzita utzi zigun abisu hau:

«OHARRA. Rosa Miren Pagolak eta bere taldeak, nafarreraz idatzitako dotrina eta eskuizkribuen artean, mendebaldeko behe-nafarreraz idatzitakoen liburuan, Baigorriko dotrinaz gain, beste bi eskuizkribu jasotzen ditu: Uztaritzeko dotrina eta Hazparneko dotrina. Eta ekialdeko behe-nafarreraz idatzitakoen liburukian beste sei dotrina hauek aipatzen dizkigu: Donibane Garaziko dotrina, Donapaleuko dotrina, Donamartiriko dotrina, Bardozeiko dotrina, Beskoitzeko dotrina eta Urketako dotrina.

Euskaraz idatziak izan diren dotrinei buruzko nire ikerlantalxo honen hirugarren zatian, Iparraldeko euskaraz idatziak aztertzei asmotan nabilenez gero, eskuizkribu hauek haien bukaeran jasotzea egokiagoa izango dela iruditu zait eta ez nafarreraz idatzitakoen artean».

— KRISTAU-IKASBIDEAK IPARRALDEKO EUSKARAZ

Prestatuak zituen 24 dotrinak eta haiek izandako argitalpen desberdinen fitxak, datuak...

Hemen ere badaukagu zer aipatu:

- a) Egileak hogeita lau dotrinaren eta haiek izandako argitalpen desberdinen informazioa bildu du.
- b) Joanes Leizarragaren *ABC edo Christinoen...*: 1571. urtean argitaratua litzateke zaharrena.
- c) Esteban Materreren *Dotrina Christiana*, 1617koa; bost argitaraldi izan zituen.
- d) Badira beste batzuk argitalpen asko izan zituztenak: Lavieuxvillerenak, 25; Revolenak, 10; d'Astrosenak, 15.
- e) «Edesti Deunak» atalean, 9 egileren idazlanak jaso ditu, beren argitalpen desberdinekin.
- f) Horiez gain, hainbat dotrina-azalpen, liburu, eliza-liburu...

Dotrina bakoitzaren azterketa eta egilearen ingurukoak idazten hasita zegoen, baina lan honen gehiena egiteke geratu da.

Hemen gaudenon artean norbaitek leporatuko balu ardura, falta dena osatzeko eta den-dena argitaratzeko, ekarpen galanta egingo lioke euskarari, euskal Elizari eta Euskal Herriari. Ea nor animatzen den!

3. Izaera eta esker oneko agurra berari

Euskaltzale sutsua eta elizgizon arduratsua izan dugu Jose Mari. Gure herriaren eta hizkuntzaren maitale izan da, eta Jaunaren Hitza bertokoentzat ulergarri izan dadin zintzo jokatu du. Langile saiatua eta ikertzaile fina, zehatza eta nekaezina.

Gizon ona eta bedeinkatua izan da, Jaunaren ontasunak ukitua eta kutsatua, ontasunez gantzutua. Gipuzkoako gu bion apaiz-lagun batek Jose Mariren heriotzaren berri eman nionean aitortzen zidanez, *vir bonus* izan dugu. Ontasuna zerion hartu-emanetan. Bihotz zabalekoa, barea, patxadatsua, biguna eta samurra, guztientzat hurbilekoa izan dugu pastortza-lan osoan dihardugunontzat ere. Adeitsu, begirunetsu eta mazal azaltzen zitzaigun beti bere gorputz erraldoiaren abegi hurbiltasun adierazlean. Bakezale, bake-eskale eta bake-egile izan dugu

gure jendarte grinatsu, istilutsu eta iskanbilatsuan. Ez zekien haserretzen eta ezin zuen jasan inor haserre egon zedin. Ahaleginak eta bi egiten zituen inguruko harremanetan eta elkarlanean bakerako bideak urratzen. Haren heriotza osteko oroigarrian hara zer diotson familiak: «Bakea maite zendun, bakea predikatu eta praktikatu dozu, bakean joan zara isilik eta astiro, berbak zure ahotik askatzen ohi zenduzan antzera, letrak esaldietan lotzen zenduzan moduan, garbi eta pausatuz, sinismen osoko mezu argia eta sakona transmititu guran».

Ohorea, gozamina eta plazer hutsa izan da niretzat Jose Mariren lagun, lankide eta adiskide izatea, haren poz eta nahigabeetan, haren amets eta asmoetan, haren gurari eta itxaropenetan luzaroan bidelagun izatea.

Zorretan nago zurekin eta esker ona adierazi nahi dizut, Jose Mari, gure Herria, gure Hizkuntza eta gure Eliza maitatzen ere du izan zaitudalako.

4. Azken gogoeta

Ausarkeria latza litzateke nire aldetik, honako neuk neuretara lortutako uztaz balitz bezala, txosten hau sinatzea. Ekarpen ugari eta aberatsak zor dizkiot Maribel Aiertza Rementeria Jose Mariren ilobari, eta halaxe aitortu nahi dut, berarenganako begirunez eta esker onez.

Jose Marik aspalditxo, 2019an, *Euskerazko Dotrinak I. Bizkaieraz* liburuaren aurkezpenean Bilbon egindako aitormena jasoz burutu nahi dut txostena:

«Gure dotrinen baliorik handiena ez dago euren edukinean, hau gehien batean bardina da; ezta metodologian be: itaun-erantzunen bidez emoten ditue euren azalpenak. Aparteko berezitasuna “hizkuntzan” dago, erabilten daben euskeran. Hemen agertzen jaku gauza berbera zelan azaltzen dan Bizkaiko inguru eta sasoi ezbardinetan.

Eta aitormen honek sekulako indarra hartuko du Euskal Herri osoko dotrinetako eta eskuizkribuetako euskara, hain aberatsa eta anitza, egiaztatu eta frogatzean. Hainbeste euskalki eta azpieuskalkitan azaltzen zaigun euskara benetako altxorra da eta hainbeste motatako euskarak berebiziko garrantzia eta aparteko protagonismoa erakutsiko digu gure herritarrentzat egindako dotrinen bitartez».

Jose Mariri, esker onez, bertso bat kantatuz amaiera emango diot gaurko nire ekarpenari.

*Euskal dotrinetan izan zara
sekulako ikerlari
eta Liturgian indar-emaile
Jaungoikoaren Hitzari;
isileko lanak utzi digu
denontzat fruitu ugari,
bizi osoa gogoz eskainiz
zeure euskara maiteari.
Gaur agur eta ohore zuri,
adiskide Jose Mari (bis).*

Lontzo Zugazaga Martikorena

In memoriam

Xabier Mendiguren Bereziartu (Ezkio, 1945 - Donostia, 2023)

—Josu Zabaleta—

Lehenik eta behin agur, hilberri ditugun euskaltzaleoi omen egitera etorri zareten guztioi, familiarreko, euskaltzain, agintari eta adiskide guztioi.

Joan den urriaren 2an izenburu berberaz edo antzekoz bete ziren gure arteko egunkarien lehenengo orriak, irratietako eta telebistako berri-emankizunak: «Xabier Mendiguren Bereziartu idazle eta itzultzailea hil da»; edo: «Xabier Mendiguren Bereziartu, Kontseiluko lehen idazkari nagusia, hil da». Xabier Mendigurenen bizitzako beste alderdi batzuk ere aipatzen zituzten berri-emate horietan, baina Xabierren bizitza ez da kabitzen berri-paper edo berri-emankizun batean. Ez da kabituko hala beharturik laburra izan behar duen hilberri-aipamen edo omenezko hitzalditxo honetan ere, baina ahaleginak egingo ditut haren bizitzaren alderdi aipagarrien eta eskertzekoenak hementxe iradokitzen.

Xabier Mendiguren Bereziartu —hemendik aurrera Xabier— Ezkioko Igartubeiti baserrian, gaur egun Igartubeiti Baserri Museoa denean, jaio zen 1945eko uztailaren 13an, garai horretan baserri horretako maizterrak (1985ean erosi zuten baserria) ziren Joxe Mendiguren eta Frantziska Bereziartua senar-emazteek osatu zuten familian.

Hamar urte bete berritan pasiotarren seminaria joan zen, garai hartan beste mutiko asko bezala, apaiz-ikasketak egiteko asmoz. «Urte hartan kartoizko maleta eskuan zuela Gabiriara iritsitako ikasle berrien artean nengoen ni eta mundu berri bat ireki zitzaion Igartubeitiko mutikoari uda hartan», kontatu zuen geroago pasiotarrek Gabirian kokatu zireneko 100 urte bete zirenean idatzi zituen oroitzapenetan. Handik, ikasketek agindu bezala, pasiotarren ikastetxe guztiak

igaro zituen, harik eta, apaiz ordenatu baino lehentxeago, berak kontatu ohi zuen bezala, egun berean pasiotar apaizgai multzo batek fraidetza utzi zuen arte. Urte horietan zaletu zen, seminarioko barne-giroak lagunduta, euskal gauzetara eta literaturara eta hantxe egin zituen orobat, gero bere bizitzan izango zuen lanbide nagusiko, itzulpengintzako lehenengo urratsak ere; hantxe hasi zen hizkuntzak ikasten eta hizkuntzetara zaletzen, eta han egin zuen, hain zuzen ere, hamahiru-hamalau urterekin, literatura-liburu baten lehenengo itzulpena: Charles Dickensen *Gabon kanta bat*.

Hamar urte horiek ez ziren joan, ordea, inguruan ere, euskal gizartean eta euskarari zegozkionetan, aldaketa handiak ekarri gabe.

Gizartean, gizartearen egitura oso aldatu zelako, industrializazio azkarraren ondorioz, hiri- edo kale-giroa Euskal Herriaren ia bazter guztietara zabaldu zelako; immigrazio masiboak gizarte-egitura aldatu zuelako, eta politikan ere, frankismoa bere hasierako bortizkeriatik ahultzen ari zelako eta etorkizun laburra sumatzen zitzaiolako.

Euskararen egoerari zegokionez ere aldaketa handiak ari ziren gertatzen, batetik gerra osteko lehen idazleen belaunaldia iraungitzen ari zelako, Euskaltzaindiak euskararen batasunerako bidean urrats erabakigarriak egin zituelako, eta euskalgintzan lanean hasia zen belaunaldi berriak Euskaltzaindiak erakutsi bidetik irmo jarraitzeko eta euskarari zegokion guztia garaiak eskatzen zuen modernotasunean txertatzeko asmo sendoa erakusten zuelako.

Euskal Herriko garrantzi handiko zenbait instituzio ere euskalduntzen hasiak ziren, edo euskara tokitxo bat hartzen hasia zen gutxienez haietan. Batzuk baino ez aipatzearren, Elizan hizkuntzei zegokionez ere aldaketa handiak ekarri zituen Vatikanoko II. Kontzilioak. Irakaskuntzan, ikastolak zabaltzen eta ugaltzen hasiak ziren. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-mugimenduak ere indarra hartzen ari ziren. Hedabideetan ere geroz eta handiagoa zen euskararen presentzia: euskara hutsean argitaratzen ziren aldizkariak, besteren artean.

Hitz batean, bazirudien euskarak geroz eta leku zabalagoa hartu behar zuela euskal gizartearen bizitzan. Baina, hala eta guztiz ere, kontzientzia zabala zegoen euskararen egoera aski larria, oso ere larria zela, eta buru-belarri ekin behar zitzaiola aurrerabidea zabaltzeko lanari. Horretarako, planteamendu orokor baterako ezinbesteko eskakizunak ziren: euskararen egoera ahalik eta zehazkien ezagutzeaz

gainera, egoeraren diagnostikoa egitea; egoera horretan eragina zuten eragileak ezagutzea eta batzea; premiak detektatzea; irtenbideak bilatzea.

Xabier, bada, giro horretan murgildu zen euskalgintzan eta lehenengo mugida horren bidetik jarraitu zuen azkenera arte.

Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letrak ikasketak bukatu ondoren, euskara eta euskal literatura irakasle hasi zen, euskaltzale-belaunaldi horretako beste partaide asko bezala. 70eko hamarkada inguruko urteetan gaude. Xabierrek lan handia egin zuen euskarazko irakurgaiak eta testuliburuak sortzen eta itzultzen, Desclée de Brouwer, Cinsa argitaletxeekin. Luzera gabe Iker taldearen sortzaileetakoa izan zen, 1974an. Beste zenbait kiderekin batera *Saioka* euskarazko ikasliburuak ondu zituen, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteen babespean.

Hamarraldi horren erditik aurrera itzulpengintzaren irakaskuntzan lehenengo urratsak ematen hasi zen, ikastaroak antolatu eta haietan irakasle gisa parte hartuz batez ere. Arrasaten izan zen lehenengoa, 1976an, J.R. Etxebarria eta X. Kintanarekin batera. Ikastaldi berbera errepikatu zen gero Udako Euskal Unibertsitatean. Aipatzekoa da, orobat, 1977an Arantzazun Biblia osoa elizarteko ikuspegi batez euskara batura itzultzeko ikastaldian parte hartu zueneko ere, zalantzarik gabe nazioarteko itzulpen-ikasketen berrijakiteko balio izan ziona.

Bitartean, ordea, Francoren heriotzaren ondoren, Trantsizioa deitutako aldiarekin, Espainiako konstituzio berriarekin eta Autonomia Estatutuen ezartzearekin, Euskadiko eta Nafarroako agintaritzak-erakundeak antolatzearekin, arras aldatu zen, oso denbora laburrean baina ez espero gabe, Hego Euskal Herriko gizartearen egoera. Gizarte-erakunde osoa, hari dagozkion instituzio guztiekin —irakaskuntza, administrazioak, gizarte-zerbitzuak, hedabideak...— hasi zen aldatzen eta, aldaketa horiekin, instituzio horietan guztietan ordu arte lekuri izan ez zuen euskarari lekua eman beharra eta, horrenbestez, euskara bera handik aurrera bete beharko zituen eginkizunetarako prestatu beharra etorri zen. Erakunde horiek, baina, ez ziren mutu izan une horretara arte eta euskarak itzulpenaren bidez baino ezin bete zezakeen —hasieran behintzat, hutsetik hasita bailitzan— erakunde haietan bete behar zuen lekua.

Une horretan, bada—1979. urtearen azken aldera—, beti ere etorkizunari ekimen-asmoz begira egoten zen pertsona batek deitu zion Xabierri, Juan San Martin jaunak, Euskaltzaindiko Jagon saileko buruak, erakunde honen izenean, Itzultzaile

Eskola bat sortzeko aurretxosten bat presta zezala eskatuz. Ez zen txantxetako gauza. Luis Villasantek, garai hartako euskaltzainburuak berak, urtebete goroago, 1980ko urriaren 6an, Itzultzaile Eskolaren zabaltzean, honela esan baitzuen: «Kuestioa da orain bapatean eta supituki bere gordinen azaldu zaigula itzulpenaren problema. Euskarari ofizialtasuna aitortu zaion unean, itzultzaileen eskea heldu da alde orotatik, eta ozta-ozta dago hainbeste eskeri erantzuterik. Itzultzaile guti dago eta gainera itzulpena bera nola egin behar den ez da argi ikusten. Zeregin honi erantzuteko eta oztopo hau gainditzeko, pentsatu du Euskaltzaindiak noraezekoa zela Itzultzaile Eskola hau sortzea».

Donostian aurkeztu zuen Xabierrek txosten hori 1980ko martxoaren 28an. Sarreran bertan aipatzen zuen ekimenaren zailtasuna: «Euskaltzaindiak Euskal Itzultzaileen Prestakuntzarako Eskola bat diseinatu eta antolatzeke eskabidea egin zigunean, berehalaxe jabetu ginen era honetako eginkizun batek berekin dituen zailtasun eta oztopoez. Nonbait eginga eta taxutua dagoen zerbaite besterik gabe gureratzea aski izango balitz, gaitz erdi litzateke, baina gure egoera bere alderdi guztiekin kontutan hartuz gero, garbi ikusten da guri komeni zaigun Itzultzaile Eskola batek arraz berezia izan behar duela atzerrian aurki ditzakegunen aldean. Itzulpen-teoria liburuak, ikasplanak, eta era guztietako baliakizunak erabil ditzakegu esku artean, baina horiek guztiak gure premia eta egoerara egokitzeak hautakizun multzo ugari baten aurrez aurre jartzen gaitu».

Euskal Herrian, premia berriek eraginda, egiten zen era horretako lehenengo azterketa eta proposamena zenez, espero izatekoa zen bere planteamenduetan ere berrikuntzak ekartzea, eta halaxe gertatu zen, gertatu ere.

Lehenengo atal batean —hizkuntzalaritzari eta itzulpenari buruz diharduenean— nazioarteko ikerlarien artean azkenaldian agertzen ari diren proposamen eta ikuspegi berrien berri eman zuen. Ondoren, itzulpenari dagokionez funtsezkotzat jotzen zituen bi kontzeptu —leialtasuna eta baliokidetzat— ikuspegi berri horien argitan azaltzen ahalegindu zen. Eta literaturazko testuen eta testu pragmatikoen itzulpenaz saio laburtxo bat egin ondoren, itzulpenari buruz aipatu irizpide berri horien arabera diharduten saioen bibliografia labur bat aurkeztu zuen. Bildu zuen bibliografia horrek ia balio sinbolikoa eta guzti du, 30 libururen egile-izenburuak zerrendatzen baititu itzulpengintzaren alderdi desberdinez. (Horiek izan ziren, gerora ehundik gora liburu eta hainbat aldizkari izan zituen Martuteneko Itzultzaile Eskolako liburutegiaren lehenengo oinarria).

Bibliografia proposamen horren esanahia neurtzeko, kontuan hartu behar da txosten horretarako garai hartan lanean ziharduten itzultzaileen artean Xabierrek berak egindako inkestan itzultzaileen prestakuntzaz esaten dena. 30 erantzun jaso ahal izan zituen bidalitako inkestetatik. Honelaxe dio berak: «Hogeita seik (% 86,6) erabat prestakuntza pertsonal edo autodidakta bati jarraiki zaizkiola erantzuten dute. Lau (% 13,3) dira ikastaldiez ere baliatu direla diotenak. Itzulpen-teoriari buruz ezagutzen duten bibliografia eskatzean honako autoreak agertu ziren: G. Mounin (3 aldiz), Nida-Taber (1), Alonso-Zorro (1), Octavio Paz (1), Carlo Buzzeti (1)».

Ondoren, Europako eta Amerikako zenbait unibertsitatetako itzulpengintzarako ikasketa-programak aztertu ondoren —Geneva eta Mainzekoak ikertu zituen xeheki—, programa horiek gure arteko egoerara zenbateraino egokitu daitezkeen eta inkestari erantzun diotenek zer eskatuko luketen ere aztertutik, Eskolaren egitarau-aurreikuspen bat proposatu zuen: ikasgaiak, ikasturtearen antolamendua, ikastaroak, bibliografia eta abar.

Bistan da, Xabier Mendigurenek aurreproiektu honetan aurkeztu zuen ikasketa-plana, bai ikasturte osorakoa bai ikastaldi laburretarakoa, itzultzaile profesionalak prestatzeko edo dagoeneko itzultzaile zirenei birziklatzeko ikastaroak eskaintzeko taxutua dela. Geroago, luzera gabe ordea, Eskolaren martxak berak eta itzulpengintzari buruz nazioartean egiten ari ziren ikerketen ezagutzak ikuspegi hori arraz zabaltzera bultzatu zituen Itzultzaile Eskolako ikasleak eta irakasleak.

Hain zuzen ere, Itzultzaile Eskolan ohiko gogoeta zen: euskalgintzan diharduten pertsona guztiak, eta euskal hiztun guztiak edo ia-ia guztiak, itzulpen-egoeran —itzulpen esplizituzko edo inplizituzko egoeran, inguruko hizkuntza ongi finkatu batean jasotako informazioa euskaraz eman beharrean— baitaude egunean hainbat aldiz, komeniko litzateke halakoari —euskalgintzan diharduenari behintzat— itzulpen-esperientziak eskain dezakeen tresneria edo prestamen pixka bat iritsaraztea.

Koldo Mixelena gogoratuak ere aipatu zuen horrek ekar lezakeen arriskua («Asaba zaharren baratza», EGAN, 1960 (3-6): 121-134): «Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak badiu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera. Ez da hizkuntza bere buruaren jabe, besteren mirabe baizik: besteren hitzak, esaerak eta legeak dauzka beti gogoan haiei nola egokituko zaien asma beharrez».

Geroztik euskal idazle batek baino gehiagok planteatu izan du gai hori. Modu dotorean, adibide esanguratsuak eskainiz eta ikuspegi askotatik aztertuta planteatu zuen, esate baterako, Bernardo Atxaga jaunak, 2017ko otsailaren 22an Bilbon eman zuen eta geroztik aski kate luzea ekarri zuen *Itzulpena kristalezko zubi bat da* hitzaldi sonatuan. Hemendixe eskertu nahi diot, bide batez.

Historiaren harira itzuliz, dossier-aurreproiektua aurkeztu eta berehala eman zuen Euskaltzaindiak ontzat Itzultzaile Eskola sortzea eta urte berean, 1980ko udazkenean ireki zituen ateak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak behin-behingo Arbideko Dorreetan utzi zizkion geletan. Lehenengo urtean Euskaltzaindiak izan zuen Eskolaren titularitatea, eta hurrengo urtean eratu berria zen Eusko Jaurlaritzaren esku geratu zen. Hamar urtez iraun zuen, behin ere erabat egituratu gabe, harik eta egoera ekonomiko geroz eta larriagoak, eskaintzen zuen irakaskuntza modu egokian arautzeko ezintasunak itorik, ateak itxi zituen arte.

Itzultzaile Eskola abiatu zen udazken horretan bertan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Irrati Telebista Eskola abiarazi zuen Donostiako Prim kalean. Xabier Mendiguren hizkuntz aholkulari eta itzulpen-eskoletako arduraduna izan zen, telebistan arituko ziren eta telebistarako lan egingo zuten gainerako profesionalak (bikoizleak, aurkezleak, esatariak...) prestatzeko lanetan. 1982ko abenduaren 31n, Karlos Garaikoetxearen Urtezaharreko hitzaldiarekin hasi zen emititzen.

Bien bitartean, goian aipatu dudana itzulpengintzari buruzko nazioarteko ikerketak eta argitalpenak arras ugaltzen ari ziren. Adibide bat jartzeko, Alacanteko Unibertsitatearen itzulpengintzari eta interpretazioari buruzko bibliografiaren BITRA datu-baseak erakusten du oso ondo nola indartu zen urte horietan itzulpengintzari buruzko ikerketa mundu osoan: 1950era arte 15 doktore-tesi argitaratu ziren munduan itzulpengintzari buruz. Hurrengo hamarkadan, 13. Hurrengoan, 18. Eta bat-batean, 1971-1980. urte bitarteko hamarkadan, Itzultzaile Eskolak iraun zuen aldiarekin bateratsu, ia hazkunde geometriko batez hasi ziren ugaltzen. Hala, hamarkada horretan 69, eta hurrengoetan, gaur arte: 205, 608, 1.222, 1.555. Itzulpengintzari buruzko 3.705 doktore-tesi metatu dira BITRA datu-basean.

[OHARRA: Hemendik aurrera Eskola edo Itzultzaile Eskola aipatzen den gutzietan, eskola horretan lanean ziharduen taldea behar da ulertu, ekimen kolektibo moduan, bertako zuzendari Xabier Mendiguren zela, noski].

Ez da erraza ikerketa-olde hori guztia eskuratu eta prozesatzea, ezinezkoa. Eskolak, irakasleek batez ere, baina baita ikasleek ere, mintegi baten itxura hartu zuten berehala; zenbait urtez iraun zuen mintegia irakasleentzat, oldeka iristen hasi zen nazioarteko gogoeta barneratu, geurera egokitu eta gogoetagai erabiltzeko. Une batean, espero izatekoa zen bezala, itzulpengintzari zegokionez nazioartean egiten ziren ekarpen horiek eta Eskolatik bertatik egin zitezkeenak euskal itzultzaileen artean —irakasleen, ikasleen eta profesionalen artean— zabaltzeko, aldizkari bat argitaratzeko erabakia hartu zen: *Senex*, gaur egun ere argitaratuz jarraitzen duena. 1984an argitaratu zen lehenengo alea. Zalantzarik ez dago eragintxoia izan zuela, eta duela oraindik ere, euskal itzultzaileen artean.

Bi datu edo anekdotak argitu dezakete zer esan nahi izan zuen aldizkari horren argitalpenak: 1986an inkesta bat egin nuen zenbait euskal itzultzaileen artean, Eskola sortu aurretik Xabierrek egin zuenaren antzekoa, itzultzaileen egoeraz, prestakuntzaz eta beste zenbait gairi buruz. (86 itzultzailek erantzun zidaten). Erantzuleen % 54 autodidaktak ziren oraindik. Itzulpen-teoriazko ezagupenak zein autoretatik ikasi zituzten jakiteko, galdera irekia zen. % 72k erantzun zuen; erantzun zutenetatik, % 22ak ez zuen zehaztu liburu edo autorerik («bat ere ez», «oso gutxi», «gutxi», «batzuk», «hainbat», «asko» izan ziren multzo horren erantzunak). Gainerako % 78aren barruan, gehien aipatu ziren liburu edo aldizkariaren artean lehenengoa *Senex* berau zen (% 62), eta ondoren Itzultzaile Eskolan argitaratutakoak (% 43). Horien ondoren, G. Mounin, García-Yebra, Vinay-Darbelnet, HAAE-IVAPek argitaratzen zuen *Administrazioa euskaraz* aldizkaria, *Meta*, *Babel*, *Traduire* aldizkariak, Vilen Komissarov, Jean Delisle, Alfred Malblanc, Carlo Buzzetti, Jean Maillot, Ernesto Zierer, Gerardo Vazquez-Ayora, Danica Seleskovitch, Nicholas Fleisher, Alexander Ljudskanov, Peter Neumark, Octavio Paz...

Beste alde batetik, pasadizo moduan, hauxe konta dezadan: 1989ko maiatzean, Valencian Unibertsitateko Frantses eta Italiar Filologiako Departamentuak jardunaldi batzuk antolatu zituen: Primer Coloquio Internacional de Traductología. Itzultzaile euskaldun banaka batzuk ere joan ziren, Martuteneko Itzultzaile Eskolatik, Gipuzkoako Foru Aldunditik eta EIZIetik. Azkeneko hitzaldia, hitzaldi magistrala, Leongo Unibertsitateko J.C. Santoyo irakasleak eman zuen: «Los estudios de traducción en España: estado de la cuestión». J.C. Santoyo ezaguna da itzulpenaren munduan idatzi dituen liburu interesgarriengatik: *El delito de traducir*, zinez gomendatzen dizuedana, besteak beste. Espainian itzulpengintzari buruz ikertzen eta argitaratzen zenaz jardun zuen gehienbat, eta besteren artean honakoa

esan zuen: «Los que más escriben hoy día en España sobre la traducción son los de la revista *Senex*, de los que alguno está presente aquí. No sabemos muy bien qué es lo que dicen, porque lo escriben todo en euskera, con algunos breves resúmenes en castellano e inglés».

Eguneroko ikasketa formalez gaindiko ikastaroak 1982an hasi ziren Itzultzaile Eskolan. 50 ordu inguruko ikastaroak antolatu ziren UZEIrekin batera. Aldi beretsuan IRALEREkin ere izan zuen lankidetzat. Ikastaro horiek euskal itzultzaileen lehenengo topaguneak izan ziren, ikasteko eta ezagutzak partekatzeko aukera izatez gainera. Horietan parte hartzen zuten itzultzaileen aldetik maiz jaso izan zen eskakizun bat, itzultzaileak nolabait berentzat pentsatutako egitura baten barruan antolatu beharra izan zen, eta hala, eskari horiek gogoan hartuz eta Espainian ezagutzen ziren beste itzultzaile-elkarteen ereduari jarraituz —Espainiako APETI (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes), Galiziako ATG (Asociación de Traductores Galegos) eta Kataluniako APTC/LC (Associació Professional de Traductors, Intèrprets i Correctors de Llengua Catalana)—, Itzultzaile Eskolak «euskal itzultzaileak eta beren lanak gizartean aintzat har zitezen lan egingo zuen eta talde horren interes profesionalak babestuko zituen» elkarte bat antolatzeko lanari ekin zion 1987an, elkartearen beraren orri berriemaileak dioen bezala. Elkarte hori, denok ezagutzen duzue, 1988an eratu zen itzultzaile multzo zabal bat bilduta. 60 bazkide inguru zituen une hartan; gaur egun 365 ditu. Helburuok zituen, sortu zeneko agirian esaten denez:

- a) Euskal itzultzaileei babes juridikoa eman eta lan baldintzak hobetzen saiatu.
- b) Bai euskarara, bai euskaratik egiten diren itzulpenen kalitatea zaindu.
- c) Euskarara era guztietako lanak itzul daitezen lan egin.
- d) Itzultzaileen formazioa hobetu, etab.».

Elkarte horren ardurapean dago orain lehen aipatu dudana *Senex* aldizkaria.

Gerora garrantzi handia izango zuen Eskolaren beste ekimen bat «Munduko literatura eta pentsamenduzko ondarea euskarara itzultzeko plangintza baterako oinarriak» proiektua izan zen, 1988ko azaroan aurkeztua. Bi iturburutatik zetorren proiektu horretarako inspirazioa:

Bat, UNESCOren Munduko Literatura Lan Esanguratsuak bildumatik, 1948an hasi eta 2005ean amaitu zena. Munduko literaturako 1.060 obra nagusi argitaratu zituen. Fernando Aínsa Amigues UNESCOren argitalpen-zuzendariaren, aipatu bildumaren zuzendariaren aholkuei jarraituz prestatu zen Eskolaren proiektu hori.

Bi, Galiziako ATG itzultzaile-elkartea une hartan prestatzen ari zen Biblioteca Virtual da Literatura Universal en Galego egitasmotik.

Bi sailetan zegoen banatuta Eskolaren proiektu hura, bi azpiproiektu bezala:

I. Literatur Obren Zerrenda.

II. Pentsamenduzko Obren Zerrenda.

Gerora bitan banatu zen: lehenengoa gaur egun EIZIEk kudeatzen duen Literatura Unibertsala egitasmoa da, eta bigarrena Pentsamenduaren Klasikoak izenekoa, BBV Fundazioak (gero BBVA), Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Kutxek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak eratutako elkarteak kudeatua. Aldi batez Xabier bera izan zen bilduma horren zuzendari teknikoa. 130 liburu argitaratu ondoren 2010. urtean amaitutzat emana. Egia da, hala ere, Eskolaren proiektu hartan proposatzen ziren 97 egileren literaturako 222 obretatik eta pentsamenduzko 98 egileren 163etatik, (azken hauetatik batez ere) asko daudela oraindik ere itzuli gabe, eta baita idazle horietako batzuk, garai hartan boladan zeuden arren, geroztik ahaztu samar daudela ere.

Eskolari dagokionez, hasierako urteetako ametsak zapuztuz joan ziren azkenaldirako, era askotako arrazoiengatik. Batetik eskola-bikoizketak gertatzen hasi zirelako. Martuteneko Itzultzaile Eskola / HAEK Gasteizen sortu zuen ALAIE (Administrazioko eta Lege Arloko Itzulpen Eskola). Beste alde batetik, eskola horiek ematen zituzten tituluak ezin homologa zitezkeelako garai hartako inongo ikasketa arauturekin, eta bazirudielako, gainera, Euskal Herriko Unibertsitateak oso denbora gutxiren buruan jarriko zuela martxan Itzulpengintza eta Interpretaritz Lizentziatura, azkenean 2000-2001 ikasturtea arte sortuko ez zena. Arrazoi hau berau Eskolaren estatusa apaltzeko arrazoiak ere izan zen, eta beste horrenbestez erakunde publikoen aldetiko finantzaketa urritzea, 1985eko Euskadiko gobernu-aldaketaren ondoren, horrek ekarriko zituen ondorioekin: krisi ekonomikoa, zorra, azken bi urteetan irakasleak bi lagun izateraino urritzea eta ikasketa-programa beste horrenbestean aldatzea. Eta, azkenean, itxi egitean. Itzultzaile Eskolen desagertzeak utzitako hutsunea, hala ere, Gasteizko Filologia

Fakultatean ematen hasi zen itzulpengintza-masterrak bete zuen, nolabait, hasieran. Master horretan ere parte hartu zuten Martuteneko Itzultzaile Eskolako irakasle ohiek.

Eta hortxe bukatu zen Xabier Mendiguren Bereziartuk Itzultzaile Eskolan egin zuen ibilbidea.

Ez, ordea itzulpengintzaren eta idazkuntzan egin zuena. 1992an, Julia Marín Arteaga andrearekin batera Itzulidatz lantaldea sortu zuen. Irakasle, itzultzaile eta idazle ugari trebatu da lantalde horrek banatutako ikastaroetan idatzizko komunikazioan. Eta hainbat lankide izan ditu partaide, orobat. Metodoari, eduki gehienei, iraupenei begiratzen bazaie, Martuteneko Itzultzaile Eskolak eman ohi zituen ikastaroen oso antzekoak ziren. Idazkuntza soilari leku gehiago ematen zitzaion haietan baino, baina itzulpenak eta itzulpen-irizpideek berebiziko garrantzia zuten hauetan ere, lantaldeko kideak oso barneraturik baitzuten euskarak bizi zuen egoeran idazkuntzaren parterik handiena itzulpen-egoeran gertatzen zela, itzulpen hutsa ez bazen, eta itzulpengintzak ematen dituen ikuspegiak oso kontuan hartzekoak zirela beti-beti horrelako egoera batean.

Xabier Mendiguren eta Julia Marínez gainera, Mila Garmendia, Lorea Arrieta, Karlos del Olmo, Patxi Petrirena eta Joxemi Hernándezek parte hartu zuten 1993etik 2010era bitartean eman zituzten 209 ikastaroetan: 8.330 ordu eta 2.913 ikasle, guztira. Araua, Estiloa, Idazkuntza, Itzulpengintza, Puntuazioa, Argitasuna, Kalitatea, Ahoskera izan ohi ziren ikastaroetako gaiak. Julia Marínek berak labur eta argi esan izan duen bezala: «Xabierrek ereindako haziak 30 urtean eman dute fruitua».

Geroztik, eta lan horiek baztertu gabe, ordu arteko jarduerak zabalduetako ikuspegiaren barruan, lehenik *Egunkaria* sortzeko lantaldean aritu zen, ondoren Euskararen Unibertsoa izeneko mugimenduan jardun eta gero Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, 2020tik aurrera Euskalgintzaren Kontseilua izenez ezaguna, sortu eta antolatzeke lanei ekin zien, beste hainbat lankiderekin batera.

1997ko abenduaren 6an aurkeztu zen Durangon Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Euskarak erabilera alor guztietan zituen arazoei aurre egiteko jaio zen Kontseilua, euskarak garapen osoa izan zezan lortzeko herri-ekimen bezala. Horretarako, barne- eta kanpo-indarrak euskararen aldeko prozesu zabalean inplikarazi nahian, Euskal Herriko gizarte-eragile guztien artean banatu nahi zuen euskara normalizatzearen protagonismoa, lankidetzaren dinamika berri bat

sustatuz eta gizarte-eragile nagusiak euskararen normalizazioaren alde bultzatuz. Euskalgintzaren koordinazio- eta eragin-tresna gisa sortu zen, beraz, Kontseilua.

Xabier, lehenengo biltzarrean aho batez idazkari nagusi izendaturik, 2010. urtea arte egon zen kargu horretan. Urte horietan hainbat eta hainbat ekimen bideratu zituen Kontseiluak. Bai Euskarari kanpaina, Bai Euskarari Akordioak, Plan Estrategikoa egitasmoa gauzatzeko diru-bilketak, Bai Euskarari Ziurtagiriak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Euskaraz Bizi Nahi Dut dinamika, Lan Mundua Euskalduntzeko Adierazpena...

Xabierrek urrutira begiratzeko zuen gaitasuna, pertsonak eta erakundeak elkartzeko zuen trebezia eta jendea martxan jartzeko zuen esku ona nabarmendu dute Euskalgintzaren Kontseiluan lankide izan zituen askok. Xabierrek berak esana baitzuen behin baino gehiagotan: «Hurbiltze lan bat egin beharra dago. Badirudi norgehiagokan gabiltzala, batzuen interesa besteei kontrajarria balitz bezala. Hori argitu eta garbitu beharra dago».

Azkenik, aurreko konpromiso horiek guztiak baztertu gabe, 2012an sortu zen Euskal Herria 11 Kolore (EH 11 Kolore) herri-ekimenean ere partaide aritu zen. Ekimen horrek Euskal Herrian bizi diren jatorri anitzeko herritarren artean zubiak eraikitzea eta elkar laguntzea du helburua, horretarako, euskara eta euskal kultura lokarritzat harturik. Hala bada, zehatzago, euskal populazioaren jatorri aniztasuna kontuan hartuta, honako helburu hauek ditu: Euskal Herriko herritar guztien eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna defenditzea; euskal gizartearen kultura-aniztasuna babestea eta sustatzea; jatorri askotako euskal herritarren arteko topaketako, elkarrekintzako eta elkarlaneko esparruen alde egitea; eta gogoeta, elkarriketa eta etengabeko eztabaida bultzatzea euskal gizarte osoan. Ekimen horren bozeramaile izan zen biziak iraun zion artean.

Esker bereziak eman behar dizkiet, orobat, Koro Navarro, Aintzane Atela, Mila Garmendia, Arantzazu Royo, Joanmari Larrarte eta Julia Marini saio honetarako egin dizkidaten iradokizunengatik.

Josu Zabaleta

3. *Irizpenak eta txostenak*

Joan Arin Dorronsororen *Material toponímico* bilduma-lanaren digitalizazioaz eta ortografia egokitzapenaz

LUIS MARI ZALDUA ETXABE
Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kidea eta
«Joan Arin Dorronsororen *Material toponímico* bilduma-lanaren
digitalizazioa eta ortografia egokitzapena» egitasmoaren¹ zuzendari akademikoa

0. Joan Arin Dorronsoro: bizitza eta toponimia arloko lana

Joan Arin Dorronsoro, herrikoentzat *Don Juan Txiki*, San Gregorio auzoko Telleriazpi baserrian jaio zen 1892an. Apaiz-ikasketak Gasteizen egin zituen eta, Araban —Artzubiagan eta Garaion— bi urtez aritu ondoren, sorterrira itzuli zen. Bertan eman zuen bizitza osoa. Jose Migel Barandiaranen auzokidea ez ezik, haren lagun eta jarraitzailea ere izan zen. Horren lekuko, hiltzera zihoala, Arinek haren esku utzi zituen bere lan argitaragabe batzuk, lagunak noizbait plazara zitzaizkion.

Telleriazpikoak estreinako lana —herriko landa eremuko bizilekuei eta giza egoitzei buruzkoa— 1926an kaleratu zuen, Barandiaranek sortu eta zuzenduriko *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian, kaleratu ere. Egin zuen lana ikusita, agerikoa da, orduko, toponimia atsegin zuela, eta jakinbide horri garrantzi handia ematen ziola, segur aski Barandiaranen eraginez, ezaguna denez, horrek toki-izenez ondo hornituriko eskuz egindako planoak sartu ohi baitzituen arkeologia ikerketei buruzko argitalpenetan.

1936ko gerraren aurretik egindako lanen artean, leku berezia merezi du

¹ 2021eko Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-beka egokitu zitzaion lan honi.

aipatu aldizkarian bi urte geroago (1928) atera zuen «Toponimia del pueblo de Ataun» artikuluak, bildutako izen-kopuruarengatik (2.500 toponimo inguru) zein erabilitako metodologiarengatik ere. Euskal eremuko aldizkari zientifiko batean, ahozko lekukotzak, aipamen idatziak, etimologia eta izenen kokapena zehazteko mapak edo krokisak bateratzen dituen lehenbiziko lanaz ari gara. Aitzindaria izan zen, beraz, Ataungo onomastika-ikerlaria 1928ko ikerlana aberasten duten eskuz egindako hogeita bi marrazkietan, errekek, antigoaleko galtzadak, bidezidorrak, etxeak eta baserriak, bordak eta oilategiak, behinolako orubeak, belardiak, ereiteko lurak, basoak, larreak eta harkaiztiak berezi eta adierazi zituen. Unibertso harrigarri bezain zoragarria berrogeita hemezortzi kilometro koadroko eremuan gordea.

1972an hil zen arte, hogeiko hamarkadan hasitako bilduma aberasten aritu zen Arin. Azkeneko, *Material toponímico* izenburupean, Ataungo 8.742 leku-izen (eta haien 589 alonimo) bildu zituen, hogeita bost karpetatan antolatu eta beste hainbeste planotan kokatu zituenak. Guztien ahozko formak eta askoren idatzizko lekukotzak jasotzeaz gain, Arinek izen gehien etimologia proposamena egin zuen. Urregorritzko altxorra. Lan horren bi original gorde dira, bata eskuz idatzia (aurrerantzean MT 1), bestea idazmakina (aurrerantzean MT 2) (< 1969).

1. Material toponímico bilduma-lanaren digitalizazioa

2020ko otsailean Ataungo Udalak Nelson Bautista teknikaria kontratatu zuen Arinen lana eskaneatzeko. Gazte zegamarrak, egitekoa urte bereko ekainean burutu zuen. Orduan udalak beste urrats bat egin eta lana digitalizatzea erabaki zuen, hau da, informazioa datu-base batean sartzea. Horretarako, jakina, lan guztia euskarri informatikoan idatzi beharra zegoen.

Guztiarekin, Joan Arinen *Material toponímico* bilduma –MT 2 kopia– digitalizatzeko eta atontzeko (ortografiaren aldetik egokitze) lanak 2021ean hasi ziren eta 2023ko urtarrilean bukatu.

Hain zuzen ere, 2020ko urrian Ataungo Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena adostu zuten, Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-bekaren babesean, Joan Arinek bildutako toponimia digitalizatzeko eta ortografia aldetik moldatzeko. Hitzarmenaren sinadura-ekitaldia, osasun -larrialdi egoera zela medio

(COVID-19 pandemia urtea), 2021eko maiatzaren 26an izan zen, Ataunen. Hitzarmenak urtebeteko iraupena zuen.

Ondoren, Euskaltzaindiak Paskual Rekalde Irigoien euskaltzaina beka esleitzeko epaimahaiko (eta lantaldeko) kide izendatu zuen eta, ni neu, Luis Mari Zaldua Etxabe, epaimahaiko kide eta egitasmoaren zuzendari akademiko. Mikel Gorrotxategi Nietok, Onomastika zerbitzuaren arduradunak, egitasmoan behar zen aldiro parte hartzea ere onetsi zuen Akademiak.

Deialdira hautagai bakarra aurkeztu zen, Txema Zubizarreta Aranbarri, eta lanari 2021eko uztailaren 19an eman zitzaion hasiera.

Ordutik hona hogeita bat aldiz elkartu gara laurok digitalizatzeko lanak behatzeko eta toponimo bakoitzari, dagokion fitxaren hasieran, datu-basean bakartzen duen forma esleitzeko. Hasieran, forma egokituak Euskaltzaindikoko kideok proposatzen genuen, baina, hari hainbat argibide eta irizpide adierazi ostean, azkeneko, ikertzaile beka-dunak berak proposatzen zuen, eta guk zuzendu. 2022ko uztailaren 27an Txema Zubizarreta Aranbarri beka-dunak Joan Arinek bildutako toponimia digitalizatzeko eta atontzeko egindako lanaren (lehenbiziko) ikuskerak eta zuzenketa amaitu zuen. Azpimarratzekoa da hiru lankideek erakutsi duten lanerako prestutasuna eta gogoia. Goresmenak hiruroi.


2. Arinen lanaren eta datu-basearen atalen azalpena

Joan Arin aitzindaria izan zen euskal toponimiaren ikerketan, esandako moduan, leku-izenen ahozko nahiz idatzizko aipamenak, informazio geografikoa (krokisak) eta etimologia arloko azalpenak bateratu baitzituen.

Honatx, MT 1 bilduma-lanean erabili zuen fitxa-eredua:

- Toponimoaren zenbakia sortan eta krokisean. Sortaren izena (*Elbarrena*, *Guesalbe*, *Murco-ondo...*) lehenbiziko orrian adierazten du.
- Ahozko forma (azpimarratuta): *Gaalde barruti*. Horixe da, nolabait esanda, fitxa bakoitzaren goiburua.
- Azalpen etimologikoa (aurretik = zeinua duela): «*cercado de Garayalde*».

- Horrelakorik denean, alonimoa(k): Luberrie [...] o Erdico Erloa [...] o Irigarai.
- Idatzizko erreferentziak, ez beti: «el año 1653 propiedades de Garayalde...».
- Toponimoaren jatorriari edo adierari buruzko argibideak, ez beti. Batzuk euskaraz daude: «[uztau] Planta utilizada por curanderos para la curación de diviesos o cosas similares. Asimismo, difícil de hacer en los sembradíos. "Lau urteen tximini igarotzen eguki eta kampa etaa zeenen oraindik lurre eskatu omen zoon uztauk bizitzeko"».



Eskuzko aldakiaren xehetasuna


Sorta bakoitzak krokis bat du eta han toponimoak zenbaki bidez adierazten dira. Eskuz eginak dira, bestela esanda, ez dira mapa kartografikoak.



Krokis baten xehetasuna

Orotara, alonimoak eta guzti, 9.331 leku-izen zenba daitezke Arinek, urte luzez, osaturiko bilduman. Gogora bedi Ataungo udalerriak 58 km2 dituela. Horrenbestez, 160 izen jaso eta gorde zituen, batez beste, kilometro koadroko. Bada zer bait.

Eskuzko aldakia (MT 1) gaztelaniazko grafiarekin idatzia dago (ch, gui...) eta idazmakina egindako kopia (MT 2), berriz, euskarazkoarekin (tx...). Azken honetan sortaren zenbakia ageri da toponimoaren zenbakiaren aurretik.



Makinazko aldakiaren xehetasuna

Arinek bildutako ondarea digitalizatzeko, alegia, Txema Zubizarreta Aranbarrik datu-basean informazioa sartzeko, erabili beharreko baliabide informatikoa Euskaltzaindiaren Euskal Corpus Onomastikoaren arduraduna den Patxi Galé García eta Mikel Gorrotxategi Nietok atondu dute. Zehazkiro, azken hau arduratu da haren moldaketaz, bateratzeaz eta zuzenketaz.

Egitura hauxe du:

- Ortografia egokitua duen forma edo goiburua.
- Ahozko forma/formak. Arinek bildutako gisan dago/daude. Alonimoek badute beren sarrera berezitua dagokien tokian ere.
- Etimologia azalpena, parentesi artean.
- (Idatzizko erreferentzia/erreferentziak).
- (Argibidea/argibideak).
- Sortaren izena. Arinek bildu zuen gisan dago.
- Sortaren zenbakia eta toponimoaren zenbakia sortan (bakoitza lau digitarekin).
- Entitate geografikoa.

Argoniz	<i>Argoniz</i>	
(=Ar-go-niz o Ar-gi-no-iz). 1572 “Arguinoiz”. 1616 “sitio de Arguinola”. 1727 “paraje de Arguinoiz”. 1762 “Arguinoz”. 1796 “Argoniz”.		
<i>Berranoa</i>	0022-00194	TOKIA
Goikoetxeko iturria	<i>Goikooetxeko iturrie</i>	
(=la fuente de Goikoetxea). 1809 “fuente de Goicoechea”. En el siglo XIX los vecinos de las casas Tellaazpiko, Goikooetxea, Gomontxoo y Etxetxo se servían de esa fuente. Es agua del río filtrada más arriba.		
<i>Murkondo</i>	005-0053	ITURRIA

Fitxa -ereduaren bi adibide

3. Ortografia alorreko egokitzapena

Toki-izen bakoitzaren fitxaren edo sarreraren hasieran, aipatu bezala, ortografikoki egokituriko forma bat dago, haren goibururako erabili duguna.

«Ortografikoki egokituriko forma» diogu, eta ez «forma arautua». Ñabardura horrek badu bere garrantzia.

Izan ere, gauza jakina da toponimia corpusak osatu, egituratu eta erabilgarri bihurtzeko nahitaezkoa dela artxiboetatik eta berriemaileengandik lortutako informazioa izenburu bakarraren azpian gorde eta ematea. Izenburu hori irizpide batzuk aintzat hartuz erabakitzen da eta eginkizunari «arautzea» deitzen zaio usuenik.

Beraz, toponimo bat arautzeko —ahozko forma edo formak jasotzeaz gain— haren idatzizko erreferentziak (ahal diren guztiak) bildu behar dira, asko aldiz haiek ematen dutelako toponimoaren jatorrizko forma jakiteko aukera eta, ondorioz, forma arautua aukeratzeko ere bai. Alabaina, guk ezin izan dugu lan hori egin, ez dugu artxibategirik hustu, bistakoak diren arrazoiengatik. Egia da Arinek idatzizko hainbat lekukotasun eskuratu zituela eta bilduman sartu, baina *Material toponimicon* dauden toponimo guztiek ez dute idatzizko erreferentziarik. Horrexegatik darabilgu «ortografikoki egokituriko forma» terminoa eta ez «forma arautua».

Ortografia egokitzapena egiteko aintzat hartu ditugun irizpideak azaldu aurretik, zilegi bekigu toponimoen zati generikoaz eta zati espezifikoaz bi hitz esatea.

Toponimoek, motzean esanda, (batzuetan) zati generikoa eta (beti) zati espezifikoa izaten dute. Zati generikoek, hau da, lurralde bateko entitate geografikoak izendatzeko erabilitako izenek (iturri, saro, errota...), ezaugarri berak dituzten izaki geografikoek osaturiko taldeak definitzen eta finkatzen dituzte. Izen generiko bakoitzak, horrenbestez, kokapen ezberdineko elementuak edo izakiak biltzen eta ordezkatzeko ditu. Izen generikoak, nolana ere, ez dira toponimoak bere horretan, besterik gabe, toki edo elementu ezberdinak identifikatu eta bereizteko ez dutelako balio. Batzuetan, haatik, espezifikotzat erabiltzen dira eta, nolabait esanda, horrela «estratifikatzen» edo finkatzen. Horrelakoak ere garrantzitsuak dira, besteak beste, izen generiko baten ibilbidearen berri eman diezaguketelako.

Izen edo zati espezifikoein alderantzizkoa gertatzen da, ezaugarri berak dituzten toki eta elementuei izen ezberdinak —gehienetan inguruan bakarrak direnak— ematen dizkietelako (*Larruntza*, *Urrinokoiz*, *Urrestaratzu...*). Hortaz, izen espezifikoak toponimoak dira beren horretan, toki edo elementu ezberdinak identifikatu eta bereizteko gai direnak, beste ezer erantsi gabe.

Hori horrela delarik, bi osagaiak dituzten toponimoetan, espezifikoa den zatiak izaki geografikoa zehazten du eta zati generikoak, berriz, izaki geografikoaren izatea orokortasunez janzten.

Honatz ortografia egokitzapena egiteko gogoan izan ditugun irizpide nagusiak:

a) IZEN EDO ZATI ESPEZIFIKOAK ETA GENERIKOAK

— Izen espezifikoak deklinabide-marka hartu badu, toponimoaren osagaiak bereiz idatzi dira: *Abaroko zelaia*, *Lonbardabideko zelaia*... Leku-genitiboaren bi hondarki (-ko) dituztenak ere, *Aitzerdiko bideko haitza* nahiz *Erdiko Iturrialdeko erreka* kasu, hiru osagaiak bereiz dituztela izkiriatu dira.

— Orobat, edutezko genitiboz (-[r]en morfemaz) hornituta azaltzen direnekin, etimoa, hemen bezala, gardena izanez gero, honetaraxe egin dugu: *Agirrerren egileorra*, *Zubizarretaren bordea*.

— Tartean deklinabide-atzizkirik ez dagoenean, toponimoaren osagaiak lotuta eman dira: *Arratetaerreka*, *Gomentsorosaletxe*.

— [Izenlaguna + izen generikoa] motako toponimoak bereiz idatzi ditugu: *Goiko kantera*, *Goiko kanterako txetolea*. Bigarren osagaia letra xehez eman dugu hitz arrunta izanez gero (*Goiko zelaia*); besteetan (izen espezifikoak direnean), ordea, larriz (*Goiko Zugaondo*).

Bilduman *Aizmusubideazpiko haitza* bezalako hainbat forma daude. Jokabidea bakarra bada edo nagusitasuna badu, leku-genitiboaren hondarkiaren ezkerretara dauden osagaiak elkartuta eman ditugu, goiko adibidean bezala.

— Zernahi gisaz, kasu-markaren bat (-ko, -[r]en) egonagatik, ez da beti garbi izaten toponimo baten osagaiak lotuta edo bereiz idatzi behar diren.

Konparazio batera, generikoak -eta atzizkia badu, gehienetan, osagai nagusiak bereiz idatzi ditugu: *Arkaitzeko Gaztañaeta*, *Karobiladeko Urkieta*... (ikus «Izen generikoak» atala aurrerago).

— Buruenik, diogun, bizirik dagoenean, (mugatzailea duen) espezifikoa eta generikoa lotzen dituen -eko hondarkia errespetatu egin dugula: *Aieko elizea* (ahoz, *Aieko elizea*); cfr. **Aiako elizea*.

b) IZEN EDO ZATI ESPEZIFIKOAK

— Berreskuratzeak, idazkietan oinarri hartuz, leku-izenaren etorkia garbi izanez gero egin dira, ez bestela: *Maindi* (ahoz) → *Barandiaran* (1383, 1827...); *Gomosaaltxe* (ahoz) → *Gomentsorosaletxe* (*casa de Gomensoro salesea*, 1729). Zalantzak egonez gero, aspaldikotasuna eta maiztasuna izan dira irizpide nagusiak tradizio idatziko eta oraingo aldaeren artean aukeratzeko orduan. Horrela bada, behin bakarrik kausituriko forma batek maiz dokumentatzen denak adinako pisurik ez du izan erabakiak hartzerakoan: *Amuñarinazpikoa* (*Amunarin*, 1619; *Amunaran*, 1647; *Amunarin chiquia*, 1731; *Amunain buru*, 1751; ahoz, *Amuñain azpikoa*).

Preseski, zenbait aldiz, aldaketa garrantzitsuak ikusten dira testigantza zaharrenen eta berriagoen artean, *Sebastian soro* (1619, 1671) eta *Sartin soo* (ahoz) lekuko. Erabakia hartzea ez da erraza, baina hemen identifikagarritasunari eman diogu lehentasuna, eta *Sartinsoro* idatzi. Hala berean, *Peskisoro* hobetsi dugu, eta ez *Peruskisoro* (*Peruco soro*, 1657; *Perusquisoro*, 1634; *Perusquisoro*, 1706; *Pesquisoro*, 1733; *Pesquisoro goena*, 1744; ahoz, *Peskisoo*).

— Dokumentatutako formak haztatzean XIX. mendeko erabilera izan da erreferentzia nagusia: *Antonigartza* (*termino de Yurriça llamado Antonygarçaeta*, 1619; *Antonigarza*, 1816; ahoz, *Anton igarza*); *Irupotzueta* (*Iripozueta*, 1789; *paraje de Iruipozueta*, 1822; ahoz, *Iru potzueta*).

— Bestalde, ahal den neurrian, tokiko hizkeraren ezaugarriak gordetzen saiatu gara, *Metalillorra* lekuko (*Metal illorra*, 1839; □ **Metalegileorra*), baina automatikoak diren aldaketak ez ditugu aintzat hartu: *Erdiragaztañadi* (*Erdira gaztanadi*, 1789; ahoz, *Erdia gaztinai*); *Erretoregaztañadi* (*Erretore gaztanadi*, 1757; ahoz, *Erretore gaztinari*).

– Izenondoak espezifikoki lotuta eta –hizkuntza estandarrean ez bezala– *h*-rik gabe idatzi dira: *Iberondoaundiko egileorra* (ahoz *Iboondo aundiko illorra*). Beraz, onomastikan ohikoa denez, izen espezifikoketan ez dugu <h> grafema erabili, nahiz eta hizkuntza estandarrean *h*-z idazten diren *haitz*, *haran* eta antzeko terminoen osatuak egon (*Aritzate*, *Arginagortu*...).

– Bokalekarketak (hiatoak) daudenean (*-a + -eta > -aeta-*) errespetatu egin ditugu: *Askaeta* (*Ascaeta*, 1652, 1771, 1777; ahoz, *Askaata*); *Amundaraingaztañaeta* (*Amundarain gaztanaeta*, 1788, 1809; ahoz, *Amunda gaztinaeta*).

Alabaina, bi bokal berdinen baturak (*-aa-*, *-oo-*...), azentuarekin zerikusia dutenean, ezabatu egin ditugu: *Illarreizarreko ekarra* (ahoz, *Illarrei zaarreko ekarra*), *Illoralde* (ahoz, *Illooralde*).

– Postposizioei dagokienez, *-atze*, *-aurre*, *-azpi* eta antzeko postposizioak hartu dituzten toponimoen sailean, izen espezifikokaren azken bokala eta postposizioaren aurrenekoa bera direnean (*Azaola azpia*, 1821; ahoz *Azaola azpi*), behin idatzi dira (*Azaolazpi*).

– Eta *-goena* postposizioari doakionez, itxuraldatuta dagoenean (*-guena*), ez da jatorrizko *-goena* berreskuratu, hau da, egokitzen gabeko aldaeraren alde jokatu dugu eta, konparaziora, *Arriaundiguena* sartu.

– Txistukariez denaz bezainbatean, oro har, egungo aldaera hautatu da. Hori horrela delarik, toponimo batek hitz amaieran *-z* duenean eta grafia horrek afrikari bizkar-hobietakoa adieraz dezakeela pentsatzeko arrazoiak dagoenean (*-aitz*, *-motz*), *-tz*-rekin egokitu dugu: *Olaetako lepoko haitz lehorra* (*Olaetako lepoko aiz leorra*).

– Sudurkari ondoren bizkar-hobietakoa ikusitakoan (*Ondarza barrena*), arruntean, afrikariz idatzi dugu (*Ondartzabarrena*), bertako euskara kontuan hartu baitugu, hots, normalki neutralizazioa egiten dela. Bestetik, *l*- eta *r*-kontsonanteen aldamenen ere, oro har, hori egitea erabaki dugu. Alabaina, zenbait sandhitan afrikariaren edo frikariaren aldeko joera ote dagoen ez dago argi; horrelakoketan, ez dugu aldaketarik egin: *Pardetako azkonarzulua* (ahoz, *Paardetako azkonar zulua*), *Salbideko iturzulua* (ahoz, *Salbiiko itur zulua*).

c) IZEN EDO ZATI GENERIKOAK

– Zati generikokaren hasiera-letra xehez edo larriz eman daiteke, hau da, *Auzmendiko ikarauna* nahiz *Auzmendiko Ikarauna* idatz daiteke. Gure ustez, ahal delarik, hobe da generikokaren hasiera letra xehez idaztea, hau da, izen arruntak bezala, mapetan-eta nahasketak egotea zailagoa baita horrela.

Usaia denez, generikoak izen arruntzat hartu dira eta ortografia estandarrez idatzi: *Kanterako bidezidorra* (ahoz, *Kanterako biitxurre*), *Gorritxadiko oilategia* (ahoz, *Gorritxaadiko ollateia*), *Lauztierrekako ferratokia* (ahoz, *Lauzti erreko perratokie*).

– Zenbaitetan, halere, tokian tokiko aldaerak errespetatu ditugu. Izan ere, *erlo* generikoan (cfr. *arlo*), konparaziora, hasierako erdiko bokala ez da fonetismo huts eta berria: *Iturburualdeko erloa* (*Yturburualdeko erloa*, 1789; ahoz, *Iturburu aldeko erloa*). Berebat, gaztelaniatik harturiko zenbat mailegu gorde egin ditugu, asko aldiz gauzak ez baitira erabat garbiak: *Larretzeko entradea*, *Lizardiko pasaijoa*, *Sagarzuloko puntea*...

– Ildo beretik, beste hainbat generiko ere ez ditugu (*stricto sensu*) euskara estandarrean idatzi, hots, ez ditugu *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an (EH) bildutako formak lehenetsi, aipatu iturrian ez direlako azaltzen (*Orotariko Euskal Hiztegi*an (OEH) bai, edo, behintzat, antzekoren bat), eta Ataunen –generikoketan nahiz espezifikoketan– usu lekukoturiko aldaerak direlako eta, ahal den guztietan, marratxoaren erabilera ekidin nahi izan dugulako (**Abortuko belar-soroko oilategia*...). Nolanahi ere den, aldi oro euskararen ortografia eta gramatika gogoan izan ditugu horrelakoak izkiriartzean.

– Generikoketan (eta espezifikoketan) gutxi agertzen diren formak izanez gero, hau da, bigarren osagaia, egiazki, generikoa den ala ez ziur jakiterik ez dagoenean, lehenbiziko hizkia letra larriz idatzita eman ditugu, alegia, espezifikotzat hartu ditugu: *Urrestartzuko Aizbizkarra*, *Atxurreneko Soroiturria*...

Hauexek dira:

Aiztondoa, *Aizbizkarra*, *Aizgaña*, *Aizpuntak*, *Aldapabarrena*, *Ankatea*, *Arasea*, *Argaratza*, *Aritzeta*, *Arleorra*, *Arraldepea*, *Arranpa*, *Arretagaña*, *Arzabala*, *Atxoa*, *Atxoaldea*, *Basaguena*, *Belartzadia*, *Berdetxoa*, *Bideazpia*, *Bidebitarte*, *Bideguena*,

Bidetartea, Bordaldea, Ekarbidea, Elusguena, Elzea, Erbaldea, Erlatxikia, Erreteia, Estradamusua, Etondoa, Gaiñera, Gaztaintxabola, Iditxabola, Illarregia, Iturbeltza, Iturriazpia, Iturrikua, Jeskera, Kanilla, Karobialdea, Kobagaña, Lepogaña, Lisobajolekua, Lizarreta, Lutoaldea, Lutozuloa, Makaitza, Mallapunta, Malloazpia, Malloburu, Muntegibarrena, Muntosondoa, Ordekaldea, Otadigaña, Otsobidea, Pagoaundia, Pagolekua, Partilekua, Sakonguena, Saroialdea, Saroibarrena, Soratxarra, Soroaldea, Soroapala, Soroiturria, Sulekua, Tortoia, Txabolaldea, Txelaikunea, Txerritegaldea, Txorrotza, Txuloguena, Urbidea, Urgorria, Urkieta, Zañpadurea, Zelaiazpia, Zubikurutzea, Zugaondoa.

Esandako moduan, ahoz bildutako generikoak idazteko, hizkuntza estandarreko aldaerak hobetsi ditugu, baina, eskuarki, hizkuntza batuko arauak lotu arren, hainbatetan salbuespena egin da, batik bat azpimarratzea merezi duen bertako hizkeraren (edo, oro har, euskararen) ezaugarri interesgarrien bat dagoenean edota idatzizko urrats adierazgarria utzi dutenean: LINASORO (en el Paraje llamado Linasoro bazterra, 1788; Linasorocho, 1816; castañal de Auzmendico linasoroa, 1822); BELARSORO (otro cerrado en Belazaco belarsoro andia, 1759; herbal de Belarsoro chiquia, 1821); IKARAUN (Amilzuco icaraune, 1707; Mendibilco icaraunbarrena, 1751; Amilzuco icaraunaren goena, 1752); MAILOGAINA (Iberondoco mallo gaña, 1760; el paraje llamado Belazaco mallo gaña, 1768; Osagaco mallo gaña, 1823).

Hain justu, ikusten den bezala, [izen espezifikoa + -ko + izen generikoa + postposizioa] moldeko zenbait toponimo ere hondarkiarene ondorengo osagaiak espezifikotik aparte eta biak batera idatzirik eman ditugu (Mendibilko ikaraunbarrena).

Honatz, datu-basean forma ez-estandarrek dituzten zati generikoak:

aloska, atsedentleku, azarizulo, azkonarzulo, belarsari, belarsoro, belartzadi, bidabe, bidaburu, bidegain, bideondo, bidondo, egileorralde, eluts, erlo, erre, errebueltza, estrada, estali, etxaburu, garaleku, gaztainaeshorta, gaztainamuntetia, gerba, gorostadi, guardetxe, haralde, ikaraun, ikazkintxabola, irristila, iturrialde, iturriazpi, iturrigoen, iturzu, jentilarri, karobizulo, kereinu, kerizti, kobalde, leizealde, linasoro, linosin, mailondo, mikelatetxe, minazulo, mugatu, muntetia, murko, narrabide, otasoro, patatasoro, putzuzulo, saltaleku, simaurleku, soratzulo, sorobarrena, sorogoena, trabaleku, txarakadi, txetola, txondarzulo, zearasoro, zubialde, zubiburu.

Beste alde batetik, zehatz dezagun bustidura adierazkorra, esanahi edo nabardura berezia aditzera ematen duena, gorde egin dugula: Erasolatzako txabala, Mendiurkulluko txuloa...

Halaber, -a bokalaz amaitzen diren generikoei mugatzailea eranstea -a + -a → -ea egiten da Ataungo (eta Goierriko) ahozko tradizioan (Andurio erdiko txaolea, Anzuzietako bordea...). Aldaketa horri begirunea izan diogu, are jakinik ez dela atzo goizekoa: Belsoarasco ordequea, 1788; Beroango errequea, 1816.

Generikoen atala bukatzeko, esan dezagun «oroia» hitza ezabatzea erabaki dugula, ez delako espezifikotako estratifikatu, euskal corpus onomastikoan urria delako oso; Arinek, 1969an argitara eman zuen generikoen bilduman² ez zuelako bildu, aurriak izendatzeko erabili zuelako eta, azken buruan, Ataungo berriemaileek egiazki erabiltzen ote zutelako zalantza handia dugulako. Artikulua dagoen edo ez jakiteko, antzekoak diren toponimoekiko analogiari jarraitu gataizkio Arakinillorra (Aakin illor oroia).

d) ESALDI TOPONIMOAK

Esaldietan iturri duten Satznamenekin hizkuntza estandarreko beste edozein multzorekin bezala jokatu da, alegia, bereiz eta ortografia arauak errespetatuz eman ditugu. Alabaina, tokiko hizkeraren ezaugarriak gordetzen ere saiatu gara eta, konparazio batera, Simon semek gizona il zoon lekue esaldia Simonen semeak gizona hil zon lekua idatzi dugu. Orobat, Basurdeak gizona hil zoneko lekua eta Gizona hil zaneke zuloko iturria hobetsi dugu.

e) HAGIOTOPONIMOAK ETA ANTROTOPONIMOAK

Zati espezifikoarene eta generikoarene artean kasu-marka dagoenean, hagiotoponimoak euskal grafiaz eta hiru osagaiak bereiz dituztela idatzi dira hagiotoponimoak (San Martingo plazea, San Gregorioko elizea); ez, ordea, bi zatien artean kasu-markarik ez denean, izan izen geografikoa (Sansebastianerreka) izan postposizioa (Sangergorioazpiko zelaia; ahoz, San Gergorio azpiko zelaye). Erabilerak

² «Contribución al estudio de la toponimia (ATAUN)». Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, 25 (4): 471-516.

horretarako bide emanez gero (ahoz *San Juan putzu*), salbuespenak egin dira eta, batzuetan, ez ditugu euskara estandarrean eman (*Sanjuanputzu*, eta ez **Sanjoanputzu*).

Jakina den bezala, leku-izen franko pertsona-izen eta -ezizenetan oinarritzen dira, *Santsakorta* edo *Zubikoetako Bautistaren oilategi berria* kasu. Sorburu den izena euskarazko beste edozein pertsona-izen bezala idatzi da (*Joseinazioren txabolea*; ahaz, *Jose Ignacioen txaolea*), baina zenbait kasutan ahozko formak errespetatu egin dira: *Erroiondoko Juanizioaren bordea* (ahoz, *Errondoko Juanizion bordea*), *Gergorionen estrada txarra* (ahoz, *Gergorion estrada txarra*).

Bukatzeko, hipokoristikoei eta ezizenei begirunea izan diegu: *Oñokarraren txabolea*.

4. Hurrengo urratsak

Joan Arinek, haien ahozko formak eta idatziko lekukotasunak biltzeaz gainera, leku-izen guztiak berak eskuz egindako krokisetan kokatu zituen. Horixe da, preseski, onomastika-ikerlari ataundarraren lanaren alderdi baliotsuenetako bat, lurrari hertsiki lotutako elementuak izanik, kartografian adierazi ezean, toponimoak «hankamotz» geratzen direlako, euren balioaren parte garrantzitsua ezabatzen delako.

Hori jakinda, Araungo Udalak (era informalean) 2021eko Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-bekaren babesean digitalizaturiko eta ortografiaren aldetik egokituriko MT 2ko toponimoak gaurko mapetan ezartzeko eta gordetzeko nahia eta borondatea adierazi du.

Asmo hori gauzatzeko, eta hori da gure proposamena, leku-izen bakoitzaren UTM koordinatuak (X eta Y) ETRS89 erreferentzia sisteman zehaztea eta, ondoren, eratu den datu-basean ezartzea da biderik egokiena, bi datu horiek izanez gero Arinek bildutako toponimoak gaurko euskarri edo oinarri kartografiko (digital) nagusietara nahiz aireko argazki geoerreferentziatuetara modu errazean eraman baitaitezke, motzean esanda, koordinatuak ezagutzen eta jasotzen badira toki-izenak edozein mapatan era automatikoan koka daitezkeelako.

Honetara esan beharrekoa da, gauza bat dela Arinek bildutako hizkuntza-ondarea egungo mapetara ekartzea eta bestea, demagun, digitalizaturiko MT 2ko toponimoekin «udal mapa toponimikoa» atontzea. Izan ere, —ortografiaren aldetik egokituta egonagatik— arautu gabeak direnez gero, datu-baseko izenak ezin dira, dauden-daudenean, 1999an plazaraturikoaren moduko (edo antzeko) mapa bat osatzeko erabili.

Guztiarekin, Udalaren asmoa da, gauzak ondo bidean, *Material toponímico* bilduma-laneko (MT 2) leku-izenei UTM koordinatuak esleitzeko eginkizunari 2023an lotzea. Aurreko lanetan bezala, Euskaltzaindiaren laguntza eta babesa izan nahi luke horretarako. Zentzu horretan, datutegiaren egokitzapenez gainera, Akademiaren egiteko nagusia litzateke, toponimoei beren kokaera zehazten duten koordinatu pareak egoki ezarri zaizkiela egiaztatzea eta haien konbertsioa egitea, hau da, euskarri grafiko geoerreferentziatu desberdinetarako behar diren koordinatuen moldaketa gauzatzeko, bereziki (Google Maps edo Google Earth bezalako baliabideek darabiltzaten) gradutan adierazitako koordinatu geografiko zehatzak (longituda eta latitudea), berariazko aplikazio baten bidez, automatikoki kalkulatzeko.

Bi erakundeak horretan guztian bat baletoz, aukera bat litzateke aurreneko lankidetzaldian erdietsitako emaitzak aurkeztean edo gizarteratzean balizko bigarren urratsaren berri ematea.

Bada, berriz, balizko hirugarren urrats bat, hau da, eskuzko aldakia (MT 1) —idazmakina (MT 2) bezala— euskarri digitalera ekartzea eta datu-basean bateratzea, Joan Arinek lehenbizi idatzi zuen hartan badaudelako egokitu berri dugun lan honetan azaltzen ez diren hainbat datu eta jakingarri.

Bistakoa da laugarren pausoa Joan Arinek bildutako izenekin eraturiko corpusa edo datutegia estandarizatzea eta gizarteratzea dela. Horretarako, baina, alde aurretik toponimia guztia arautu beharra dago (ikus 3 §) eta, jakina, eginkizun horrek beste baliabide batzuk eta beste plangintza bat behar ditu.

Luis Mari Zaldúa Etxabe
Hernanin, 2023ko otsailaren 3an

4. Batzar-agiriak

Ageriko bilkurak

I

Ageriko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2023ko urtarrilaren 27an

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 12:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, 2022an hil ziren Txomin Peillen euskaltzain emerituaren, Pello Zabala, Pello Apezetxea eta Miren Jone Azurza ohorezko euskaltzainen, eta Iñaki Segurola, Eustasio Etxezarreta eta Pedro Sancristóval euskaltzain urgazleen hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos, *Battittu* euskaltzainburordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Castillo Suárez, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Paulo Agirrebaltzategi, Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Koldo Artola, Josemari Iriondo eta Lontzo Zugazaga.

Euskaltzain urgazleak: Nerea Azurmendi, Patxi Iñigo eta Elixabete Perez Gaztelu.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Ibon Usarralde Egitasmoen bateratzailea, Iñaki Mendizabal Komunikazioa eta Irudia zerbitzuko arduraduna, Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria eta Maider Garaikoetxea teknikaria.

Laura Garrido Eusko Legebiltzarreko kidea.

2022. urtean hildako euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Ekitaldiari hasiera eman aurretik, aureskua eskaini zaie 2022an hildako euskaltzainen senideei. Ondoren, talde-argazkia egin da senideak eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak bertan direla.

A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Horiek horrela, zazpi omenduen profil euskaltzalea nabarmendu du bere sarrera-hitzaldian, eta euskara eta euskal kulturaren alde guztiek eginiko lan eskerga goraipatu du. Ondoren, banan-banan irakurri dira iaz zendutakoen hilberri-txostenak. Hori horrela, **Pello Zabala** ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostena Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak irakurri du; **Pello Apezetxea** ohorezko euskaltzainarena, Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak; **Iñaki Segurola** euskaltzain urgazlearena, Joseba Lakarra euskaltzain osoak; **Miren Jone Azurza** ohorezko euskaltzainarena, Nerea Azurmendi euskaltzain urgazleak; **Eustasio Etxezarreta** euskaltzain urgazlearena, Lontzo Zugazaga ohorezko euskaltzainak; **Pedro Sancristóval** euskaltzain urgazlearena, Eusko Legebiltzarreko kidea den Laura Garridok; eta **Txomin Peillen** euskaltzain emerituaren biografia, *Battittu* Coyos euskaltzain osoak.

Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak Pello Zabalar buruzko hilberri-txostenean nabarmendu duenez, P. Zabala oso ezaguna zen Euskal Herri osoan. Musikazalea, irati-esataria eta meteorologoa, gizon apal bezain adeitsua izan zen. Euskararen eta euskal kulturaren mesedetan eginiko lanak kontuan izanik, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2018an fraide frantziskotarra.

Pello Apezetxea etnografo, idazle eta ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostena Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak irakurri du. Apezetxea Etxalarko erretorea izan zen urte luzez, ekintzaile eta sustatzaile arlo sozialean, kulturean eta, bereziki, euskara babeste- eta sustatze-lanetan, beti jarrera aktiboa eta positiboa erakutsiz. Ttipi-Ttapa Fundazioaren burua izan zen, eta Herria 2000 Eliza erakundeko kide ere bai. Euskal kultura eta etnografiari buruzko zenbait liburu idatzi zituen eta artikulu ugari ere bai Euskaldunon Egunkaria, Berria, Egin eta Gara egunkarietan, eta Herria 2000 Eliza, Argia, Karmel eta Ttipi-Ttapa aldizkarietan. 2004ko azaroaren 26an ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Ostean, **Iñaki Segurola** hizkuntzalari eta euskaltzain urgazlearen bizitza aletu du Joseba Lakarra euskaltzain osoak. Euskal Filologian lizentziaduna (UPV/EHU), Euskaltzaindiak 1991ko urtarrilaren 31n izendatu zuen urgazle. Urte luzez, honako batzorde hauetan egin zituen bere ekarpenak: Orotariko Euskal Hiztegiaren

Lantaldean (1989-2005), Hiztegi Batuarien Lantaldean (1993-2009), eta Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoan (2010-2021). Idazlea ere bazen Seguroa. Lan ugari idatzi zuen, tartean, *Nere gorringotik* (Alberdania, 2008), *Sed quia sua* (Erein, 2020) edo *Koiteretzia* (Alberdania, 2021).

Miren Jone Azurza kazetari eta ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostena Nerea Azurmendi euskaltzain urgazleak irakurri du. Miren Jone Azurza aitzindaria izan zen kazetaritzan: lehen kazetari tituludun emakumezko euskalduna; hedabide bat zuzentzen ere lehen emakumezkoa eta abar. Historian lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea), *Zeruko Argiako* zuzendari izan zen zortzi urtez (1969-1977). *Deia*, *Garaia* eta *Muga* hedabideetan ere jardun zuen. 2011n Ohorezko Rikardo Arregi Saria jaso zuen, eta 2018ko apirilaren 27an, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Eustasio Etxezarreta euskaltzain urgazle gipuzkoarraren hilberri-txostena Lontzo Zugazaga ohorezko euskaltzainak irakurri du. Haurtzaroko ikasketak Andoainen egin zituen Etxezarretak, eta apaiz-ikasketak Donostiako seminarioan. 1963an, Donostiako elizbarrutiko apaiz egin zen. 1966-70 bitartean, Teologian eta Liturgian lizentziatu zen Erromako San Anselmo Institutuan. Donostiako elizbarrutian, Liturgia Idazkaritzako arduradun eta Liturgiako liburuen euskarazko itzulpenaren eta argitalpenaren elizbarruti arteko talde-arduraduna izan zen 1970etik aurrera. EiTBko *Meza Santua* emankizunaren elizbarruti arteko arduraduna ere izan zen. 1979an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Pedro Sancristóval euskaltzain urgazle gipuzkoarraren biografia Laura Garridok irakurri du. Araban, euskal kulturaren sustatzaile porrokatua izan zen Sancristóval. Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua izan zen 1999tik 2003ra arte, eta orduko hartan, euskaraz egin zuen karguaren zina. Artium Museoaren eta Gasteizko Jazz Jaialdiaren sustatzailea ere izan da, eta ospe handia izan du artearen munduan, ez bakarrik Euskal Herrian, atzerrian ere bai. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 1979ko abenduaren 20an, eta Euskaltzaindiaren Ekonomia batzordean jardun zuen 1987tik 1989ra arte.

Txomin Peillen euskaltzain emerituaren ibilbidea Jean-Louis Davant euskaltzain emerituak aletu behar zuen, baina etortzerik izan ez duenez, *Battittu* Coyos buruordeak garandu du. Peillen Parisen jaio zen, 1932ko azaroaren 17an. Biologian, Filologia Hispanikoan eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, Euskal Ikasketetan doktorea eta idazlea. Erretiroa hartuta zegoen Paueko eta Aturrialdeko

Unibertsitateko irakasle izatetik. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 1961eko azaroaren 17an, eta euskaltzain oso 1988ko apirilaren 29an. Euskaltzain emeritua zen 2007ko azaroaren 30etik aitzina. Bihotzez zuberotarra zen Peillen. Bere azken lana (Ene bertsoen bilduma) Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztu zuen, apirilean. Jendaurreko azken agerpena Euskaltzaindiak Baionan antolatutako gualdian izan zen, azaroaren 15ean.

Ekitaldia 13:45ean amaitu da, A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko hitzak entzun ostean; gaurkoan oroitutakoak omentzeko asmoz, hasieran esandakoak gogora ekarri ditu, hurreratu diren senide eta lagunaren aurrean hildakoek eginiko lanen garrantzia azpimarratu eta gogoan izanen ditugula berretsi du.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

II

Ageriko bilkura

Lekeition, Andre Mariaren Zeruratzearen basilikan

2023ko apirilaren 22an

Lekeition, Andre Mariaren Zeruratzearen basilikan, 12:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, Xabier Kintana euskaltzain osoa emeritu izatera igarotzearen ondorioz, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2022ko otsailaren 25eko osoko bilkuran euskaltzain oso izendatua izan zen Miren Agur Meaberen sarrera-hitzaldia egin eta hari dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos, *Battittu* euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Andres Iñigo, Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*), Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Miren Lourdes Oñederra, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Castillo Suárez eta Patxi Uribarren.

Ohorezko euskaltzainak: Luis Baraiazarra, Juan Luis Goikoetxea, Josemari Rementeria eta Julen Urkitza.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Igone Etxebarria, Jose Ramon Etxebarria, Manu Etxebarria, Asun Garikano eta Jazinto Iturbe.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Joseba Zabaleta Euskaltzaindiaren kudeatzailea, Ibon Usarralde Egitasmoen bateratzailea eta Iñaki Mendizabal Komunikazioa eta Irudia zerbitzuko arduraduna.

Koldo Goitia Lekeitioko alkatea; Pedro Zenigaonaindia Mendexako alkatea; Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Elixabete Etxanobe Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Adminis-

traziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatua; Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua; Amaia Antxustegi Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatua; Lekeitioko Udaleko zinegotziak, Lekeitioko alderdi politikoetako, elkarteetako eta erakundee-tako ordezkariak.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria eta Maider Garaikoetxea teknikaria.

Eusebio Erkiaga euskaltzainaren senideak.

Miren Agur Meabe euskaltzainaren Joanes Iñurreta semea, Carlos Moreno bikotekidea eta lagunak.

Ekitaldia zeinu-hizkuntzan ere eskaini da, Janire Alonso lekeitiarrak lagunduta.

2022ko otsailaren 25ean, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen Miren Agur Meabe Plaza idazlea. Ondoren, euskaltzainek denbora-tarte bat izaten dute sarrera-hitzaldia egiteko. Horiek horrela, Miren Agur Meaberen txanda izan da gaurkoa, eta idazleak sorterrian egin du ekitaldia, hain zuzen, Lekeition, Andre Mariaren Zeruratzearen basilikan. Ekitaldiaren aurretik, Euskaltzaindiak osoko bilkura egin du 10:00etan, Lekeitioko udaletxean. Ondoren, Lekeitioko udal bandak jo duen *Lekeitioko martxa* lagun dutela, euskaltzain osoak, emerituak eta agintariak basilikara hurreratu dira.

Ekitaldiari hasiera eman aurretik, M.A. Meabek lore-eskaintza egin dio R.M. Azkeri, lehen euskaltzainburua basilikan bertan hilobiratuta baitago. Lore-eskaintzak iraun duen bitartean, Itxaro Mentxakak *Agur Jesusen Ama* kantatu du.

Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Koldo Goitia Lekeitioko alkateak ongi-etorria egin diete bertaratutakoei. Segidan, M.A. Meabe euskaltzain oso izateko aurkeztu zuten euskaltzainetako batek, Jabier Kaltzakortak, eta, azken sarrera-hitzaldia egin duen euskaltzainak, Alfontso Mujikak, M.A. Meabe harrerabatzarra egin den basilikara sartzen lagundu dute, Lekeitioko Aratuste Alai Estudiantinak jo duen *Anteron Txamarrotia* kantaren laguntzaz.

Protokoloak agintzen dituen bestelako hitz eta aurrekarien ostean, *Itsaso bete mezu* sarrera-hitzaldia irakurri du idazle lekeitiarrak. Hasmentan, euskara eta literaturaren atea zabaltzeko zizkioten pertsonak omendu nahi izan ditu irakurraldian: gogoratu ditu herriko basilikan eginiko lehen irakurketak (lehen-lehena sei urte eta erdi zituela eginikoa), Labayruko ikastaroak, Xabier Kintanaren itzala («berari zor diot neure-neure egin dudana berba bat: *bisuts*»), Eusebio Erkiagaren aholkuak... «Pozik bihurtzen naiz zuon hurrengo katebegia —agertu du Meabek erakundeetako ordezkarien, euskaltzainen eta herritarren aurrean—, zuon eta zuon moduko beste batzuen konpromisoari eta argitasunari esker baitago gure hizkuntza dagoen tokian».

Segidan, bere ibilbide poetikoan itsasoak izan dituen agerpekiez mintzatu da poeta, luze-zabal, olerki-zatiak oinarritzat hartuta. Meabek hamahiru puntutan laburbildu du berbaldia: «Bizi-aroen portua»; «Arranegi versus Goikokalea»; «Hondartza, prisma bat»; «Orografiari buruzko apunteak»; «Itsas zoologiaren lagin batzuk»; «Oinarritzko gastronomia»; «Kresala, pasioaren perfumea»; «Itsasoa, doluaren gordailu»; «Genealogia femeninoaren ozeano horiek»; «Ur-mitoen gazitasunaz»; «Tresnak: belak, arrauna, amuak eta mapak»; «Itsas belarrien bilduma»; «Sormenaren ur irauliak»; «Harea, arbel eta lehengai».

C. Suárez euskaltzain osoak eman dio erantzuna, «Galtzearen arteaz» testua aletuta. «Galerei aurre egiteko idazten du Miren Agur Meabek. Agur esateko ere bai. Negar egiten du galerei neurria hartzeko. Idatzi egiten du gaitzetik ateratzeko. Baina, batzuetan, ez dago mina arintzerik, boligrafoak ez daki bereizten zer den lehenago, negarra edo mina, idatzia edo sentitutakoa, nahigabea edo gonbitoa. Batzuetan bihozmina biderkatu eta oinaze bihurtzen da, gainera. Orduan, nahiago du gorputzik eduki ez, eta testu hasikin bihurtu, esaldi mataza, ohar kaier. Finean, idaztea galtzen eta erratzen ikastea da». Galtzearen arteaz egin zuen Elizabeth Bishop poeta estatubatuarren poema zoragarria, eta poema horretatik abiatuta, C. Suárezek M.A. Meaberen poetikaren nondik norakoak azaldu ditu, metaforaz beteriko testu ederrean.

Akabuan, euskaltzain berriak karguaren zina egin du, euskaltzain izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela esanez: «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko ditudala neure hitza ematen dut». Gero, euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu idazleak euskaltzainburuaren eskutik.

Segidan, euskaltzainek banan-banan zoriondu dute M.A. Meabe euskaltzainkidea. Bitartean, Estudiantinak *Otzaratxu bat* abestu dute. Hitzak Eusebio Maria Azkuerenak dira eta Eusebioren semeak atondutako *Parnasorako bidean* (1896) jasota dago.

K. Goitia Lekeitioko alkateak hitza hartu eta Manilako xal zetazkoa oparitu dio Lekeitioko Udalaren izenean. Lekeitioko emakumeek darabilte xal hori egun seinatueta, besteak beste, dantzan egiten dutenean. Alkateak oihalaren inguruabarrak azaldu ditu.

A. Urrutia euskaltzainburuak amaiera eman dio ekitaldiari. Halako ekitaldien bitartez, Euskararen Akademia etengabe berritzen eta bere egitekoari jarraitutasuna ematen diola azpimarratu du euskaltzainburuak. Hala berean, ospakizunerako eguna izateaz gain, lanean segitzeko deia ere badela esan du, euskaraz jarduten duen hiztun-elkartearen beharrak aldian-aldian osatzen joateko ardura baitu Euskaltzaindiak. Hitz horien ondoren, *Kanela-usaina* habanera jo du Aratuste Alai Estudiantinak. 2018an, M.A. Meabek kantaren letra bat egin zuen, musika-talde horretako lagunaren eskariz. Eta hor ere, nola ez, gaurko bere hitzaldiaren ardatza ageri da, itsasoa, bertokoa nahiz Karibekoa.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

III

Ageriko bilkura

Altsasun, Iortia kulturunean

2023ko uztailaren 1ean

Altsasuko Iortia kulturunean, 12:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, Patxi Zabaleta euskaltzain osoa emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2022ko irailaren 30eko osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Castillo Suárezen sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos, Battittu euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Andres Iñigo, Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*), Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Miren Lourdes Oñederra, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Castillo Suárez eta Patxi Urizarren.

Ohorezko euskaltzainak: Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza.

Euskaltzain urgazleak: Iñaki Camino, Jose Luis Erdozia, Jazinto Iturbe eta Juan Jose Zubiri.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazioa eta Irudia zerbitzuko arduraduna eta Ibon Usarralde Egitasmoen bateratzailea.

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea; Ana Ollo Nafarroako Gobernuako Herriarrekiko Harremanetako kontseilaria; Javier Ollo Altsasuko alkatea; David Oroz Sakanako Mankomunitateko presidentea eta Urdiaingo alkatea; Txomin Huarte Uharte Arakilgo alkatea; Oihana Olabe-

ria Arakilgo alkatea; Maria Isabel Bel Pozueta Espainiako Kongresuko kidea; Arantxa Izurdiaga Nafarroako Parlamentuko EH Bilduko kidea; Altsasuko eta eskualdeko herrietako zinegotziak; euskalgintzako elkarte, erakunde zein ikastoletako ordezkariak.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria eta Itziar Luri teknikaria.

Castillo Suárez euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Sahatsa eta Pi taldeko Olatz Garde txelo-jotzaileak, Jasone Razkin klarinete-jotzaileak eta Naroa Carrasco xirula-jotzaileak girotu dute ekitaldia, eta horretarako zenbait pieza jo dituzte.

Gaurkoan, Akademiaren barne-arauek agintzen dutenari jarraikiz, sarrera-hitzaldia egitea egokitu zaio C. Suárez euskaltzainari. Euskaltzaindiak Altsasuko Iortia kulturunean antolatu duen ekitaldian egin du mintzaldia C. Suárezek. Aurretik, Euskaltzaindiak osoko bilkura egin du Altsasuko udaletxean.

Iortia kulturuneako atarian alfonbra gisa barreiatutako iratzeekin eta ekitaldiaren hasierako kanpai-hotsekin gogora ekarri nahi izan dute altsasuarren aspaldiko tradizioa, zeinetan uztartzen diren paisaia, uza onen babesa eta iragarpenen desio onak. Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu direnak agurtu eta ekitaldiaren zertarakoa azaldu du. Horren segidan, Javier Ollo Altsasuko alkateari hitza eman dio. Alkate jaunak gonbidatuak agurtu eta ekitaldiaren garrantzia azpimarratu du, euskaltzain oso bat Euskaltzaindian sartzea ez delako egunero gertatzen den zerbait, eta are ezohikoagoa delako halako ekitaldi bat Altsasun antolatzea. Hala berean, gogoan izan ditu zenbait euskaltzain nafar euskara belaunez belaun igarotzeko orduan berebiziko lana egin dutenak.

A. Arejita Euskaltzaindiko idazkariak adierazi duenez, P. Zabaleta euskaltzain osoa emeritu izatera igarotzearen ondorioz, Euskaltzaindiak, 2022ko irailaren 30ean Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, egindako osoko bilkuran euskaltzain oso izendatua izan zen C. Suárez. Era berean, idazkariak euskaltzain berriak 9. jarlekua hartuko duela gogorarazi du, lehenago, P. Zabaletak, Migel Olsagarrek (Damaso Intzako erlijio-izenaz ezagunagoa) eta Jose Agerrek izan dutena, hain zuzen. Azalpen horien ostean, S. Aleman eta M.A. Meabe euskaltzainek C. Suárez euskaltzaingaia lagundu dute Iortia kulturuneako aretora sartzen sarrera-hitzaldia irakur dezan.

Landareak hizpide hartuta harilkatu ditu berorren bizitzan eragina izan duten poema-liburuak Maitasunaren botanika izeneko hitzaldian C. Suárezek. Orobat, beregan eta bere idazkietan eragina izan duten poema-liburuak izan ditu gogoan. Bada, euskal poesia garaikidetik hainbat liburu eta egile hautatu ditu euskaltzain berriak. Hitzaldian zehar Jose Luis Otamendi, Harkaitz Cano, Jon Gerediaga, Igor Estankona, Rikardo Arregi Díaz de Heredia, Miren Agur Meabe, Leire Bilbao, Amaia Lasa eta Bernardo Atxagaren poemak hautatu ditu, bizipen pertsonalekin eta landareekin kateatu dituenak. Hautatutako landareok idazlearen poetikaren ezaugarriak erakutsi dituzte hitzaldian zehar, hala nola idazteko ausardia, ekintzailatza politikoa, oroimena, hiztegitintza, biziraupenerako gogoia eta abar.

M.A. Meabek gutun bidez eman dio erantzuna. Poetikari eta estetikari buruzko gogoeta intimo modura jorratuta, nafar poetaren gai batzuk aipatu ditu —galera, bakardadea, maitasuna, mina, langintza, erresistentzia...— eta mundu zabaleko beste idazle batzuen pasarteekin lotu ditu, hala nola Emily Dickinsonekin.

Erantzunaren ostean, euskaltzain berriak karguaren zina egin du «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki» beteko dituela esanez, eta euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu A. Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.

C. Suárezen Alaska poema-liburuari keinua eginez, Jantxo Zeberio musikariaren doinuek eta Irene Larrazak errezitatutako poemek girotu dute euskaltzainek euskaltzain berriari zorionak eman eta euskaltzain berria besarkatu duten unea.

Ekitaldi akademikoaren ostean, Javier Ollo Altsasuko alkateak ohorezko makila oparitu dio C. Suárezi.

13:40an eman zaio amaiera ekitaldiari, A. Urrutia euskaltzainburuak Altsasuko herriari eta herritarrei adierazitako esker oneko hitzak entzun ondotik.

Ondoren, Iortia kulturgunearen aurrealdean, giro alaietan, Altsasuko zortzikoa dantzatu dute dantzari, agintari eta herritarrek.

Era berean, ekitaldira hurbildutakoek zintzurra busti eta gozatzeko aukera izan dute Altsasuko Udalak eskaini duen auzatean, hau da, jai edo ospakizun baten jiran, Sakanako udalek egin ohi duten otamen arinean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

IV

Ageriko bilkura

Baionan, herriko etxean

2023ko urriaren 28an

Baionan, herriko etxean, 10:30ean, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, Xarles Videgain euskaltzain osoa emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, Donostian, udaletxean, 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuran euskaltzain oso izendatua izan zen Itxaro Bordaren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos, *Battittu* euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Asun Garikano, Andres Iñigo, Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*), Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Castillo Suárez, Patxi Uribarren eta Xarles Videgain.

Ohorezko euskaltzainak: Piarres Aintziart, Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Xipri Arbelbide eta Antonio Campos.

Euskaltzain urgazleak: Ur Apalategi, Jon Casenave, Aines Dufau, Pantxoa Etxegoin, Luzien Etxezarreta, Iñaki Irazabalbeitia, Lourdes Otaegi, Elixabete Perez Gaztelu, Iratxe Retolaza eta Jakes Sarraillet.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Joseba Zabaleta kudeatzailea, Iñaki Mendizabal Komunikazioa eta Irudia zerbitzuko arduraduna eta Ibon Usarralde Egitasmoen bateratzailea.

Jean-René Etxegarai Baionako auzapeza, Yves Hualde Baionako Herriko Etxeko 4. axuanta, Xabier Parrilla Baionako Herriko Etxeko Hizkuntza

Politika Arloko arduraduna eta 14. axuanta.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria eta Jasone Iroz teknikaria.

Itxaro Borda euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Gaurkoan, Akademiaren barne-arauek agintzen dutenari jarraikiz, sarrera-hitzaldia egitea egokitu zaio Itxaro Borda euskaltzainari. Euskaltzaindiak Baionako Herriko Etxean antolatu duen ekitaldian egin du mintzaldia I. Bordak.

Ttuntunaren eta txirularen doinuak, ekitaldiari hasiera eman dio Ibon RG musikariak. Horren segidan, Maddi Oihenart abeslariak eta Juantxo Zeberio musikariak *Ikusiko dira berri*z kanta eskaini dute.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu direnak agurtu eta ekitaldiaren zertarakoa azaldu du. Horren segidan, J.-R. Etxegarai Baionako auzapezari hitza eman dio. Auzapezak gonbidatuak agurtu eta ekitaldiaren garrantzia azpimarratu du, euskaltzain oso bat Euskaltzaindian sartzea ez delako egunero gertatzen den zerbait.

A. Arejita Euskaltzaindiko idazkariak adierazi duenez, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen I. Borda oragartarra 2022ko azaroaren 26an, Donostiako udaletxean egin zen osoko bilkuran. Bilera hartan, euskaltzain osoek bozketa egin zuten X. Videgain emeritu izatearen —hau da, 75 urte bete izanaren— ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta aurkezturiko hautagai bakarrak, hots, Itxaro Bordak, erdietsi zuen Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengoa.

Itxaro Borda euskaltzain urgazlea da Euskararen Akademian 2021eko azaroaren 26tik aitzina, eta, orain, euskaltzain oso bilakatuta, 4. aulkia hartuko du, esan bezala, X. Videgain euskaltzain emerituaren aulkia. Aipatu behar da, Videgainen aurretik, beste bost jabe izan dituela kadira horrek, lehenengotik hasita, hurrenez hurren: Arturo Campión, Juan Carlos Guerra, Ignazio Maria Etxaide, Piarres Lartzabal eta, azkenik, oraindik ere urtebete ez dela joan zitzaigun Txomin Peillen.

E. Osa idazkariordeak ekitaldiaren xehetasunak azaldu ditu. Horretarako, gogorarazi du Barne-erregilek, 64.8 artikuluan, sarrera-hitzaldiaz jasotzen dutena. Azalpen horien ostean, Battittu Coyos eta Castillo Suárez euskaltzainek Itxaro

Borda euskaltzaingia lagundu dute Baionako Herriko Etxeko areto nagusira sartzen sarrera-hitzaldia irakur dezan.

I. Borda, *Mugari tirorik ez!* izenburua daroan sarrera-hitzaldian, mugaren kontzeptuaz, euskararekin duen harremanaz edota euskal idazle gisa izan dituen zenbait bizipenez aritu zaie bertaratutakoei, eta, tarteka, berak idatzitako poema-sortak irakurri ditu. Hasieran, berari egokitu zaion 4. aulkian eseri diren euskaltzainak gogoan izan ditu: Campi3n, Guerra, Etxaide, Lartzabal, Peillen, Videgain; hitzaldiaren titulua ere euskaltzain baten idazlan bati eginiko keinua dela esan du, hain zuzen ere, Piarres Lartzabalen *Mugari tiro* antzezlanari.

«Muga» hitzaren inguruko gogoeta sakonak egin ditu Bordak, hitz horrek euskal-dunengan sortzen dituen kontraesan, beldur eta aieruak aletuz: «Mugatua den mundu bateko jende mugagabeak gara (...). Muga pertsonifikatuak. Hor dira jartzen ditugunak, jartzen dizkigutenak». Berak ere muga franko gurutzatu ditu bizitzan zehar, «batzuetan itzulerarik gabe». Aitortu du, espazio horretan oreka galtzeaz kau-situ dela sarritan, «oreka galdua zutenekin eguneroko ahaleginetan». Eta halako hausnarketak ondorioztatu ditu: «Mugak, aldizka, errotzen eta exiliatzen gaitu (...). Muga batzuen ametsa da eta besteen amesgaiztoa».

«Frontera» eta «muga» hitzen arteko desberdintasunak aztertu ditu gero, «muga» hitzak marra soila eta askotan arbitrarioa den frontera baino espazio sendoagoa betetzen duela esanez. Literatura ere mugako egikera omen, eta zentzu horretan, berak mugalari «izpiritua» daukala gaineratu du, «onerako eta txarrerako». «Hor nago, egundainokoan, orekaren mugetan, ezagutzen ez dudaren leizea oinpean eta erortzea zenbat kostatzen den hausnarrean —aitortu du Bordak—, idazlea, hon-darrean, Sisifo bat delako».

Ondoren, izan duen ibilbide literarioa aletu du, eta, bidenabar, bere inguruko hizkuntzekin izaniko harremana: «Memoriaren intimitatean elkar bizitzen zebizki-gun euskara, gaskoia, frantsesa eta kolegioan gehitu zaizkigun ingelesa eta gazte-lania (...). Askotan arras euskaldunak ere ez ginela entzun behar izan genuen, gu baino perfektuagoak ziren euskaldunen partetik. Mugetakoak, ipar-mugetakoak, hitzak trukatzu iraun zuten hiztunak». Hemen bere «izpiritu xarnegua» aipatu du, «hizkuntzak ikastea, ezagutzea, hizkuntzekin lan egitea, jostatzea, komunikatzea» gustukoa duelako.

Gogoratu ditu, baita ere, telebistarik ez zegoen etxean idatzitako hastapeneko

poemak, Lafitteren gramatikarekin, *Haize Garbiako* hiztegiekin eta *Herria* astekariaren laguntzaz euskara berreskuratzen hasi zeneko memento hura, *Maiatz* aldizkariaren sorrera, bere lehen itzulpenak, liburuak, prentsarako eginiko artikulua andana, Seaskan eginiko ahaleginak eta abar.

Jarraian, literaturari heldu dio eta «euskal emazte idazleei bidea ireki zien belaunaldiaren parte» sentitzen dela adierazi du. Hortxe aipatu ditu Amaia Lasa, Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Tere Irastortza, Marixan Minaberri eta Marikita Tanburin: «Kezka sozial berriak ekarri genituen plazara, gorputzaren inguruko ikuspegi pentsaezinak eta, bistan dena, oroz bat, planeta honetako jendetzaren erdiaren presentzia literarioa (...). Erakutsi nahi genuen, egunean eguneko euskara beharbada inperfektu batean, gure mundua ez zela bakarrik artzainez, laborariz, apezpe eta hondar denboretan kazetariz eta irakasle kiristinoz osatua (...). Emazte sortaileak hor ginen, aniztasunaren ikur, eta emakume horietatik zenbait lesbianak ginen. Amaia Ezpeldoi detektibeak, 30 urteko bere ekinean, Euskal Herriko LGBTQIA+ jendearen destinoa paperean etzan du». Aurretik, *Maiatz*erako idatzia zuen Bordak ipuin eder bat, *Klara eta biok*, non euskal literaturako lehen neska bikote esplizitua erakusten den.

Baina bide luze eta emankor hori ez du bakarrik egin, eta aitortza egin die Bordak bere laguntzaile eta lagunei, tartean, Jean Errekart, Junes Casenave, Manex Erdozaintzi-Etxart, Eñaut Etxamendi eta Luzien Etxezaharretari. «Periferiako idazlea ez ote naizen galdetzen didate anitzetan. Bada euskal munduan zentro erabakitzaile garrantzitsu bat? Periferiako izateak —eta hala naiz duda izpirik gabe—, idazle minorra naizela erran nahi ote du?», kezkatu da Borda, baina ororen gainetik herria, hizkuntza eta literatura maite dituela azpimarratu du baxenabartarrak: «Idaztea izan da herriarekin ukan dudana lotura nagusia (...). Ez naiz euskararen jabe sentitzen, euskara eman zidaten, galdu eta berreskuratu nuen, ez niretzat atxikitzeko, baizik eta partekatzeko, eskuzabal linguistikoa izateko». Baina aitortu du bere kultur ekinean zalantzak dituela, «inpostore» sentitzen dela maiz, «batez ere gaur bezalako egun zehatzetan», baina gaineratu du, horixe dela bere betekizun «obsesiboa», mugalari izateak oparitzen dion «aldi berean *inside* eta *outside* ibiltzearena».

Ingurukoei eskerrak emanez («deus ez da egiten ahal, inguratzen gaituztenen konplizitateak gabe») bukatu du sarrera-hitzaldia, mugaren kontzeptuari azken astindu bat emanez («“muga” sorkuntzaren derrigorrezko baldintza da»), eta, nola

ez, irakurleak xaxatuz: «Iraun beza irakurleak esnaturik eta kritikoa izaten, ez diot besterik desiratzen».

Sagrario Aleman euskaltzain osoak erantzun dio, eta Bordaren bizipenak, idatzia eta kezka zeintzuk diren azaltzeaz gain, euskararen muga administratiboak izan ditu hizpide Euskaltzaindiko Jagon sailburuak. Elkar ezagutu zuteneko unea gogoratu du: «Oker ez banago, Aresoko elizetxean euskara ikasleekin egin genuen barnetegi batean»; eta ondoren «muga» hitzari heldu dio, baina Nafarroa gogoan duela: «1986an, Nafarroako Euskararen Legeak, irizpide jakinik gabe, Nafarroa zatitu zuen. Hiztunon eskubideak ukatzeko eta hizkuntza-komunitatea desagiteko egin zituzten eremuen arteko mugak. Euskaraz ez daiteke inon bizi, ez eta eremu euskaldunetan ere, legeak euskara ofiziala dela esanagatik, eremu horretako hiritarrek zerbitzu gehienak euskara ofiziala ez den eremuan baitituzte». Eta gogor salatu du laster 40 urte beteko dituen lege horren ondorio zuzena: «Nafarren artean hesi mentalak handitzen ari dira. Ondorioak bistan ditugu gure buruetan: dagoeneko, anitzendako euskara ez da nafar guziena. Euskaraz bizitzea ezinezkoa da».

Ondoren, I. Bordaren bizitzako zenbait pasadizo kontatu ditu Alemanek modu jostagarrian, eta haren euskararen eta euskal kulturaren aurrean duen jarrera aktibo eta kritikoa nabarmendu nahi izan du. «Euskaltzaindian ere zure ezten probokatzailea dastatuko dugula uste dut», esan du euskaltzain nafarrak.

Erantzunaren ostean, euskaltzain berriak karguaren zina egin du, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki» beteko dituela esanez, eta euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu A. Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.

Xabier Parrilla Etxart eta Audrey Pelse txistularien, Yves Panizzoli txistu handiaren eta Bernard Xaubadindegi atabalariaren partaidetza tarteko dela, bi pieza jo dira. Horren ondoren, ekitaldi akademikoa amaitu delarik, J.-R. Etxegarai Baionako auzapezak liburu eta lore-sorta bana oparitu dizkio I. Bordari.

12:45ean amaiera eman zaio ekitaldiari, A. Urrutia euskaltzainburuak Baionako herriari eta Ipar Euskal Herriko herritarrei adierazitako esker oneko hitzak entzun ondotik.

Ostean, areto nagusiaren ondoan, ekitaldira hurbildutakoek zintzurra busti eta gozatzeko aukera izan dute Baionako Udalak eskaini duen aho gozagarri arinean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

V

Ageriko bilkura

Getarian, udaletxean

2023ko azaroaren 25ean

Getarian, udaletxean, 12:00etan, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, Andoni Sagarna euskaltzain osoa emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, Donostian, udaletxean, 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuran euskaltzain oso izendatua izan zen Andres Alberdiren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jean-Baptiste Coyos, *Battittu* euskaltzainburuordea, Adolfo Arejita idazkaria, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Miriam Urkia Iker sailburua, Sagrario Aleman Jagon sailburua, Andres Alberdi, Miren Azkarate, Itxaro Borda, Asun Garikano, Andres Iñigo, Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*), Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Castillo Suárez, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Luis Baraiazarra, Antonio Campos, Juan Luis Goikoetxea, Jose Mari Iriondo eta Julen Urkitza.

Euskaltzain urgazleak: Antton Aranburu, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Jose Ramon Etxebarria, Iñaki Irazabalbeitia, Jazinto Iturbe, Mikel Lasa, Anjel Lertxundi, Jesusmari Makazaga, Lourdes Otaegi, Elixabete Perez Gaztelu, Josu Pikabea eta Luismari Zaldua.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Joseba Zabaleta kudeatzailerak, Iñaki Mendizabal Komunikazioa eta Irudia zerbitzuko arduraduna eta Ibon Usarralde Egitasmoen bateratzailea.

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia, Xabier Ezeizabarrena Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea, Bingen Zupiria Eusko Jaurlari-

tzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Haritz Alberdi Getariako alkatea, Maddalen Iriarte EH Bilduren Gipuzkoako bozeramailea, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria, Getariako eta Elgoibarko zinegotziak, Getariako alkate ohiak eta Getariako elkarte eta erakundeetako ordezkariak.

Euskaltzaindiko langileak: Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria eta Maider Garaikoetxea teknikaria.

Andres Alberdi euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Gaurkoan, Akademiaren barne-arauek agintzen dutenari jarraikiz, sarrera-hitzaldia egitea egokitu zaio Andres Alberdi euskaltzainari. Euskaltzaindiak Getariako udaletxean antolatu duen ekitaldian egin du mintzaldia A. Alberdik.

Getariako Salvatore abesbatzak eman dio hasiera ekitaldiari, *Txanton Piperr* euskarazko lehen operako kanta eta *Getariako ereserkia* kantatuz. Jakina denez, Getariako ereserkia 2008. urtekoa da, Txomin Mujika da musikaren egilea eta Aitzol Arriola, berriz, letrarena.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu direnak agurtu eta ekitaldiaren zertarako azaldu du. Horren segidan, Haritz Alberdi Getariako alkateari hitza eman dio. Alkateak gonbidatuak agurtu eta ekitaldiaren garrantzia azpimarratu du, euskaltzain oso bat Euskaltzaindian sartzea ez delako egunero gertatzen den zerbit. Hala berean, Euskaltzaindia Getarian izatea ohore handia dela eta, euskararen inguruan, azkenaldian jazotzen ari dena gogoan, euskarari atxikitze eta euskararen erabileran zein biziberritzean jauzi egiteko deia egin du.

A. Arejita Euskaltzaindiko idazkariak adierazi duenez, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen A. Alberdi getariarra 2022ko azaroaren 26an, Donostiako udaletxean egin zen osoko bilkuran. Bilera hartan, euskaltzain osoek bozketa egin zuten A. Sagarna emeritu izatearen —hau da, 75 urte bete izanaren— ondorioz sortutako hutsunea betetzeko, eta aurkezturiko hautagai bakarrak, hots, A. Alberdik, erdietsi zuen Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengoa.

Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria, 1950), Filosofian lizentziaduna da. Irakas-kuntzan aritua 38 urtean. Lehenengo, Elgoibarko Ikastolan; ondoren, Elgoibarko Institutuan, eta bertan, Euskara eta Literaturako katedraduna 1982tik aurrera,

harik eta 2011n erretiroa hartu zuen arte.

Bakarka zein elkarlanean, 1986tik hasita, DBHko eta Batxilergoko Euskara eta Literaturako hogeitik gora ikasliburu eta gramatikaren egilea da. 1986-1990. urte bitartean, EGAKo aztertzaile-taldeko kide, eta, 1988-1990. urteetan, Azterketa Batzorde Ofizialeko Zuzendaritzako kidea, Gipuzkoako arduradun akademiko gisa. 1991-92 ikasturtetik 2011ra arte, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko EIMA Programan aritua da.

2007tik hona, Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko Lantaldeko partaide da. 2014tik aitzina, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburu batzordeburu, eta batzorde horrek 2018an argitaratutako *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* (2018) prestatzaile eta egilea. 2022tik aurrera, Morfosintaxiaren Estandarizazioko Batzorde Ahaldunduko idazkaria da. *Euskara Batuaren Eskuliburuaz* gain, bestelako lan batzuk ere ondu ditu Alberdik. Tartean, Bidegileak bildumako bi kaiera (Manuel Larramendi eta Agustín P. Iturriagaren jardun eta bizitzari eskainitakoak), *Oinarritzko gramatika* (Elkar, 2008) eta *Ahoskera* (EIMA, 2014). 2018an euskaltzain urgazle izendatua izan zen.

E. Osa idazkariordeak ekitaldiaren xehetasunak azaldu ditu. Horretarako, gogorazi du Barne-erregielek, 64.8 artikuluan, sarrera-hitzaldiaz jasotzen dutena. Azalpen horien ostean, A. Sagarna eta I. Borda euskaltzainek A. Alberdi euskaltzaingia lagundu dute Getariako Udaleko Osoko Bilkuren aretora sartzen, sarrera-hitzaldia irakur dezan.

Irakurtzen hasi aurretik, Eñaut Elorrieta suhiak *Itzaltzuko bardoa* kantaren bertsio bat abestu du. Arturo Campión da letraren egilea eta Benito Lertxundi musikarena.

A. Alberdi harrituta agertu da herrikide, euskaltzain eta erakundeetako ordezkarien aurrean («ametsik ederrenean ere inoiz ez zitzaidan agertu gaur eguerdiko imajina hau», esan du), eta gero lotsa puntu bat ere baduela aitortu du: «Pentsatu nahi dut, nire merezimendu pertsonalak baino areago, nire izenean, eskoletako maisu-andereñoen eguneroko afana eta ekina saritzen direla nire izendapenarekin». Ekitaldia non egin ere izan da bere buruhausteetako bat; bada, berak argitu duen moduan: «Neure burua getariartzat aitortu arren edonon, ez ditut alferrik eman nire bizitzako 50 urte Elgoibarren».

Ondoko berbak Euskaltzaindian ordezkatzeko duenarentzat izan dira, hots, A. Sagarna euskaltzain emerituarentzat. Eskualdean jaiotako euskaltzainak ere gogoan izan ditu, hala nola Bonifazio Etxegarai, Julene Azpeitia, Salvatore Mitxelena, Karmele Esnal, Iñaki Beobide, Antonio Campos, Anjel Lertxundi, Andoni Egaña, Mikel Lasa eta Kaxildo Alkorta. Den-denak gogoratu eta goratu nahi izan ditu gaurko berbaldian irakasle eta hizkuntzalari getariarrak.

Segidan, hitzaldiaren mamia heldu dio Alberdik, eta arauen «itsasoan» barna igeri egiten ausartu da. Honela, arauekin izan duen bizipen pertsonalez eta harremanez aritu izan da mintzaldiaren lehen partean, arauak baitira getariarren ibilbide profesionaleko ardatzetako bat, beronen alaba Uxue Alberdik liburu batean gogoratu zion moduan: «Gramatika du aitak ezinegonari aurre egiteko modua, araua zaintzea du ofizio, seguru sentitzen da sintagmaren barruan». Ofizio eta afizio, eta hitzaldian horri eutsi dio, fin-fin, urte askotan irakaskuntzan eta testugintzan bildutako pentsamenduak, asmoak, bizikizunak, itxaropenak, aukerak, ilusioak eta frustrazioak aletu dituela herrikideen aurrean. Eta bizipenen errepasoa bere jaioterrian hasi behar, jakina: «Euskararen unibertsoa ageri zait nondik-nahi hartaz —Getariaz— gogoratzean; izan ere, modu naturalean bizi genuen Getarian euskara. Eta euskara bizi-bizia, espontanea, trabarik gabea genuen ezpainetan». Testuinguru horretan hasi zen Alberdi gaztea euskararen arauen bere «balio-mapa pertsonala» eraikitzen. Bere lehenengo gramatika-ikasbidea (Mikel Zuazabeitia abadeak emana) gogoratu du, eta zortzi urterekin konturatu zen euskarak ere bazuela gramatika bat, bazituela arauak. Seminarioan emandako 11 urteak ere gogoratu ditu (Saturnarangoan lehenbizikoak eta Donostiakoan gainerakoak), damu barik: «Alderantziz: zorte hitza da erabili beharko nukeena, zeren frankismoaren gordinen bizi izan arren, euskal komunitate bateko partaide sentiarazi baikintuzten han». Honela, euskaraz oso gazterik alfabetatzeko parada izan zuen Alberdik, Joan Maria Lekuonaren itzalpean («Bide-erakusle aparta izan zen guretzat», aitortu du) eta Jose Zabala-Aranaren *Gramática vasca* ikasliburua oinarri. Baina bestelako kontu bat ere ikasi zuen, oso garrantzitsua: «Hizkuntza bat ondo ikasteko, hizkuntza horren arimara iritsi beharra dagoela, eta arima hori herri-literaturan dagoela batik bat».

Ondoren, Getariatik Elgoibarrera jauzi egin du. 1973an iritsi zen herriko ikastolara, gaztetxoei Euskara eta Gizarte Zientziak irakastera. Hantxe ikasi omen zuen beste lezio garrantzitsu bat, ikasle batek «ingurrazti» hitza erabili (aranisten gurdiko hitza, 'koaderno' esan nahi duena) eta ulertu ez zionean: hain zuzen,

«garbizalekeriak ez ginderamatzala inora». Gogoratu du, baita ere, hutsaren hurrengoa zela orduko euskarazko ikasmateriala, eta tantaka-tantaka eskuratu zituztela, handik eta hemendik: Xabier Kintanaren *Hiztegi modernoa* (1977), Euskaltzaindiaren arauak, Juan Antonio Letamendiaren *Euskera* 6, Saioka liburuak edo Txillardegiren, Patxi Altunaren eta Luis Villasanterenak.

Honela, beharrak eraginda hasi zen testugintzan Alberdi, eta hortxe ikasi zuen, halaber, talde-lanaren balioa, boskote bikaina osatu baitzuen getariarrak Angel Ugarteburu, Iñaxio Garmendia, Myriam Villasante eta Markos Balentziagarekin batera. Testugintzan jardun zuen taldeak 20 urtean. Gero, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982an abiatu zuen EIMA lan-programa aipatu du Alberdik, eta, ondorioz, urte luzez bertan eginiko lanak. Beste lezio bat ere ikasi zuen EIMAn: «Jendeak eta argitaletxeek estimu eta jarrera onez hartzen dituztela arauak, are gehiago horiek argi esplikatzen badira». Zeregin horretan lagungarri estimatua izan zuten 2000. urtean argitaratu zen Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* (HB).

Euskararen itsasoan izandako ibilbideari jarraituz, seigarren portua aipatu du euskaltzainak: Euskara Batua Eskuliburua (EBE). 2014an sortu zen batzordea, eta ordurako euskara batua aski gorpuztuta ageri zela onartu du: «Helduaroan sartuta nolabait esateko, hizkuntzaren oinarriei dagokienez». Eta lezio berri bat ikasi zuen zeregin horretan ere: «EBEk adierazi zigun araugintzaren egoera zein zen, eta zer falta zen oraindik arautzeko». Lan horren emaitza da, hain zuzen, bost urtean plazaratutako paperezko beste horrenbeste edizio (sarekoa etengabe eguneratzen baita).

Sarrera-hitzaldiaren bigarren partean araugai berri batzuen demandan aritu da euskaltzain oso berria, eta eskari edo aldarrikapenarekin batera, hausnargai, euskararen eta arauen gaineko kezka eta gogoeta batzuk aletu ditu.

«Ezin gaitezke arauen mundura bakarrik mugatu —onartu du Alberdik—. Dena ez da araua; arauak (edozein arlotan) bizitza zaintzea behar luke helburu». Euskararen auzia prozesu bat dela esan du, eta prozesu hori bi bidetatik egin behar dela azpimarratu: «Alde batetik, normatibizazioa daukagu: hizkuntza arautzea, malgutzea, aberastea. Horixe da euskaltzainon, idazleen, itzultzaileen, irakasleen egiteko behinena (...). Baina denok dakigu erronka hortik kanpokoa dela: benetako zailtasunak, gaur-gaurkoz, ez direla corpusarenak (hau da, arazoa ez dela arauarena), estatusarenak baizik (hau da, euskararen normalizazioarena);

alegia, hizkuntza erabiltzeko eremuak irabazteko desafioan dagoela lana». «Hor jotzen da, egiazki, euskararen geroa, ez arauetan», nabarmendu du irakasle gipuzkoarrak. Onartu du, orobat, euskararen normalizazioak «zutabe hauskorrak» dituela, eta zentzu horretan adierazi du, aurrera egin behar dela estandarizazio eta normatibizazioan, baina ez bakarrik horretan, garrantzitsua baita, era berean, «euskararen helburuak garbi izatea eta horien aldeko pedagogia egitea». Eta ondoren bost ardatz ezarri ditu (nahiz sarean eskegiko den dokumentu idatzian hamaika ageriko direla adierazi duen), «garbi izan behar genituzkeen helburuak»: euskara batua ez dela batere monolitikoa, uniformea, **onartzea**; euskara batua eta euskalkiak osagarriak direla **ulertzea**; erregistroak kudeatzen jakitea oinarritzat dela **jabetzea**; hizkuntzak ez direla komunikazio-tresna huts **sentitzea**, hizkuntzek herria egiten dutela; eskolaren eta hedabideen erantzukizuna ezinbestekoa dela **aldarrikatzea**.

Lerroburu garrantzitsu horien ostean, arau gehiago behar direla esan du euskaltzainak. Hala, arautze-premia duten morfosintaxiaren alorreko hamaika eztabaida-auzi zehatz aletu ditu (hala nola aginterako adizki perifrastiko laburtuen egokitasuna, hikako adizkien jardun-ingurumariaren edo erregistroaren mugak zein diren, etab.), eta adierazi du, horiek zein beste batzuk, eta beste esparruetakoak (ortotipografia, ahoskera...) sarean eskegiko den behin betiko dokumentuan agertuko direla.

Mikel Zalbidek eman dio erantzuna Alberdiri. Bere hitzaldian, getariarraren dohainak gogoratu ditu («arraunlari trebe izateaz gainera, lemazain maisu dugu Andres, hizkuntza-eredu jaso gizarteratzeko saioen esparruan», baieztatu du), eta hark hitzaldian esandakoak azpimarratu, hots, «arraunean egiten segitu behar dela hitzun-idazleen fabore». Ildo horretan, «hizkuntza era bizi eta naturalean eskuratzeko duen garrantzia» adierazi du Zalbidek, baita umetako «aldaera-sorta zabaldu eta aberastearen garrantzia» ere. Hizkuntza-eredu bateratu eta garatua luze-zabal hedatzeko ahaleginean jarraitu beharra dagoela esan du, «hiztun-elkarte osoaren altzoan onarpen zabala» eskura dezan.

Azkenik, euskaltzain oso berriak karguaren zina egin du («Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko ditudala neure hitza ematen dut», esanez), eta euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra jaso ditu A. Urrutia euskaltzainburuaren eskutik. Hala berean, zina egin ostean, euskaltzainek anaitasunezko erakusgarri gisa eskua hertsi

ondoren, Uxue Alberdi alabak, aitari erreferentzia eginez, irakurraldi labur bat egin du.

Ekitaldi akademikoa bukatuta, H. Alberdi Getariako alkateak Julian Ugarte Munozabal margolari eta arte-ekintzaile zarauztarrak margotutako *Marraskia III* margoaren litografia oparitu dio. Aitor Iriondo Elgoibarko zinegotziak ere Elgoibarko Hiri Gutunaren zigiluaren kopia eman dio opari. Lur eta Xan bilobek, berriz, opari txiki bat egin diote aitonari. Ondoren, Uxue Alberdik eta Eñaut Elorrietak, bi ahotsetara eta gitarraz lagunduta, Xabier Leteren *Itsasoan urak handi dire* kanta abestu dute.

13:50ean amaiera eman zaio ekitaldiari, A. Urrutia euskaltzainburuak Getariako Udalarari eta herritarrei adierazitako esker oneko hitzak entzun ondotik.

Ondoren, udaletxearen aurrealdean, sei neskatok aurrekua dantzatu dute. Segidan, ekitaldira hurbildutakoek zintzurra busti eta goatzeko aukera izan dute Berdura plazan.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

Osoko bilkurak

I

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2023ko urtarrilaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa; Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*); Beñat Oihartzabal; Miren Lourdes Oñederra; Patxi Salaberri; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxa ahala Miriam Urkiari; Jose Irazuk (*Bernardo Atxaga*) ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian egin da, Euskaltzaindiaren Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2023ko urtarrilaren 27an, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarileko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu. Hori horrela, adierazi du bilkura ezin izan dela Gipuzkoako Foru Aldundian egin, 2022. urtean erretiroa hartu duten bertako langileei aitortza egingo die-lako.

1. Osoko bilkuraren 2022-11-26ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da jaso oharrik. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko bilkuraren 2022-11-26ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da jaso oharrik. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2022ko azaroaren 26ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren webgunea: Eduki berriak eta bestelako aldaketak. Aurkezpena

Aitor Maritxalar Euskaltzaindiaren IKTko aholkulariak egin du aurkezpena. Adierazi duenez, Euskaltzaindiak webgune berritua aktibatuko du otsailaren bigarren astean. Webgune berri horretan berrikuntza ugari azalduko dira, bai egituraren, bai eta baliabide eguneratu edo berrien aldetik ere.

EUSKALTZAINDIA menuan gehitu dira, besteak beste, hildako euskaltzainen fitxa osoak (biografia, liburuak eta artikulak), euskaltzain ohorezko eta urgazleen fitxa bibliografikoak, mendeurrenaren eta Mintzolaren sarbideak. Era berean, etorkizunean gaztelaniazko eta frantsesezko atalak izango ditu webguneak, non atal nagusiak, bai eta berri esanguratsuenak ere, hizkuntza horietan azalduko diren. Bestalde, hizkuntza baliabideen atala berrantolatu da: hiztegiak (orokorrak, espezializatuak eta historikoak) sailkatu dira eta, erabiltzaileak kontuan hartuta, menuaren sailkapen funtzionalagoa egin da. EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA atalean moldaketa batzuk egin dira: egitura informatiko berria, kontsulta-interfaze berria, irakurgarritasun are hobea, bilaketa eta iragazketa aukera berriak, sarreraren arteko loturak, testuinguruko laguntzak, iragazkiak eta abar. Horrezaz gain, erdarazko ordainak —Adorez hiztegiaren eta Azkueren hiztegiaren— eskaintzen dira. EUSKARAREN GRAMATIKA atalean, argitalpenaren filosofia eta atalak bere horretan ematen dira webgunean. Nolanahi ere, aurkibide inklusiboa, barne-estekak, oin-oharretara are errazago iristeko era eta testu libreko bilatzailea jarri dira. Euskararen Historia Soziala egitasmoaren eskutik landu den *Towards* liburua osorik deskargatzeko eta edozein gailutan irakurtzeko erraztasunak eman dira.

Aipatutako berrikuntzez landa, Lacombe funtsa eta *Armanak üskara* edo *Ziberoako egünaria* aldizkaria oso-osorik eskainiko dira webgunean. Eduki horiek geroago azalduko dira, egitasmo horiek digitalizatzea ahalbidetu duten herri-erakundeekin hitz egin eta aurkezpenak antolatu ondoren, hain zuzen.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XL). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko denbora-tartea ireki da, otsailaren 13an, astelehenean, amaituko dena.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Lege, errege-dekretu, foru-arauen eta kidekoen sigla generikoz osatutako izendapen bereziak (EBOko siglen txostenean erabaki gabe gelditu zen puntua)

A. Mujika EBO egitasmoaren txostengileak azaldu duenez, 2022ko urriko osoko bilkurak EBO egitasmoko siglen txostena onartu zuen baina 19. puntuan («Lege, errege-dekretu, foru-arau eta kidekoen sigla generikoz osatutako izendapen bereziak»), eztabaidatu ondoren, gaia batzordera itzultzea erabaki zen, irizpidea fintzen saiatzeko.

EBE Batzordeak gaia aztertu du, eta moldaketa zein zehaztapen batzuk txertatu ditu. Oro har, azalpenak ontzat eman dira, baina adibide batzuetan arauak aurkezteko moduz zalantza egin da; zehazki, arau juridikoaren datak esaldian duen kokapenaz. Horrekin batera, 19. puntuan, adibide gisa aipatzen diren siglei dagokienez, A. Urrutiak adierazi du RUE eta DUE siglak ere erabiltzen direla gaztelaniaz, Europar Batasuneko erregelamenduak eta zuzentarauak adierazteko. Horiek horrela, otsailaren 13ra arteko epea jarri da puntu horiei buruz oharra egiteko.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: SI sistemako aurrizki berriak (EBOko sinboloen txostena onartu ondoren nazioartean hartu den erabakia)

A. Mujikak gogorarazi duenez, 2022ko urriko osoko bilkurak EBO egitasmoko sinboloen txostena onartu zuen. Handik egun gutxira, Pisu eta Neurrien Konferentzia Orokorra (CGPM) 27. bilera egin zuen (2022ko azaroaren 15etik 18ra) eta unitateen multiplo eta azpimultiploen izenak eratzeko Nazioarteko Unitate Sistemak (SI) dituen aurrizkien zerrenda handitzea erabaki zuen, lau aurrizki gehituta.

Sinboloen txostenean, SI sistemako aurrizkien taula ageri denez eta dokumentua oraindik argitaratu gabe dagoenez, EBE Batzordeak txostenean atzizki berriak sartzea proposatu du. Azalpenen ondoren, P. Zabaletak adierazi du q eta Q sinboloen bidez adierazten diren aurrizkiak kekto- eta keta- izendatzea desegokia izan litekeela, sinboloen letrak eta aurrizkien lehen letrak desberdinak baitira. A. Mujikak adierazi du aurrizkien izenak euskal grafiaz idazten direla, hala arautua dagoela, sinboloak ez baitira laburdura, ezta sigla ere, hala nola zentimetro (sinboloa: cm), alemanez eta beste hizkuntza batzuetan gertatzen den bezala.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko denbora-tartea ireki da, otsailaren 13an, astelehenean, amaitzen dena.

7. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra-estiloak. Aurkeztu

Ez da astirik izan txostenaren aurkezpena egiteko, eta hurrengo bilkuran aurkeztea erabaki da. Dena dela, banatu egin da. A. Mujikak ohartarazi du, txosten horren puntu bat erabaki gabe zegoela txostena osoko bilkurara eramatea eskatu zenean, baina EBE Batzordeak bezperan egindako bileran ebatzi duela eta, horrenbestez, aurkezpena egiten denean txostena osatuta egongo dela.

8. Esku artekoak

8.1 Euskaltzain urgazle berriak batzordeetan

A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu eta gogorarazi du Zuzendaritzak hartu zuela konpromiso haxe: euskaltzain urgazle izendatzen direnak batzorde eta lantaldeetan inplikatzeko, Akademian ekarpenak egin ahal izateko. Hori horrela, azkenik izendatutakoekin hitz egin da eta batzorde edo lantalderen batean jardungo dute, gehientsuenek, aholkulari gisa. Nolanahi ere, badira batzorde edo lantaldeko kide izendatutakoak organigrama berri zenean.

Ondorioz, webgunea berritzean, pertsona horiek Euskaltzaindiaren organigraman azalduko dira, bakoitza dagokion batzorde edo lantaldean.

8.2 Taxi-zerbitzua eta bazkariak egiteko irizpideak

R. González de Viñaspre diruzainak hitza hartu eta adierazi du, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak komenigarritzat jo duela zenbait irizpide eta gomendio ematea taxi-zerbitzua erabiltzeaz eta bilerak akademikoen aurreko zein ondorengo bazkarietarako. Irizpide hauek justifikazio bikoitza dute: ingurumen-jasangarritasuna eta baliabideen erabilera arduratsua.

Bi testutan bildu dira irizpide horiek. Lehenbizikoa, «Euskaltzainek taxi-zerbitzua erabiltzeko irizpideak» izenburua duena; bigarrena, «Batzorde, lantalde eta abarretan bazkariak eta bilerak egiteko irizpideak» deritzona. Akats bat tarteko, azken atala ez da banatu, beraz, idatzia, euskarri digitalean, oso-osorik igorriko zaie euskaltzainei.

Bildutako euskaltzainak jakinaren gainean gelditu dira.

8.3 Barne-erregelen 4.2 eta 4.3 xedapenak

A. Urrutia euskaltzainburuak gogorarazi duenez, Barne-erregelen 4.2 eta 4.3 xedapenak direla eta, gogoeta egitea onetsi zen, 2022ko urriaren 28ko osoko bilkuran. Era berean, Zuzendaritzak gogoeta horren emaitza abenduaren 23ko osoko bilkurara eramateko konpromisoa hartu zuen. Nolanahi ere, abenduaren 23an osoko bilkurarik ez egitea erabaki zen, 2022ko azaroaren 26an eginiko osoko bilkuran. Ondorioz, Zuzendaritzak proposamena eta proposamen horren arrazoiak aurkeztuko ditu, hala nahi duten euskaltzainek oharrak edota iruzkinak egiteko modua izan dezaten.

Hori horrela, Zuzendaritzak Barne-erregelen 4.3 arauan honako aldaketa hau egin dadin proposatu du: «4.3 Gainerako hamar euskaltzainak hauta daitezke lurralde- edo euskalki-irizpide hau kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, lurralde batean bizi eta erroldatuta dauden euskaltzain osoek gehi emerituek ezin dezakete gauditu kopuru orokorraren herena».

Horretarako, Zuzendaritzaren arrazoiak azaldu dira. Batetik, euskaltzain osoen kopurua hazten eta gehitzen ari da, emeritu izatera igaro direnen kopurua kontuan harturik. Gertaera hori, gainera, areagotu egingo da datozen urteetan. Bestetik, egun, euskaltzain askok lana lurralde jakin batean egiten dute, ez horrenbeste

euskalki bati loturik. Hirugarrenik, kontuan izan behar da euskaldun berriak ere hor daudela, baita euskara batuaren bidez irakaskuntza sisteman hezitako euskaldunak ere. Eta horiek guztiek lan esanguratsuak egin eta egiten dituzte euskararen esparruan. Azkenik, lurraldeen arteko oreka gorde egiten da, gutxiengo bat bermatzen baita (4.2 artikulua) eta gehieneko kopurua ere finkatzen baita, Euskaltzaindian lurralde jakin bateko euskaltzainak kopuru baten barruan egon daitezen eta aniztasuna isla dadin Euskaltzaindiaren osaeran.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko denbora-tartea ireki da, otsailaren 13an, astelehenean amaitzen dena.

8.4 Hurrengo bilkurak

8.4.1 Koldo Mitxelena sariak. Ekitaldia Bilbon egingo da, egoitzan, otsailaren 1ean. Dagoeneko, gonbitak igorri zaizkie euskaltzain osoei, ohorezkoei eta urgazleei.

8.4.2 Datorren osoko bilkura. Osoko bilkura otsailaren 24an, ostiralarekin, Bilbon, egoitzan, egingo da, 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuran onetsitako urteko egutegian azaltzen den legez.

9. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:15ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

II

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan

2023ko otsailaren 24an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Borda, Itxaro
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*), Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri, Castillo Suárez eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazuk (*Bernardo Atxaga*) ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (egon ez den tartean); Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Castillo Suárezek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbonegin da, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2023ko otsailaren 24an, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsailko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren 2023-01-27ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ohar bakarra jaso da, P. Zabaletarena, hain zuen. Zabaletak, 8.2 puntuaren bukaeran «Osoko Bilkura jakitun geratu da» esaldia gehitzea eskatu du. Oharra onetsi egin da.

A. Urrutiak ahoz bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2023ko urtarrilaren 27ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko bilkuraren 2023-01-27ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2023ko urtarrilaren 27ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLI). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Urtarrileko osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrrik egin. Beraz, zerrenda bere horretan onetsi da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko denbora tarte ireki da, martxoaren 13an, astelehenean, amaituko dena.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Lege, errege-dekretu, foru-arauen eta kidekoen sigla generikoz osatutako izendapen bereziak (EBOko siglen txostenean erabaki gabe gelditu zen puntua). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

A. Mujika EBO egitasmoaren txostengileak azaldu duenez, 2022ko urriaren 28an, Gasteizen, Osoko bilkurak EBO (Euskara Batuaren Ortotipografia)

egitasmoaren txostena onartu zuen, azken puntua izan ezik.

EBO egitasmoaren ardura duen EBE Batzordeak, gaia berraztertu ondoren, puntu horretan moldaketa eta zehaztapen batzuk sartu zituen, eta 2023ko urtarrilaren 27an, Donostian, osoko bilkuran aurkeztu ziren. Oro har, azalpenak ontzat eman ziren, baina adibide batzuetan arauak aurkezteko moduz zalantza egin zen; zehazki, arau juridikoaren datak esaldian duen kokapenaz. Horrekin batera, Europar Batasuneko erregelamenduak eta zuzentarauak adierazteko siglak sartzea iradoki zen, eta otsailaren 13ra arteko epea finkatu zen puntu horiei buruzko oharrak egiteko. Epe horren barruan, P. Zabaletak ohar bat helarazi zion EBE Batzordeari, arau juridikoen izendapenen atalei eta hurrenkerari buruzko zenbait gogoeta egiten dituen eta arau edo gomendio orokor baten premiaz ohartarazten duena. EBE Batzordeak, gaia berriro ere aztertuta, proposamena moldatu eta bertsio berria aurkeztu du. Lehenik, puntua berrordenatu egin da, eta zenbait azpipuntutan banatu. Bigarrenik, «Lege eta kodeen siglak» atalean, adibide gehiago sartu dira: legez gainera, kodeen adibideak ere sartu dira. Hirugarrenik, «Arau-moten siglak» atalean, lehengoz gainera, EBE (Europar Batasunaren erregelamendua) eta EBZ (Europar Batasunaren zuzentzaraua) ere sartu dira. Azkenik, arau juridikoaren datak esaldian duen kokapena fraseologiari dagokionez eta ortotipografiako gaia ez denez, zalantza eragin zuten adibideak ordeztu egin dira, adierazi nahi denerako —siglaren erabilera— ez baitira beharrezkoak.

P. Zabaletaren oharrari dagokionez, EBE Batzordeak ez du erantzunik, ez du landu, ez dagokiolako siglen erabilerari, ezta, oro har, ortotipografiari ere; ez da, beraz, EBO egitasmoaren langaia.

Proposamena azaldu ondoren eta argibideetarako galde-erantzunen txandaren ondoren, oniritzia eman zaio batzordearen proposamenari. Ondorioz, siglen txostena osorik onartuta gelditu da.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: SI sistemako aurizki berriak (EBOko sinboloen txostena onartu ondoren nazioartean hartu den erabakia). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Urtarrileko osoko bilkuran aurkeztutakoari inork ez dio idatzizko oharrik egin. Horrenbestez, onartu egin da, eta sinboloen txostenari erantsiko zaio.

7. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra-estiloak. Aurkeztu

A. Mujika EBO egitasmoaren txostengileak EBEren proposamena aurkeztu du puntuz puntu, eta zalantza bat ere aurkeztu dio zuzenean EBE Batzordeak Osoko Bilkurari, fenomeno meteorologikoen izen bereziak letra etzanez idatzi edo ez erabakitze orduan batera zein bestera egiteko argudioak baitaude.

Bestalde, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* LETRA ARRUNT azpisarreraren sartzeko komenentziak ere ohartarazi du EBE Batzordeak, lehendik LETRA ETZAN eta LETRA LODI azpisarrerak badaude eta.

Aurkezpenaren ondoren, askotariko iritzi eta ohar orokorrak egin dira: batetik, txostenean garbi adierazi beharko dela gomendio ortotipografikoak direla eta ez arau hertsia. Bestetik, horrelako gomendioak zabaltzeko estrategia landu beharra aipatu da, hedabideetara eta irakaskuntzara iritsi ahal izateko.

Horretaz gainera, araua noiz eta nola argitaratu zehaztu eta erabaki beharra aipatu da, eta ortotipografiako egitasmo osoa amaitu baino lehen sarean atalka argitaratu beharra ere azaldu da. Aipatu da, halaber, gomendioak argitaratzen direnean Euskaltzaindiaren beraren produktuetan ere aplikatu beharko direla eta horrek orain arteko produktuei nola eragingo dien eta hori nola landu aztertu beharko dela. Azkenik, euskaltzainburuak adierazi du komeniko dela hurrengo batean Euskara Batuaren Ortotipografia egitasmoaren egoera zehatzaren berri ematea Osoko Bilkurari.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko denbora tarte ireki da, martxoaren 27an, astelehenean, amaituko dena.

8. Barne-erregelen 4.2 eta 4.3 xedapenak. Aldaketa-proposamena. Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Zuzendaritzak urtarrileko osoko bilkuran aurkeztutako proposamenari inork ez dio idatzizko oharrik egin. Horrenbestez, onartu da, eta Barne-erregelatan aldaketa hori egingo da.

9. Esku artekoak

9.1 *Euskera* agerkaria. Buletina eta ikerketa-zenbakia

Gaia *Euskera* agerkariaren Idazketa Batzordean aztertu zen, 2022ko ekainaren 8an eginiko bilkuran. Batzordeak proposatuta, Zuzendaritzak gaia aztertu eta erabaki zuen, 2022ko irailaren 14an eginiko bilkuran. Harrezkero, berretsi da *Euskera* agerkariaren Idazketa Batzordean, 2022ko urriaren 11n eginiko bilkuran. Hori horrela, *Euskera* agerkaria, ohikoa, batzar-agiriak-eta jasotzen dituen, aurrerantzean *Euskaltzaindiaren Buletina* izango da eta orain arteko Idazketa Batzordeko kideak mantenduko ditu.

Ikerketa-zenbakiak, ordea, *Euskera* izena gordeko du eta batzorde zientifikoa zein webgune propioa izango ditu.

Ondoko hauek osatuko dute Batzorde Zientifikoa:

- Burua: Euskaltzainburua
- Idazkaria: Euskaltzaindiaren idazkaria

Kideak:

- Mixel Aurnague (CNRS)
- Eneko Bidegain (HUHEZI)
- Battittu Coyos (Euskaltzaindia)
- Eba Gaminde (Deustuko Unibertsitatea)
- Asun Garikano (Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia)
- Patxi Juaristi (EHU/UPV)
- Patxi Salaberri (NUP/UPNA, Euskaltzaindia)

Osoko Bilkurak *Euskera* agerkariaren Batzorde Zientifikoaren kideak berretsi ditu.

9.2 Euskaltzaindiaren eta Ataungo Udalaren arteko lankidetzaren ikerketa-bekaren inguruabarrean

R. González de Viñaspre Onomastika Batzordeko buruak adierazi duenez, 2021-2022. urteen artean, Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-bekaren eskutik eta Ataungo Udalarekin lankidetzan, Joan Arin Dorronsororen *Material toponímico* bilduma-lana digitalizatzeko eta ortografiaren aldetik egokitzeko lana egin zen. Hori horrela, hasitakoari jarraitutasuna emateko, Euskaltzaindiak lankidetzaren berri du Ataungo Udalarekin. Horrenbestez, hitzarmen berria tarteko dela, digitalizaturiko eta ortografiaren aldetik moldaturiko toponimoak gaurko mapetan ezarri eta gordeko dira, lurrari hertsiki lotutako elementuak izanik, kartografian adierazi ezean, balioaren parte garrantzitsua ezabatzen delako.

Euskaltzaindiaren izenean Luismari Zaldua Onomastika Batzordeko kidea eta euskaltzain urgazlea ari da lan hori egiten. Guztia azaltzeko, agerraldia egingo dute bi erakundeek Ataunen, otsailaren 28an.

9.3 Hurrengo ekitaldiak eta bilkurak

9.3.1 Martxoaren 2an, Lacombe funtsa aurkeztuko da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikerlanean. Egun berean, funtsa ikusgai egongo da Euskaltzaindiaren webgunean.

9.3.2 Jean Elizalde *Zerbitzariri* omenaldia egingo zaio Azkainen, martxoaren 3an. Euskaltzaindiak eta Azkaineko Herriko Etxeak Jean Elizalde *Zerbitzari* omenduko dute jaioterrian. Idazle, apaiz eta euskaltzain izanaren lanaz, bizitzaz eta euskal literaturgintzan utzi duen arrastoaz arituko dira J. Kaltzakorta euskaltzain osoa eta Pantxoa Etxegoin eta Jon Casenave euskaltzain urgazleak.

9.3.3 Hitzak Lege erakusketa Gipuzkoan. Martxoaren 14an, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Hitzak Lege erakusketaren inaugurazio ekitaldia egingo da. Erakusketa ikusgai egongo da martxoaren 14tik aurrera.

9.3.4 *Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria* aldizkaria. Martxoaren 21ean aurkeztuko da Baionan, ordezkartzan. Horrenbestez, Euskaltzaindiaren webgunean azalduko da almanaka oso-osorik lehenbiziko aldiz. Egitasmoa Sū Hazia elkartearekin izenpetutako lankidetzaren emaitza da eta EEP erakundeak finantzatu du.

9.3.5 Liburuen banaketa. Gaur, *Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa*

eta euskara (IKER-45) liburua banatuko da. Liburuak, mendeurrenaren barruan, eremu digitalari buruz antolatutako jardunaldian aurkeztutako lanak jasotzen ditu. A. Sagarna eta M. Urkia euskaltzainak izan dira liburu horren argitalpen-arduradunak.

9.3.6 Martxoko osoko bilkura. 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuran onetsitako urteko egutegian azaltzen den legez, martxoko osoko bilkura martxoaren 31n, ostiralarekin, Gasteizen, Arabako Foru Aldundian, egitea aurreikusi da.

10. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergaiarik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:00etan.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

III

Osoko bilkura

Gasteizen, udaletxean

2023ko martxoaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Irazu, Jose (*Bernardo Atxaga*)
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea, Usarralde,
Ibon, Egitasmoen bateratzailea eta Ga-
raikoetxea, Maider, Gipuzkoako orde-
karitzako teknikaria, zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jabier Kaltzakorta; Paskual Rekalde; Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Paskual Rekaldek ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gasteizen egin da, udaletxean, 2023ko martxoaren 31n, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, martxoko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren 2023-02-24ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrrik egin. Ondorioz, 2023ko otsailaren 24ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLI). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Otsaileko osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez dio idatzizko oharrrik egin. Beraz, zerrenda bere horretan onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek, A. Iñigok eta X. Videgainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko aldia ireki da, apirilaren 16an, igandean, amaituko dena.

4. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoaren egoera: Egindakoak, egin gabeak eta kronograma

A. Mujika EBO egitasmoaren txostengileak egitasmoaren egoeraren txostena azaldu du. Osoko bilkurak egitasmoaren lau atal onartu ditu dagoeneko («Laburtzapenak, laburdurak, siglak eta sinboloak» izeneko txostenak) eta bosgarren atala («Letra-estiloak») aurkeztu zaio jada Osoko Bilkurari, eta oharrak egin zaizkio. Seigarren atala («Letra larriak eta xeheak. Lehen txostena») prest dago Osoko Bilkurari aurkezteko, eta zazpigarren atala («Letra larriak eta xeheak. Bigarren txostena») EBE Batzordean aurkeztuta dago, aztertze-fasean dago eta laster egongo da prest Osoko Bilkurari aurkezteko. Beste 9 edo 10 atal beharko dira egitasmoa burutzeko.

Gutxi gorabeherako kronograma ere aurkeztu da, falta diren atalak Osoko Bilkurari aurkezteko noizko egon litezkeen prest zehazten duena. Txostenak egiteko finkatzen den dedikazioaren arabera atzeratuko edo aurreratuko da kronograma,

bai eta EBE Batzordeak txostenak aztertze eta behin betiko proposamenak osatzeko beharko duen denboraren arabera ere. Nolanahi ere, orain arteko eskarmentuan oinarrituta, aurreikus liteke aurten bertan beste lau txosten egingo direla eta, guztira, bi urteren buruan burututa egon litekeela egitasmoa.

A. Urrutia euskaltzainburuak eskatu du, aurrerantzean ere aldian-aldian egitasmoaren egoeraren berri ematea Osoko Bilkurari.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa (06.1): Sarrera eta 1. atala («Letra larriak eta xeheak: ezaugarriak eta erabilera-irizpide orokorrak»)

EBO egitasmoaren seigarren txostena aurkeztu du A. Mujikak EBE Batzordearen izenean. Txosten hori letra larri eta xeheen makroatalak izango dituen txostenetako lehena da. Sarrera orokor bat dago hasieran, non adierazita baitago noiz heldu zion Euskaltzaindiak gaiari lehen aldiz eta arlo horretan zer lan egin duten orain arte euskalgintzako zenbait eragilek. Ondoren, letra xehe eta larriei buruzko jakingarri orokor batzuk eman dira: letra larri eta xeheen definizioak, ezaugarri orokorrak eta morfologikoak. Hurrengo puntuetan, diagramak, zeinu diakritikoak, zenbaki erromatarrik eta siglak azertu dira letra larriei dagokienez, eta, azken atalean, osorik letra larriz idatzitako hitzetan kasu-markak jartzean nola jokatu azertu da.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko aldia ireki da, apirilaren 24an, astelehenean, amaituko dena.

6. Mintzola egitasmoa. Aurkezpena

I. Usarralde Egitasmoen bateratzaileak eta M. Garaikoetxea Gipuzkoako ordezkartzako teknikariak Mintzola egitasmoaren egoeraren berri eman dute. 2008an hainbat erakundek Mintzola Fundazioa sortu zuten, ahozko tradizioaren gaineko hausnarketa eta ahozkototasunari loturiko diziplinen arteko elkarreragina bultzatzeko asmoz. 2021ean, ordea, Fundazioaren sorrerako helburuen eta egitekoen inguruko gogoeta egin ondoren, Patronatuak Mintzola Fundazioa azkentzea erabaki zuen. Era berean, sorrerako helburuei jarraitutasuna ematea proposatu zitzaion Euskaltzaindiari, bai eta Fundazioaren ondarea haren esku uztea ere.

Ondorioz, 2022ko urtariletik aurrera, Euskaltzaindiak jaso zuen ahozko tasunari buruzko ikerkuntza eta hedatze lanaren lekukoa. 2022ko udaberrian finkatu ziren Mintzola egitasmoaren lan-eremuak, lehentasunezko lan-ildoak eta jarduerak.

Lehentasunezko lan-ildoak, memento, zazpi izatea hobetsi zen. Honako hauek:

- Eguneroko hizketa informalaren ezaugarriak eta haren egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
- Euskalkiak eta euskara estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa, eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
- Eguneroko hizketarako adierazkortasun baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
- Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
- Eguneroko hizketarako adierazkortasun baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletatik sustatzeko bideak eta formulak.
- Eguneroko hizketarako adierazkortasun baliabideak lantzeko bestelako bideak.
- Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Mintzola egitasmoaren barnean, hiru jardura garatzea aurreikusi zen: ikerketa, ezagutzaren hedapena eta sustapena. Hori horrela, 2022an, ikerkuntzaren arloan, gradu/master amaierako lanak eta ikerketa proiektuak sustatzeko hiru ikerketa deialdi egin ziren (horien artean, bi lan saritu ziren). Era berean, hiru ikerketa jarri ziren abian, Ikastolen Elkartearekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean. Sustapenaren arloan, 2022an, bi ekimen garatu dira: Ahostegunak ekimena eta Ahots Baten sormen-egonaldia.

Gaiari amaiera emateko, aipatu da, 2022. urtea abiatze-urtea izan dela eta 2023a egonkortze-urtea izatea espero dela, bai ikerketaren arloan, bai eta ezagutzaren transferentziaren zein sustapenaren arloetan ere.

7. Ahozko Euskararen Thesaurusa (AET) egitasmoa. Aurkezpena

A. Arejitak, AET egitasmoaren zuzendari den aldetik, lehenengoz eman du Osoko Bilkuraren aurrean egindako lanaren berri: EHHako edukien hustuketa

zela egin den azaldu du eta horretarako metodologian izan diren zailtasunak eta erabakiak ere aipatu ditu. AET egitasmoa mesedegarri ikusten du batik bat *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hornikuntza-iturri gisa eta gizartean herri-hizkeraz interesa duen jende ugariaren informazio bide gisa.

8. Esku artekoak

8.1 Euskaltzaindiaren eta Ataungo Udalaren arteko hitzarmena

Ataungo Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmena izenpetu dute otsailaren 28an. Azken bi urteotan, Ataungo Udalak bidelagun izan du Euskaltzaindia euskara sustatzeko zereginen. Elkarlan hori 2021ean gauzatu zen, Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-beka deritzon egitasmoan. Ikerketa-bekaren babesean, Joan Arin Dorronsoro ataundarrak herrian egindako toponimia-bilketa aztertu eta digitalizatu da, baita ortografia egokitu ere, izenak erabilgarriak izan daitezten. 2020ko urrian, Ataungo Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Ondoren, Euskararen Akademiak bere gain hartu zuen bekaren zuzendaritza akademikoa, hain zuzen ere, Luismari Zaldua euskaltzain urgazlearen eskutik. Hitzarmen berria dela medio, lankidetzaren bide horri jarraitutasuna eman nahi diote bi erakundeek.

8.2 Arikala egitasmoa aurrera eramateko, Euskaltzaindiaren, HUHEZIren eta Ikastolen Elkartearen arteko hitzarmena

Hiru erakundeetako ordezkariak hitzarmena izenpetu dute martxoaren 9an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Egitasmo berritzaile honen bidez, ikasleei hizkera informala euskaraz garatzeko tresnak eta estrategiak emango zaizkie. Ondoren, esku-hartze horiek duten eragina neurtuko da. Arikala egitasmoa 2022-23 ikasturtean hasi eta hiru ikasturtetan garatuko da Euskal Herri osoko 10 ikastolatan. Ikastolen Elkartek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Euskaltzaindiak elkarlanean landuko dute ikerketa-ekintza berria.

8.3 Lizarrako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

Bi erakundeetako ordezkariak hitzarmena izenpetu dute martxoaren 16an, Lizarran. Hitzarmen honen bidez, bi erakundeek arteko lankidetzaren hasiko da, hizkuntza arloan Estellerriko Lizarran euskara sustatzeko xedez. Hitzarmenak lau urteko iraupena izanen du, eta urtez urte jardura eta ekimenak zehaztuko dira.

2023. urtean, onomastikarekin eta sustapenarekin lotutako ekimenekin abiatuko da elkarlana.

8.4 Pello Apezetxea ikerketa-beka

Beka sortzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak hitzarmena izenpetu dute martxoaren 17an.

8.5 Hurrengo ekitaldiak eta bilkurak

8.5.1 Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena izenpetuko da apirilaren 3an, Nafarroako Gobernuaren egoitzan.

8.5.2 Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Biltzar Nagusia egingo da apirilaren 18an, Baionako ordezkartzan, 17:00etan.

8.5.3 «Zer ekarriko liguke euskarazko streaming plataforma batek?» jardunaldia aurkeztuko da apirilaren 19an, Nafarroako ordezkartzan. Jardunaldia Euskaltzaindiaren eta Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren lankidetzaren emaitza da. S. Aleman Jagon sailburuak jardunaldiaren azalpenak eman ditu.

8.5.4 Apirileko osoko bilkura. 2022ko azaroaren 26ko osoko bilkuran onetsitako urteko egutegian azaltzen den legez, hurrengo osoko bilkura apirilaren 22an, larunbatarekin, Lekeition egingo da, udaletxean. Horren ondoren, M.A. Meabe euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia egingo da, 12:00etan, Lekeitioko Andre Mariaren Zeruratzearen basilikan.

8.5.5 Pello Apezetxea ikerketa-beka apirilaren 26an aurkeztuko da hedabideen aurrean, Nafarroako ordezkartzan.

8.5.6 Territoires, langues, littératures & cultures: Confrontations, lectures, translations liburua aurkeztuko da apirilaren 27an, 18:00etan, Baionako Euskal Museoa. A. Arkotxak eman ditu azalpenak.

9. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:20an.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

IV

Osoko bilkura

Lekeition, udaletxean

2023ko apirilaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Irazu, Jose (*Bernardo Atxaga*)
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitan

Ahalak: Roberto González de Viñasprek
ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik
ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek
ahala Andres Urrutiari.

*Batzarra Lekeition egin da, udaletxean, 2023ko
apirilaren 22an, larunbatean.*

*Bilkurari hasiera eman aurretik, Koldo Goitia
Lekeitioko alkateak euskaltzainak agurtu
eta osoko eta ageriko bilkurak Lekeition
egiteak daukan garrantzia azpimarratu
du. A. Urrutia euskaltzainburuak eskerrak
eman dizkio Lekeitioko Udalari, eguna han
antolatzeagatik, bai eta prestatzeko orduan
eskainitako laguntzagatik ere.*

*Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak
hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta
ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, apirileko osoko bilkurari
hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto
González de Viñaspre diruzaina, Patxi
Salaberri eta Mikel Zalbide.

1. Osoko bilkuraren 2023-03-31ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2023ko martxoaren 31ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLII). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Martxoko osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari oharrak egin dizkiote A. Iñigok eta P. Zabaletak.

P. Zabaletak KANON sarreran adiera berria gehitzea eskatu du, eta egitasmoko kideek egindako proposamena onartu da, *Zuz.* marka gehituta. Hala geratu da:

kanon 8 iz. *Heg. Zuz.* Zenbait kasutan, zerbait erabiltzeagatik, bereziki ondasun publiko bat erabiltzeagatik, ordaintzen den saria. *Salgaiak kargatzeko tokiak erabiltzeagatik kanona. Musika jartzearen egileen elkarteak eskatzen duen kanona ordaindu behar dute.*

A. Iñigok SOPRANO eta TIPLE formei buruzko ohar berria egin du, gure tradizioan ez baita egitasmoko kideek proposatu duten erabilera estandarri dagokiona. Oharra gehitzea, definizioa moldatzea eta adibide argigarriak gehitzea onartu da. Hala geratu dira bi sarrerok:

soprano 1 iz. *Mus.* Emakumeen eta haurren artean ahotsik gorena. **Ik. tiple 1; tenor 1.** *Soprano ahotsa zuen.*

2 iz. *Mus.* Ahots hori duen abeslaria. [Hego Euskal Herriko tradizioan emakumezkoa izan ohi da]. *Ederra izan da; hunkitu egin naiz sopranoak aria abestu duenean. Maria Bayo soprano nafarra izango du abeslari nagusi.*

3 adj. *Mus.* Musika-tresnen familia batean, soprano-ahotsari dagokion eskala erabiltzen duena. *Saxofoi sopranoa.*

tiple 1 iz. *Heg. Mus.* Batez ere haurren artean ahotsik gorena. **Ik. soprano 1.** *Ahotsa zuen ona, tiple ahots zoragarria.*

2 iz. *Heg. Mus.* Ahots hori duen abeslaria, batez ere haurra. *Elizako koruko tiple bakarlaria ere izan zen. Santa Maria basilikan tiple izan zen, eta gerora tenor ospetsu San Bizente parrokan.*

Horiek adostuta, martxoan aurkeztutako aztergai osoa ontzat eman da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduen oharra (XLIII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituena.

Oharra egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 15 artekoa.

Hiztegiko egitasmoko kideek ez zituzten A. Iñigok bidalitako oharra ikusi eta, barkamena eskatu ondoren, hurrengo bileran aurkezteko konpromisoa hartu dute.

4. Hizbea Batzordea: Testu Bankua egitasmoa. Aurkezpena

Asun Garikano euskaltzain urgazle eta egitasmoaren zuzendariak azalpenak eman ditu. Testu Bankua Euskaltzaindiak hezkuntza-komunitateari begira pentsatutako proiektua da. Bi helburu nagusi ditu: irakurmena lantzea eta, bereziki, curriculumaren euskal dimentsioa aberastea. DBHko, Batxilergoko, euskaltegiak, hizkuntza-eskolek eta unibertsitateko ikasleak izango ditu hartzaileak. Egitasmoa 2022ko udazkenean jarri zen abian, eta 2023. urtea amaitzerako ehun testu inguru prest egongo dira Euskaltzaindiaren webgunera igotzeko.

Bost ataletan banatuta egongo da: Historia, Hizkuntza, Literatura, Herri Kultura eta Gaurko Gizartea. Genero guztietako idazkiak jasoko ditu: narratioak, biografiak, ipuinak, olerkiak, bertsoak, antzerkia... Testu literarioez gain, bestelakoak ere izango ditu: prentsa-artikuluak, elkarrizketak, testigantzak, bando-, panfleto- edo mitin-zatiak, etab.

Garai eta euskalki desberdinetako testuak izango dira. Testu hautatuak: ez da biltegi bat izango, antologia bat baizik. Euskara batuan jarriko dira denak, eta originala irakurtzeko aukera ere eskainiko da. Bere testuinguruan kokatzeko

beharrezkoa denean, sarrera bat eramango du testuak. Irudi esanguratsuak ere jarriko dira, eta bertsoen eta poemen kasuan bertso musikatuak ere gehituko zaio.

Testu bakoitza bere etiketekin joango da, eta «despentsa» (edo *errepositorio*) moduko bat izan nahi du. Irakasleak zer behar duen bilatzailean idatzi —egilea, garaia, gaia...— eta horri buruzko hainbat testu eskainiko zaizkio.

5. Esku artekoak

5.1 Hurrengo ekitaldiak eta bilkurak

5.1.1 Apirilaren 25ean, Iruñean, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hitzarmena izenpetuko dute.

5.1.2 Pello Apezetxea ikerketa-beka apirilaren 26an aurkeztuko da hedabideen aurrean, Iruñean, Nafarroako ordezkarietan.

5.1.3 *Territoires, langues, littératures & cultures: Confrontations, lectures, translations* liburua aurkeztuko da apirilaren 27an, 18:00etan, Baionako Euskal Museon.

5.1.4 Maiatzaren 4an, Iruñeko Kondestablearen Jauregian, «Zer ekarriko ligu euskarazko streaming plataforma batek?» jardunaldia egingo da. Jardunaldia Euskaltzaindiaren eta Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren lankidetzaren emaitza da.

5.1.5 Maiatzeko osoko bilkura. Onetsitako urteko egutegian azaltzen den lege, hurrengo osoko bilkura maiatzaren 26an, ostiralean, Baionan, herriko etxean, egingo da, 10:00etatik aurrera.

6. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergaiak ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

V

Osoko bilkura

Baionan, herriko etxean

2023ko maiatzaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Ahalak: Roberto González de Viñasprek
ahala Andres Urrutiari; Jose Irazuk
(Bernardo Atxaga) ahala Andres Urrutiari;
Paskual Rekaldek ahala Andres Iñigori;
Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Videgain, Xarles

*Batzarra Baionan egin da, herriko etxean,
2023ko maiatzaren 26an, ostiralean.*

*Bilkuraren aurretik, Baionako Herriko Etxeko
Xabier Parrilla Etxart 14. axuanta eta herriko
etxean hizkuntza politikaz arduratzen denak
euskaltzainak agurtu ditu eta harrera egin
die. A. Urrutia euskaltzainburuak eskerrak
eman dizkio Baionako Udalarari osoko bilkura
egiteko emandako erraztasunengatik.*

*Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak
hurreratu diren euskaltzainak agurtu eta
ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, maiatzeko osoko bilkurari
hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto
González de Viñaspre diruzaina, Jose
Irazu (Bernardo Atxaga), Paskual Rekalde,
Andoni Sagarna, Patxi Urribarren eta
Mikel Zalbide.

1. Osoko bilkuraren 2023-04-22ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2023ko apirilaren 22ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko bilkuraren 2023-04-22ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da oharrik egin. Ondorioz, 2023ko apirilaren 22ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLI). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Azalpenak eman ditu M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak. Adierazi du, apirileko osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari inork ez diola idatzizko oharrik egin. Beraz, zerrenda bere horretan onartu da. Bazen, hala ere, apirilean aurkeztu gabe geratu zen sail bat, A. Iñigo Batzorde Ahaldunduko kidearen oharra jasotzen zituena eta egitasmoko kideek ikusi ez zutena. Horiek aztertu eta bileran aurkeztu dira proposamenak. Guztiak onartu dira eskaera bakarrarekin: proportzionaltasun(-)printzipio azpisarrerako 1. adierako adibidearen azken partea soiltzea, ez baitio ezer gehitzen adierari.

Hori onartuta, beraz, XLI multzo osoa onetsi da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLIV). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenean ondoren, oharra egiteko epea zabaldu da, ekainaren 19an, astelehenean, amaituko dena.

5. Exonomastika Batzordea: 32. araua («Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak») eguneratzeko proposamena. Aurkeztu

32. araua eguneratzeko proposamena aurkeztu du A. Mujika Exonomastika Batzordeko idazkariak. Arauaren lehen bertsioa 1995ean plazaratu zen, eta 2006an eguneratu zen. Orain, bigarren eguneratzea proposatzen da, 2020an eguneratu zen 36. arauarekin («Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak») bat etorritzeko informazioa aurkezteko moduan, eta, horretaz gainera, azken urteetan gertatu diren aldaketak jasotzeko. Aldaketak zein diren eta zergatik egin diren azaldu du, eta osoko bilkurarako informazio osagarria ere gehitu da araugaiaren oin-oharretan.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 19an, astelehenean, amaituko dena.

6. Exonomastika Batzordea: «Musikako artelanak» araugaia. Aurkeztu

A. Mujika Exonomastika Batzordeko idazkariak aurkeztu du araugaia. Artelanen saileko laugarren eta azken atala da, jada araututa dauden «Historiaurreko eta Antzinako artelanen izenak» (191. araua), «Artelanen izenak. Arkitektura» (193. araua) eta «Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura» (194. araua) arauen ondoren.

Araugaiaren lehen zatian, musikako artelanak idazteko irizpideak zehaztu dira. Bigarren atalean, musikako artelanen zerrendak ageri dira, hiru sailetan: balletak, operak eta musika klasikoaren obrak. Euskarara itzultzekoak diren obra batzuetarako proposamenen zergatia azaltzeko, eranskin bat jarri da araugaiaren, Osoko Bilkurari informazio xehea emateko.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, uztailaren 10ean, astelehenean, amaituko dena.

7. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra-estiloak. Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

EBE Batzordearen izenean, A. Mujikak txostena aurkeztu du. Idatzian, M. Azkaratek eta J.-B. Coyosek egindako oharrak eta egitasmoa kideek emandako erantzun arrazoituak jaso dira.

Aurkeztu ondoren, ohargileak ados agertu dira proposamenekin, bai eta Osoko Bilkura ere, oro har, eta, horrenbestez, onartu dira. Bestalde, EBE Batzordeak berak autozuzenketa bat aurkeztu du, txostenaren 4.9.3 puntuko esaldi bat hobeto zehazteko. Onartu egin da.

Beraz, ontzat eman diren moldaketak sartuta, EBO egitasmoa letra-estiloen txostena onartua gelditu da.

8. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra-larriak eta xeheak. Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

EBE Batzordearen izenean, A. Mujikak txostena aurkeztu du. Idatzian, M. Azkaratek eta M.L. Oñederrak egindako oharrak eta egitasmoa kideek emandako erantzun arrazoituak jaso dira.

Aurkeztu ondoren, ohargileak ados agertu dira proposamenekin, bai eta Osoko Bilkura ere, oro har, eta, horrenbestez, onartu da. Moldaketa horiek sartuta, EBO egitasmoa letra-larriak eta xeheak saileko lehen atala onartua gelditu da.

Azkenik, A. Mujikak jakinarazi du, EBE Batzordeak prest dituela EBO egitasmoa lehen lau atalak argitaratzeko («Laburtzapenak, laburdurak, siglak eta sinboloak») eta Zuzendaritzaren esku utziko dituela argitaratze bidean jartzeko (webgunean argitaratzeko).

9. Esku artekoak

9.1 Joan Mari Irigoien (Donostia, 1948) euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri

Donostian hil zen, maiatzaren 17an, 74 urte zituela. Nahiz eta ingeniari itza ikasi, ez zen arlo horretan aritu. Gazte zelarik, Venezuelara joan zen aldi baterako. Bertan, Hego Amerikako literatura ezagutzeko aukera izan zuen. Egin egunkarian zuzentzaile aritu zen. Irakasle ere ibili zen, eta Euskal Telebistarako hainbat lan egin zituen. Idazle oparoa izan da Joanmari, nobela, poesia, haur- eta gazte-literatura jorratu dituela. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1996ko martxoaren 29an.

9.2 Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena sinatu dute euskararen arloan zerbitzua emateko

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Euskaltzaindiak bi erakundeek arteko lehen lankidetzahitzarmena sinatu dute. Horrela, bada, hizkuntza-eremua lantzeko interesa formalizatu da, toponimia, odonimia, argitalpenak, euskararen tokiko hizkera, eta Foru Komunitatearen berezko hizkuntza den euskara zuzendu eta sustatzearekin zerikusia duen beste edozein arlotan, etengabeko aholkularitza emanen da. Helburu horiek lortzeko, gainerako erakundeekin lankidetzan aritzea aurreikusten da, bereziki, Nafarroako Gobernuaren euskararen normalizazioaren arloan eskumena duen departamentuarekin.

9.3 2022ko R.M. Azkue Literatura Sariak

Guztira 463 lan aurkeztu dira aldi honetan, eta epaimahaikideek idatzien heldutasuna eta kontakizunaren bizitasuna nabarmendu dute.

- A mailan (10 eta 13 urte bitarteko gazteen saila) Noa Martínez —narrazioan— eta Leire García de Bikuña —poesian— gailendu dira; B mailan (14 eta 17 urte bitartekoak), Nahia Iturbe izan da irabazlea narrazioan eta Iraide Mitxelena poesian.
- Aurten ere, Oiartzungo Haurtzaro Ikastola izan da lanik gehien aurkeztu duen ikastetxea, eta sari berezia jaso du horregatik.

9.4 Euskaltzaindiak Pedro Sánchez Espainiako presidenteari Euskal Filologia berariazko jakintza-arlotzat mantentzea eskatu dio

Halaxe eskatu zion Akademiak Espainiako presidenteari, maiatzaren 4an bidalitako gutun baten bidez. Euskaltzaindiaren aburuz, Euskal Filologiari aitortpen zientifikoa eta ikusgarritasuna eman behar zaizkio nazioan eta nazioartean; eta beste horrenbeste Katalan Filologiari eta Galego Filologiari.

9.5 Patxi Goenaga euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da

2023ko maiatzaren 5ean, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1 xedapenaren arabera, Patxi Goenaga euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsartea iragarri da Arautegiaren 33. artikulua eta arabera. Hortaz, hutsartea «hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan —uztailaren 1ean eta 21ean— aurkeztu

ahal izango dira» (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3 xedapena). Era berean, gogorarazi da, Arautegiaren 34. artikulua dioena: «Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz».

9.6 Hurrengo ekitaldiak eta bilkurak

9.6.1 Gogorarazi behar da, 2022ko azaroaren 26an eginiko osoko bilkuran erabaki zela, 2023ko ekaineko osoko bilkura egun batez atzeratzea eta uztailaren 1ean egitea. Hori horrela, uztailaren 1ean, larunbatean, osoko bilkura egingo da Altsasun, udaletxean, 10:00etatik aurrera. Horren ondoren, Castillo Suárez euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia egingo da, 12:00etan, Altsasuko Iortia kulturgunean.

9.6.2 M.L. Oñederra Aholkaria Batzordearen buruak, «Euskara batuaren aholkaria zaindua (EBAZ)» arauaren 25. urteurrena dela eta, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, ekainaren 30ean, ostiralean, egingo den jardunaldiaren egitaraua aurkeztu du.

10. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

VI

Osoko bilkura

Altsasun, udaletxean

2023ko uztailaren 1ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Irazu
(*Bernardo Atxaga*), Beñat Oihartzabal, Mi-
ren Lourdes Oñederra, Xarles Videgain

eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazuk (*Bernardo Atxaga*) aha-
la Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek
ahala Miren Azkarateri; Miren Lourdes
Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Mi-
kel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

*Castillo Suárez euskaltzainaren sarrera-
hitzaldia dela eta, osoko bilkura ekainaren
30ean egin beharrean uztailaren 1ean egin
da, Altsasun, udaletxean.*

*Bilkuraren aurretik, Javier Ollo Altsasuko
alkateak euskaltzainak agurtu ditu eta harre-
ra egin die. Egunaren garrantzia azpimarratu
du. Izan ere, Castillo Suárez euskaltzainaren
sarrera-hitzaldia egingo da Iortia kulturgu-
nean eta gaurkoa egun berezia izango da,
euskararen eta euskal kulturaren ikusmolde-
tik, batez ere. A. Urrutia euskaltzainburuak
eskerrak eman dizkio Altsasuko Udalarari osoko
zein ageriko bilkurak egiteko eman dituen
erraztasunengatik.*

*Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hu-
rreratu diren euskaltzainak agurtu eta ahalak
irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu on-
doren, osoko bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko bilkuraren 2023-05-26ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrik jaso. Ondorioz, 2023ko maiatzaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLI). Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

Azalpenak eman ditu M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak. Adierazi duenez, maiatzeko osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari lau euskaltzainek egin dizkiote oharra: A. Alberdik, A. Mujikak, X. Videgainek eta A. Urrutiak. Banan-banan aztertu dira oharra eta, ATRAKO sarrerari buruzko proposamena hurrengorako utzi bada ere, beste guztiak (ANTROPOZENO, PALEOGENO, PERMIAR, SILURIAR, ATRAKATU, AZPIGARAPEN, LIBURU eta ORDEZKARITZA) hiztegiko arduradunek egindako proposamenak kontuan hartuta onartu dira. Uztailako eguneratzean sareratuko dira.

Horiek horrela, eguneratzean jasoko diren berrikuntzen berri eman du M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko arduradunak: adibideak berrikusi da (emakumeei buruzko adibide iraingarriak ordezkatu dira); esaera zaharrak adibideetatik atera eta sarrera-bukaerara eraman dira (horrez gain, desegokiak direnak isildu dira); hedadurazko adierak argitu eta definitu dira; adiera bakarrean zeuden partizipio burutuak dagozkien adieretara eraman dira; esapideak adieretatik atera eta azpisarrera bilakatu dira; hitz elkartuak adieretatik atera eta azpisarrera bilakatu dira (automatikoak direnak zein bere adieran jaso dira); adiera berriak gehitu dira, berrordenatu dira kasu batzuetan egungo erabilerak kontuan hartuta; lehendik isildutako formak berrikusi eta horietako batzuk berreskuratu dira egungo datuen argitan; forma berriak jaso dira (beste batzordeetatik eskatutakoak kasu batzuetan, LB corpusean 50 adibidetik gorakoak gehienak); kategoria-sistema osatu eta aditz-lokuzioak markatu dira unitate fraseologikoak lantzen hastearekin batera. Aldaketa horiek guztiak uztailaren 10ean sareratuko den hiztegi eguneratuan ikusi ahal izango dira.

Hori onartuta, beraz, XLIII. multzo osoa onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLIV). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko epea zabaldu da, uztailaren 17an, astelehenean, amaituko dena.

4. Exonomastika Batzordea: 32. araua («Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak») eguneratzeko proposamena. Irukinak aurkeztu eta erabakiak hartu

Gaia luze-zabal aztertzeke aukerarik egon ez denez, uztailaren 21eko osoko bilkurarako laga da.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuen Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko bigarren txostena. Aurkeztu

Gaia aurkezteko denborarik egon ez denez, uztailaren 21eko osoko bilkurarako utzi da.

6. Esku artekoak

6.1 Euskaltzaindiaren 2022ko ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2023ko aurrekontua

Azalpenak eman ditu R. González de Viñaspre diruzainak. Adierazi duenez, urteko ekitaldi ekonomikoa ixten denean, emaitza ekonomikoak egiaztatu eta ikuskatu egiten dira, halaxe egin da azken hamabi urteotan. Normalean, prozesu hori apirilean amaitu ohi da. Horiek horrela, emaitzen berri ematen da maiatzeko osoko bilkuran, eskuarteoetan. Baionan eginiko osoko bilkurara Euskaltzaindiko diruzainak hurreratzetik izan ez zuela eta, gaia uztailaren 1ean aurkeztu da.

Urteko emaitzei buruz hitz egin du J. Zabaleta kudeatzaileak. Azaldu duenez, 2022ko ekitaldia orekatua izan da. Guztira, 2.863.751,74 euroko gastuak egin dira. Sarrerak, berriz, 2.862.489,67 eurokoak izan dira. Ondorioz, urteko ekitaldia

onargarria den ments txiki batekin itxi da, -1.262,07 eurokoa, hain zuzen. 2023ko aurrekontuei buruz, guztira, 3.003.845,30 diru-sarrerak eta gastuak aurreikusi dira. Herri-erakundeek ekarpenak baietsita daude. Ekarpenei horri dagokionez, laguntzetan igoerak izan dira Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren aldetik. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, egoitzan zenbait obra egin ahal izateko, dirulaguntza berezi bat jasoko da.

M. Azkaratek adierazi du halako gaiak ezin direla presaka eta azkenengo orduan osoko bilkuran aurkeztu. Era berean, OMEAGI Batzordearen, Gramatika Batzordearen eta antzekoen aurrekontuak non dauden galdetu du. Hala berean, aurrekontuak Osoko Bilkurak onetsi beharko lituzkeela baieztatu du.

Euskaltzainburuak hitza hartu eta erantzun dio, batzordeetako aurrekontuak jasota daudela «Batzordeak eta barne-egitura gastuak» atalean, aurrekoetan egin bezala eta berariaz jasotzen direla giza baliabideak dituzten egitasmoak zein bestelakoak. Era berean gogorarazi du, Zuzendaritzaren egitekoen barruan daudela, «14.3 Euskaltzaindiari eta herri-aginteei aurkeztu behar zaien hurrengo urteko aurrekontua onartzea» eta «14.4 Diruzaintzak urtero Euskaltzaindiari eta herri-aginteei aurkeztu behar dizkien kontu-arrazoiak aztertu eta onartzea».

Gaiari amaiera emateko, diruzainak gogorarazi du aurreko urte guztietan euskaltzainei eginiko gonbita, J. Zabaleta kudeatzailearekin harremanetan jartzekoa, iazko emaitzei, bai eta aurtengo aurrekontuei buruz ere informazio zehatzagoa eskuratu ahal izateko.

6.2 Hurrengo bilkura

Osoko bilkura Bilbon, egoitzan, egingo da uztailaren 21ean.

7. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

VII

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan

2023ko uztailaren 21ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battitu*, buruordea,
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea, eta
Zabaleta, Joseba, kudeatzailea,
zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo
Arejita idazkaria; Jose Irazu (*Bernardo*
Atxaga); Joseba Lakarra; Miren Lourdes
Oñederra; Xarles Videgain; Patxi Zabaleta

eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres
Urrutiari; Jose Irazu (*Bernardo Atxaga*)
ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak
ahala Aurelia Arkotxari; Miren Lourdes
Oñederrak ahala Castillo Suárezi; Mikel
Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

*Batzarra Bilbon egin da, Euskaltzaindiaren
egoitzan, 2023ko uztailaren 21ean, ostira-
lean.*

*Andres Urrutia euskaltzainburuak hurreratu
diren euskaltzainak agurtu eta ahalak iraku-
rri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren,
uztaileko osoko bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko bilkurako (2023-07-01) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Idatziz ez da oharrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2023ko uztailaren 1eko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko bilkurako (2023-07-01) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

C. Suárez euskaltzainak ohar txiki batzuk egin ditu, edukia aldatzen ez dutenak. A. Urrutiak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, uztailaren 1eko ageriko bilkurako bilera-agiria onetsi da, C. Suárezek eginiko iruzkin txiki gutxi batzuk txertatu ondoren.

3. Exonomastika Batzordea: 32. araua («Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuaren izenak») eguneratzeko proposamena. Iruzkina aurkeztu eta erabakiak hartu

A. Mujika Exonomastika Batzordeko idazkariak aurkeztu du gaia. Horiek horrela, zenbait ukitu egin zaizkio araugaiari, A. Iñigo eta M. Azkarate euskaltzainek egindako oharren eta oharroi erantzunez Exonomastika Batzordeak proposatu dituen aldaketan ondorioz. Hona hemen oharrok:

- Araugaiaren 3. puntuan, «Lehenik, ohiko izendapena ematen da» zegoen tokian, «Gaztelaniaz, lehenik, ohiko izendapena ematen da» jarriko da, eta zutabeen izenak sinpletuko dira: «Erkidegoaren euskal izena» eta «Erkidegoaren erdal izena» jarriko da.

- «Erkidegoaren erdal izena» zutabearen, honela agertuko da Nafarroa: «Navarra (Comunidad Foral de Navarra)». «Erkidegoaren euskal izena» zutabearen, oin-ohar hau jarriko zaio «Euskadi» hitzari: Euskarazko izen ofiziala, 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Legearen arabera, *Euskadi* zein *Euskal Herria* da. Euskaltzaindiaren 139. arauaren arabera, *Euskal Herria* Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko izena da».

- Albedrik zutabeen ordenari eta izenei buruzko ohar formalak eta «historiagaietan» dagoen tokian «erreferentzia historikoetan» jartzeko proposamenak egin ditu. Onartu egin dira.

• P. Rekaldek arauan herritar-izenak sartzeko proposamena egin du eta, ondorioz, Exonomastika Batzordeak, koherentziari eustearren, Frantziako arauan ere herritar-izenak sartzeko proposamena egin du. Bi proposamenak onartu dira. Beraz, Exonomastika Batzordeak Espainiako eta Frantziako arauetan —32.ean eta 36.ean— agertzen diren leku-izenei dagozkien herritar-izenen zerrendak prestatuko ditu eta Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio, irailean.

Erabaki gabe utzi dira diakritikoei buruzko oharra (*León* edo *Leon* jartzea eta «probintzia-izenak eta probintzia-hiriburuen izenak azentu grafikoarekin nahiz hori gabe idatz daitezke (adibidez, *Ávila* edo *Avila*)» oharra jartzea edo ez jartzea). Diakritikoen gai orokorrari buruz Osoko Bilkurak erabakia hartu ondoren ebatziko dira.

Gainerako puntuetan, araugaia onartuta gelditu da.

4. Exonomastika Batzordea: Idatzi behar al dira erdal hitzetako zeinu diakritikoak euskarazko testuetan erdal hitzak erabiltzean? Noiz bai eta noiz ez? Aurkeztu

A. Mujika Exonomastika Batzordeko idazkariak aurkeztu du gaia. Adierazi du gai hau eztabaidatu izan dela lehenago, bai Exonomastika Batzordean, bai Onomastika Batzordean. Txosten luzea egin zen, Osoko Bilkurak berak —ez batzordeek— eskatua, eta Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion 2020ko abenduaren 18an. Gaia ez dela berria esan du, eta ezin dela berriro batzordeetara eraman, Batzordeak egin baitio galdera Osoko Bilkurari.

Orduko txostena aurkeztu du, atalez atal: diakritikoak zer diren, zertarako baliatzen diren eta ortografiaren parte direla azaldu du, marka diakritikoa duen grafema hizkuntza bakoitzaren alfabetoaren berezko letra izan edo ez izan. Ondoren, diakritikoak zer testuingurutan agertzen diren zehaztu du, eta testuinguru bakoitzean nola joka litekeen erakutsi, kontuan harturik zer dioten Euskaltzaindiaren arauak eta nola jokatzeko duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*: kanpoko izen arruntetan, pertsonen izen-abizenetan, kanpoko leku-izenetan eta, azkenik, pertsona-izen edo leku-izen ez diren izen berezietan. Kasu bakoitzerako txostenak proposatzen duen irtenbidea zehaztu du. Ondoren, txostenaren eranskinak azaldu ditu. Haietan, xehe deskribatzen eta zehazten da, batetik, zer

dioten euskal estilo-liburuek, eta, bestetik, nola jokatzeko den inguruko erdaretan: gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, eta, xehekiago, ingelesez. Halaber, txostenaren eranskinetan aztertu da kanpoko hizkuntza-akademia eta erakunde arauemaileek zer arautu duten eta, bestalde, komunikabideetan, testu ofizialetan, hezkuntza-materialetan eta abarretan nola jokatzeko den eta erdal estilo-liburuek hizkuntza horietarako zer proposatzen duten.

Txostenaren eztabaidaren emaitza azaldu du. Onomastika Batzordean, eztabaidatu eta ohar batzuk egin ondoren, P. Salaberri eta A. Iñigo batzordekide ohiei ere bidali zitzaion. Horren guztiaren ondoren, Batzordeak moldaketa batzuk proposatu zituen, eta txostenean moldaketa txiki batzuk egin ziren. Exonomastika Batzordean, eztabaidatu eta ohar batzuk egin ondoren, puntu batzuetan adostasuna lortu zen, eta beste batzuetan ez (txostenean bertan zehazten da alderdi hori).

Aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak adierazi du Osoko Bilkurari dagokiola erabakia hartzea. Irailaren 11ra arteko epea jarri da oharra egiteko. Oharrak iristen bada, eta beharrezkotzat jotzen bada, Exonomastika Batzordera eta Onomastika Batzordera bidaliko da.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko bigarren txostena. Aurkeztu

EBE Batzordearen izenean, A. Mujika egitasmoaren arduradunak EBO egitasmoaren zarpigarren txostena aurkeztu du. Letra larri eta xeheen makroatalaren bigarren txostena da (beste hiru izango dira).

Letra larrien bi funtzioak, demarkatiboa eta konnotatiboa, deskribatu ondoren, funtzio demarkatiboan letra larriak noiz eta nola erabiltzen diren zehaztu da atalez atal (esaldiaren hasieran, galdera- edo harridura-markaren ondoren, etenpuntuen ondoren, bi puntuen ondoren, aipuetan, parentesi edo marra luzeen arteko testuaren hasieran eta olerkietan). Ondoren, funtzio konnotatiboan (izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak nabarmentzea) letra larriak nola erabili azaldu aurretik, berezko izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak aurkeztu dira txostenean. Azkenik, atalez ataleko deskribapen xehea egin da. Deskribapen horren lehen atala txostenean dator, leku-izenei dagokiena, hemezortzi puntutan aletua.

Txostenak Osoko Bilkurarentzako zenbait ohar ditu; batzuk *Euskaltzaindiaren Hiztegi*arako oharra dira, eta beste batzuk txostenean agertzen diren proposamen

inguruko datuak emateko dira, edo ohartarazteko proposamena onartzeak ekarriko duela orain arteko arauetan aldaketaren bat egitea. Amaieran, eranskin batzuk daude hiru puntu arazotsuri buruzko informazioa emateko: 2.3.10 puntua («Erdialdeko Mendigunea ala Erdialdeko mendigunea») eta 2.3.1.18 puntua («Pertseidak ala pertseidak eta Zodiakoa ala zodiakoa»).

Aurkezpenaren ondoren, urriaren 9ra arteko epea jarri da oharrak egiteko.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLVI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, irailaren 11ra artekoa.

7. Esku artekoak

7.1 Patxi Goenaga euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsarteak betetzeko hautagaia

Arautegiaren 33. eta 34. eta Barne-erregelen 4. artikulua diotenaren arabera, hutsarteak betetzeko, Asun Garikano Iruetagoiena idazlea eta euskaltzain urgazlea aurkeztu dute M. Azkarate, R. González de Viñaspre eta P. Uribarren euskaltzain osoek. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian. Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan ez da bestelako hautagairik aurkeztu.

Horiek horrela, hutsarteak betetzeko bozketa Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, egingo da, 2023ko irailaren 29an.

7.2 Hurrengo osoko bilkura

Irailaren 29an, ostiralean, egingo da Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 10:00etatik aurrera.

7.3 Gaur banatu diren liburuak

- 2022ko urriaren 4-7 bitartean eginiko *Hizkuntzalaritza Funtzionalaren Nazioarteko Jardunaldiaren aktak*. Argitalpenaren paratzailea J.-B. Coyos buruordea izan da.

- *Donostia, euskara eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikoan*. Argitalpena Etxeberri bilduman argitaratu eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren emaitzetako bat da, 9.a, hain zuzen. Liburu honen argitalpen arduradunak Lionel Joly eta Mikel Zalbide izan dira.

7.4 Euskaltzaindiaren 2022ko ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2023ko aurrekontua

Altasuko osoko bilkuran emandako informazioa osatzeko asmoz, R. González de Viñaspre diruzainak azalpenak eman ditu. Adierazi duenez, urteko ekitaldi ekonomikoa ixten denean, emaitza ekonomikoak egiaztatu eta ikuskatu egiten dira; halaxe egin da azken hamabi urteotan. Normalean, prozesu hori apirilean amaitu ohi da. Era berean gogorarazi du, Zuzendaritzaren egitekoen barruan daudela «14.3 Euskaltzaindiari eta herri-aginteei aurkeztu behar zaien hurrengo urteko aurrekontua onartzea» eta «14.4 Diruzaintzak urtero Euskaltzaindiari eta herri-aginteei aurkeztu behar dizkien kontu-arrazoia aztertu eta onartzea».

Sarreraren ondoren, J. Zabaleta kudeatzaileak hitza hartu du. Batzordeak, lantaldeak, egitasmoak eta zerbitzuak kontuan hartuz, balantzearen eta aurrekontuaren aurkezpen zehatza egin du. Adierazi du, aurrekontuetan batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek plangintzan aurreikusitakoa hartzen dela kontuan. Era berean, urtean zehar egokitzapenak egiten dira, ekitaldiaren bilakaeraren arabera (bilkura, jardunaldi, argitalpen eta abarren kopuruaren arabera).

Gaiari amaiera emateko, aurreko urte guztietan euskaltzainei eginiko gonbita gogorarazi da, J. Zabaleta kudeatzailearekin harremanetan jartzekoa, iazko emaitzei, bai eta aurtengo aurrekontuei buruz ere informazio zehatzagoa eskuratu ahal izateko.

8. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:40an.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

VIII

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan

2023ko irailaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battitu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Irazu, Jose (*Bernardo Atxaga*)
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea, zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Alfontso Mujikari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazuk (*Bernardo Atxaga*) ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Alfontso Mujikari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Castillo Suárezi; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Iruñean egin da, Nafarroako Parlamentuan, 2023ko irailaren 29an, ostiralean.

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidenteak hitza hartu eta hurreratu diren euskaltzainak agurtu ditu. Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak izan ditu hizpide eta, aldi berrian, elkarlan horretan sakontzeko borondatea berretsi du.

A. Urrutia euskaltzainburuak U. Hualderen berbak eskertu eta Euskara Batuaren Eskuliburuen 5. argitaraldiko ale bat oparitu dio.

Harreraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren 2023-07-21eko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2023ko uztailaren 21eko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Patxi Goenaga euskaltzain emeritu izatearen ziozko domina-hutsartea: Hautagaia bozkatzea

Uztailaren 21eko osoko bilkuran, hautagai bakarra aurkeztu eta aldarrikatu zen, Asun Garikano euskaltzain urgazlea, hain zuzen. Hori horrela, bozketa egin da, Arautegiak zehazten duenaren arabera.

Zuzenean edo ordezkatuak dauden euskaltzainak, guztira, 24. Hautagaiak eskuratu beharreko aldeko gutxieneko boz-kopurua: 13.

Bozketaren emaitza: Asun Garikano izendatzearen alde 23 boto eta boto bat kontra. Ondorioz, Arautegiaren 35. artikulua dioena kontuan hartuz, Asun Garikanok euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi duenez gero, euskaltzain oso aukeratu da. Euskaltzain oso izendatu berriari zorionak ematea erabaki da osoko bilkuran.

3. Exonomastika Batzordea: Idatzi behar al dira erdal hitzetako zeinu diakritikoak euskarazko testuetan erdal hitzak erabiltzean? Noiz bai eta noiz ez? Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Oharrak egin dituzte M. Azkaratek, M.L. Oñederrak eta A. Alberdik. A. Mujika txostenaren egileak oharrak azaldu eta haietan oinarrituta proposatzen diren aldaketak proposatu ditu (ohargileen proposamenak eta erantzunak idatziz banatu zaizkie bilerakideei).

M. Azkaratek ahoskerari buruzko oin-ohar bat sartzea proposatu du izen arruntan atalean kanpoko leku-izenei buruz esaten denaren antzeko zerbitu esateko. Oin-ohar hori txertatzea ondo ikusi da. Hauxe da oin-oharraren testua: «*Diakritikorik gabe idatziz gero, zilegi du hiztunak izen horiek 87. arauaren (“Euskara batuaren ahoskera zaindua”) irizpideen arabera ahoskatzea, hau da, euskal hitzak balira bezala ahoskatzea».

M.L. Oñederrak *naif* hitzaren ahoskerari buruz dagoen «(...) non eta hiztunak ez duen hautatzen frantsesez bezala ahoskatzea» esaldian «frantsesez» dagoen tokian, «frantsesez edo gaztelaniaz» jartzea proposatu du. A. Mujika ados agertu da, baina esan du, gaztelaniaz *naif* zein *naif* idaztea onartua dagoenez RAEren arabera, hori ere zehaztu behar dela. Hala onartu da. Hauxe da testu berria: «(...) non eta hiztunak ez duen hautatzen frantsesez edo gaztelaniaz bezala ahoskatzea (gaztelaniazko *naif* grafiari dagokion ahoskera erabiliz gero, ez *naif* grafiari dagokiona, bi grafiak zuzenak baitira gaztelaniaz)».

Oin-ohar batean dagoen «Erdal abizenak edo erdal moldeko abizenak direnean» esaldia argitzeko adibideak ematea eskatu du M.L. Oñederrak. Batzordeak esanahia argitzeko bi adibide sartzea proposatu du. Hala onartu da. Hau da testu berria: «Erdal abizenak edo erdal moldera taxututa dauden Euskal Herriko abizenak direnean (hala nola Martínez de Madina edo González de Viñaspre)».

A. Alberdik, esaldi bat gaizki ulertzeko arriskua dagoela eta, esaldia moldatzea proposatu du. Batzordeak onatzen eman du proposamena, eta esaldia berridazteko testua proposatu du. Hala onartu da. Hauxek dira testu zaharra eta berria:

- Zaharra: «Euskal Herriko gaur egungo pertsona-izenetan ageri diren erdal diakritikoak ez dira kentzen baldin eta pertsona horiek hala erabiltzen badituzte».
- Berria: «Euskal Herriko gaur egungo pertsonen izen-abizenetako erdal diakritikoak pertsona horiek erabiltzen dituzten bezala idaztekoak dira».

Beste bi zuzenketa formal proposatu ditu A. Alberdik, eta eztabaidatu gabe onartu dira.

Azkenik, *Peru* estatu-izenaren diakritikoa jartzea ez ote den komeni azaldu du bere proposamenean A. Alberdik, *Peru* pertsona-izenarekin nahasteko anbiguotasuna dela eta. A. Mujikak erantzunean azaldu du, estatu-izen guztietan sistematikoki erabaki zela diakritikorik ez ematea eta *Peru* ez dela kasu bakarra, eta, bestalde, anbiguotasuna teorikoa dela baina praktikan testuinguruak argituko lukeela beti. Aldaketarik ez egitea onartu da.

Txostena, hala, onartuta gelditu da, eta, ondorioz, Onomastikako eta Exonomastikako arauetan aldaketa gutxi batzuk egingo dira (txostenean aipatzen da zehazki zein diren). Barne-txostena denez, Osoko Bilkurak eskatua, ez da egokia

bere horretan plazaratzeko, eta mamiz ez baina formaz aldaketak beharko ditu. A. Mujikak adierazi du EBO egitasmoaren barnean ortografia-markei buruzko atal bat dagoela eta atal horren barnean marka diakritikoei buruzko azpiatal egin behar denez, egokiena litzatekeela onartutako txostenaren edukia azpiatal horretara eramatea eta hala plazaratzea (EBE Batzordeak ortografia-marken atala Osoko Bilkurari aurkeztu dionean, azpiatal horretan aldaketa formalak baino ez dira egin beharko, behar izanez gero, eta ez edukiari buruzkoak, jada onartuta baitago). Eta atal hori argitaratzen denean, argitaratzeaz batera gauzatu beharko dira Exonomastikako eta Onomastikako arauetan behar diren aldaketak, eta horren berri eman. Hala gitea onartu da.

Azkenik, 32. arauan («Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuaren izenak») ebatzi gabe utzi zen *León/Leon* gaia eztabaidatu da, erabaki baitzen diakritikoei buruzko txostenaren eztabaida burutu ondoren helduko zitzaiola gaiari.

Exonomastika Batzordeak, araua, haxe proposatu zion Osoko Bilkurari: «Erkidegoaren izena *Gaztela eta Leon* denez (*Leon* egokituta, azentu grafikorik gabe), izen bereko probintziaren eta hiriaren izenak ere azentu grafikorik gabe».

A. Alberdik ohar hau egin zuen: «Erkidegoko probintziaren euskal izena *Leon* izatea (azentu grafikorik gabe, alegia) erkidegoaren izena *Gaztela eta Leon* delako baino egokiago iruditzen zait kontrako irizpidea. Hau da, erkidegoaren izenari jartzea azentu grafikoa (*Gaztela eta León*); hala, ez litzateke inolako salbuespenik egongo izenetan. Azentudun izen guzti-guztiekin eramango lukete azentu grafikoa. Koherenteago litzateke. Erkidegoaren euskal izena *Gaztela eta León* izatea, eta probintziaren euskal izena *León* izatea».

M. Azkaratek ohar hau egin du: «Bat nator A. Alberdiren proposamenarekin: *Gaztela eta León*. Neure egiten dut berak idatzia: «... hala, ez litzateke inolako salbuespenik egongo izenetan. Azentudun izen guzti-guztiekin eramango lukete azentu grafikoa». Azalpenen bat eman nahi bada, esan daiteke erkidegoen izenak egokitu egiten direla, baina, salbuespena egin dela *León* izenarekin, erkidegoaren izena bat datorrelako probintzia izenarekin eta hiriburuaren izenarekin, eta idazkera bakarra eman nahi izan delako».

A. Mujikak adierazi du ez dagoela soluzio bakarra den-dena konponduko denik: autonomia-erkidegoen izenetan grafia-aldaketak egin direnez eta, kasu horretan,

Gaztela izena ere moldatu denez, izendapen hibrido bat geldituko da izendapenaren parte bat egokituta (*Gaztela*) eta bestea ez (*León*), nahiz eta izen historiko garrantzitsua izan, baina ulertzen duela Leon jarritz gero, azentu grafikoa kenduta, probintziaren *León* litzatekeela salbuespen bakarra eta ez duela zentzurik bitasuna proposatzea, hau da, autonomia-erkidegoaren izenean azentu grafikorik gabe eta probintziaren izenean azentu grafikorekin. Azkenean, ohargileen proposamena onartu da: ***Gaztela eta León erkidegoa eta León*** probintzia eta hiriburua.

Hala, onartuta gelditu da 32. araua eguneratzeko araua.

4. Exonomastika Batzordea: 32. arauan (Espainia) eta 36. arauan (Frantzia) herritar-izenak sartzea. Aurkeztu

P. Rekaldek Espainiako probintzia eta hiriburuaren herritar-izenak sartzea proposatu zuen, eta Exonomastika Batzordeak adierazi zuen, Espainiako arauan sartuz gero, Frantziakoan ere sartu behar litzatekeela. Eta halaxe egitea onartu zen. Exonomastika Batzordeak kasu berezitarako irizpideak landu, eta bi zerrendak prestatu ditu. A. Mujika Batzordeko idazkariak aurkeztu ditu, eta azaldu du, zalantza zenbait kasu aurkitu dituztela eta proposamenaren haiei buruzko datuak eta azalpenak bildu dituztela Osoko Bilkurak erabakitzeko. Zehazki, *giputz* hitzaren egokitasunaz eta *landestar*, *bordeles* eta *pauetar* herritar-izenei buruz.

Urriaren 30era arteko epea jarri da oharrak egiteko.

5. Exonomastika Batzordea: «Musikako artelanak» araua. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

- A. Alberdik zenbait ohar egin ditu. Exonomastika Batzordeak, oharrak aztertuta, erantzuna prestatu du. A. Mujika Batzordeko idazkariak aurkeztu ditu erantzunak.
- Lehen oharrean, A. Alberdik aipatu du, ingelesaren jokabidearen berri ematen denez, ez ote den komeni frantsesarena ere zehaztea. Batzordeak erantzun du, arauaren helburua euskararen jokabidea bakarrik zehaztea dela eta ingelesaren jokabideari buruzko aipu labur bat sartu zela gaur egungo kanten izenen atalean, gaur egun ingelesezko kanten noiznahi iristen direlako guregana eta, horrenbestez, normala delako kanten izenetan hitz guztiak letra larri hasita ikustea; horregatik zehaztu zela, baina ez dela,

berez, ingelesaren jokabidea deskribatzen. Horiek horrela, frantsesaren jokabidea ez zehaztea proposatu du Batzordeak, eta halaxe onartu da.

- Bigarren oharrean, A. Alberdik adierazi du «Bederatzigarren sinfonia» letra etzanez ageri dela eta hori ez datorrela bat irizpidearekin. Exonomastika Batzordeak oharra onartu du, eta letra arruntez jartzea proposatu du. Halaxe onartu da.

- Hirugarren oharra *nibelungo* hitzari buruzkoa da, ez delako ageri *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren*. Batzordeak erabilera-datuak eman ditu, eta hitza hiztegiaren jasotzea komeni den ala ez Euskaltzaindiaren Hiztegiaren Batzorde Ahaldunduari dagokio.

- Azken oharrean, A. Alberdik eskatu du aposizioan eraturik dauden izenei buruzko azalpena ematea. Exonomastika Batzordeak proposamena onartu eta puntu haxe eranstea proposatu du: «Musika-konposizioaren izenburuan, batzuetan, musika-forma aposizioan erabiltzen da; kasu horietan, musika-forma ez da izenburuaren parte; horregatik, ez da beharrezkoa letra etzanez idaztea. Adibidez: Mendelssohnen *Lobgesang* sinfonia edo Straussen *Burleske* pieza kontzertantea. Izenburuaren parte denean, berriz, letra etzanez idazten da. Adibidez: *Patuaren sinfonia*, *Mundu berriaren sinfonia*, *Sinfonia fantastikoa*, *Sinfonia kontzertantea*, *Suite espainola*, *Enperadorearen kontzertua*, *Brandenburgoko kontzertuak* edo *Linzeko sinfonia*».

- Bestalde, musika-obren zerrendan, hiru aldaketa egitea proposatu du (aposizioen orde, forma lotuak ematea, ohikoa baita, kasu horietan, izenondoa + izena egitura gisa erabiltzea gaztelaniaz eta frantsesez). Hauek: «*Linz sinfonia*» dagoen tokian, «*Linzeko sinfonia*» jartzea; «*Dante sinfonia*» dagoen tokian «*Danteren sinfonia*» jartzea; «*Fausto sinfonia*» dagoen tokian «*Faustoren sinfonia*» jartzea.

Aldaketa horiek egitea onartu da. Hala, araugaia arau bihurtu da.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLV). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Ekaineko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Urrutiak egin zion ohar bakarra: ESKAINTZA sarreran zuzenbideko adiera ere jasotzea. Proposamena aurkeztu eta hala onartu da. Beraz, unitate fraseologikoen multzo osoa onartuta geratu da.

7. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLVI). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Uztaileko bilkuran aurkeztutako zerrendari, M. Azkaratek, A. Mujikak, A. Alberdik eta M.L. Oñederrak oharrak egin dizkiete:

- MAMIKATU sarreran «xeha mamikatu» adibidea jasotzeko eskatua zuen M. Azkaratek, baina erabilera-datuak oso urriak eta ia autore bakarrarenak direnez, ez jasotzea proposatu eta onartu da.

- MARINA sarreran adiera berria onartu da, margolanari dagokiona.

- METODOLOGIA eta OBJEKTIBO sarreretako 1. adiera orokorregiak ezabatu egin dira, eta OBJEKTIBON 5. eta 6. adieretan marratxoak gehitu («leiar-multzo»).

- PAGAKIZUN sarrerarako «pagakizun(-)agiri» adibidea eskatu zuen M. Azkaratek, baina datu urriak eta gaurko erabilera aski finkatuak ikusita (ORDAINDUKO eta ORDAINAGIRI jasoak ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, eta horiekin batera «abonu-agiri» termino normalizatua da Euskalermen), ez jasotzea onartu da.

- Azkenik, POZGABETASUN forma dokumentatu gabea Hiztegitik ezabatzea onartu da.

Honekin, M-P multzoko adibideen atala bukatutzat eman da.

8. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XLVII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 30era artekoa.

9. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko hirugarren txostena. Aurkeztu

EBE Batzordearen proposamena aurkeztu du A. Mujika batzordekideak. Pertsona-izenetan, izen mitologikoetan eta tratamenduetan letra larriak noiz eta nola erabili zehaztu da txostenean. Eta Osoko Bilkurarentzat ohar batzuk utzi dira hiru puntutan: santuak izendatzeko san, santa izenen hasierako letra larriari buruzkoa (125. arauak letra larria erabili beharra ezartzen du, baina gaztelaniaz, frantsesez eta katalanez letra xehez idazten dira gaur egun); izaki mitologiko kolektiboek buruz (*Graziak* edo *graziak*); eta erlijioaren eremuko pertsonen tratamenduei buruz (*anaia/Anaia*, *ama/Ama*, *aita/Aita*, *arriba/Arriba*, *ahizpa/Ahizpa*).

Aurkezpenaren ondoren, urriaren 30era arteko epea jarri da oharrak egiteko.

P. Zabaletak azaldu du, txostenaren harira, interesgarria litzatekeela pseudonimoei buruzko ikerketa bat egitea. A. Arejitak Ama Birjina izendatzeko izenen artean «Andrane» ere sartzea komeni dela azaldu du, tradizioiduna delako. E. Osak adierazi du animalia-arrazei dagokien puntuan komeni dela *Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin* bat etortzea, puntu hori berariaz landu zelako.

Azkenik, euskaltzainburuak azaroko bilkuran EBO egitasmoaren egoeraren berri ematea eskatu du.

10. Euskaltzaindiaren 2024ko egutegia. Aurkeztu

Euskaltzaindiaren urte bakoitzeko egutegia aurreko urtearen azken hiruhilekoan aurkeztu eta onestea jasota dago Barne-erregeletan. Nolanahi ere, urrian eta abenduan osoko bilkurarik ez dagoenez gero, 2024ko egutegia aurkeztu da, euskaltzainek aztertu eta iruzkindu ondoren, azaroko Osoko Bilkurak onetsi dezan. Hori horrela, E. Osa idazkariordeak Zuzendaritzak landutako 2024ko egutegia aurkeztu du.

Aurkezpenaren ondoren, urriaren 30era arteko epea jarri da oharrak egiteko.

11. Esku artekoak

11.1 Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri

Abuztuaren 18an hil zen. Intxausti Seguran jaio zen 1936ko uztailaren 20an eta

Bartzelonako Unibertsitatean egin zituen Historia ikasketak. 1961ean, euskaltzain urgazle izendatu ondoren, Euskaltzaindian urte askotan aritu zen Euskararen Historia Soziala ikertzen eta hedatzen eta, horretaz gain, hainbat egitasmotan ekarpena egiteko aukera izan zuen, besteak beste, Aditza, Argitalpenak, Alfabetatzea eta Gramatika ataletan, Joanes Etxeberri egitasmoan eta *Euskera* agerkarian. Gipuzkoako ordezkaria ere izan zen 1979an. 2004ko azaroaren 26an, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Akademiak. Jakin Fundazioko ohorezko kide eta UZEIko zuzendari izandakoa, Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioko idazkaria ere izan zen. Intxaustiren hilberri-txostena Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak prestatuko du.

11.2 Mixel Oronoz ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri

Irailaren 22an hil zen. Baigorri (Nafarroa Beherea) jaio zen 1935eko agorriaren 23an. Teologian (Louvain) eta Literaturan (Paris VII, Jussieu) lizentziaduna eta Euskal Ikasketetan doktorea (Bordeleko Montaigne Unibertsitatea). Idazle, irakasle eta apaiza. Euskal Konfederazioaren buru ohia. Ohorezko euskaltzain izendatua 2021eko azaroaren 26an.

11.3 Euskaltzaindiaren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena izenpetu da

Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak bi hamarkada baino gehiago daramatzate elkarlanean, hain zuzen, hirian euskararen erabilera normalizatzeko eta zabaltzeko lanean. Horrela, hitzarmen berria izenpetu da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2023ko irailaren 26an. Kasu honetan, Bilboko egunerokotasunean euskara aitzinatzeko baliatuko da hitzarmen hau, esaterako, kulturaren bidez euskara atseingarri egiteko gizartearen aurrean.

11.4 Irailekoak jaialdiaren berri

Euskaltzaindiak poesiari lotutako jaialdia antolatu du, Lekeitioko Udalaren babesarekin. Horrela, irailaren 30ean eta urriaren 1ean izango da Irailekoak jaialdia. Xehetasunak azaldu ditu Miren Agur Meabe euskaltzainak.

- Jaialdiaren bitartez, euskal poeten lana gizarteratu nahi da, bai hitzaldien bidez, bai irakurraldien eta errezitaldien bidez. Halaber, beste batzuetako poetek ere parte hartuko dute. Horren haritik, katalanez idatzitako poesia garaikideko bi ahots esanguratsu izango dira Lekeitio: Antònia Vicens eta Mireia Calafell.
- Irailekoak jaialdia hitzaldi mamitsu batekin estreinatuko da. Iratxe

Retolaza ikertzaile eta euskaltzain urgazleak XXI. mendeko euskal poesiak oraingoz eman duena aztertuko du «Perimetro poetikoak XXI. mendean: neurtezinaren zirrimarrak» mintzaldian.

11.5 Banatuko diren liburuak

- *Irailekoak* argitalpena.
- *Euskara batuaren eskuliburua* (5. argitaraldia). A. Alberdi lanaren prestatzaileak azaldu duenez, argitalpen berrian, besteak beste, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egin diren eguneratzeak zein zuzenketak kontuan hartu dira, bai eta *Euskararen gramatika*n azaltzen diren zenbait ekarpen ere. Hala berean, zenbait akats ortotipografiko zuzendu dira. Argitalpen digitala sarea dago, paperezko edizioa eskuratu nahi duenak idazkariordeari eskatzea dauka.
- *Creación, traducción, autotraducción*. A. Arkotxa eta Olga Anokhina edizio-prestatzaileak izan dira. A. Arkotxak argitalpenaren zertzelada batzuk eman ditu. Arkotxak eskerrak eman dizkie liburua ontzen lagundu dutenei.
- Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainaren *Markina-Xemein hitz lau, olerki eta bertsoz* banatu da. Argitalpen hau lankidetzan argitaratu dute karmeldarrek, Markina-Xemeingo Udalak eta Euskaltzaindiak.
- Bostak Bat lantaldearen *Sinonimoen hiztegia* banatu du Patxi Uribarren euskaltzainak.

11.6 Euskaltzaindiaren webgune berritua

Webgunea berritu da eta, bertan, besteak beste, frantsesez zein ingelesez zenbait atal ageri dira. Aurkezpene egin da Baionan, ordezkartzan, irailaren 27an. Hala berean, Battittu Coyosek adierazi duenez, Euskaltzaindiaren baliabide linguistikoak aurkezteko, ikastaroa antolatu da Baionan, ordezkartzan, urriaren 4an. Ikastaroan hamabost bat lagunek eman dute izena.

11.7 Hurrengo bilkurak

- Jean Haritzelharren jaiotzaren mendeurrena eta heriotzaren 10. urteurrena direla eta, jardunaldia antolatu da Baigorriin, azaroaren 10ean. Battittu Coyosek aurkeztu du egitaraua. Egitaraua euskaltzainei igorriko zaie eta jardunaldian parte hartzeko aukera izango dute.

- Urrian ez da osoko bilkurarik egingo. Urriaren 28an, larunbatean, Baionan, herriko etxean, 10:30ean, Itxaro Borda euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia egingo da. Gonbidapenak datorren astean igorriko dira, lekua erreserbatzeko eta bazkaltzeko baieztatzea ezinbestekoa da.

12. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

IX

Osoko bilkura

Getarian, udal liburutegian

2023ko azaroaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Getarian egin da, udal liburutegian, 2023ko azaroaren 25ean, larunbatean.

Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Irazu, Jose (*Bernardo Atxaga*)
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Haritz Alberdi Getariako alkateak hitza hartu eta hurreratu diren euskaltzainak agurtu ditu. Getariarentzat gaurko egunak daukan esangura eta garrantzia azpimarratu eta, Getarian halako ekitaldia egiteagatik, Euskaltzaindiari eskerrak eman dizkio. Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio Getariako Udalari eginiko harrerarengatik, bai eta Andres Alberdiren sarrera-ekitaldia dela eta, eman duen laguntza paregabeagatik.

Harreraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

Osa, Erramun, idazkariordea, zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Lourdes Oñederra, Patxi Salaberri eta Xarles Videgain.

1. Osoko bilkuraren 2023-09-29ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galde-tuta, ez da egin. Ondorioz, 2023ko irailaren 29ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko bilkuraren 2023-10-28ko bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galde-tuta, ez da egin. Ondorioz, 2023ko urriaren 28ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Exonomastika Batzordea: 32. arauan (Espainia) eta 36. arauan (Frantzia) herritar-izenak sartzea. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Azkaratek egindako oharrak aztertu ditu Exonomastika Batzordeak eta erantzuna aurkeztu du A. Mujika Batzordeko idazkariak. Lehenik, *gipuzkoar/giputz* aldaeren erabilera-datuak aztertu dira corpusetan, eta garbi ageri da *gipuzkoar* forma dela, alde handiz, erabiliena. Bestalde, *giputz* forma gutxiesgarria den edo ez den zalantza egin da, eta iritzia eman dute zenbait euskaltzainek. Erabakia hartzea ez dagokio Exonomastika Batzordeari, lexiko arrunteko hitza baita. M. Urkiak esan du hurrengo bileran aztertuko dutela Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduan, baina, nolana ere, abenduan osoko bilkurarik izango ez denez eta hiztegiaren eguneratzea urtarilean egin behar denez, ez dela astirik izango hurrengo eguneratzea egin baino lehen erabakitzeko, osoko bilkurara ekarri beharko baita. Horrenbestez, Osoko Bilkurak erabaki bitartean ez dira argitaratuko 32. eta 36. arauak herritar-izenak sartuta. Gainerako oharrei dagokienez, *valladolidar* formaren ordezkari *valladolidar* onartu da, atzizkiaren *-ar* aldaera (eta ez *-tar*) baitagokio 178. arauaren arabera. Eta *landestar* eta *bordeles* izenak sartzea onartu da.

Azkenik, *santiagotar* izenari dagokionez, Exonomastika Batzordeak adierazi du, 178. arauaren arabera atzizkiaren *-ar* aldaera dagokiola (horregatik dute *-ar* amaiera *-o* bokalaz amaitutako gainerako leku-izenetatik eratorritako herritar-izenek (*oviedoar*, *lugoar*, *logroñoar*, *castelloar*, *toledoar*, *ajaccioar*, *rodanoar*), baina araua 2015ekoa dela eta lehendik, 1995etik, arautua dagoela *santiagotar* (Txileko hiriburua), eta horregatik proposatu zela Galiziako Santiago hiriko herritar-izena ere *santiagotar* izatea. M. Azkaratek adierazi du ulertzen duela, baina *santiagotar* izateko arrazoi

bakarra dela izen hori herritar-izenen araua argitaratu baino lehenagokoa izatea eta arrazoi hori ahula dela. Horrenbestez, onartu egin dira herritar-izenak, baina, *gipuzkoar/giputz* herritar-izenen kasuan, *Euskaltzaindiaren Hiztegitako* erabakitzen dena jarriko da, eta orduan argitaratuko dira 32. eta 36. arauak.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLVII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Irailako bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Urrutiak eta A. Alberdik egindako oharra aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Bileran oharrak ez da egin; beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta Adibideak Lantaldea. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XLVIII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkaratek eta A. Iñigok egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Abenduaren 27ra arteko epea jarri da oharra egiteko.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko hirugarren txostena. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

A. Alberdik eta M. Azkaratek egin dituzte oharra. Oharretako batzuk erratak dira, eta eztabaidatu gabe onartu dira. Gainerakoei dagokienez, A. Mujikak azaldu ditu EBE Batzordeak oharra aztertu ondoren prestatu dituen proposamenak.

Irizpidea soiltearen ondorioz, lehendik arautua dagoen *Erdialdeko Mendigunea* eta beste zenbait leku-izen ez hain ezagun edo erabilietan, osagai generikoari («mendigunea») letra larria kenduko zaionez, hori gauzatzen denean erabiltzaileei jakinaraztea eta arrazoiak azaltzea eskatu du M. Azkaratek, eta Exonomastika Batzordeak baietz adierazi du, hala egin behar dela, beste inoiz egin den moduan (hiriburu batzuen grafia aldatu zenean alfabeto zirilikoa transkribatzeko araua onartu zenean). Horretarako, letra larrien araua argitaratzen denean, ohar bat jarriko da *Plazaberri* agerkarian horren berri emateko, zergatia azalduta eta zein

leku-izenetan duen eragina jakinarazita. Horretaz gainera, leku-izen horiei dagozkien arauetan ere ohar bat jarriko da horren berri emateko.

«Apirilaren 25eko zubia» adibideari dagokionez, honela jarriko da: «Apirilaren 25eko zubia (Apirilaren Hogeita Bosteko zubia)»; «Kantzer tropikoa» adibidearen kasuan, ohar bat sartuko da adierazteko tropikoa izendatzeko *Kantzer* erabiltzen dela eta ez dela *Karramarro* izena baliatzen.

Txostenaren 1.2 puntuan, araua hain zurrunez ez izatea proposatu da ohar batean, eta EBE Batzordeak honelaxe malgutzat proposatu du. Honen ordez: «Antzera gertatzen da esaldia galdera-sorta edo harridura-sorta batez osatua dagoenean. Bata bestetik komaz bereizita ere eman daitezke, eta orduan ere ez dira letra larriak hasita idazten». Honelaxe jarriko da: «Antzera gertatzen da esaldia galdera-sorta edo harridura-sorta batez osatua dagoenean. Bata bestetik komaz edo puntu eta komaz bereizita ere eman daitezke, eta orduan ere ez dira letra larriak hasita idazten».

Txostenaren 1.4.1 puntuan, honela dio testuak: «Adibidez, gutunen eta posta-mezu elektronikoen hasieran jarri ohi den ohiko kortesiazko agurraren, diosalen edo deikien ondoren bi puntu jartzen dira, eta testuak hurrengo puntuan jarraitzen du letra larriak hasita». Oharra dio diosalaren ondoren bi puntu jartzea aukera bakartzat jotzen dela hor, baina beste molde batzuk ere badirela eta ea erabat baztertzekoak diren.

EBE Batzordeak aztertu du gaztelaniaren, frantsesaren, ingelesaren eta katalanaren erabilera eta garbi ikusten da hizkuntza bakoitzak bere molde duela eta ez dagoela batasunik. Txostenaren helburua, dena dela, letra larrien erabilera zehaztea da eta puntuazioaren atalean aztertu eta zehaztu beharko da zein diren bi puntuen funtzioak eta zein komarenak. Horregatik, EBE Batzordeak proposatu du, esaldia moldatzea eta, aurrerago, puntuazioaren txanda iristen denean, gaia aztertzea. Beraz, testua honela utziko da (bost hitz ezabatuta): «Adibidez, gutunen eta posta-mezu elektronikoen hasieran jarri ohi den ohiko kortesiazko agurraren, diosalen edo deikien ondoren, testuak hurrengo puntuan jarraitzen du letra larriak hasita».

Txostenaren 1.4.5 puntuan, «artefaktuak» dioten tokian, «artefakturik» jarriko da.

Txostenaren 2.2 puntuan, «erakundea idaztean» dioen tokian, «erakundearen izena idaztean» jarriko da.

Txostenaren 2.3.1.15 puntuan, azken paragrafoan, «Puntu kardinalen eta interkardinalen nazioarteko sinboloak letra larriz idazten dira beti: ...», batetik, «beti» hitza kenduko da, ez baita beharrezkoa, eta, bestetik, oin-ohar hau sartuko da: «*Berdin jokatu behar da oinarritzko mailako testuetan euskarazko izenen arabera sinboloak erabiltzen badira (**I**, iparra, **H**, hegoa...)».

Aldaketa horiek eginda, onartu da txostena.

Txostena onartu ondoren, Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoaren egoeraren berri eman du A. Mujikak. Adierazi duenez, Osoko Bilkurak sei atal onartu ditu dagoeneko eta bi multzo prest daude argitaratzeko:

a) **Lehen multzoa:** Laburtzapenak (laburtzapenen sarrera eta laburdurak [2022ko irailean onartua] siglak eta sinboloak [2023ko otsailean onartua]).

b) **Bigarren multzoa:** Letra-estiloak (2023ko maiatzean onartua).

c) **Hirugarren multzoa:** Letra larriak eta xeheak. Sei txostenez osatuta egongo da. Lehen biak onartuak ditu Osoko Bilkurak (2023ko ekainean eta azaroan onartuak, hurrenez hurren); hirugarrena aurkeztuta dago, eta euskaltzainen oharrak jaso ditu dagoeneko EBE Batzordeak. Laugarren, bosgarren eta seigarren txostenak eginda daude, eta EBE Batzordean eztabaidatzen ari dira araugai-proposamenak Osoko Bilkurari aurkezteko.

d) **Laugarren multzoa:** Puntuazioa; bi txostenez osatuta egongo da. Lehenengoa egin dago eta EBEri aurkeztu zaio jada. Bigarrena urtarrean emango zaio EBE Batzordeari.

e) **Bosgarren multzoa:** Zenbakizko adierazpenak dira, eta bi txostenez osatuta egongo da. Lehen txostena martxoan aurkeztuko zaio EBE Batzordeari. Bigarren txostenaren kronograma zehazteko dago.

Handik aurrerako atalen kronograma zehaztu gabe dago. Seigarren atala beste hizkuntzetako izen berezien ortografia izango da. Horrekin, bukatutzat eman liteke egitasmoa, atalei dagokienez. Gero, arau zaharren berrikuspenean egin beharko da EBOren erabakiek eragiten dieten puntuetan.

Azkenik, egokitzen joz gero, lan osoaren argitalpena bideratu beharko da, bai eta kontsulta-sistema aurreratua prestatu beharko da webgunean jartzeko.

7. Euskaltzaindiaren 2024ko egutegia. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Idatziz ez da oharrik jaso. E. Osa idazkariordeak adierazi duenez, ekainaren 29an, osoko bilkura Gasteizen egingo da. Egun berean, Asun Garikano euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, ageriko bilkura egingen da Gasteizen. Tokia zehazteke dago.

A. Urrutiak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, Euskaltzaindiaren 2024ko egutegia onetsi da.

8. Esku artekoak

8.1 Jagonet zerbitzua abian

A. Urrutia euskaltzainburuak argitu duenez, Jose Ramon Zubimendik Jagon zerbitzuan zituen ardurak utzi ondoren, etenda geratu zen zerbitzua. Euskaltzaindiaren mendeurrenaren inguruabarrean, EBE Batzordearen zereginen artean, Jagonet zerbitzuan jasotako galderak zein erantzunak antolatzea eta EBErako interesgarriak ziren galde-erantzunak jasotzea eta txukuntzea zegoen. Zuzendaritzak, 2021. urtean onetsitako plan estrategikoaren testuinguruan, zerbitzua indartzea eta zeregin horretan jarduteko pertsona bat hartzea erabaki du. Horiek horrela, Isabel Arrigain da Jagonet zerbitzua artatzeaz arduratuko dena. Arrigainekin akordioa egin da eta asteen 2-3 egunez Luis Villasante Euskararen Ikerlanean lan egingo du. Halaber, koordinazioa egongo da Jagonet zerbitzuaren eta EBE Batzorde zein bestelako batzordeen artean, iristen diren galderen arabera. Gaiarekin amaitzeko, Zuzendaritzak eskerrak eman dizkio P. Rekalderi zerbitzu honetan eginiko lanagatik.

8.2 Lau erakusketa abian ditu Euskaltzaindiak

8.2.1 Jose Manuel Urtasun zildoztarraren jaiotzaren 250. urteurreneko ekitaldiak. Euskaltzaindiak eta Zildozko Kontzejuak elkarlanean antolatu dute **Jose Manuel eta Juan Manuel Urtasun Lakidain anaiei egingen zaien omenaldia**; Zildozko Perutxenean sortu ziren prediku-egile oparo horiek. Urteurren honetan jardunaldi bat antolatu da Zildozko elizan, azaroaren 26ko eguerdiko

12:00etan hasita, egile haiek, beren sortetxea eta zildoztarrak omentzeko. Bertan, Euskaltzaindia, kontzeju, udal eta gobernu ordezkariekin batera, bi hizlarik hartuko dute parte: alde batetik, Ekaitz Santazilia ikerlariak Perutxeneko Urtasun-Lakidain anaien bizitza eta obrari buruzko hitzaldia emanen du, eta, bestetik, Karmele Gil Ezkabarteko Mintzakide egitasmoaren arduradunak «Euskara Ezkabarten gaur egun» izanen du mintzagai. Horretaz gain, «Euskara Ezkabarten: paperetik ahora» erakusketa ikusgai izan da azaroaren 17tik 25era arte Arreko (Ezkabarte) Gizarte Etxean, euskarak Ezkabarte ibarrean izan duen lekua hobeki ezagutzeko.

8.2.2 Georges Lacomberen artxibo eta bibliotekari buruzko erakusketa ikusgai, Bergarako Olaso Dorrean. Euskaltzaindiak, Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak erakusketa antolatu dute Bergaran. Euskararen historia eta Euskal Herriaren historia ezagutzeko dokumentu ezinbestekoak gordetzen ditu artxiboak. Tartean, benetako harribitxiak daude: esaterako, Xahoren Kantutegi ospetsua eta Louis Lucien Bonaparteren gutunak. Honela, Ontzako Urrearen Truk erakusketak 10 panel eta beirazko arasa bi hartzen ditu, eta abenduaren 1era arte izango da ikusgai, Bergarako Olaso Dorrean. Erakusketaren osagarri, bi hitzaldi antolatu dira. Lehenengoa azaroaren 23an, 19:00etan: Jabier Kaltzakorta ikertzaile eta euskaltzain osoak Georges Lacomberen artxibo eta bibliotekaren nondik norakoak agertu ditu. Bigarren berbaldia azaroaren 29an izango da (19:00etan), eta bertan Pako Sudupe hizkuntzalari eta idazleak Telesforo Monzonen kulturgintza izango du mintzagai. Hitzaldi biak Olaso Dorrean izango dira.

8.2.3 «Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina» erakusketa Barañaingo Udal Liburutegian ikusgai. **Pirinioetan elkarrekin bizi diren hizkuntza guztien ezaugarri nagusiak eta mugarrak historikoak** biltzen dituen erakusketa da hau. Erakusketa 2023ko abenduaren 7ra arte izanen da ikusgai goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte. Inguruabar horretan, azaroaren 7an, arratsaldeko 19:00etan, «Euskara Pirinioetan: leku izenen bidez erdiets dezakegun argitasuna» hitzaldia eman zuen Patxi Salaberri euskaltzainak. Egitasmoa Barañaingo Udaleko Euskara zerbitzuarekin elkarlanean antolatu da eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jaso du.

8.2.4 Euskara Ibiltaria erakusketa Berako Kultur Etxean ikusgai, azaroaren 27tik aurrera. Euskaltzaindiak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlanean antolatu dute erakusketa hau eta Berako Udalak antolatzen duen Uscaldunac Garen Ezquero kultur ekimenean kokatzen da. Nafarroako

Gobernuaren finantzaketa jaso du. Programa horren barnean antolatu dira, besteak beste, herritarrentzako bisita gidatu irekia (azaroaren 29an, 18:30ean) eta «Euskararen hiru titiak eta bertze istorio miresgarri batzuk» kultur emanaldia (abenduaren 1ean, 19:00etan).

8.3 Banatuko diren liburuak

Euskera Ikerketa Aldizkariaren azken zenbakia banatu da. Hala berean, A. Urrutia euskaltzainburuak gainerako aldizkariak azaltzen diren rankingean *Euskera Ikerketa* Aldizkaria mailaz igotzeko eginiko ahaleginak laburbildu ditu, eta norabide horretan gonbita egin die euskaltzainei artikuluak bidal ditzaten.

8.4 Hurrengo hitzorduak eta bilkurak

- Pasa den urtean, azaroan onartu zenez, abenduan ez da osoko bilkurarik egingo.
- Hitzak Lege erakusketa Departamenduko artxiboetako Baionako gunean ikusgai izanen da 2024ko urtarrilean. Xehetasunak aurrerago emango dira.
- 2024ko urtarrilaren 26an, ostiralean, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 10:00etan, osoko bilkura egingo da. Egun eta toki berean, 12:00etan, 2023an hildako euskaltzainei omenaldia egiteko ageriko bilkura egingo da.

9. Azken ordukoak

Ez da izan.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

5. *Adierazpenak*

64. a

2023KO FRANTZIAKO TOURRAREN LEHENBIZIKO HIRU ETAPAK
EUSKAL HERRIAN IZANEN DIRENEZ GERO, EUSKARAK LEKU OSOA
IZAN DEZAN ESKAERA

(a. 1)

Christian Prudhomme jauna
ASO Tour de France-ko zuzendaria
40, Point du Jour Kaia
92100 Boulogne-Billancourt

Baionan, 2023ko urtarrilaren 11n

Zuzendari jauna:

Heldu diren uztailaren 1ean, 2an eta 3an, zuzentzen duzun 2023ko Frantziako Itzuliak Euskal Herrian Bilbon, Gasteizen, Donostian, Amorebietan eta Baionan gaindi, hiru etapa antolatuko dituela interes handiz jakin dugu.

Ez da lehen aldia Euskal Herriko bideetan gaindi ibiliko dela Frantziako Itzulia eta euskaldun jendeak Frantziako Itzulia kar handiz jarraitzen duela frankotan erakutsi du, are gehiago Euskal Herrian gaindi iragaiten delarik.

Euskaltzaindiak, Onura Publikoko Erakunde gisa aitortua den Euskararen Akademiak, eginbide du euskararen kalitatea, garapena eta erabilera gizartean zaintzea. Duen kargu horrengatik, oihartzun handiko 2023ko uztailaren 1, 2 eta 3ko etapetan euskarak bere tokia izan behar duela jakinarazi nahi dizugu eta ondoko eskaera egitera zuregana zuzentzen gatzazu.

Alabaina, iduritzen zaigu kirol egun handi haietan euskara ageri beharko dela etapa haien epe guzietan, hastapenean nola helmugan, izan dadin euskaldun hizlarien parte hartzearekin, seinaletikaren bitartez eta Frantziako Itzuliari buruzko euskarrietan euskarari toki emanaz. 2018 urtean Senpere eta Ezpeleta arteko etapan jadanik horrela jokatu zenuen eta aurten hobeki baizik ez gertatzea da nahi duguna.

Frantziako Itzulia enpresa handia dela badakigu eta aitzinean dituzun desafio guziei buru emateko indar handi bat egin behar duzula aintzat hartzen dugu. Indar berezia eskatuko dizu etapa horrek: hizlari euskaldun onak hautatzea, noiz non nola mintzatuko diren erabakitzea, seinaletikaren aldetik eta beste euskarrietan mezu elebidunak prestatzea eta abar. Dударik ez dugu aterabide atzemateko nahia eta ahala izanen dituzula: gure aldetik, laguntza osoa izanen duzu beharrezkoa izanen duzun ber.

Erran gabe doa gure eskaera zehaztu behar dela eta antolaketa horretan partaide izanen direla etapa horiek hunkitzen dituzten hautetsiak, erakundeetako arduradunak eta egiturak, hala nola herri ezberdinetako auzapezak, Hego Euskal Herrian, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lehendakari jauna, Ipar Euskal Herrian, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari jauna, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakari jauna, euskara zerbitzu ezberdinak, Euskal Konfederazioa, gure lurraldean bizikletaren alde jokatzeko duen Txirrindulari-Federazioa eta beste.

2018ko Tourrean bezala, gure eskaerak zure interesa piztuko duela esperantzaz gaude. Anartean, onartzekitu, Zuzendari jauna, gure goresmenik hoberenak.

Andres Urrutia, euskaltzainburuaren izenean
Battittu Coyos, euskaltzainburordea

(a. 2)

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakari jauna
2, Platanoen ibilbidea
64100 Baiona

Baionan, 2023ko urtarrilaren 31n

Lehendakari jauna:

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurak zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailaren 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailaren 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta Baiona (Lapurdi) artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailan, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere. Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari igorri diogun gutunaren kopia. Onar ezazu, lehendakari jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres Urrutia, euskaltzainburuaren izenean
Battittu Coyos, euskaltzainburordea

(a. 3)

Jean-René Etchegaray auzapez jaunari
Herriko Etxea
64100 Baiona

Baionan, 2023ko urtarrilaren 31n

Auzapez jauna:

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurak zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailaren 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailaren 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta Baiona (Lapurdi) hiriaren artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailan, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere.

Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari, igorri diogun gutunaren kopia.

Onar ezazu, Auzapez Jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres Urrutia, euskaltzainburuaren izenean
Battittu Coyos, euskaltzainburordea

(a. 4)

Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariari
15, Foch etorbidea
6400 Baiona

Baionan, 2023ko urtarrilaren 31n

Lehendakari jauna:

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurak zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailaren 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailaren 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta Baiona (Lapurdi) artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailan, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere.

Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari, igorri diogun gutunaren kopia.

Onar ezazu, Lehendakari Jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres Urrutia, euskaltzainburuaren izenean
Battittu Coyos, euskaltzainburordea

(a. 5)

Bingen Zupiria Gorostidi
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
EUSKO JAURLARITZA
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Bilbon, 2023ko otsailaren 15ean

Bingen agurgarria:

Zeuk ondo baino hobeto adierazi duzunez, 2023ko Tour delakoa Bilbotik abiatu eta Euskal Herriko errepideetatik zehar igaroko dela-eta, egundoko ahalegina egingo da, irteera aurreko 100 egunean egin ere, euskal jendeak txirrindularitzaren inguruan daukan zaletasuna eta jaidura erakutsi eta zaletasun horretaz goza dezan.

Eta «ongi eTOURri» leloak ederki darakutsanez, zalantza izpirik ez daukagu gure berezko hizkuntza ere gogotik aintzat hartu duzuela nazioarteko gertakuntza ospetsu horretan leku nabarmena izan dezan; orobat, jakinarazi nahi dizugu euskarak agerpen duina izan dezala eskatu diela Euskaltzaindiak zuzenean Tourraren antolatzaileei eta Ipar Euskal Herriko herri-administrazioei.

Horren haritik, zintzoki adierazi nahi dizut Euskararen Akademia bidelagun izango duzuela euskara agertzeko ahalegin horretan eta, hartara, zure esanetara gauzkazu egin dezakegun guztian laguntzeko, aurtengo Tourraren Grand Départ Pays Basque 2023 delako hori Euskararen Irteera Handi ere bilaka dadin.

Jaso ezazu besarkada handi bat.

Adeitasunez,

Andres Urrutia Badiola
Euskaltzainburua

64. b

DEMANDE POUR QUE LA LANGUE BASQUE AIT TOUTE SA PLACE
LORS DES TROIS PREMIÈRES ÉTAPES DU TOUR DE FRANCE 2023
QUI VONT SILLONNER LE PAYS BASQUE

(b. 1)

Monsieur Christian Prudhomme
Directeur de l'ASO Tour de France
40, Quai du Point du Jour
92100 Boulogne-Billancourt

Bayonne, le 11 janvier 2023

Monsieur le Directeur:

Nous avons appris avec intérêt que trois étapes du Tour de France que vous organisez et dirigez chaque été auront lieu en Pays Basque, entre Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et Bayonne, les 1, 2, et 3 juillet 2023.

Ce n'est pas la première fois que le Tour de France emprunte des routes en domaine basque et vous savez aussi combien le public basque montre son enthousiasme pour le Tour de France en général et plus particulièrement quand il a l'occasion de le voir passer sur nos terres.

Euskaltzaindia, l'Académie de la Langue Basque, établissement déclaré d'utilité publique, est soucieuse de la qualité de la langue basque et aussi de son développement au sein de la société. C'est la raison pour laquelle nous vous formulons la demande suivante.

Comme cela avait été organisé en 2018 lors de l'étape Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, il nous apparaît important que la langue basque ait toute sa place lors de ce rendez-vous sportif au grand retentissement.

Aussi, cette présence de la langue basque devrait être manifeste tant dans l'animation au départ, pendant la course et à la fin de l'épreuve, grâce au concours d'animateurs/trices ou speakers de langue basque, que dans la signalétique qui

devrait être bilingue, ainsi que dans les divers supports concernant les trois étapes de la course.

Nous savons que le Tour de France est une machine aux rouages complexes et que notre demande exigera de la part de tous des efforts particuliers pour une bonne organisation de la journée. Nous pensons aux interventions des speakers, aux informations de type signalétique et autres documents à réaliser. Mais nous ne doutons pas de votre capacité à trouver les solutions les meilleures.

Notre demande est bien entendu à préciser quant aux modalités d'application mais nous sommes à votre disposition pour vous apporter notre aide si elle vous est nécessaire, avec le concours des diverses autorités politiques concernées par l'évènement et de l'ensemble des mouvements culturels en Pays Basque. Nous pensons en particulier aux municipalités qui se trouvent sur le parcours de la course, au Président de la Communauté Autonome Basque, au Président de l'Agglomération Pays Basque, à l'Office Public de la Langue Basque, à l'association Euskal Konfederazioa, et aussi aux divers responsables de la Fédération Française de Cyclisme qui font vivre au quotidien cette activité sportive sur notre territoire.

Comme cela s'est produit en 2018, nous espérons que notre requête attirera votre attention. Nous vous remercions par avance de votre réponse et nous vous prions d'accepter, Monsieur le Directeur, nos meilleures salutations.

Pour Andres Urrutia, Président de l'Académie de la Langue Basque
Jean-Baptiste Coyos, Vice-président de l'Académie de la Langue Basque

(b. 2)

à Monsieur le président
de l'Office public de la langue basque
2, allée del Platanos
64100 Bayonne

Bayonne, le 31 janvier 2023

Mosieur le pésident:

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Sain-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyennes.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et des associations travaillant en faveur de la langue basque, afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veillez agréer, Monsieur le président, l'expression de mes sentiments respectueux.

Pour Andres Urrutia, Président de l'Académie de la Langue Basque
Jean-Baptiste Coyos, Vice-président de l'Académie de la Langue Basque

(b. 3)

Monsieur le président de la Communauté
d'agglomération Pays Basque
15, avenue Maréchal Foch
64100 Bayonne

Bayonne, le 31 janvier 2023

Monsieur le Président:

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation officielle du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, Directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyennes.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et des associations travaillant en faveur de la langue basque, afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veuillez agréer, Monsieur le Président, l'expression de mes sentiments respectueux.

Pour Andres Urrutia, Président de l'Académie de la Langue Basque
Jean-Baptiste Coyos, Vice-président de l'Académie de la Langue Basque

(b. 4)

M. Jean-René Etchegaray, Maire de Bayonne
Hôtel de Ville 64100 Bayonne
Bayonne, le 31 janvier 2023

Objet : Le Tour de France 2023 et la langue basque

Monsieur le Maire:

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation officielle du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne, la ville que vous administrez, lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la Langue Basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, Directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyennes.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et des associations travaillant en faveur de la langue basque afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veuillez agréer, Monsieur le Maire, l'expression de mes sentiments respectueux.

Pour Andres Urrutia, Président de l'Académie de la Langue Basque
Jean-Baptiste Coyos, Vice-président de l'Académie de la Langue Basque

65.

BARNEKO MEDIKU EGOILIARREK AZTERKETAK EUSKARAZ ERE EGIN AHAL IZATEA

Dakizun bezala, Estatuan urtero-urtero egiten dira Osasun Prestakuntza Espezializaturako sarbide-probak. Azterketa edo proba horiek gainditzea ezinbestekoa da Osasun-hezkuntza espezializatua eskuratzeko. Izan ere, graduatuok proba horietan lortzen dituzten emaitzek erabat baldintzatzen dute beren espezialitatearen hautaketa eta, beraz, beren etorkizuna.

2022. urtean, EAEn, 800 pertsona inguruk egin zituzten azterketa horiek, eta Nafarroan 594k. Gehienak medikuntzari loturiko azterketak izaten dira (BAME edo MIR). Proben deialdia eta prozedura guztia Ministerio de Sanidad, Consumo y Servicios Sociales deritzon ministerioaren Dirección General de Ordenación Profesional deituriko zuzendaritzaren ardurapean dago.

Une honetan, proba horiek guztiak gaztelaniaz egiten dira. Ondorioz, gradua euskaraz ikasten duten ikasleek desabantaila dute proba egitean, euskarazko terminologiarekin ohituta daudelako. Azterketa ohikoa ez den beste hizkuntza batean denbora gutxian egin behar dutenez, emaitza onak lortzeko errendimendua murriztu egin daiteke. Gainera, medikuntza eta erizaintza fakultatean egin diren iritzi-inkesta batzuen arabera, hainbat ikaslek medikuntza gradua gaztelaniaz ikastea erabakitzen dute, BAME-MIR azterketa gaztelaniaz egiten delako.

Horiek horrela, eskutitz honen bidez, zera eskatu nahi dizugu: zure eskuduntzen barruan eta toki egokian, proba hauek euskaraz egiteko aukera azter dezazun eta, hala erabakiz gero, dagokion erakundearen aurrean probak euskaraz ere egiteko eska dezazun. Kontuan izan gradua euskaraz egin duten eta Osasun Prestakuntza Espezializaturako sarbide-probak egiten dituztenek gure etorkizuneko profesionalak izango direla, eta osasun-arloan euskaraz lan egingo duten profesionalak nahi baditugu, ezinbestekoa dela ikasketen ibilbide osoa euskaraz egiteko aukera izatea.

Gure eskaria aintzat hartuko duzulakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
Euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

66.

2022KO APIRILAREN 13AN, EUSKO LEGEBILTZARREAN IZAPIDETU DEN KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUAREN LEGE-PROIEKTUAREN EZTABAIDARAKO EKARPENA

(1)

Iñigo Urkullu Renteria
Euskadiko Lehendakaria

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean

Lehendakari estimatua:

2022ko apirilaren 13an, Eusko Legebiltzarrean izapidetu den Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren lege-proiektua dela eta, non, besteak beste, herritarren hizkuntza eskubideak hizpide hartu diren, Euskaltzaindiak eztabaidarako ekarpena egin nahi du, Gernikako Estatutuaren arabera, hizkuntza kontuatarako erakunde aholku-emaile ofiziala den neurrian.

Herritarren hizkuntza-eskubideak jagotea garrantzi handiko kontua da, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eta areagotzeko, besteak beste, eremu sozioekonomikoan. Hori horrela, gaztelaniaz mintzatzen diren herritarren hizkuntza-eskubideak normaltasunez eta ohikotasunez errespetatzen diren bitartean, ez da berdina gertatzen ari zerbitzuak eta arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren kasuan. Estatutua idatzita dagoen eran, egoera hori betikotu dadin errazten du eta herri erakundeak, hizkuntza eskubideak betearaztearen erantzule direnak, arauak betearazteko eta herritarren eskubideak jagoteko heldulekurik gabe uzten ditu.

Gure iritzia da pertsuasioa eta sustapena direla eremu honetan lehenetsi beharreko bideak, baina antzeman daitekeenez, horiek ez dira aski, Euskararen Legea onartu eta berrogei urte pasatxo igaro direnean eta eremu sozioekonomikoan, bereziki, ahalmen handiena duten enpresa, zerbitzu, merkataritza-gune handi eta antzekoetan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez direnean.

Honi eransten dizut, beraz, Euskaltzaindiaren ekarpena, gogoeta egiteko eta ekintzarako baliagarria den neurrian, kontuan hartzeko modukoa izan daitekeena.

Besterik gabe, begirunez agurtzen zaitu,

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

(2)

Bakartxo Tejeria Otermin
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean

Legebiltzarreko lehendakari andrea:

2022ko apirilaren 13an, Eusko Legebiltzarrean izapidetu den Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren lege-proiektua dela eta, non, besteak beste, herritarren hizkuntza eskubideak hizpide hartu diren, Euskaltzaindiak eztabaidarako ekarpena egin nahi du, Gernikako Estatutuaren arabera, hizkuntza kontuatarako erakunde aholku-emaile ofiziala den neurrian.

Herritarren hizkuntza-eskubideak jagotea garrantzi handiko kontua da, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eta areagotzeko, besteak beste, eremu sozioekonomikoan. Hori horrela, gaztelaniaz mintzatzen diren herritarren hizkuntza-eskubideak normaltasunez eta ohikotasunez errespetatzen diren bitartean, ez da berdina gertatzen ari zerbitzuak eta arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren kasuan. Estatutua idatzita dagoen eran, egoera hori betikotu dadin errazten du eta herri erakundeak, hizkuntza eskubideak betearaztearen erantzule direnak, arauak betearazteko eta herritarren eskubideak jagoteko heldulekurik gabe uzten ditu.

Gure iritzia da pertsuasioa eta sustapena direla eremu honetan lehenetsi beharreko bideak, baina antzeman daitekeenez, horiek ez dira aski, Euskararen Legea onartu eta berrogei urte pasatxo igaro direnean eta eremu sozioekonomikoan, bereziki, ahalmen handiena duten enpresa, zerbitzu, merkataritza-gune handi eta antzekoetan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez direnean.

Honi eransten dizut, beraz, Euskaltzaindiaren ekarpena eta arren eskatzen dizut Eusko Legebiltzarreko taldeen artean bana dadin, beraien esku dagoelako, hein handi batean, neurriak hartzea herritar guztien eskubideak berdintasunez eta normaltasunez bidera daitezen. Besterik gabe, begirunez agurtzen zaitut.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

BATASUNAREN BIDEAN: EUSKARA BATUARI GORAZARREA

Donostian, 2023ko martxoaren 24an

Arratsalde on denoi!

Ikastolen Elkarateak eta Euskaltzaindiak euskara batuari gorazarre egin nahi izan diote gaur, Errenteria eta Donostia modu ikusgarrian lotu dituen giza kate erraldoiaren bidez. Kate horrek jarraitutasuna eta transmisioa irudikatu nahi izan ditu. Jarraitutasuna, euskara batua hezurmamitzeko, askotariko pertsonen, elkarre eta erakundeek urte askotan egin dituzten ahaleginen segida irudikatzeko. Transmisioa, iraunarazteko, garatzeko eta biziberritzeko, gure hizkuntzak belaunez belaun transmiti dadin behar-beharrezkoa duelako.

Hori horrela, Ikastolek eta Euskaltzaindiak euskara batuaren sorreran eta garapenean parte hartu zutenak ere omendu nahi izan dituzte Batasunaren bidean ekimenarekin. Hamabost lagun oroitu ditu ekimenak, aldi, lanbide, jatorri eta ibilbide desberdinetakoak. Beste 15 ere izan zitezkeen, euskara batua gaur bada, askoz ere pertsona gehiagori esker delako, besteren artean, herritar anonimo andanari esker.

Izan ere, euskararen batasuna herriaren borondatearen isla da. Herri honek beti izan du, sendoago edo apalago, bizirauteko grina. Belaunaldiz belaunaldi, guztion artean lortu dugu euskarari eustea eta bizitza modernorako prestatzea, eta hamarkada gutxi batzuetan ehundu dugu, gainera; beste hizkuntza hegemoniko askok, aldiz, mendeak behar izan dituzte horretarako.

Protagonista ugari izan ditu euskararen batasunak, batzuk ezagunak, beste batzuk ez hainbeste... baina guztion ekarpena izan da ezinbestekoa, batasuna zerbait izan bada herri honek hezurmamitu duen langintza kolektiboa izan baita, lurralde eta askotariko elkarre, erakunde eta pertsonak barruratu dituenak. Batasuna herri honek auzolanean egin duen egitasmorik handiena eta, duen eraginagatik, eraldatzaileena izan da, besteak beste, euskara eguneratzeko, biziberritzeko eta hiztun kopurua hazteko zimentarri nagusia bilakatu delako. Horregatik, hamaseigarren bat ere omendu nahi izan dute Ikastolen Elkarateak eta Euskaltzaindiak, hain zuzen, gu

geu, euskaldun guztiok, euskaraz mintzatuz, entzunez, irakurriz, idatziz, ikasiz, abestuz, jolastuz, egunetik egunera euskara biziberritzen dugulako.

Euskararen batasunak aldi desberdinak bizi izan ditu; gaur egun ere bide horretan sakontzen dihardugu euskara noranahikoagoa bilakatzen ari garen neurrian. Ezagutza hazi da... hazten ari da euskal lurralde guztietan. Toki batzuetan apalago, besteetan sendoago... segitu behar dugu euskara dakitenen kopurua gehitzen. Hala berean, jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egin behar dugu euskararen erabilera emendatzeko, bizitzaren arlo guztietan, lurralde guztietan, ezagutza hedatzearekin batera, erabilera delako euskara biziberritzeko heldulekurik sendoena eta beharrezkoena. Erabiltzen ez dena kamusten, ahazten eta galtzen delako! Izango da eredu bateratua eta tokian tokikoa kontrajartzen saiatzen dena, hori ez da auzia, euskararen biziraupena baizik. Tokian tokikoak eta eredu bateratuak elkar osatzen eta indartzen dute hizkuntza, egokitasunez erabiltzen ditugun neurrian. Are gehiago, kontuan har dezagun euskararen biziberritzea euskarak presentzia urria daukan herri eta hiri handietan ere gertatzen ari dela. Hori horrela, ezinbestekoa da eremu horietan eredu bateratua hedatzea eta sustatzea euskararen biziberritzeari bultzada emateko.

Denok eskuak lotuta euskararen alde jardun izan dugu gaur, auzolanean eta gogo betez, miraria da Euskal Herrian, denon artean, erdietsi duguna. Idazleek, itzultzaileek, hedabideek, ikastolek, eskolek, euskaltegiek, argitaletxeek, irakasleek, legelariak, zientzialariak... egin dutena, egin duguna.

Euskara guztiona eta guztiontzat da, eta, guztion egitekoa da gure aurrekoek gure esku utzitakoari geroa ziurtatzea. Euskarak badu oraina eta etorkizuna, elkarrekin, auzolanean, gogotsu, adoretu, irribarretsu, batasun giroan jardunez gero. Ekin eta jarrai!

Euskaltzaindiaren Zuzendaritza

68. a

UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN LANPOSTUAK ATXIKITZEKO
XEDEZ, JAKINTZA-EREMUAK EZARTZEN DITUEN ERREGE DEKRETU
PROIEKTUA (EDP)

Pedro Sánchez Pérez-Castejón jaun txit gorena,
Espainiako Gobernuko presidentea

Bilbon, 2023ko maiatzaren 4an

Espainiako Gobernuko presidente txit agurgarria:

Honako gutun hau idatzi dizut Euskaltzaindiaren kezka agertzeko, euskal hizkuntzari doakionez, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaila ofiziala denez gero, aztergai darabilzuen Unibertsitateko irakasleen lanpostuak atxikitzeke xedez, jakintza-eremuak ezartzen dituen Errege Dekretu Proiektua dela eta.

EDP horretan, 2. artikuluan, hain zuzen, ondoko epigrafeak baino ez dira jasotzen: xxxvii. *Hizkuntza modernoak eta beren literaturak* eta xxxviii. *Filologia hispanikoa, klasikoak eta antzinako mundukoak*. Hortaz, EDP delako horretan jasotako proposamenaren argitan, gure iritziz, Euskal Filologia jakintza-arloaren esparrua Filologia hispanikoaren edo, bestela, Hizkuntza modernoaren mende geratuko litzateke. Mendekotasun horrek, baina, ez dauka inolako justifikaziorik eta ulertezina da, ez baitu onartzen behar bezala ezarritako eta eraz bereizitako errealitate zientifiko eta akademikoa. Bestalde, ez da ahaztu behar humanitate-ikasketetako oinarritzko ikasgaia dela euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetan. Hortaz, Akademia honen aburuz, Euskal Filologiari aitorten zientifikoa eta ikusgarritasuna eman behar zaizkio nazioan eta nazioartean, Filologia hispanikoari, Filologia klasikoari eta estatuko gainerako hizkuntzei aitortzen zaien modu berean.

Esandako guztiagatik, Euskal Filologia EDP delakoaren 2. artikulua dakarren zerrendan, berariazko jakintza-arlotzat txertatzeko eskaera egin nahi dizu Akademia honek.

Gure iritzia kontuan hartuko duzulako esperantzaz, adeitasunez agurtzen zaitu.

Andres Urrutia Badiola
Euskaltzainburua

68. b

PROYECTO DE REAL DECRETO (PRD) POR EL QUE SE ESTABLECEN
LOS ÁMBITOS DE CONOCIMIENTO A EFECTOS DE LA ADSCRIPCIÓN
DE LOS PUESTOS DE TRABAJO DEL PROFESORADO UNIVERSITARIO

Excmo. Sr. D. Pedro Sánchez Pérez-Castejón
presidente del Gobierno de España

Bilbao, 4 de mayo de 2023

Excelentísimo señor presidente del Gobierno:

Le escribo esta carta para mostrar la preocupación de esta Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, institución consultiva oficial en lo que respecta a la lengua vasca, con motivo del Proyecto de Real Decreto por el que se establecen los ámbitos de conocimiento a efectos de adscripción de los puestos de trabajo del profesorado universitario.

En dicho PRD, en el art. 2 únicamente se recogen los epígrafes xxxvii. *Lenguas modernas y sus literaturas* y xxxviii. *Filologías hispánica, clásicas y del mundo antiguo*. A la luz de la propuesta recogida en el PDR, entendemos que el ámbito Filología vasca quedaría supeditado al de Filología hispánica o al de Lenguas modernas. Dicha supeditación resulta injustificada e incomprensible, en tanto en cuanto no reconoce una realidad científica y académica bien establecida y diferenciada. No debe olvidarse, además, que se trata de una materia básica de los estudios humanísticos de las zonas en que la lengua vasca es lengua oficial. Esta Academia entiende que a la Filología vasca se le debe otorgar el reconocimiento científico y la visibilidad que le corresponden en el espacio nacional e internacional, al igual que se reconoce la especificidad a la *Filología hispánica*, a la *Filología clásica* y a las correspondientes restantes lenguas del Estado.

Es por ello que esta Academia le solicita la inclusión de la Filología vasca como ámbito específico en el listado de ámbitos de conocimiento propuesto en el art. 2 del PRD.

Esperando que tenga en cuenta nuestra opinión, le saluda afectuosamente.

Andres Urrutia Badiola
Presidente de Euskaltzaindia - Real Academia de la Lengua Vasca

69. a

**EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK PROPOSATUTAKO
MAKROESKUALDE ATLANTIKOA ERATZEKO PROPOSAMENA
HIZTUN-ELKARTE TXIKIAGOTUAK INDARTZEKO AUKERA IZAN
DAITEKEELA USTE DU EUSKALTZAINDIK**

Iñigo Urkullu Renteria
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Bilbon, 2023ko maiatzaren 11n

Haren babesean, Arku Atlantikoan diren hiztun-elkarte txikiagotuak ezagutarazteko, beraien arteko harremanak sendotzeko, hizkuntza eta kulturen inguruabarrean, egitasmoak partekatzeko, ikerketa indartzeko eta ezagutzaren transferentzian lankidetzan jarduteko aukera balia dadila galdegin du.

Joan den martxoan, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Kantabriako, Asturiasko Printzerriko eta Galiziako presidenteekin batera, Makroeskualde Atlantikoa eratzeke eginiko proposamena begi onez eta aukera gisa ikusten du Euskaltzaindiak. Mugikortasunaren, energia trantsizioaren eta bestelako gaien eremuan ez ezik, Arku Atlantikoan bizi diren hiztun-elkarte txikiagotuak ikusarazteko eta biziberritzeko ere bai.

Ez da ahaztu behar eremu horretan, besteak beste, galizieraz, asturieraz, euskaraz, okzitanieraz edo bretoieraz hitz egiten duten milaka pertsona bizi direla eta hiztun-elkarte horiek hainbat errealitate dituztela, ezagutzaren, biziberritzearen eta aitortzaren ikusmoldetik. Gainera, badira hiztun-elkarte batzuk bizirik dirautenak estatu batean baino gehiagotan. Euskaltzaindia sortu zenetik, oso kontuan hartu du Akademiak euskara mugaz gaindiko hizkuntza dela eta euskararen lurralde guztietan lan egin behar dela hiztunen kopurua hazteko zein erabilera indartzeko; horren haritik, hiztun-elkarte guztiei dagokie gutxieneko aitortza biziberritzeko aukerak izan ditzaten.

Horiek horrela, Euskaltzaindiak I. Urkullu Lehendakariari eskatuko dio hizkuntza eta kultura txikiak (ere) kontuan har daitezen Makroeskualde Atlantikoaren zereginak finkatzen direnean. Era berean, Euskaltzaindia prest

dago, Makroeskualde horren altzoan, sare bat antolatzeke **Real Academia Galega, Academia de la Llingua Asturiana, Lo Congrès Permanent de la Lenga Occitana, Ofis Publik ar Brezhoneg** eta bestelako elkarte nahiz erakundeekin, hiztun-elkarte txikiak Europako erakundeetan ikusarazteko, haien arteko lankidetzan indartzeko, egitasmoak partekatzeko, bai eta pilatutako ezagutza transferitzeko ere, bereziki, teknologia berriak erabiliz.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritza

69. b

EN OPINIÓN DE EUSKALTZAINDIA, LA PROPUESTA DE CONSTITUCIÓN DE UNA MACRORREGIÓN ATLÁNTICA A INICIATIVA DEL LEHENDAKARI DEL GOBIERNO VASCO PUEDE SER UNA OPORTUNIDAD PARA FORTALECER LAS COMUNIDADES LINGÜÍSTICAS MINORIZADAS

Iñigo Urkullu Renteria
Presidente del Gobierno Vasco

Bilbao, 11 de mayo de 2023

Atendiendo a la misma, pide que se aproveche la ocasión para dar a conocer las comunidades lingüísticas que habitan en el Arco Atlántico, fortalecer sus relaciones, compartir proyectos en clave lingüística y cultural, reforzar la investigación y posibilitar la transferencia del conocimiento.

Euskaltzaindia ve con buenos ojos y considera como una oportunidad la propuesta de constitución de la Macrorregión Atlántica realizada el pasado mes de marzo por el Lehendakari Iñigo Urkullu, junto a los presidentes de Cantabria, Principado de Asturias y Galicia. Para la Academia, la propuesta no genera una oportunidad solamente en el ámbito de la movilidad y la transición energética, sino también en la visibilización y revitalización de las comunidades lingüísticas minorizadas que conviven en el Arco Atlántico.

No debemos olvidar que en dicha zona viven miles de hablantes de, entre otras lenguas, gallego, asturiano, euskera, occitano o bretón, y que esas comunidades lingüísticas viven realidades diferentes, desde la perspectiva del conocimiento, el reconocimiento y la revitalización de la lengua propia. Además, existen comunidades lingüísticas que perviven en más de un estado. Desde la creación de Euskaltzaindia, la Academia ha tenido muy en cuenta que el euskera es una lengua transfronteriza y que es necesario trabajar en todos los territorios del euskera, tanto para aumentar el número de hablantes como para reforzar su prestigio y uso social; en ese sentido, todas las comunidades lingüísticas necesitan un mínimo reconocimiento para que dispongan de oportunidades para su normalización.

Por lo antedicho, Euskaltzaindia solicitará al Lehendakari I. Urkullu que (también) se tengan en cuenta todas las lenguas y culturas minorizadas del Arco Atlántico a la hora de establecer las funciones de la Macrorregión Atlántica. Asimismo, Euskaltzaindia está dispuesta a organizarse en red junto a la **Real Academia Galega, la Academia de la Llingua Asturiana, Lo Congrès Permanent de la Lengua Occitana, Ofis Publik ar Brezhoneg** y otras asociaciones y entidades afines para dar visibilidad a las comunidades lingüísticas minoritarias y/o minorizadas en las instituciones europeas, reforzar la colaboración entre las mismas, compartir proyectos, así como transferir el conocimiento acumulado, principalmente, mediante el uso de las nuevas tecnologías.

Junta de Gobierno de Euskaltzaindia

6. Arauak

Exonomastika Batzordea

Azaroaren 21ean **195. araua** argitaratu zen: «**Artelanen izenak. Musika**».

Munduko artelanak euskaraz izendatzeko arauetako laugarrena da, artelanen arloko azkena. Haren aurretik, hiru hauek argitaratu dira:

- «Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak» (191. araua, 2019an).
- «Artelanen izenak. Arkitektura» (193. araua, 2021ean).
- «Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura» (194. araua, 2021ean).

195. arauaren lehen partean, musikako era guztietako konposizioen izenak idazteko irizpideak zehaztu dira: zer idazten den letra larriz eta zer ez, noiz erabili behar den letra etzana eta noiz komatxoak, noiz itzultzen diren musika-lan klasikoaren izenburuak eta noiz erabiltzen den jatorrizko izena; musika-generoak (fuga, suitea, kontzertua, sonata...), tonalitatea (mi minor, re maior...), *opus*-zenbakia...

Horretaz gainera, operak, balletak eta zarzuelak euskaraz izendatzean zer hartu behar den kontuan ere landu da, nazioarteko joerak kontuan izanik, adibide ugari azalduta.

Arauaren bigarren partean, musikako 75 artelan ezagun zerrendatu dira (euskarazko izena, jatorrizko izena eta egilearen izena zehaztuz):

- 1) Balletak: **Beltxargen aintzira**, **Intxaurhauskailua**...
- 2) Operak: **Figaroren ezteiak**, **Cavalleria rusticana**, **Bizarrurdinen gaztelua**, **Nabucco**...
- 3) Musika klasikoaren obrak: Vivaldiren **Lau urtaroak**; Dvořáken **Mundu Berriko sinfonia**; Bachen **Kontzertu italiarra** (BWV971); Haydnen **Sinfonia kontzertantea** (si bemol maiorrean...).

Euskarazko izendapenaz gainera, jatorrizko izena, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere eman dira.

2023ko albisteen kronika

7. Berriak eta omenaldiak

Euskaltzaindiak sortu dituen edo Erakundea ardatz izan duten berri garrantzitsuenak bildu ditugu atal honetan. Ugari eta askotarikoak dira Akademiak antolatzen dituen ekitaldiak; hargatik, hautaketa bat egin behar izan dugu. Hautatzea ez da erraza izaten, eta beti dakar zerbait albo batera uztea. Beraz, orri hauetara interesgarrienak iruditu zaizkigunak ekarri ditugu, eta jakina, agerkariaren zenbaki honetako beste atalen batean jada argitaratu izan ez direnak —sarrera-hitzaldiak, jardunaldiak, arauak, hilberri-txostenak eta abar— edo argitalpenen batean jaso ez direnak.

URTARRILA

Hitzak Lege erakusketa ibiltaria Bizkaiko Batzar Nagusietan

Erakusketa urtarilaren 20tik martxoaren 4a arte izango da Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan, bertan, **irudi eta grafikoak baliatuz, euskal historian garrantzia izan duten euskarazko testu juridikoak erakutsi dira**. Erakusketa ibiltaria Euskaltzaindiak antolatu du, Eusko Legebiltzarrarekin, Nafarroako Parlamentuarekin, eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Batzar Nagusiekin elkarlanean.

Aurkezpen-ekitaldian, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Andres Urrutia euskaltzainburua eta erakusketaren komisarioa, eta Gotzon Lobera legelaria eta erakusketaren koordinatzailea egon dira. Erakusketaren helburu nagusia da, Euskadiko eta Nafarroako bost Ganbera Legegileek eta Baionako Udalak gordeta dituzten euskarazko testu juridiko esanguratsuak modu

erakargarrian, ulergarrian eta interaktiboan erakustea.

Bizkaiko Ganbera Legegileak lagatako idazkien artean, Bizkaiko Foru Zaharra dago, 1452tik aurrera «lege konstituzionala eta kode zibil, penal eta prozesala» izatera iritsi zena, Otaduik gogorarazi duenez. Bizkaiko Batzar Nagusietatik irten den beste altxorretako bat, Bizenta Antonia Mogelen idazki bat da. Luis Borboikoa Toledoko kardinal eta artzapezpikuaren gutun pastorala —Fernando VII.ari jendaurrean babesa emateko idatzitakoa— 1820an euskaratu zuen lehenengo euskal emakume itzultzailea izan zen. Bakarrik Bilbon entzun ahal izango diren berrikuntzen artean, 1983ko maiatzaren 24an, Anton Aurre lehendakaria protagonista izan zuen Bizkaiko Batzar Nagusien aro demokratikoko euskarazko lehenengo berbaldiaren soinua da.

Erakusketak dokumentuen informazioa duten 14 panel fisiko ditu, hiru ataletan banatuta: aldean arteko harreman juridikoak, eragin kolektiboko testu juridikoak eta testu parajuridikokoak. Gainera, jatorrizko dokumentuak erakusteko, 2 panel elkarreragile, 3 panel argiztatu eta 2 bitrina egongo dira.

Hitzak Lege daborduko izan da Gasteizen eta Iruñean, Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan, hain zuzen ere.

Beñat Garaio, Eneko Iradier, Iñigo Arrazola, Maitane Basasoro eta Manu Araolaza nabarmendu dira Euskarazko Tesien VIII. Koldo Mitxelena sarietan

Azken bi urteotan (2020-2022), 86 tesi egin izan dira euskaraz Euskal Herriko Unibertsitatean, eta horietatik 44 VIII. Koldo Mitxelena sarietara aurkeztu dira.

Hona saridunak, jakintza-arloa: Arte eta Giza Zientzien arloan, Beñat Garaio Mendizabal; Ingeniaritza eta Arkitekturaren arloan, Eneko Iradier Gil; Zientzien arloan, Iñigo Arrazola Maiztegi; Osasun Zientzien arloan, Manu Araolaza Las; Gizarte eta Lege Zientzien arloan, Maitane Basasoro Ziganda.

Euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz, Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena sariak antolatzen dituzte Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarlanean. Aurtengo edizioa zortzigarrena da.

Sari-emate ekitaldia Euskaltzaindiaren egoitzan egin da, eta bertan izan dira Eva

Ferreira Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, Jesusmari Makazaga Euskal Herriko Unibertsitateko Euskarazko Aholkularitza eta Testugintzaren arloko zuzendaria, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Adolfo Arejita Euskaltzaindiaren idazkaria.

Gaur egun, esanguratsua da Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz eginiko doktorego-tesien kopurua. Esaterako, 2020-21 ikasturtean, 25 izan ziren euskaraz eginiko doktorego-tesiak, eta 2021-22 ikasturtean, 61. Guztira 86, eta horietatik 38 nazioartekoak izan dira.

Koldo Mitxelena euskaltzain eta EHU/UPVko irakasleak garrantzi eta esku-hartze handia izan zuen ibilbide horretan, eta haren izena eta izana gogoratzen dute sariok. Ezin ahaztu Mitxelenak batasunaren bidean eginiko ekarpena (besteak beste, Akademiak 1968ko Arantzazuko Txostena prestatzeko eskatu zion), haren asmo nagusia euskara noranahiko bihurtzea baitzen, goi-mailako ikerkuntzari dagokionez ere bai.

OTSAILA

Euskaltzaindiak webgunea osatu du, erabiltzaileen mesedetan

Webgunean honako argitalpen hauek gehitu dira: *Euskararen gramatika*, hildako euskaltzain guztien biografiak, *Adorez hiztegia* eta *Azkueren hiztegia* (*Euskaltzaindiaren Hiztegiaren barruan biak*), eta *Towards a Methodological Model for a Social History of Languages*.

Eta ondoko atal hauek ere eguneratu edo osatu dira: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* atala, *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) atala, *Euskal Onomastikaren Datutegia* (EODA) atala, eta webgunearen gatzelaniazko atala.

Euskaltzaindiak 2018an aurkeztu zuen jendaurrean webgune berria. Orduetik, urtero egin izan dira aldaketa txikiak, baina oraingo honetan harago joan da euskararen Akademia, eginiko aldaketak esanguratsuak eta mamitsuak baitira. Hala, Akademiak webgunea osatu duela esan daiteke, betiere erabiltzaileen mesedetan.

Ane Iriondok eta Odei Guiradok eskuratu dituzte 2023ko Mintzola ikerketasariak

Mintzola egitasmoaren bidez, Gipuzkoako Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren babesarekin, ikerketa sustatzeko bi deialdi egin zituen Euskaltzaindiak 2022ko urrian: bata, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu-amaierako bost lan saritzeko; eta bestea, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko bost ikerketa-lan edota master-amaierako lan saritzeko.

Deialdi batera zein bestera aurkeztutako lanak aztertu ondoren, gradu amaierako bi lan saritzeko erabakia hartu du epaimahaiak:

- Ane Iriondo Arizmendiren *Elgoibarko 16-30 urte bitarteko gazteen hizkuntza-mudantzak*.
- Odei Guirado Irasuegiren '*Pulunpa (e)ta Xin!*', *erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana*.

Odei Guiradok *Pulunpa (e)ta Xin!* murgiltze-plana jorratuko du bere gradu-amaierako lanean. Baina, zer da *Pulunpa (e)ta Xin! plana*? «Euskal Herrira iritsi berria den erdal jatorriko ikasleentzat garatutako harrera- eta murgiltze-plan integrala da», azaldu du Guiradok. Egitasmoa Ikastolen Hizkuntza Proiektuan kokatzen da eta Zirimola Ikastolen Aisialdi Proiektua du oinarri.

Lehen aldiz, iritsi berriak diren bi haurrei harrera egiteko, Orereta Ikastolan aplikatu da harrera-plana; zehazki LH 4 mailan. Ikertzailearen ustez, «esku-hartzearen ostean, emaitzek erakutsi dute egoki eragin daitekeela erdal jatorriko haurren euskalduntzean, euskararekiko, euskal kulturarekiko, eta komunitatearekiko atxikimendua sustatuz. Hain zuzen, euskaratik eta euskaraz ikastolako eremu informalak baliatuz, jolastuz, gozatuz, partekatuz, eta adimen emozionala landuz».

Elgoibarko 16-30 urte bitarteko gazteek dituzten hizkuntza mudantzak aztertu ditu Ane Iriondok. «Gazteok egoera ezberdinetan hizkuntza batetik bestera aldatzeko joera izaten dugu. Hizkuntza-aldaketa edota hizkuntza-mudantza horiek, bizitzako bost egoeratan edota taldetan sailkatzen dira: eskola, institutua, unibertsitatea, lan mundua eta maila pribatua. Ikerketa honetan 2., 3., eta 4. egoeretan jarriko dugu fokua, eta gazteen arteko hizkuntza aldaketa horietan, generoak, hezkuntzak eta inguruko pertsonak izango dira ardatz. Izan ere, gaur egun Elgoibarren,

emakumezkoen artean, euskaraz hitz egiteko eta momentu oro hizkuntza horretan aritzeko joera dago. Gizonezkoetan, ordea, kontrakoa gertatzen da: egoera ezberdinetan hizkuntza bat edo beste erabiltzen dute. Baina, joera horren ardatza hezkuntzan dagoela esan dezakegu, izan ere, umetan ikasitako eskolak asko baldintzatzen du». «Ikastolara euskaldun familiak joaten dira eta herri-eskolak, aldiz, etorkinen seme-alabak dira nagusi», azaldu du ikertzaile gipuzkoarrak.

Joan Arin Dorronsorearen *Material toponímico* bilduma-lana digitalizatu du Euskaltzaindiak

Udalak eta euskararen Akademiak 2020an izenpetutako hitzarmenari esker onomastika-ikerlari ataundarrak egin zuen toponimia bilketa-lana aztertu eta atontzeko aukera izan da azken urteotan.

Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-bekaren eskutik, Arinek bildutako toponimia digitalizatu da, baita ortografia aldetik egokitu ere.

Joan Arin Dorronsoro aitzindaria izan zen euskal toponimiaren ikerketan, leku-izenen ahozko nahiz idatzizko aipamenak, informazio geografikoa (krokisak) eta etimologia arloko azalpenak bateratu baitzituen.

Azken bi urteotan, Ataungo Udalak bidelagun izan du Euskaltzaindia euskara sustatzeko zereginetan. Elkarlan hori 2021eko Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-beka deritzon horretan gauzatu da. Ikerketa-bekaren babesean, Joan Arin Dorronsoro ataundarrak herrian egindako toponimia-bilketa aztertu eta digitalizatu da, baita ortografia egokitu ere, izenak erabilgarriak izan daitezen.

2020ko urrian, Ataungo Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzak-hitzarmena sinatu zuten. Ondoren, euskararen Akademiak bere gain hartu zuen bekaren zuzendaritza akademikoa, hain zuzen, Luis Mari Zaldia Etxabe euskaltzain urgazlearen eskutik. Era berean, Euskaltzaindiak Paskual Rekalde Irigoien euskaltzain osoa beka esleitzeko epaimahaiko eta lantaldeko kide izendatu zuen, eta Mikel Gorrotxategi Nietok, Onomastika zerbitzuaren arduradunak, egitasmoan behar zen aldiro parte hartzea onetsi. Bekadun Txema Zubizarreta Aranbarri hautatu zen, eta lanari 2021eko uztailaren 19an eman zitzaion hasiera.

Aurrera jarraitzeko nahia ere azaldu du Ataungo Udalak, Arinek bildutako hizkuntza-ondarea egungo mapetara ekarri nahi baitu; aurreko lanetan bezala, eginkizun honetan ere Euskaltzaindia izango du bidelagun.

Joan Arin Dorronsoro, herrikoentzat *Don Juan Txiki*, San Gregorio auzoko Telleriazpi baserrian jaio zen 1892an. Apaiz-ikasketak Gasteizen egin zituen eta, Araban —Artubiaga eta Garaio— bi urtez aritu ondoren, sorterrira itzuli zen. Bertan eman zuen bizitza osoa. Jose Migel Barandiaranen auzokidea ez ezik, haren lagun eta jarraitzailea ere izan zen. Horren lekuko dugu, Arin hiltzera zihoala, haren esku utzi zituen bere lan argitaragabe batzuk, lagunak noizbait plazara zitzan.

V. Lautan3 Antzerki Jaialdia

400 lagunetik gora bildu ditu Lautan3 Antzerki Jaialdiaren bosgarrenaldiak. Lau ostegunetan egin da (otsailaren 2an, 9an, 16an eta 23an), eta guztira 9 ekitaldi eskaini dira: sei antzezpen, solasaldi taularatu bat, irakurraldi dramatizatu bat eta Ganbila bildumaren aurkezpena.

Bilboko Udalak babesten du jaialdia, eta, urtero lez, Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu du egitaraua, hain zuzen, Café Bar Bilbao eta Bira Kulturgunearekin batera.

MARTXOA

Georges Lacombe funtsa eskuragarri Euskaltzaindiaren webgunean

Lacomberen artxiboan, guztira 18 azpifunts daude eskuragarri eta 2.000 dokumentu inguru digitalizatu dira. Hau guztia modu praktikoa eta atseginean kontsulta daiteke.

Euskararen historia eta Euskal Herriaren historia ezagutzeko dokumentu ezinbestekoak gorde ditu artxiboak. Besteak beste, Xahoren *Kantutegia* eta Louis Lucien Bonaparteren gutunak. Georges Lacomberen ondarearen jabea Olaso

Dorrea da, eta bitan banatu ohi da: biblioteka eta artxiboa. Biak digitalizatuta daude eta Euskaltzaindiak zaintzen ditu kopia digitalak. Orain, webgunean jarri ditu material osoa euskararen Akademiak.

Georges Lacombe euskararekin zerikusirik zeukan dokumentu oro biltzen saiatu zen bizitza osoan; horretarako, bere ondasunak erabili zituen oparo. Bereziki, hainbat funts artxibistiko erosi zituen, egileak hil ostean. Ondorioz, esan daiteke XIX. mendeko euskalaritzari buruzko funts nagusietakoa bildu zuela, agian nagusia, guztiz ezinbestekoa euskal kulturaren historia ezagutzeko.

Artxiboan euskalari nabarmen batzuen dokumentazioa jaso zuen, ondoko azpifuntsetan banatua:

- Joanes Artxu (1811-1881) eta Thomas Doucarrou.
- Louis Lucien Bonaparte printzea (1813-1891).
- Pierre Broussain (1859-1920).
- Jean-Baptiste Darricarrere (1844-1928).
- Edward Spencer Dodgson (1857-1922).
- Wilhem Jan van Eys (1825-1914).
- Hugo Schuchardt (1842-1927).
- Georges Lacomberen lanak (1879-1947).
- Jean-Dominique-Jules Salaberri (Ibarlakoa) (1839-1903).
- Joseph-Augustin Xaho (1811-1858).
- Urtubia etxeko artxiboa (1474-1829).
- Julien Vinson (1843-1926).
- Silvain Pouvrearen lanen kopiak (c. 1614-c. 1670).
- Bertsoak, kanta, askotariko paperak.

Jean Elizalde *Zerbitzari* omendu dute Azkainen

Euskaltzaindiak eta Azkaineko Herriko Etxeak Jean Elizalde *Zerbitzari* omendu dute jaioterrian. Idazle, apez eta euskaltzain izanaren lanaz, bizitzaz eta euskal literaturgintzan utzi duen arrastoaz luze-zabal aritu dira Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa, Pantxoa Etxegoin eta Jon Casenave euskaltzain urgazleak.

Iaz, *Zerbitzariren* lanik aipagarrienak liburu batean bildu zituen Jabier Kaltzakortak: *Zerbitzariren idazlan hautatuak*.

Bestalde, Jean Elizalde Zerbitzariren biografia Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daiteke.

Arikala, ikasleen artean lagunarteko euskara sustatzeko ikerketa-ekintza berritzailea

Egitasmo berritzaile honen bidez, ikasleei hizkera informalak euskaraz garatzeko tresnak eta estrategiak emango zaizkie. Ondoren, esku-hartze horiek duten eragina neurtuko da.

Ikastolen Elkartek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Euskaltzaindiak elkarlanean landuko dute ikerketa-ekintza berri hau.

Euskaltzaindiaren Luis Villasante Euskararen Ikerkuntzaren izan da agerpena, eta bertan izan dira Jose Luis Sukia Ikastolen Elkarteko zuzendari orokorra, Nagore Ipiña Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa (HUHEZI) eta Miriam Urkia Euskaltzaindiaren Iker sailburua eta Gipuzkoako ordezkaria. Arikala gauzatuko duen hitzarmena ere sinatu dute guztiek.

2022-23 ikasturtean hasi eta hiru ikasturtean zehar garatuko da Arikala Euskal Herri osoko 10 ikastolatan. 2022-23 ikasturtean LH 4. mailan, 2023-24 ikasturtean, LH 5. Mailan, eta 2024-25 ikasturtean, LH 6. mailan. Parte hartuko duten ikastolak hauexek izanen dira: Gipuzkoan, Haurtzaro eta Irura; Bizkaian, Abusu eta San Nicolas; Nafarroan, Jaso eta Lizarra; Araban, Assa eta Audio; eta Ipar Euskal Herrian, Kimua eta Garaziko Ikastola.

Gazteen ahozko komunikazioaren % 80 inguru betetzen badu ere, orain arte gutxi ikertu izan den arloa dugu hizkera informalarena. Arikala egitasmoaren bidez, ikastetxeetako eremu formalean zein aisialdian esku-hartze sistematizatu eta iraunkorrak gauzatzeko material didaktikoa diseinatuko da. Ondoren, material hori inplementatu eta inplementazioak ikasleen arteko hizkuntza-ohituretan izan duen eragina aztertuko da. Hartara, ikerketa honetatik ateratzen diren emaitzetatik abiatuta, etorkizunean materialak testuinguru berrietara eraman eta esku-hartzeen eragin-esparruak handitzeko aukera izanen da.

Euskaltzaindiak, 2022ko urtarrilean Mintzola egitasmoaren ardura hartu zuenetik, euskarazko ahozko jardunaren ikerketan, dibulgazioan eta sustapenean dihardu. «Eguneroko hizkera» deritzogun elkarrizketa-multzo eta jardunak —eremu ez-formalekoak gehienak— gure ahozko jardunaren zatirik handiena hartzen du. Mintzola egitasmoaren helburu nagusia hizkera hori aztertzea da, bai eta adierazkortasuna lantzeko tresnak garatzea ere.

Hitzak Lege erakusketa ibiltaria Gipuzkoako Batzar Nagusietan izango da martxoaren 14tik maiatzaren 12ra arte

Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Euskaltzaindiak Hitzak Lege erakusketa ibiltaria aurkeztu dute Batzar Nagusien egoitzan. Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzararekin, Nafarroako Parlamentuarekin, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiekin elkarlanean antolatutako proiektua da.

Aurkezpen ekitaldian, Xabier Ezeizabarrena Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria, Miriam Urkia Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria eta Iker sailburua, eta Gotzon Lobera legelaria eta erakusketaren koordinatzailea egon dira. Erakusketaren helburu nagusia da, Euskadiko eta Nafarroako bost Ganbera Legegileek eta Baionako Udalak gordeta dituzten euskarazko testu juridiko esanguratsuak modu erakargarrian, ulergarrian eta interaktiboan erakustea.

Erakusketak dokumentuen informazioa duten 14 panel fisiko ditu, hiru ataletan banatuta: aldean arteko harreman juridikoak, eragin kolektiboko testu juridikoak eta testu parajuridikokoak. Gainera, jatorrizko dokumentuak erakusteko, 2 panel elkarreragile, 3 panel argiztatu eta 2 bitrina egongo dira.

Gipuzkoari lotutako dokumentu esanguratsuen artean, honako hauek aurki ditzakegu: «Hiletaren ondorengo elizkizunak» (Bergarako Udalbatzaren 1783ko akta baten itzulpena); *Españiako uritar constitucionalen cartilla civila* (1820); Bergarako ituna (1839); Usurbilgo ordenanatzak (1888); edo Gipuzkoako Batzar Nagusietako dokumentuak (1979-2022).

Hitzak Lege jada izan da Gasteizen (Eusko Legebiltzarra), Iruñean (Nafarroako Parlamentua) eta Bilbon (Bizkaiko Batzar Nagusiak).

Ikastolek eta Euskaltzaindiak Batasunaren Bidean giza katea antolatu dute euskara batuari gorazarre egiteko

Ikastolek eta Euskaltzaindiak Batasunaren Bidean giza katea antolatu dute euskara batuari gorazarre egiteko. Ekitaldia Orereta Ikastolak sustatu du, eta ikastolen jai guztiek osatzen duten Ikastolak Herriari egitasmoak eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu dute.

Martxoaren 24an, Erreterria eta Donostia lotu dituzte 8.000 lagunek osatutako giza kate erraldoi batean, euskara batuak gure herriaren garapenean izan duen balioa azpimarratzeko eta euskara batuaren sorreran bultzatzaile izan zirenak oroitzeko. Milaka gazte, nerabe eta herritarrek osatu duen giza katea Erreterriako Gamon zumardian dagoen Koldo Mitxelenaren oroimenezko eskulturaren paretik abiatu da eta Donostiako udaletxe zaharraren eraikinaren perean amaitu.

Bidean, 8.226 metro eta Erreterria, Pasaia eta Donostiako hainbat kale eta plaza zeharkatu ditu giza kateak. Euskal Herri osoko ikastola ugaritako gazte eta nerabek osatu dute, parte hartu nahi izan duten herritar guztiekin batera.

Goizeko 11:00etan eman zaio hasiera giza kateari eta 11:30ak arte iraun du. Ibilbidean, bost gune egokitu izan dituzte antolatzaileek, eta horietako bakoitzean euskara batuari gorazarre egiteko ekitaldi bana egin da. Halaber, euskara batuaren sorreran eta gorpuztean nabarmendutako 15 pertsona zehatz oroitu ditu ekimenak, baina, sustatzaileek azpimarratu duten moduan: «Euskara batua gaur errealitate bada, askoz ere pertsona gehiagori esker izan da, eta horietako asko anonimoak dira. Beraz, esan dezakegu euskara batua herriak nahi izan duela, herriak sortu duela, eta herriak egin duela bere, erabileraren bidez». Gainera, ez dago euskara

batuaren sorrera adierazten duen historiako une bakarra. Aitzitik, une asko izan dira, zein baino zein beharrezkoagoa, eta horiek guztiek osatzen duten kontinuuma da giza kateak irudikatu nahi duena.

Aldi berean, euskara batuak herriari eman dion guzti horrek duen garrantzia azpimarratu nahi du ekitaldiak. «Euskarazko hezkuntza, komunikazioa, gizarte kohesioa edo euskal erakundeak, esaterako, ez lirateke gaur direnak izango, euskara baturik ez bagenu. Euskara batuari esker gara, eta garelako dugu euskara batua», gaineratu dute egitasmoaren sustatzaileek.

Zentzu horretan, ikastolek euskara batuari zor diotena eta euskara batuak ikastolei zor diena izan dira *Batasunaren Bidean* giza katearen oinarrietako bat. Transmisioaren garrantzia irudikatzeke, ekitaldiak ikasleak izan ditu protagonista. Horregatik, izaera koloretsu eta baikorra izan du ekimenak. Egun ikasten ari diren gazte eta gaztetxoei euskara batuak duen balioa helarazi, eta bera sortzeko testuinguru historikoa eta beraren bilakaera adierazi nahi izan zaie.

Gainera, Euskaltzaindiak herritar guztientzako prestatu duen dokumentua, «*Euskararen Batasuna. Euskarazko hiztun elkarte trinkotzeko, bizirauteko eta garatzeko giltzarria*» izenekoa, zabaldu da. Bertan, euskara batuaren sorreraren ibilbide historikoa ezaugarritzen duten gako nagusiak azaldu ditu Euskaltzaindiak.

***Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria* aldizkariaren bilduma osoa digitalizatu du Euskaltzaindiak**

Sü Azia elkartearekin partaidetzan eta Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin, Zuberoan, 1887. urtetik 1914. urtera argitaratu zen *Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria* aldizkariaren ale guztiak eskaneatu ditu euskararen Akademiak.

28 alez osatutako bildumak informazio osoki interesgarria eskaintzen du garaiko euskaldunen bizimoduez, gertakariez eta hitz egiteko moduez. Ale guztiak kalitate altuan numerizatu dira. Almanaka bakoitzak bere fitxa du eta artikulua guztiak katalogatu egin dira; ondorioz gaika ere kontsultak egin daitezke, gaurkibidearen bidez.

Lehen aldia da *Ziberouko Egunariaren* ale guztiak leku berdinean plazaratu direla. Guztira, 28 urtez argitaratu zen egunaria, zenbaki bat urteko. Dokumentu balios horiek euskarri digitalean kontsultatzeko aukerak euskara ikertzen edo gure hizkuntzarekin interesa duten euskaltzale zein ikerlariei tresna oparoa ematen die. Izan ere, berrogei bat orrialdeko urtekari horretan, garai hartaz, garaiko euskaldunen bizimoduez, gertakariez edo hitz egiteko moduez informazio ugari eskaintzen ditu; horrelako aipagaiak zituzten artikuluen idazle ziren katoliko horiek: lehenik, erran zahar zenbait; ondotik, urte berriko egutegia, eta jarraian hainbat artikulua, erlisioneaz, politikaz (*xurien* eta *gorrien* arteko guduen aipamenak), laborantzaz, euskaraz beraz eta abar. Zuberera aberatsa erabiltzen zuten eta oraingoa baino gutiago latinizatua. Urtekariaren zuzendari nagusia Jean-Félix Larrieu (1863-1941) mauletar euskaltzale suharra izan zen, Paris ondoko herri batean mediku, hautetsi eta auzapez izan zena. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 1919an.

APIRILA

Euskaltzaindia Sarako Idazleen Biltzarren berrogeigarren edizioan izanen da

Apirilaren 10ean eta 11n izan da Sarako Idazleen Biltzarra. 40 urte bete ditu egitasmoak, eta Euskaltzaindiak hastapenetatik parte hartu izan du azokan. Beti bezala, erakusmahaia jarri du Akademiak Sarako polikiroldegian, eta, horrez gain, aurkezpen-saioetan ere parte hartu du. Honela, apirilaren 10ean, 12:00etan, *Allande Socarros (1957-2021). Euskal idazlan eta lekukotasun* liburua aurkeztu du. Halaber, *Armanak Uskara edo Ziberouko Egunariaren* aldizkariaren bilduma osoaren digitalizazio-lanaren berri eman da. Bi proiektuak Sü Azia elkartearekin batera eta Euskararen Erakunde Publikoaren babesaz ondu ditu Euskaltzaindiak.

Allande Socarros euskaltzale eta euskaltzain urgazlearen ekarpenak laburbilduta daude liburuan, baina haren ikusmoldeak eta egintzak ez ahanzteko, Allanderi egin zizkioten elkarrizketa batzuk berrargitaratu dira. Gainera, ezagutu zuten lankide eta adiskide zenbaiten lekukotasunak bildu dira argitalpen bitxi honetara. Liburua eskuragarri dago Euskaltzaindiaren webgunean, *Argitalpenak* atalean.

Sü Azia elkartearekin lankidetzan eta Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzaz, Zuberoan, 1887. urtetik 1914. urtera argitaratu zen *Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria* aldizkariaren ale guztiak eskaneatu ditu euskararen Akademiak, eta bere webgunean eskegi, esku-eskura jarri. 28 alez osatutako bildumak informazio osoki interesgarria eskaintzen du garaiko euskaldunen bizimoduez, gertakariez eta hitz egiteko moduez.

Literatura solasaldia Baionako Euskal Museon

Ostegunean, apirilak 27 dituela, *Territoires, langues, littératures et cultures: Confrontations, lectures, translations* (euskaraz, *Lurraldeak, hizkuntzak, literaturak eta kulturak: Konfrontazioak, irakurketak, translazioak*) liburuaren aurkezpena izan da Baionako Euskal Museon. Parte hartu dute Aurelia Arkotxa euskaltzain oso eta liburuaren koordinatzaileak, Hervé Le Bihan Rennes-2 Unibertsitateko irakasle eta argitalpenaren beste koordinatzaileak, Miren Ibarluzea UPV/EHUko irakasleak, Itxaro Borda idazle eta euskaltzain osoak eta François Pic Wien Unibertsitateko irakasleak.

Liburua, aurretik ere aurkeztua izan da, Britainiako Carhaix herriko liburu-azokan, 2022ko urrian.

Pello Apezetxea Zubiri ikerketa-bekaren lehen edizioa abian

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Euskaltzaindiarekin elkarlanean, Pello Apezetxea Zubiri euskaltzalea omentzeko bekaren lehen edizioa antolatu du.

Deialdi honek bi helburu ditu: batetik, ikertzailea omentzea; bestetik, soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetako ikerketa-lan bat egiteko beka ematea.

Pello Apezetxea arlo aunitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen. Baina bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. 2004. urtean ohorezko euskaltzain izendatua izan zen.

Beka eman orduan, epaimahaiak inguruko errealitatearekiko hurbiltasuna eta

aukeratutako eremuan nahiz Bortzirietan aplikatzeko bideragarritasuna izanen du kontuan, besteak beste. Interesatuak banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izanen dira beka honen deialdira. Beka esleitu ondotik, bekadunek zortzi hilabeteko epea izanen dute ikerketa garatzeko. Bekadunak 7.000,00 euroko saria jasoko du egindako ikerketa lanarengatik.

MAIATZA

Lan «helduak» eta kontakizun «bizi-bizikiak» 2022ko R.M. Azkue Literatura Sarietan

Guztira 463 lan aurkeztu dira aldi honetan, eta epaimahaikideek idatzien heldutasuna eta kontakizunen bizitasuna nabarmendu dute.

A mailan (10 eta 13 urte bitarteko gazteen saila) Noa Martínez —narrazioan— eta Leire García de Bikuña —poesian— gailendu dira; B mailan (14 eta 17 urte bitartekoak) Nahia Iturbe izan da irabazlea narrazioan eta Iraide Mitxelena, poesian.

Aurten ere, Oiartzungo Haurtzaro Ikastola izan da lanik gehien aurkeztu duen ikastetxea, eta sari berezia jaso du horregatik.

Sariak emateko ekitaldian, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Koldo Bilbao BBKren Kultura Arloko arduradunak parte hartu dute.

Akademiak eta BBKk 1991tik antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusi. Bi genero saritzen dira Azkue sarietan: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat); eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat).

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatutakoak. Hauexek izan dira aurtengo epaimahaikideak: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria, Manu López Gaseni, Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

Euskarazko ahozko jarduna ikertzeko zortzi egitasmo saritu ditu Euskaltzaindiak

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko bi deialdi argitaratu zituen martxoan. Bat, gradu- eta master-amaierako zazpi lan saritzeko, eta bestea, hiru ikerketa-lan monografiko diruz laguntzeko. Denera, hamabi eskaera aurkeztu dira, eta epaimahaiak ondoko zortzi lan-egitasmoak saritzea erabaki du:

1. «Beasaingo gazteen kafe-tertulia» (Maddi Aiestaran).
2. «Adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktikoa: imitazio-jolasak» (Iñigo Otaegi eta Jon Basauri).
3. «Hizkuntza nahasmenduaren aztarna bila euskaraz: kasu-marka eta aditz-komunztadura» (Ainhoa Leiaristi).
4. «Iruñerriko gazteen hizkera» (Audrey Serrano).
5. «Ergatiboaren erabilera “euskara-gaztelania” kode-alternantzia: kasu-azterketa» (Endika Uriarte).
6. «Lexikoaren aldakortasuna Imozko hizkeran. Inkesta linguistikoak» (Alazne Fernández de Muniain).
7. «Aldudeko ibarreko euskara» (Oier Urreizti).
8. «Kode-alternantziaren erabilera eta jarrera euskaldunengan» (Mikel Pérez).

Gradu- eta master-amaierako lanak ondoko dituen ikertzaile bakoitzak 1.500 euro jasoko ditu, eta irailaren 29ra arteko epea dute proiektuak garatzeko.

Ikerketa-lan monografikoaren saridunak 3.000 euroko laguntza jasoko du eta 2024ko otsailaren 29ra bitarteko epealdia izango du ikerketa-lana entregatzeko.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean bitarteko pausu asko dago. Hartu beharreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua.

EKAINA

Euskaltzaindia Bilboko eta Ziburuko liburu-azoketan

Euskaltzaindiak erakusmahaiak jarriko ditu Bilboko eta Ziburuko liburu-azoketan. Bilboko 53. azoka ekainaren 1etik 11ra bitartean izan da zabalik; Ziburukoa, IV. Liburu eta Disko Azoka, ordea, ekainaren 3an izan da, egun osoz.

Akademiak argitaratu berri dituen lanak eta bere katalogoko lan aipagarrienak izan ditu salgai. Halaber, azoka bietan Euskaltzaindiaren argitalpen bat erosi duenak, *Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna* komikia eskuratu du doan.

UZTAILA

Euskaltzaindiaren hiztegiaren 646 forma gehitu dira eta 1.130 moldatu

Azken sei hilabeteotan, euskararen Akademiak 646 forma berri jaso ditu bere Hiztegiaren. Euskaltzaindiak etengabe osatzen eta berrikusten du Hiztegia, eta, jakina denez, urtean bitan sareratzen ditu berrikuntzak. 2016an —bigarren argitalpena paperean atera zenean— hasi eta gaur arte egiten du horrela, eta 2023ko lehen urte erdian eginiko lanaren emaitzak jasotzen ditu gaur sareratu den eguneratzeak.

Azken eguneraketan gehitu diren sarrera eta azpisarrera batzuk ditugu, kasurako, honako hauexek: JOÑO, KIETO, GUTASUN, NABARRISMO, PUPA, ZURGAI, MIKROMATXISMO, EUSKARA GAIZTO, DUDAN EGON, EGIA BERDADERO, POTT EMAN, POTT EGIN, OSTIA TXAR, NEGAR-MARRASKA, KOKORRERAINO, LIBURU ELEKTRONIKO, INDUKZIOZKO, AFARIKETAN...

Hartara, azken sei hilabeteotan 646 forma berri jaso ditu Euskaltzaindiak bere Hiztegiaren, hain zuzen ere, 295 sarrera eta 351 azpisarrera. Era berean, 1.130 forma moldatu edo findu ditu: 938 sarrera eta 192 azpisarrera.

Betiko legez, forma berriak landu dira, baina Miriam Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko arduradunak bestelako kontu batzuk azpimarratu ditu, sarritan oharkabean pasatzen direnak: «Forma berriak landu dira, bai, baina lehendik barruan zegoen informazioari ikusgarritasuna eman zaio eguneratze honetan: sarrerrak berrantolatu ditugu, ezkutuan gera zitekeen informazioa bistaratu dugu...

Adibideak ere berrikusi ditugu, batez ere genero-berdintasuni dagozkionak: emakumeen tratamendua, egungo errealitatea... Eta esaera zaharrak adibidetegitik atera ditugu eta aparteko atal batean jaso. Barruko garbiketa handia egin dugu».

Adibidez, lehen:

amatiar adj. *Amari dagokiona. Emaztea emakume zintzoa zen, gizonen gogoko dituzten dohainez betea: emetasun handikoa, amatiarra, fidela, etxeke andere bikaina.*

Eta orain:

amatiar adj. *Amari dagokiona. Kontuz ibiltzeko aholku amatiarrei entzungor, eskailera-mailak launaka jaitsi genituen.*

Euskera Ikerketa Aldizkariak webgune propioa dauka

Mundu akademikoetan erabiltzen den estandarretara egokitutako Open Journal System (OJS) egituraren txertaturik, <https://euskera-ikerketa.euskaltzaindia.eus> helbidean kontsultatu ahal izango da aldizkariari buruzko informazio oro. Hala nola helburuak, politika editoriala, idazketa-arauak, talde editoriala, argitaratu diren eduki guztiak eta abar. OJS sistemak erraztu egiten du aldizkariak datu-base eta bilaketa-motor desberdinetan indexatzea eta horrek areagotu egiten du aldizkariaren irisgarritasuna. Horretaz gainera, artikuluei esleitutako metadatuak esker, edukiak errazago aurkitu eta berreskuratu ahal izanen dira. Era honetara, hemendik aurrera datu-base akademikoetan informazioa eguneratuta egongo da eta irakurlearen esperientzia aberasgarriagoa izanen da.

Hainbat formatutan irakurtzeko aukera, egilearen gainontzeko artikuluetarako sarbidea eta aipua egiteko modu ezberdinak dira irakurleendako erabilgarritasun berriak, betiere aldizkariaren sarbide ireki eta doakoari eutsita.

Euskera Ikerketa Aldizkariak bi zenbaki argitaratuko ditu urtero. Lehena, urtarrila-ekaina aldiari dagokiona, eta bigarrena, uztaila-abendua aldikoa. Ikerketa-alorreko

edukiak ohiko bizitza akademiko arloetatik (sarrera-hitzaldiak, agiriak, txostenak, adierazpenak, jardunaldiak...) bereizteko helburuarekin sortu da *Euskera Ikerketa Aldizkaria*.

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala izan da 1920. urtetik 2022ra bitartean. Aldizkari horrek 100 urtetik gorako bizitza du eta aldi historiko batzuk izan ditu. Garai historiko desberdinetan argitaraturiko edukiak kontsultagai izanen dira webguneko Hemeroteca atalean. 2023tik aurrera, aldiz, bi argitalpen izanen dira: batetik, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* eta bestetik, *Euskaltzaindiaren Buletina*. Ikerketa aldizkariak, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasoko ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratuko da. Buletinak aldiz, Euskaltzaindiaren jarduna eta bizitza akademikoa bilduko du eta modu elektronikoan argitaratuko da.

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) eguneratu du Euskaltzaindiak

Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) 12. argitaraldia egin du euskararen Akademiak. Bertan, 52 sarrera eta 153 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) delako testu-kodeketaren arabera egituratutako 38.905 adibide berri agertzen dira.

Azkenik, *Pomier* deitu den 3.443 sarreradun «euskara-gaztelania» hiztegia, ustez 1.740 ingurukoa eta oraintsu arte argitaragabea, arakatu eta osorik sartu da.

Orotariko Euskal Hiztegiak (OEH) euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena. Euskaltzaindiak hemen eskaintzen duena Hiztegiaren oinarritzko bertsio elektronikoaren hamargarren argitaraldia da eta Creative Commons lizentziapean banatzen da.

Bertsio hau Hiztegiaren argitalpen elektronikoaren beste urrats bat da, 146.798 sarrera eta 57.955 azpisarrera biltzen dituen. Hiztegiaren egitura formala Text Encoding Initiative (TEI) gidalerroen arabera definitu da eta eduki gehienak automatikoki egituratu dira.

IRAILA

Joakin Lizarraga Elkanokoaren lexikoaren azterketari buruzko hitzaldiak antolatu ditu Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean

Heldu den irailaren 7ko eta 8ko bi hitzaldi horien gaia Joakin Lizarraga Elkanokoaren lana eta bizitza izanen dira, bai eta beronen lexikoaren azterketa ere.

Irailaren 7an, idazlearen bizitzaren nondik norakoak, obra, erabilitako idatzizko iturriak eta lexikoaren azterketa filologiko eta dialektologiko xeheak izanen dira aztergai.

Irailaren 8an, idazlearen biografia. Joakin Lizarraga euskal letretan ezagutzen den idazlerik oparoenetariko bat da, aproposa Nafarroa Garaiko euskara hobeki ezagutzeko.

Joakin Lizarraga edo Lizarraga Elkanokoa (Elkano, 1748 - Elkano, 1835) apaiz eta euskal idazlea izan zen. Garaiko idazle euskaldun garrantzitsuenetakoa, lanak hegoaldeko goi-nafarreraren Iruñerriko aldaeran idatzi zituen, orduko euskara jasoz. Garai bateko Iruñerri euskaldunean bizi ziren eliztarrei heziketa erlijiosoa eskaini ahal izateko, 5.000 orrialde inguru idatzi zituen eskuz eta euskaraz. Hizkuntzari dagokionez, oso aberatsa da Joakin Lizarragaren lanek eskaintzen duten informazioa.

Azkenik esan dezagun, hitzaldi bi hauetarako oinarri gisa erabili dela Ibai Iriarte Goñik, 2022an, Mendaurre bilduman argitaraturiko *Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa* liburua. Liburuaren argitaratzaileak Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua izan ziren.

Ettxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* aztergai Duzunaritze-Sarasketako Etxartian

Ostiralean, hilaren 15ean, Aurelia Arkotxa euskaltzain osoak eta Philippe Chareyre hizkuntzalariak euskaraz argitaratutako lehen liburuaren gakoak aztertu dituzte. Euskaltzaindiak Euskal Kultur Erakundearekin, Hergarai Bizi elkartearekin eta Naziogintza Taldearekin elkarlanean antolatu du solasaldia. Bernat Ettxepareren omenez iraganen den egitarau zabalago baten barruan antolatu da ekimen hau.

Linguae Vasconum Primitiae (Bordele, 1545) euskaraz argitaratutako lehen liburua dugu. Lanaren egilea Bernat Etxepare (edo «Bernard Dechepare», «Bernat D'Etchepare» eta «Beñat Etxepare» izen-formaz ere ezaguna) 1480. urte inguruan, Nafarroa Behereko Sarasketa udalerriko Etxeparen sortutako apaiz eta idazlea dugu. Erran daiteke, Bernat Etxepareren obra arrunt originala dela, jakinik hurrengo mendeko argitalpen denak erlisione edo liturgiazko gaien ingurukoak direla, eta gehienbat, itzulpenak. Gure idazlearena, aldiz, 15 poema osaturiko bilduma da, berorrek idatzitakoak, eta horietarik hamarren bat maitasun-harremanei buruzkoak dira (nahikoa harrigarria elizgizon izanik hura).

Euskaltzaindiaren webgunearen hizkuntza-baliabideak azaltzeko ikastaroa Baionan

Urriaren 4an izan da Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkari-tza eta Miriam Urkia, Andres Alberdi eta Battittu Coyos euskaltzain osoek eman dituzte azalpenak.

Ikastaroan Euskaltzaindiaren webgunea aurkeztu da eta bertan eskaintzen diren hizkuntza-baliabide nagusiak aztertu dira: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* atalaren erabilera, *Euskara Batuaren Eskuliburua* atalaren nondik norakoak, *Euskara Eskuz Esku* tresna, *Zalantzen Txokoaren* aurkezpena...

Ikastaroa hizkuntzalari, irakasle, itzultzaile eta kazetariei zuzenduta dago bereziki.

Etxarri Aranazko ikastolako ikasleekin topaketa eta herritarrendako jar-duera osagarria prestatu ditu Euskaltzaindiak, Nafarroa Oinez egitasmoarekin elkar-lanean

Heldu den urriaren 8an Etxarri Aranatzan izan den Nafarroako ikastolen aldeko jaiarekin bat egin du Euskaltzaindiak eta, irailaren 22an, Andra Mari Ikastolara egin du bisita, bertako ikastola eta ikasleak ezagutzeko asmoz.

Goizean Arruazuko udaletxera iritsi dira euskaltzainak eta, Zuzendaritzak lan saioa egin ondoren, Andra Mari Ikastolak bere gain hartzen dituen hamaika

herrietako udal ordezkariak hartu dituzte akademikoak. Ondoren, Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak batera, Ikastolara hurbildu dira ikasleei Akademiaren historia eta jarduna sakonago azaltzeko.

Arratsaldean herritar guztiendako solasaldia antolatu dute Sakanako Mankomunitatearekin elkarlanean. «Istorio bat opari» da solasaldiaren izenburua eta Dorleta Kortazarrek emango du; irakurgai onak aukeratzeko gomendioak jorratuko ditu.

xxi. mendeko euskal poesiak oraingoz eman duena aztertu du Irailekoak egitasmoak

Euskaltzaindiak antolatu du Irailekoak jaialdia, Lekeitioko Udalaren babesarekin. Antolakuntza-lanetan herriko hainbat eragilek parte hartu dute, tartean, Kitto merkatarien elkarteak, Sociedad Recreativak eta Lekitto Musika Bandak.

Iratxe Retolaza ikertzaile eta euskaltzain urgazleak eman dio hasiera Irailekoak poesia-jaialdiari, «Perimetro poetikoak xxi. mendean: neurtezinaren zirrimarrak» hitzaldi mamitsuarekin.

Hala, Irailekoak jaialdiaren lehen eguna hitzaldi mamitsu batekin estreinatu da, hain zuzen, I. Retolazak eman duen horrekin. Berbaldian, xxi. mendeko euskal poesiak oraingoz eman duena aztertu du. xxi. mendeko bi hamarkada hauetan Euskal Herrian aurrera egin duten askotariko estetika eta ikuspegiaren kartografia zabal bezain zehatza taxutu du ikerlariak bere hitzaldian, betiere ahaztu gabe poesiaren eremua «neurtezina eta mugagabea dela».

Hitzaldiaz gain, Lekeitioko hainbat tokitan errezitaldiak egin dira eta eurotan poeta ugariak parte hartu dute egunean zehar: Aritz Gorrotxategi, Nerea Arrien, Eric Dicharry, Beatriz Chivite, Itziar Ugarte, Jokin Erkoreka, Libe Goitia eta Martin Bidaurrek beren poemak irakurtzeko aukera izan dute, Inun musikariaren laguntzaz. Egunari amaiera emateko, Maite Larbururen kontzertua izan da San Jose edo Konpainiako elizan.

Biharamunean, solasaldi birekin itxi da Irailekoak, Sociedad Recreativaren

egoitzan. Lehenik, Antònia Vicens poeta eta idazlearen eta Iñigo Astiz idazlearen arteko solasaldia izan da; tarteka Vicensen poemak irakurri dira (katalanez eta euskaraz). Atsedenaldira labur baten ondoren, Mireia Calafell poeta katalanaren lana ezagutzeko parada izan dute zaleek. Itxaro Borda idazle eta euskaltzain osoak Calafell elkarriketatu du, eta horren poemak irakurriko dira, katalanez eta euskaraz.

URRIA

Kepa Altonaga eta Jabier Kaltzakortaren hitzaldiak Ondarearen Europako Jardunaldietan

Euskaltzaindiak bi hitzaldi mamitsu antolatu ditu Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, eta kontu immaterialak izan dira mintzagai berbaldira biotan, ekimen zabal honen aurtengo leloari jarraituz: «*Ondare Immaterialaren esparruak*».

Zaila da immateriala zer den deskribatzea, baina denok dakigu, intuizioz, zer den funtsean. Bi adibide aurkeztu dira hitzaldietan: batetik, ahoz aho transmititu diren bertso eta kantuak jorratu ditu Jabier Kaltzakorta ikertzaile eta euskaltzain osoak bere berbaldira, «*Ameriketako bertsoak aztertzen: Montevideoko joerak*» izenekoan, hain zuzen, Amerikari buruzkoak edo Ameriketara euskaraz konposatuak; eta bestetik, euskal idazle bizkaitar batzuen lana jorratu du Kepa Altonaga idazle eta euskaltzain urgazleak, «*Euskal idazleak 1914an: Zornotzako bazkaltzarak*» berbaldira.

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen ekimenegaz egiten dira, eta Europar parte-hartzaile gehien dituzten kultur ekitaldiak dira. Euskadin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek sustatzen dituzte eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza dute.

Mintzola udazkeneko ekimenak: ahozko hizkerari buruzko ikerketen mintegia eta gazteek euskarazko kultur sorkuntza gozatzeko bi aukera (Ahostegunak eta Ahots Baten)

Ikerketaren arloan, ikerketa-deialdien bidez saritutako gradu- eta master-amaierako lanen, ikerketa monografikoen eta beste erakunde batzuekin elkarlanean abiatutako ikerketen emaitzak izan dira hizpide urriaren 18an, Donostian, Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkartzan (Luis Villasante Euskararen Ikerkunea) antolatutako Mintzola mintegian. Goizean ahozko jardunari buruzko gradu- eta master-amaierako lanen, eta ikerketa lan monografikoen aurkezpenak egin dira. Arratsaldean, Arikalak –ikastetxeetan laguntzeko euskara sustatzeko ikerketa-ekintza– eta EHUKo irakasle-ikertzaileek hartu dute hitza. Azken hauek hitanoaren inguruko azterketaren nondik norakoak eta gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko desoreka euskal gazteen eguneroko hizkerarako adierazkortasunean ikerketaren ondorioak azaldu dituzte.

Sustapenaren alorrean, gazteak izan dira protagonista Mintzola udazkeneko bi ekimenetan: Ahostegunak eta Ahots Baten. Ahostegunak ekimenaren bidez, 18 eta 22 urte bitarteko gazteek bertsoez, literaturaz, kantuaz eta antzerkiaz gozatzeko aukera izan dute. Amaia Elizagoienek, Aner Peritzek, Itziar Telletxeak eta Oihana Aranak osatzen dute antolaketa-taldea eta aurtengo artista gonbidatuak, Ainhoa Larretxea, Sustrai Colina, Garazi Arrula eta Goxua'n Salsa taldea izan dira.

Ahostegunak ekimenaren ildo eta lantalde berarekin dator Ahots Baten sormen-egonaldia ere. Gabonetako oporraldian, abenduaren 26tik 30era, euskarazko ahozko sorkuntzan dabilen gazteak elkartu, beren arteko harreman-sareak ehundu eta adierazpide ezberdinak esperimentatzeko bilgune izan da Beizamako aterpetxea. Artista gonbidatuak ez dira nolanahikoak: Nerea Ibarzabal, Ane Labaka, Oier Zuñiga, Bea Egizabal, Gaizka Sarasola eta Martxel Rodríguez. Euskaltzaindiak Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen laguntza izan du bi ekimenok antolatzeko.

Iruñeko La Piel konpainiak jasoko du 2024ko Lautan3 diru-laguntza, «Beren izenez» lanagatik

Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko asmoz diru-laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Sari horren helburu nagusia euskarazko

antzerkia indartzea da, batez ere, lan laburren sorkuntzari bultzada emateko xedez.

Horretara, 2024ko Lautan3 diru-laguntza Iruñeko La Piel konpainiak irabazi du, «Beren izenez» lan laburrari esker. Konpainiak diru-laguntza eskuratu du eta antzezlan 2024ko otsailean antolatuko den VI. Lautan3 Antzerki Jaialdian estreinatuko da.

Epaimahaiko kideen (Café Bar Bilbao, Bira Kulturgunea eta Euskaltzaindia) arabera, «gidoi landua du antzezlanak, kolpe barregarritz beterikoa, absurdo samarra eta egoera are absurdoago batean gertatzen dena: pertsonaietako baten aitaren gaubeilan, hots, kartoizko hilkutxaren aurrean».

AZAROA

Pirinioetako Hizkuntzak: Lehena eta Oraina erakusketa Barañaingo Udal Liburutegian

Pirinioetan elkarrekin bizi diren hizkuntza guztien ezaugarri nagusiak eta mugarri historikoak biltzen dituen erakusketa da hau. Erakusketa azaroaren 3tik abenduaren 7ra arte izan da ikusgai.

Erakusketaren karira, azaroaren 7an, «Euskara Pirinioetan: leku izenen bidez erdiets dezakegun argitasuna» hitzaldia eman du Patxi Salaberri euskaltzainak.

Egitasmoa Barañaingo Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean antolatu da eta Nafarroako Gobernuaren finantziazioa jaso du.

Pirinioetako hizkuntzak, euskara izan ezik, latinetik datoz, betiere, tokian tokiko hizkuntzek aldatuta. Erakusketa honetan ikusgai izanen da, nola mendeetako prozesu hori dela eta, lurraldeari erreparatuta hurbil baina elkarrengandik oso berezita dauden hizkuntzak sortu diren. Literaturaren bidez, hizkuntza horiek aurrera egin dute, eta, aldi berean, aberastu eta beren muga linguistikoetatik kanpo zabaldu dira, kalitate artistikoa ere irabaziz.

Halaber, erakusketak hizkuntza horien ezaugarrietako batzuk eta beren historia-ren adierazpen garrantzitsuenak erakutsi ditu. Horretarako, hizkuntzok erabiltzen

dituzten herrietako bizitza sozialean daukaten erabileraren lekukotasunak eskaini dira, administrazioan, zientzian, irakaskuntzan eta, jakina, literatura-genero desberdinetan daukaten presentziaren adibideak emanez.

Georges Lacomberen artxiboari eta bibliotekari buruzko erakusketa, Bergarako Olaso Dorrean

Euskaltzaindiak, Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak erakusketa mamitsua aurkeztu dute Bergaran. Bertan, George Lacombe hizkuntzalari eta euskaltzain osoaren artxiboari eta bibliotekari buruzko jakingarriak eman dira, 10 paneletan banaturik; horrez gain, bi beira-arasa jarri dira, dokumentu eta liburu jakin batzuk erakusteko. Erakusketa abenduaren 1era arte izan da ikusgai, Bergarako Alde Zaharrean dagoen Olaso Dorrean.

Georges Lacombe euskarari lotutako dokumentu oro biltzen saiatu zen bizitza osoan; horretarako, bere ondasunak erabili zituen oparo. Bereziki, hainbat artxibofunts erosi zituen, biltzaileak hil ostean. Ondorioz, esan daiteke XIX. mendeko euskalaritzaren gaineko funts nagusietakoa bildu zuela, nagusia agian, guztiz ezinbestekoa euskal kulturaren historia ezagutzeko.

Agiritegiaren garrantziaz jabetzeko, hona hemen biltzen duen dokumentazioaren lagin bat, Euskaltzaindiaren webgunean ere kontsulta daitekeena: Joanes Artxu (1811-1881) eta Thomas Doucarrou; Louis Lucien Bonaparte printzea (1813-1891); Pierre Broussain (1859-1920); Jean-Baptiste Darricarrere (1844-1928); Edward Spencer Dodgson (1857-1922); Wilhem Jan van Eys (1825-1914); Hugo Schuchardt (1842-1927); Georges Lacomberen lanak (1879-1947); Jean-Dominique-Jules Salaberri (Ibarlakoa) (1839-1903); Joseph-Augustin Xaho (1811-1858); Urtubia etxeko artxiboa (1474-1829); Julien Vinson (1843-1926); Silvain Pouvrearen lanen kopiak (c. 1614-c. 1670); bertsoak, kanta, eta askotariko paperak.

Erakusketak Georges Lacombe, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuzaren biografia laburrak erakusten ditu, agiritegiak eginiko bidaia bitxiarekin batera. Ondoren, funtsaren atalak azaltzen dira, artxiboak gordetzen dituen dokumentu deigarrienak nabarmendurik, hots, Xahoren Kantutegi ospetsua eta Louis Lucien Bonaparteren Gutunak. Bi arasa ere jarri dira, bisitariak dokumentu eta liburu batzuk bertatik bertara ikus ditzaten.

Azkenik, bi hitzaldi antolatu dira, Lacomberen funtsaren garrantzia azaltzeko baliagarri izango direnak. Lehenengoa azaroaren 23an izan da: Jabier Kaltzakorta ikertzaile eta euskaltzain osoak Georges Lacomberen artxibo eta bibliotekaren nondik norakoak agertuko ditu. Bigarren berbaldia ere azaroan izan da, 29an, eta bertan Pako Sudupe hizkuntzalari eta idazleak Telesforo Monzonen kulturgintza izango du mintzagai.

Georges Lacombe (1879-1947) hizkuntzalaria izan zen, eta euskaltzain oso ia Euskaltzaindiaren sorreratik. Euskal Herrikan kanpo jaio zen Lacombe, Ortheze herrian, Bearnon, baina ama euskalduna zuen, Donapaleukoa (Nafarroa Beherea). Umetan ez zekien euskaraz, baina gaztetxotan ikasten hasi zen, amaren laguntzaz, eta guztiz menperatzera iritsi zen. Filosofia ikasi zuen Sorbonan, eta bertako giro intelektualean ibili zen urte askoan. Bizitza osoa eman zuen Paris eta Euskal Herriaren artean. Negua Parisen egiten zuen, eta udara Ipar Euskal Herrian, Baionan eta Alduden.

Euskarari lotutako lan ugari egin zituen. Aldudeko eta Zuberoako hizkerak aztertu zituen; euskal gramatikaren saiakera bat idatzi eta euskal idazle klasikoei buruzko lanak ere argitaratu zituen. Euskaltzaleen Biltzarreko kide eta buru izan zen, RIEV aldizkariko idazkari eta kolaboratzailea, eta garaiko giro euskaltzalean murgilduta egon zen, Eusko Ikaskuntza, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Cercle d'Etudes Euskarienes eta Musée Basquen, esaterako.

Asko idatzi zuen euskarari buruz, baina euskararen ezagutzari egindako ekarpen handiena, bilduma dokumental itzela osatu izana izan zen. Bizitza osoan zehar eskuratu eta gorde zituen askotariko dokumentuak Euskal Herriko hizkuntza, historia eta kulturari buruzkoak, eta berari esker heldu dira guganaino. XIX. eta XX. mendeetako euskalaritzaren gaineko funts nagusienetakoa atondu zuen, garrantzitsuena, agian.

Georges Lacomberen ondarearen jabea Olos Dorrea da, eta bitan banatu ohi da: artxiboa eta biblioteca. Bi-aki digitalizatuta daude eta Euskaltzaindiak zaintzen ditu kopia digitalak. Paperezko originalak, oster, bi lekutan daude: artxiboarenak Bergarako Olos Dorrean; eta bibliotekarenak Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteca eta Artxiboan, Akademiaren Bilboko egoitzan.

Gogoratu behar da, Georges Lacombe euskaltzain osoaren artxibo digitalizatua Euskaltzaindiaren webgunean ere kontsulta daitekeela.

Euskara Ibiltaria erakusketa Berako Kultur Etxean

Euskaltzaindiak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlanean antolatu dute erakusketa hau eta Berako Udalak antolatzen duen Uscaldunac Garen Ezquero kultur ekimenean kokatzen da. Nafarroako Gobernuaren finantziakoa jaso du.

Euskara Ibiltaria erakusketaren abiapuntua *Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA) da eta, atlasak bezala, euskararen aldakortasuna eta aberastasuna erakustea du helburu erakusketak (lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia). Hala, Euskaltzaindiak gizarteari itzuli egin nahi dio Atlas egiteko euskal gizartearengandik jasotako jakituria.

Horretarako, erakusketa bost atal nagusitan banatuta dago —1) Tokiak, 2) Materialak, 3) Argia eta soinuak, 4) Natura eta 5) Bizitza—, eta atal horietako bakoitzean Atlaseko mapen hautaketa bat erakusten da, bisitariari aldaera horiek era bisualean erakutsiko dizkiona. Horrez gain, erakusketak jokoak, animazioak eta entzungai gisako tresnak ere erabiltzen ditu herri-hizkeren aberastasun hori erakusteko.

Hedabideetan, helduen euskalduntzean eta administrazioan euskara bizi-berritzeko etorkizun-ikuspegiari buruzko ponentziak aztertu ditu Euskararen Gogoetagineak

Euskaltzaindiak 2022ko azaroan aurkeztu zuen jendaurrean *Euskararen Gogoetaginea*, euskararen etorkizun-ikuspegia landu eta luzaroko estrategiak zein adostasunak marrazteko arnasa luzeko egitasmoa. Urte horretan, euskararen biziberritze-prozesuan etorkizun-ikuspegi nagusia landu zen, eta aurrean, ordea, hainbat arlotako etorkizun-ikuspegi horri buruzko ponentziak landu dira. Horietako hiru Gasteizen aurkeztu dira, XXVIII. Jagon Jardunaldiaren esparruan. Euskaltzaindiaren Arabako ordezkari (Etxezarra eraikina) izan da jardunaldia, eta ponentzia horien inguruan eztabaidatzeko baliagarri izan da goiz osoko mintegia.

Euskararen Gogoetagineaz Euskaltzaindiaren Jagon Saila arduratzen da, eta hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak

arragoa batera biltzea du xede, ikuspegi desberdinak elkarriketan jartzeko moduko sinesgarritasunez.

Joan Arin Dorronsororen *Material toponímico* bilduma-lana eskuragarri dago Euskaltzaindiaren webgunean

Azken bi urteotan, Ataungo Udalak bidelagun izan du Euskaltzaindia euskara sustatzeko zereginean. Elkarlan horren eskutik etorri da egitasmo honen emaitza, hain zuzen, Joxemartin Apalategi Begiristain ikerketa-bekari esker. Honela, Joan Arin Dorronsoro ikerlari ataundarrak egin zuen toponimia bilketak-lana aztertu, atondu eta digitalizatu egin da.

Orain, azken pausoa eman dute Udalak eta euskararen Akademiak, lan hori guztiori euskal gizartearen eskura jarri. Gaurtik aurrera, Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai egongo da Dorronsororen ikerlan osoa, *Tokiko Onomastika Bildumak* atalean. Besteak beste, Dorronsorok eginiko krokisak agertzen dira bertan, eta materiala hiru modutara kontsulta daiteke: leku-izenak izaeraren arabera; kokalekuen arabera eta bilduma guztia alfabeto-ordenan.

ABENDUA

Lizardiren poesiaren bilduma berria plazaratuko du Euskaltzaindiak Durangoko Azokan

Euskaltzaindiak erakusmahaia jarri du 58. Durangoko Azokan, bere egitasmoak hauspotu eta argitalpenak erakusteko helburuaz.

Aurten, liburu interesgarri mardul bat aurkeztu du Landakon, hots, Xabier Lizardiren (Jose Maria Agirre) poesiaren bilduma berria: *Lizardi. Bihotz-begietan eta gainerako olerkiak, euskara batura hurbilduak*. Abenduaren 9an aurkeztu da jendaurrean eta ekitaldian Adolfo Arejita Euskaltzaindiaren idazkariak, Bakartxo Urruzola hizkuntzalariak eta Karlos Otegi liburuaren paratzaileak parte hartu dute.

Orain arte publikatu diren poema guztiak biltzen ditu argitalpen horrek eta, horrez gain, berriki berreskuratu diren beste bi olerki: «*Habiatxo*» eta «*Goiz-ibiltze*».

Lizardiren olerki guztiak idatzizko euskara batuaren eredura hurbildu ditu Karlos Otegi liburuaren prestatzaileak. Euskara batuan ohitu eta trebatu den irakurleari Lizardiren olerkiak bertsio gertuagoan eskaintzea da helburua.

Inprentatik atera berri diren beste liburu batzuk ere izan dira Euskaltzaindiaren Azokako erakusmahaian. Besteak beste, oraintsu Baionan aurkeztutako *Margarita Nafarroako erregina (1492-1549). Antzezlanak eta gutunak* (Ixabel Etxeberriak paratua), *Bonifacio Echegaray, promotor y defensor del euskera* (Lázaro Etzegarai eta Koldo Somokuetok paratua), *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoaren artean: Egoera eta aukera berriak* (2022ko Jagon Jardunaldiaren emaitza), *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811* (Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberriren ikerlana), *Creación, traducción, autotraducción* (Olga Anokhina eta Aurelia Arkotxa), eta, nola ez, *Euskara batuaren eskuliburuaren 5. argitaraldia*.

2023ko Pello Apezetxea Zubiri bekaren irabazleak

Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko jarrerak aztergai izan dira Pello Apezetxea Zubiri bekaren bigarren edizioan. Aurkeztutako sei proiektuetatik Paula Laita Pallaresek, Jon Martin Etxebestek eta Ane Osua Cabidak landutako «*Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak*» lana izan da puntuaziorik handiena lortu duen proiektua.

«Zerrenda» da urteko hitza Euskaltzaindia eta UZEIrentzat

Hamarkada bat baino gehiago joan da Euskaltzaindiak «**Gazako zerrenda**» forma arautu zuenetik, baina aurten ezohiko protagonismoa izan du toponimo horrek; bereziki, urriaz geroztik Palestinatik iristen ari diren albiste lazgarrien harira. Hedabideen bidez jarraitu ahal izan diren giza eskubideen urraketek zeresan handia eman dute nazioartean eta hizkuntza guztietan, baita euskaraz ere.

Hain zuzen ere, aurten «Gazako zerrenda» forma komunikabideetan hainbeste erabili izanak, zeharka bada ere, euskarazko ZERRENDA hitzak 'lursail luze eta estua' adiera ere baduela gogoratzeko bide eman du.

2023an omenduak izan diren kideak eta Akademiak berak omenduak

Euskaltzaindiak Akademiaren ikurra eman dio Gorka Urtaran Gasteizko alkateari

Euskaltzaindiak Gasteizko udaletxean egin du martxoko osoko bilkura, eta Akademiak aintzatetsi nahi izan du Gorka Urtaran hiriko alkateak urteetan euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko lan arduratsua. Horrela, osoko bilkura amaitu ostean, Euskaltzaindiaren ikurra jaso du Urtaranek Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskutik.

Jose Antonio Pascual hizkuntzalari eta ohorezko euskaltzaina *honoris causa* doktore izendatu du Bartzelonako Unibertsitateak

Filologia Erromanikoan doktorea da José Antonio Pascual, Salamancako Unibertsitateko eta Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakaslea eta Real Academia Españolako kidea. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2021eko azaroaren 26an.

Bilbo Zaharra Euskaltegiak Miren Agur Meabe omendu du Arriagako irakurraldian

Bilbo Zaharra Euskaltegiak antolatzen duen Klasikoen Irakurketak XVI. ahalegina egin du aurten, eta oraingo honetan Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain osoaren lan esanguratsu bat gogoratu eta hauspotu nahi izan dute, hain zuzen, *Kristalezko begi bat*. Trilogia baten lehen emaitza da eleberri hau eta orain dela hamar urte argitaratu zen, Susa argitaletxearen eskutik.

400 lagunek irakurri dute obra osoa, hitzez hitz, paragrafoz paragrafo, orriz orri, azken lerroraino: «Jazoerak azaltzeko modua, gogoeten sakontasun-maila, ahalkeari kontra egiteko esfortzua eta literatur estiloa guztiz loturik daude neure izaerari eta eskarmentuari. Horien arabera da testu hau atzenean botatzen ari den hatsa».

Ohi den bezala, Bilboko Arriaga Antzokian egin da irakurketa, eta bertan izan dira, beste askoren artean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Adolfo Arejita Euskaltzaindiaren idazkaria, Xabier Kintana euskaltzain emeritua eta Erramun Osa Akademiaren idazkariordea.

Euskaltzaindiak Jean Haritzelhar omendu du azaroaren 10ean, Baigorriin

Euskal Kultur Erakundearekin, Baigorriko Udalarekin eta Jean Haritschelhar katedrarekin elkarlanean antolatu du gorazarrea euskararen Akademiak.

«Jean Haritschelhar (1923-2013). Baigorriko seme, euskararen begirale» izenburuaren ildoan, euskaltzalearen bizitza eta jarduna aztertuko dute lau adituk: Antton Kurutzarri Euskal Elkargoko Hizkuntza Politikako arduradunak, Lourdes Otaegi EHUKo irakasle eta euskaltzain urgazleak, Peio Jorajuria kazetari eta euskaltzain urgazleak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Ondoren, Jean Haritzelhar iruditan gogoratzeko parada izan da, Euskal Kultur Erakundearen eskutik. Pantxoa Etxegoin EKEko zuzendari ohi eta euskaltzain urgazleak INAREN artxiboko bideo zati ezezagunak paratu eta pasadizoz jantzi ditu hizlarien artean.

Finean, Baigorriko Haritzak (Jean-Louis Davantek Haritzelharri jarri zion goitizenaz gogoratuz) gure hizkuntzaren alde egindako lan itzelaz oroitzeko eta herri honi emandako lan adar berriak eskertzeko aukera ezin hobea eskaini du topaldiak. Hitzen bidez, artxiboko irudiak baliatuz, Baigorriko semea, literatura gizona, kazetako luma, edota euskaltzainburua izan zenaz oroitzapenak partekatzeko eta zor zaion ekarpen handia eskertzeko abagunea, senide, lagun eta euskarazaleen arteko giro goxoan.

Arruazun, Jose Maria Satrustegi gogoan

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Arruazuko (Nafarroa) udaletxean egin du iraileko batzarra. Ostean, Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak hartzen dituen 14 herrietako ordezkariak hurbildu dira bertara. Baita ere Jose Maria Satrustegi euskaltzainaren senideak. «Arruazuko semea gure aita pontekoa izan zen, euskaltzale porrokatua eta eragile handia», esan zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak harrera-ekitaldian.

Ondoren, Andres Urrutiak eta Sagrario Aleman Akademiaren Nafarroako ordezkariak liburuak banatu zituzten udal ezberdinen ordezkarien artean. Euskaltzaindiak ere jaso zituen opariak: batetik, Arruazuko Idiazabal gazta ospetsua; eta, bestetik, kaiku erraldoi bat, Sakanako euskaraz idatzitako esaldi batekin apaindua.

8. Jardunaldiak

2023ko jardunaldien kronika

Streaming plataformetan euskarak izan beharko lukeen tokiaz hausnartzeko jardunaldia

Maiatzaren 4an izanen da, Iruñeko Kondestablearen Jauregian, Iruñeko Komunikabideak Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatua.

Arlo honetako profesional, komunikabide eta adituek gogoeta egin dute gaur egun esparru honek dituen beharren gainean. Euskal Herriatik kanpoko ereduak ezagutzeko aukera ere izan da.

Gaur egun, ikus-entzunezkoen arloa estrategikoa da gure hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan. Honela, eta bereziki *streaming* plataformei begiratzuz, bai legediak, bai eta gizartearen egoerak berak aurrean jartzen dizkiguten erronka eta zailtasunak izan dira hizpide jardunaldian.

Horretaz gainera, honako gai hauek ere aztertuko dira:

- Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren azterketa egingo da euskaratik abiatuta, eta profesional eta komunikabideek mahai-ingurua osatuko dute.
- Kataluniako Kultura Enpresen Institutuko Hizkuntza Politikak (ICEC) eta Filmin.cat plataformako esperientziak azalduko dira.

Hona hemen jardunaldian parte hartu dutenen zerrenda: Jon Artatxo Aurteneche, IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte); Alex Aginagalde López, Pantailak Euskaraz; Urtzi Urkizu Adrián, Berria; Francisco Vargas Etxeberria, ICEC (Institut Català de les Empreses Culturals); Jaume Ripoll Vaquer, Filmin.cat; Maite Goñi Eizmendi, ETB; Xabier Alkiza San Marcelo, Bikoiztaile Euskaldunen Elkarte; Gaizka Aranguren Urroz, Ikus-entzunezkoen Ekoizpen Naparra (NAPAR); Eki Pagoaga, Kanaldude; Iban Arantzabal Arrieta, Tokikom.

Jose Manuel Urtasun zildoztarraren jaiotzaren 250. urteurrenako ekitaldiak

Euskaltzaindiak eta Zildozko Kontzejuak elkarlanean antolatu dute Jose Manuel eta Juan Manuel Urtasun Lakidain anaiei eginen zaien omenaldia; Zildozko Perutxenean sortu ziren egile oparo horiek.

Urteurren honetan jardunaldi bat antolatu da Zildozko elizan, azaroaren 26an hasiko dena, egile haiek, beren sortetxea eta zildoztarrak berak omentzeko.

Bertan, herritar, udal- eta gobernu-ordezkariekin batera, Ekaitz Santazilia ikerlariak «Perutxeneko Urtasun-Lakidain anaien bizitza eta obra» hitzaldia emanen du, eta *Euskara Ezkabarten: Paperetik Ahora* erakusketaren bisita gidatua egin.

Euskara Ezkabarten: Paperetik Ahora erakusketa ikusgai izan da azaroaren 17tik 25era arte, Arreko (Ezkabarte) Gizarte Etxean, euskarak Ezkabarten izan duen lekua hobeki ezagutzeko.

Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak gogoeta egingo dute euskarak Justiziaren Administrazioan duen egoeraz eta euskara indarberritzeko marko estrategikoaz

Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak jardunaldi mamitsua antolatu dute SAFren egoitzan. Bertan, hizkuntza-zuzenbidearen bilakaera aztertu da batik bat, hau da, euskararen ikuspegitik hizkuntza-zuzenbideak duen egoeraz eta garrantziaz jardun dute hizlariak. **Miren Azkarate** euskaltzain osoak eta Sabino Arana Fundazioaren Patronatuko kideak aurkeztu ditu hizlariak, banan-banan, eta Andres Urrutiak esan du, zuzenbidearen bidez garatu diren legeak aurrera eramatea komeni dela, baina interpretazio gaurkotua emanez.

Aitor Esteban Kongresuko diputatuak Espainiako Erresumako hizkuntza-erregelamendua aztertu du, betiere Kongresuari eta Senatuari dagokienez. Gogoratu du, 2022ko ekainean PSOE Kongresuko araudia aldatzearen kontra egin zuela, hots, Kongresuan Estatuko hizkuntza koofizialen erabilera sartzeko aldatetaren kontra.

Jaime Tapia magistratuak «Euskara eta Justizia EAEn. Gogoeta» deritzon berbaldia eman du. Tapiak hitzaldiari hasiera eman dio esanez, etorkizunari

begira baikor azaltzen dela. Hauexek haren hitzak: «Gizarteak aldaketak eskatzen dituelako, eta eragile juridikoen euskararen aldeko joerak ere hori adierazten didalako. Horri gehitzen badiogu botere publikoek aldaketak egitearen aldeko borondate tinko eta irmoa erakutsi dutela, aurrera egingo dugula uste dut».

Baina onartu du, bestalde, azken 25 urteotan Justizian aldaketa gutxi izan direla. Zergatik? Bere ustez, «zenbait arazo politikoren erruz, botere judizialen agintean, Espainiako Gobernuaren eta Parlamentuaren borondate ezaren erruz». Salbuespen bakarra Eusko Jaurlaritza izan dela gehitu du. Ondoren esan du, lehen oztopoa desagertu egin dela, bigarrena politikoki konpon daitekeela eta hirugarrena ere gainditu ahal dela, «nahi izanez gero».

Andres Urrutia euskaltzainburuak euskararen Akademiak bideratu duen *Hizkuntza Zuzenbidea* proiektuaren sorrera azaldu du bere berbaldiaren sarreran: zergatiak eta helburuak. Helburuen artean bat nabarmendu du Urrutiak, hain zuzen, «hizkuntzei buruz eta beren-beregi euskarari buruz maila juridiko desberdinetan emandako araubideak euskaraz biltzea eta gizarteari eskaintzea».

Hizkuntza-eskubideen kontzeptuari buruz aritu da gero **Gotzon Lobera** legelari eta euskaltzain urgazlea. Laburbilduz, hizkuntza-eskubideak «kontzeptuaren eta haien hartzaileen ikuspegietatik» aldatu direla esan du legelari bizkaitarrak.

Azkenik, Elebidek eginiko ibilbidea eta etorkizuneko erronkak agertu ditu **Joseba Lozano** Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak. Lozanok gogoratu du, EAEko herritar guztiei hizkuntza-eskubide berak aitortzen zaizkiela, baina onartu du, halaber, «legezko berdintasun formalak talka egiten duela sarritan errealitatearekin», jakina denez, errealitatean euskara ahulago baitago, gaztelania baino. Ondorioz, hizlariaren ustez, «herritarrek egunero-egunero eta han-hemen sentitzen dute urratu egiten zaizkiela legez dagozkien hizkuntza-eskubideak».

Horretaz oharturik, EAEko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Elebide sortu zuen 2006an, hain zuzen, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua. «Tresna honek ispiluaren aurrean jartzen du Administrazioa egunero, eta herritarrei esaten zaie, gobernua hor dagoela guzti-guztien hizkuntza-eskubideak uneoro defendatzeko», Elebideren eginkizun nagusia baita «EAEko herritar guztien hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea».

Jardunaldiari segida emanez, abenduaren 23an, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak, Aroa eta Euskararen Gogoetagunea euskara indarberritzeko egitasmo sakonak aurkeztu dituzte.

Aroa euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduentzeko marko estrategikoa da, eta uztailan aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak estreinakoz, Gasteizen. Hamarkada baterako euskararen marko estrategikoa izango denaren zantzuak eman zituzten agerpenean. Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen eskutik dator Aroa, eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) ondorengo egitasmoa litzateke.

Euskararen Gogoetagunea, berriz, 2022ko azaroan aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, eta euskararen etorkizun-ikuspegia landu eta arnasa luzeko estrategiak eta adostasunak marrazteko xedea du.

Iñaki Martínez de Luna euskaltzain urgazleak ekimenaren helburuak azaldu ditu: «*Aroa* marko estrategikoaren bitartez hainbat dinamika areagotu nahi da, adibidez, ikasteko aukera gehiago eta errazagoak bultzatu; eguneroko harremanetan ekosistema euskaldunagoa sortu, bereziki gazteentzat; ingurune digitalean eta teknologia berrietan euskarak leku eta aukera handiagoak izan; lan-mundua erabiltzeko aukerak ugaritu; eta kontsumoan eskaintza gehiago eduki eta kontsumitzaileak aktibatu».

Honela, *Aroak* zazpi ardatz estrategiko eta hamalau erronka jasotzen ditu, eta horiek garatzeko 31 lan-ildo eta 85 ekimen ezarri dira. Hona hemen ezarritako ardatz estrategikoak, hemendik 2034ra arte lortu nahi den ikuspegia garatzeko baliatuko direnak: Gobernantza; Jarrerak/Motibazioak; Ezagutza/Gaitasuna; Erabilera/Elkarreragina; Berrikuntza; Ikerketa/Sistematizazioa; Komunikazioa/Hedapena.

«Ardatz estrategiko horietatik abiatuz, erakunde bakoitzak landuko du zein lan-ildo zehatz jorratuko duen», azpimarratu du Martínez de Lunak.

Jon Sarasua euskaltzain urgazleak *Euskararen Gogoetagunearen* ardatzak eta gogo-nahiak azaldu ditu: «xxi. mendeak galdegai berriak ekarri dizkio euskararen bidetari, eta une honetan norabide-krisi baten zantzuak bizi ditu. Abagune honetan, euskararen inguruko iritzi argitaratuak dibergentzia handi samarra agertzen du egoerari buruzko balorazioan, analisi eta planteamenduetan. Egoera

honen erdian, elementu baten falta sumatzen da: bisio edo etorkizun-ikuspegia, eta horretara norabidetutako “arnasa luzeko” estrategia nagusien marrazkia. Neurri batean, horretara dator egitasmo hau, arnasa luzeko estrategiak marraztera, etorkizun-ikuspegiarekin».

Honela, etorkizuneko asmoen berri eman du irakasle eta ikerlariak: «Hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak arragoa batera bildu nahi izan ditu guneak, ikuspegi desberdinak elkarriketan jartzeko moduko sinesgarritasunez». Diagnosien garaian dago Euskararen Gogoetagunea, eta, ondoren, «erakunde publiko, gizarte-erakunde eta gainerako eragileei dagokie haiek politikak erabakitzea», nabarmendu du Sarasuak, emaitzak «beran eskura, gizartearen eskura» jarriko direla aginduz.

Mahai-inguru batek eman dio azkena jardunaldiari. Solasaldian parte hartu dute, **Idurre Eskisabel** Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiak, **Irati Iziar** Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak, **Iñaki Arruti** Lasarte-Oriako Euskara zerbitzuburuak eta **Gonzalo Larruzea** Didaktika eta Eskola Antolakuntzako doktoreak. **Gotzon Hermosilla** *Berria* egunkariko kazetariak gidatu du mahai-ingurua.